

 **NAFARROA**
GELDIEZINA!



NAFARROAKO
PROGRAMA
2019

SARRERA

2015eko hauteskundeetarako programako proposamenetan, hainbat helburu orokor ezarri genituen foru-erakundeetan aldaketa politiko eta soziala egituratu osterako. Helburu horietako asko eta asko bete egin dira, dela dagoeneko gauzatuta daudelako, dela gauzatzeko bidean direlako. Era berean, jakitun gaude beste batzuk ez direla bete, baina esana dugu, eta berriz diogu, haien lorpenerako bidea norabide onetik joan dela eta doala. Jakin badakigu halaber, bide hori ez dela amaitu, ez dagoela agortuta; alderantziz, asko dugu egiteko oraindik.

Laburbilduta, zazpi helburu orokor hauek ezarri genituen bukatu berri den legealdirako:

- a).-Gardentasuna, demokratizazioa eta ustelkeriarik eza.
- b).-Eskubide guztiak pertsona guztiontzat. Ekitatea, duintasuna eta diskriminaziorik eza.
- c).-Murrizketak leheneratzea: oinarritzko zerbitzu publiko duinak babestuz.
- d).-Aberastasunaren banaketa bidezkoagoa, zerga-erreforma progresista bultzatuz.
- e).-Lurraldeari dagokionez, iraunkortasuna eta oreka.
- d).-Bakeranzko bide nafarra jorratu, bakearen aldeko memoria eta lan inklusiboak garatuz.
- e).-Burujabetzaranzko urratsak egin, gurean dagoen errealitate politiko eta instituzionala oinarri, hitza Nafarroako jendarteari emateko.

Onartu beharra dago helburu horietako bakoitzaren emaitzak ez direla izan berdinak, eta ez direla sakontasun berarekin lortu. Batzuetan, gaiak askoz ere gehiago landu dira, eta, hala, emaitzek gehiago ase dute hasierako asmoa; beste batzuetan, aldiz, ez dira bete aldaketak eragin zituen itzaropen guztiak.

Alabaina, lau urteko ibilbide honen ondoren, zeinetan “aldaketa sozialetik eremu instituzionalerako” jauzia egin den, esan behar dugu merezi izan duela, Nafarroa eraldatzeko ahalegin kolektiboa, 2015eko maiatzeko foru-hauteskundeek ekarri zuten auzolan masiboa, inoiz baino biziago dagoela; bere baitan batera daude, zein bere kontraesan eta tentsioekin, urte hauetan ikusi dugun bezala, erakundeen lana eta herritarren jarduera.

Herri-mugimenduaren eta erakunde “ireki eta demokratikoen” arteko harremanak zentzu eraikitzaileagoan garatu behar ditugu; sor daitekeen tentsioari sormenaren ikuspegitik heldu behar diogu, ziur baikaude eremu horien bien arteko dialektika erabakigarria dela aldaketak berekin dakarren demokratizazio- eta eraldaketa-prozesuan aurrera egiteko.

Beharrezkoa da legealdi berrian, 2019an abiatuko den honetan, gai izatea aldaketaren erritmoa bizkortzeko, gertuago egon gaitezen helburu orokorrak eta programa honetan jasotako proposamenak betetzetik. Argi eta itzalen balantzea eginda (gehiago eta hobeak lehenengoak), aldaketaren bigarren legealdi honetan sakontzen, hedatzen eta irekitzen jarraitu behar dugu, urrats gehiago egin behar ditugu bide itzulezina izan dadin. Ahaztu barik, une oro, aldaketa prozesu emantzipatzailetzat jotzen dugula, pixkanaka-pixkanaka eta epe luzera burutu beharrezkoa bera.

Horregatik guztiagatik, hauteskunde-proposamenen agiri honen xedea da, 2015ean bezala, aire garbia ekarriko duen ufada izatea, Nafarroa aldatzen segitzeko haizeteari indarra emango diona.

NAFARROA **GELDIEZINA!**

Etorkizuneko Nafarroa	04
Nafarroa duina	48
Nafarroa justua eta aurreratua	76
Nafarroa jasangarria	114
Nafarroa demokratikoa	131



Etorkizueko Nafarroa

Hezkuntza	05
Unibertsitatea	10
Kultura	12
Hizkuntza Politika	16
Migrazioak	22
Aniztasun sexuala	27
Politika Feminista	30
Gazte politika	37
Kirola	41

ehbildu

HEZKUNTZA

SARRERA

Hezkuntza burujabe, publiko, doako, laiko, kalitatezko, unibertsal eta feminista baten alde lan egingo dugu esparru instituzional zein sozialean.

LOMCE legea bere osotasunean bertan behera geratzea izango dugu helburu, eta estatutik eratorritako lege zein eraso eta saiakera zentralista berrien aurrean erne eta irmo jokatu dugu. Espainiar publikotasun zentralistari gure eredu herritarraz eraikuntza klabeetan ihardetsiko diogu. Ildo honetan, Hezkuntza Lege propioa egiteko prozesua jarriko dugu martxan, hezkuntza komunitatea eta gainontzeko eragile sozial eta politikoen parte hartzea aintzat hartuta.

Horrela, Hezkuntzan erabateko autonomia eta antolamendu propioa izatearen aldeko urratsak emanen ditugu, hezkuntza sistema, burujabetasunez, bertatik, eraikitzeke neurriak hartzen joan gaitezen, baita lege arrotzei erantzunez ere. Hezkuntza publiko burujabea helburu, inposatutako ereduaren aurrean gure alternatiba eraikitzearen alde arituko gara: euskarazko murgiltze ereduaren alde, curriculum propioa garatuz, metodologia aktiboetan sakonduz, pedagogia feministak eta hezkidetzazabalduz, benetako inklusioa txertatuz, laikotasun erreala bilatuz, gardentasuna eta parte hartzea galdeginez, herritartasunerako konpromisoa bultzatuz.

Balore hauekiko atxikimendua erakutsiko luketen hezkuntza komunitateko kide, ikastetxe eta herri eragileak elkarlanean arituko dira.

Era berean, herri hezitzaileen proiektua eta filosofia gure eginen dugu. Hezkuntza herritar ororen ardura dela ulertarazi eta haurra, euskara eta parte hartzea erdigunean kokatuz, ekimenak bultzatuko ditugu. Orain arte ildo horretan Nafarroako hainbat udalerritan egiten ari diren dinamiken berri emateko eta elkar ezagutzarako foroak bultzatuko ditugu, gure udal ordezkariak baliatuz. Aisialdi taldeak eta beste hainbat hezkuntza zein euskara, kultura, feminismo, kirol... eragile bidelagun izatea lortu beharko genuke. Sinergia eta batasun horren ondorioz, herri hezitzaileen sare zabala lortuz.

2019-2023KO LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

- **Hezkuntzak finantzazio duina izan dezan bermatu.** Urtez urte urratsak emango dira finantzazioa nazioartean markatzen diren aurrekontuen portzentajeetara irits dadin.

- **LOMCEren aurkako jarrera irmoa eta Nafarroako Hezkuntza Foru Legea egiteko prozesu parte hartzailea abian jarri,** Nafarroako errealitatea, beharrak eta erronkak ardatz izango dituen.

- **Irakasle eta langileen baldintzak hobetzeko neurriak.** Hezkuntza Itunean hartutako konpromisoak bete eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen ordu lektiboak jaitsi.

- **Zerrenda bakarra lehenetsi,** integratzaile eta inklusiboa baita, eta funtzio publikoan sartu ahal izateko irakasleen berdintasun-aukera bermatzen duen zerrenda baita.

- **Irakasleen etengabeko formazioa bultzatu.**

Sarean lan egitea eta ikastetxeen arteko esperientzia eta praktika onen trukaketak bultzatzeko proiektu eta programak. Irakasleei Laguntza emateko Zentroen egoeraren azterketa egiten dugu, beharraz identifikatu eta berauen egitura indartze aldera. Lehentasuna izanen dute berdintasun eta hezkidetzazko arloak, gatazken trataera baketsuak eta emozioen kudeaketa positiboak. Era berean, eredu metodologiko eta pedagogiko berritzaileak sustatuko dira, ikasleen aniztasunari erantzuteko eta ikasleek rol aktiboagoa garatzeko aukerak emango dituztenak.

Guraso eskolak sustatu eta euren kezkek, zalantzak, nahiak eta esperientziak trukatzeko guneak ahalbidetu.

-Segregazio oro gaitutako duen hezkuntza eta eskola-mapa bultzatu.

Segregazio soziala, jatorriaren arabera, gaitasun ezberdinak dituzten pertsonetarako, ikasleen medikaziotik eratorritakoa, generoaren segregazioa, hizkuntza ereduen arabera antolatutako sistemaren ondorioz ematen direnak... gaitutako dituen hezkuntza ereduak bultzatuko dugu. Eskola mapak irizpide horri erantzuteko neurriak hartuko dira, baita eskola kontzertatuekin ere.

Aniztasunari Erantzuteko Plana garatuko da, behar dituen baliabideak esleituta, eta horren baitan, ikastetxeen esku jarriko dira kultur aniztasunaren trataera egokia bermatzeko beharrezkoak diren bitartekoak.

- **Hezkuntza sistema laikoa defendatu.** Erljioa eremu pribatua gera dadin beharrezko neurriak hartuko ditugu eta, gutxienean, derrigorrezkoa den ordu lektibo bakarrera mugatu eta murriztuko dugu.

- **Lehen eta Bigarren Hezkuntzan gorputz heziketari ordu lektibo bat gehiago eman curriculumean.** Haurren sozializazioa eta ohitura osasungarriak bultzatzeko, sedentarisismoari aurre egin eta obesitatea eta diabetes pediatrikoaren prebentziorako ezinbesteko neurritzat jotzen dugu.

- **Hezikidetzari bultzada irmoa eman, ikuspegi feminista txertatuz eta beharrezkoak diren baliabide guztiak esleituta.** Eskola programa oinarri hartuta, ikasleen artean berdintasunean eman beharrezko errespetuzko harremanak sustatuko dira, ikasleen ahalgaitasuna sustatuz, genero indarkeria eta LGTBifobia prebentzioa landuko da, bai eta heziketa afektibo-sexuala, bizitza sexual eta afektibo osasungarria eta egokia izateko gakoak. Ikastetxe guztietan derrigorrezkoa izanen da ibilbide osoa martxan jartzea, etapa eta ziklo guztietan. Prozesu gradualak eta parte hartzaileak izango dira, ikastetxeetako zuzendaritza taldeek, irakasleek, gurasoek eta Eskola Kontseiluak protagonismoa izanen dute. Formazioa ongi planifikatu eta baliabide nahikoa emanen zaio.

- **Sexu bereizkeria egiten duten ikastetxeen kontzertuak eta dirulaguntzak indargabetzeko bide posible guztiak urratu eta ahal direnak gauzatu.**

- **Eskola bizikidetzarako eremua izan dadin hezkuntza eta curriculum proiektuak bultzatu.** Ildo honetan bertan, irakasle, langile, familia eta ikasleen parte hartze demokratikoa bultzatzeko neurriak hartuko dira.

- **Balioetan oinarritutako hezkuntza ereduak bultzatu.** Zehar-lerro gisa, bai curriculumean bai programa eta proiektu espezifiko bidez ere, bizimodu osasungarria bultzatzeko, ingurugiroa zaintzeko eta jasangarritasuna bultzatzeko estrategiak landuko dira.

- **Haur Hezkuntza doako, unibertsal eta hezitzailea egikaritu.** Ziklo hau Hezkuntza Departamentuaren esku geratzea beharrezkoa da. Hau horrela izan dadin gure indar guztia jarriko dugu, esparru instituzionalaz gain, eragile desberdinak, udalak eta herri/auzoetako hezkuntza komunitateak gehituz.

Behin Hezkuntzak 0-3 zikloa onartuta, erronka handia izanen da lan hitzarmena lortzea lan baldintzen duintzea eta lan esparruko beste hainbat alor zehaztea. Emanen den eskaintzan euskarazko plazak bermatuko dira Nafarroako eremu eta alde guztietan. Europar Batzordeko Haurren Arretarako sareak Haur Zerbitzuen Kalitate Helburuen bitartez ezarritako kalitate irizpideak hartuko dira erreferentziatzat haur eskolen antolaketarako.

Doakotasunaren bidean, urratsak errenta baxuenetatik hasiko dira. Lehenengo urratsa 18.000€ baino gutxiagoko diru sarrerek dutenei doakotasuna bermatzea izango da.

-Euskaraz ikasteko eskubidea maila kolektibo zein indibidualean herritar orori bermatu.

D eredia eskatzen den eta eskola duen herri orotan ezartzea, euskaraz bizi eta ikasteko eskubidea bermatuz. D ereduaren zabalpenerako ekimen propioak garatzeaz gain beste hezkuntza eta euskalgintza eragileekin batera arituko gara gai honetan.

Tutera, Tafalla edota Lodosan, besteak beste, Batxilergoa, DBH eta Lanbide Heziketa D ereduari ikasi ahal izan dadin lan egin.

Lan berezia egingo da beste herrialdeetatik etortzen diren familiekin, Nafarroako hizkuntzen egoera azaltzeko eta Euskara eta D ereduaren aukera ezagutarazteko.

Beste ereduetatik D eredura pasa nahi duten irakasleei beharrezko tresna eta laguntza guztiak bermatuko zaizkie.

-Ikastolen bokazio publikoa eta komunitarioa aitortu eta belaunaldi berrien euskalduntzerako eta euskal kulturaren hedapenerako egin izan duten eta egiten duten lanari balioa eman.

Izan ere, publikoak ez diren ikastetxe guztiak ez dira berdinak, eta publikotasun eredu berri bat eraikitzeko bidean, ikastolek badute zer esan eta zer egin.

Bereziki, Euskararen Legeak diskriminatutako eremuan urte luzez bazterkeria egoerari aurre eginez eta hizkuntza eskubidea bermatuz lanean aritu diren ikastolei aitortza egingo zaie, beraien biziraupena bermatuz. Honetarako guztirako lehenasunezko neurria litzateke 4/2015 Foru Legea moldatzea posizio eta egitasmo hau barne bilduz.

-Hizkuntzen Trataera Bateratua (HTB) landu, XXI. mendean ikasle euskaldun eleaniztunak lortzea helburua izaki, Nafarroako bi hizkuntzetan gaitasun maila ona lortzea bermatuko lukeen programa eleanitz baten alde lan eginen dugu. Hortaz esan beharra dago ez dagoela hizkuntzak ikasteko metodologia bakarra, eta guztien aurrean, HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA (HTB) proposatzen dugula. Izan ere, metodologia hau hizkuntzen irakaskuntzaren ikuspegi komunikatiboan oinarritzen da: ikuspegi hori zenbait hizkuntza elkarrekin irakasten diren testuinguruetan aplikatzen da. HTBk proposatzen du eskolako hizkuntzen irakasleen lankidetzat hizkuntza horiek partekatzen dituzten osagaietatik abiatuta. Irakasleen koordinazioak, bakarkako esku-hartzeen eraginkortasuna sendotzeaz gain, laguntzen du ikasleen gaitasun eleaniztuna garatzen.

-Landa eremuko eskolak babestu eta bultzatu.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren proposamenean sakontzeko eta neurri praktikoak hartzeko bidean jarri beharko ditugu erakunde desberdinak, konpromiso zehatzak hartuz txosten horretan emandako norabidean.

Ekintza positiboak abiarazi: irakasleei erraztasunak eta pizgarriak eman, landa eremuetan egonkortasuna bermatzeko, ratioetan salbuespenak egin eta proiektu bereziak aurrera eramateko baldintzak sortu.

Indar berezia egingo da 18 urte beherako ikasleentzat garraio publikoa eskualde guztietan bermatzeko.

Gainera, euskarazko eskaintza bermatu beharko da edozein udalerritan EH Bilduren udal ordezkariak horretara jarri eragile, euskalgintza eta sindikatuekin batera.

-Lanbide Heziketa indartu eta sustatu Nafarroa osoan eta Hizkuntza eredu guztietan.

Lanbide Heziketako Plan Estrategikoa (2017-2020) ebaluatu, berrikusi eta egokitu, behar den eremu eta helburu guztietan.

Jendartearen beharrei erantzunen dion lanbide heziketa helburu, ikaslea hezkuntza prozesuaren erdigunean kokatzeko apustua egiten dugu, pedagogia eta metodologia eredu hezitzaile, kritiko eta askatzaileetarako aldaketa eginez. Era berean, tokiko garapen agentziekin zein inguruko enpresa eta sare produktiboarekin lankidetzat sustatuko dugu.

Arlo honetan, baldintza duinak bermatuko dira lan-praktikak egiterakoan, ikasleak lanerako “esku” merkeak izan ez daitezen.

Hastapeneko Lanbide Heziketako programak hobetu eta DBH eta LHko irakasleen arteko lankidetzaren eta koordinazioa sustatu.

Gizon eta emakumeon arteko aukera berdintasuna, parekidetasuna eraikitzeke hezkuntza hezkidetzaren aldeko apustua egiten dugu. Lanbide Heziketaren arloan, non genero zein rolen arabera banaketak sustrai sakonak dituen, lanketa honek ezaugarri berezi eta propioak behar ditu.

Lanbide Heziketaren euskalduntzearen bidean pausu berriak eman daitezke lan egiten dugu. Datorren urteetarako hezkuntza eskaintza aztertu beharko da eta euskarazko eskaintza eta honen kalitateari begirako plangintza zehatzak eta baliabideak ezartzen jarraitu beharko da.

-Hezkuntza proiektuan musika-eskolek duten garrantzia aitortzeko neurriak. Finantzaio egonkorra bermatu, musika- eskolen mapa egin eta irakasleen lan egoera erregularizatu eta sektore bereko gainontzeko langileenekin parekatzeko bidea egin.

-Helduentzako Hezkuntza hobetzeko neurriak hartu. Hasteko, beraz arautzen duen 19/2002 Foru Legea egokitu eta garatzeko prozesua jarriko dugu martxan, departamentu-arte batzorde baten bidez. Honen baitan, Helduen Hezkuntzarako Liburu Zuria eginen da, egoeraren azterketa, beharrak eta egun indarrean dauden baliabide guztiak jasoko dituen.

-Jantokiak jangela bilatzeko eredu berri eta hezitzailea bultzatuko dugu.

Ikastetxeetako jantoki ereduaren aldaketaren beharra dago. Jantokietan elikatzeaz gain, heziketa, bizikidetzaren, osasuna, tokiko garapena... kontuan hartzen dituen eredu baterantz joan beharko dugu. Honen kudeaketa publikorantz jotzeko ikastetxe pilotuak izendatzea proposatuko dugu eta, bertan, jantokiko jardueraren eta hezkuntzaren arteko lotura hezitzailea bermatzen dela ziurtatu.

Klausula sozialak, tokiko garapenerako taldeak eta Alternatibaren Herriko konpromisoak kontuan hartzea, udal eta guraso elkarteekin lanketa espezifikoa egitea eta langileen lan baldintzen hobetzea ere ezinbesteko erronkak dira.

-Zaintzaileen izaera hezitzailea aitortu eta Hezkuntza Departamentuaren baitan kokatu, sektore honi dagozkion lan-baldintzak ezarri.

-Azpiegituren azterketa sakona burutu; behar eta lehentasunen arabera plangintza osatu eta legegintzaldian zehar asetzeko.

UNIBERTSITATEA

Geure Unibertsitatearen aldeko apustua da gurea; eragile aktiboa izatea nahi dugu, Nafarroako pertsonen eta lurraldearen garapen osoaren zerbitzura. Horretarako, behar beste urrats egingo dugu eskuduntza guztiak gure gain hartzeko eta, horrela, Madriletik ezartzen dizkiguten inposizio zein muga guztiak ezabatzeko.

Eredu hori lortzeko bidean aurrera egiteko, hona hemen jarduketa-ildorik garrantzitsuenak:

2019-2023 LEGEALDIRAKO PROPOSAMENAK

-Finantzaketa-sistema duin eta egonkorra ezarriko dugu

Hainbat urtetarako finantzaketa ziurtatuko dugu, nahikoa egonkortasuna emateko eta beharrezkoak diren egiturazko aldaketak egiteko, nafar guztiontzako Unibertsitate Publikoa eduki dezagun.

30 urteren ondoren, azpiegituretarako Hainbat Urtetarako Plan bat behar dugu, NUP berritzeko berariazko partidak jasoko dituen.

-NUPeko titulazioen mapa hedatuko dugu

Gizarte-eskaria aintzat hartuta, azken urteotan hasitako Gradu eta Masterren hedapenarekin jarraituko da, Unibertsitate integrala izan dezagun, besteri dagokionez mendekotasunik eta subsidiariorotasunik gabe.

Ahalegin zehatza egingo da, beharrezko bitartekoekin, NUPen Medikuntza Gradua ezartzeko, baldintza onetan, eta, pixkanaka, irakaskuntzarako eta praktiketarako langile nahiz azpiegitura nahikoak eta egokiak bermatuko dira.

-Unibertsitate-esparruko ikerketa sustatuko dugu

Unibertsitatean ikerketa sustatu beharra dago, erakunde publiko eta pribatuekin zein Nafarroaren garapenerako sektore ekonomiko eta sozialekin elkarlanean.

-Unibertsitateko tasak merkatuko ditugu

Tasa akademikoak berraztertzea ezinbestekotzat jotzen dugu, gizarte-irizpideak kontuan hartuta, norbere egoera sozioekonomikoagatik inor ez dadin geratu goi-mailako irakaskuntzatik kanpo.

-Unibertsitateko euskarazko eskaintza akademikoa bermatuko dugu

Egun, euskarazko ikasketa-eskaintza oso urria da, eta ez dio erantzuten Nafarroako ikasleen unibertsitate-ikasketa eskariari. NUPek, nafar guztion diruaz ordaindutako zerbitzu publikoa den heinean, Nafarroako beharrei erantzun behar die, eta euskaraz ikasi nahi duten ikasle nafarrei hala egin ahal izatea bermatu.

Helburu hori betetzeko, nahitaezkoa deritzogu egiturazko neurriak hartzeari, egungo errealitatea oinarri pixkanaka-pixkanaka euskarazko lerroak ezarri ahal izateko NUPeko Gradu-eskaintza osoan, bereziki ikasleak prestatuko dituztenetan, ehuneko handi batean, etorkizunean Nafarroako zerbitzu publiko batean lan egiteko: Erizaintza, Medikuntza, Gizarte-lana eta abar.

Nafarroako Gobernuak hainbat urtetarako berariazko Hitzarmenak egingo ditu NUPekin finantzetarako, eta beharrezko bitartekoez hornituko du euskara pixkanaka titulazio guztietan ezarriko dela bermatzeko.

-Beka-eskuduntzaren transferentzia

Beka-eskuduntzaren transferentzia aldarrikatuko dugu, erabakitze gaitasuna hobetzeko eta ikasleen beharretarako egokitzapen hobea ziurtatzeko.

Zentzu honetan, bai egungo eredu bai zein gabezia dituen aztertu beharra dago: bigarren matrikulak, bekak ukatu ostean ordainketak atzeratzeko ezintasuna, arazo ekonomikoak dituzten familiak...

-Gizarte Kontseiluaren Foru Legearen berrazterketa, organo honen demokratizazioa eta pluraltasun handiagoa sustatzeko.

-NUPen presentzia eta parte-hartzea areagotu Nafarroako jendartearen

Urratsak egingo dira NUPen eta Nafarroako sektore ekonomiko, sozial eta kulturalen artean harreman handiagoa egon dadin. NUPek Nafarroako jendartearen zerbitzura egon behar du, bertan integratuta, bikaintasun akademikotik haren hobekuntzari eta ongizateari laguntzeko. Nafarroako Gobernuak hori ahalbidetzeko bitartekoak jartzeko betebeharra du.

KULTURA

Kultura duten gizon-emakumeen Nafarroa nahi dugu, pertsona sortzaileek, kritikoeak, burujabeek eta askeek osatua, bere osaeran eta eraldaketan ere kultura oinarri izanen duen Nafarroa.

Kultura denpora-pasa edo aisialdia baino gehiago da, eskubide unibertsala da, eta denontzat bermatua izan behar du. Ezinbestekoa da pertsona bere osotasunean garatzeko, eta hortaz, herrialde bateko ongizatearen zati eta haren garapen sozio-ekonomikoaren eragilea ere bada.

Kultura gizartea garatzeko oinarrizko zutabea da; herri baten oinarri sinbolikoa mantentzen duen lehengaia, alegia. Era berean, integrazio eta kohesio sozialerako tresna bat izanen da, migrazioa, elkarbizitza eta aldaketa sozialak nagusi izanen diren testuinguruan.

Kultur aniztasuna Nafarroako errealitate sozialaren adierazgarria da. Horregatik, politika kulturalak kontuan hartu behar du errealitate hori, kultura ezberdinen arteko ezagutzan, elkar ulertzean eta onarpenean oinarritu behar du, elkarren artean aberastuz.

Elkartzeko guneak eratuko ditugu kultur ekosistema osatzen dugunen artean, kultur arloko beharrei erantzuteko politikak diseinatzeko. Nafarroako produkzio kulturalan ari den talde eragile orok izanen du aukera elkargune horietan parte hartzeko, inor baztertu gabe.

Nafarroako pertsona guztiek bere herriko historia, tradizioak eta kultura ezagutzeko eta haietan sakontzeko eskubidea du; halaber, eskubide osoa du beste herrialdeetako kulturak ezagutu eta elkar eragiteko.

Euskara nafarren kultur identitatearen zati bat da, elementu bereizgarria; horregatik helburu nagusia izanen da Nafarroako politika kulturaletan.

Nafarroako gizartea oso aberatsa da kultur dinamiketan, eta horren froga dira haiek garatzeko sortu diren erakunde saila: festa batzordeak, peñak, musika taldeak, kultur kolektiboak, antzerki taldeak, gaztetxeak, etab. Herritar horiek funtsezko giltza dira Nafarroako ondare kulturala mantentzeko, transmititzeko eta garatzeko. Zentzu horretan, herritarrak kultura kontsumitzaile huts gisa hartu beharrean, kultura sortzaile kontsideratzen hasi behar dute erakundeek, eta hortaz, errekonozitu, sustatu eta lagundu behar ditu baliabide zehatzen bitartez.

Urtetan politika kulturalak edukitzaileak sortzen aritu dira, kultur espazioak, alegia; orain badugu garaia kultura politika bat eratzeko non edukiak, kultura, sormena eta produkzioa bultzatu eta lehenetsiko diren.

2019.2023 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK.

- **Kultura finkatzea lehentasun sozial eta garapenerako ardatz egituratzaile gisa.**

Nahitaezkoa da kultura finkatzea Nafarroako politikaren lehentasunen artean. Politika kulturala gizartearentzako inbertsio ezinbestekoa da balio eta pentsamendu kritikoa eratzeko, garapen sozio-ekonomikoaren sustatzaile.

Sektore baztertuenen eskuera jarriko dugu kultura, prestakuntza, parte hartzea eta gozamina indartuz talde hauen artean, besteak beste: langabetuak, gazteak, ikasleak, erretiratuak, aniztasun funtzionala dutenak... Bideratuko da ikuskizunetara joan ahal izatea edo edozein prestakuntza hartu ahal izatea prezio eskuragarrian.

Kultura oro har eta zehazki Nafarroako adierazpen kulturalak bultzatuko ditugu administrazio ezberdinetatik, kulturari eta bere balioari buruzko kanpainen bitartez herritar guztiei zuzenduak, gazteei bereziki.

Aisia kulturala eta hezigarriaren aldeko apustu garbia egingen dugu, departamentuen artean sinergiak ezarriz, bereziki Hezkuntza Departamentuarekin, hezkuntzako azpiegituraz baliatuta kultur erabilerarako.

- Kultur Eskubideen Legea garatzea.

Nafarroan onartu berri den Kultur Eskubideen Legea lehen da Europar eskubide horiek aitortzen eta erregulatzen. Hurrengo legegintzaldian zehaztu eta garatuko dugu lege hori.

- Kultura Departamentuari ematea aurrekontu partida egokia.

Kultur Eskubideen Legea garatzeko lehenengo urratsa aurrekontua igotzea izanen da, Kultura Departamentuak behar adinako aurrekontu partida izan dezan garapen hori baldintza duinetan egin ahal izateko.

- Legegintzaldi honetan onartutako Kulturako Plan Estrategikoa ezartzea.

- Nafarroako Kulturaren Diagnostikoa egitea.

Aurrera egiteko ezinbesteko ekintza da. Legegintzaldi honetan urrats batzuk eman badira ere alor horretan, beharrezkoa da sakontzea eta zabaltzea Nafarroako kulturaren diagnosi hori, esparru ezberdinetan gaur egungo egoera kulturala egiaz zein den jakin dezagun.

Diagnostiko horretan errolda bat landuko da eta Nafarroako kultur kolektiboak, sortzaileak eta industria kulturala etengabe eguneratuko dira bertan. Halaber, azpiegitura kulturalen errolda-mapa ere eratuko da – espazio hutsak barne hartuta – beren erabilera aztertzeko, gutxiegi erabilitako espazioak antzeman eta nola aprobeixatu erabakitzeko.

Diagnosiaren beste lanketa bat izanen da Nafarroako maila ezberdinetan dituen gabezia kultural nagusiak igartzea (herritarrena, profesionala, erakundeena, estrukturala, teorikoa...), eta kultura sortzaileen eta langileen lan-egoera ezagutzea.

Kultura Departamentuak bitartekari lana beteko du kultur alorrean artisten, enpresen, industrien, programatzaileen eta erakundeen artean.

- Artearen bitartez baterako hezkuntza eta parte hartzerako programak sortzea eta garatzea.

- Ikertze eta Saiatze Programa kulturalak garatzea.

- Nafarroako baliabide kulturalak antolatzea, lurraldearen oreka bermatuz.

Nafarroako Gobernuaren eta Udalen arteko estrategiak sortuko ditugu instalazio eta baliabide kulturalak gutxiegi erabiltzea saihesteko, hartara erabilpen urria duten lokal publikoak ekimen kultural ezberdinei utzi edo kultur zentroak sortu beharrezkoa duten eremuetan (kultura herrikoia, dantza, musika, arte eszenikoak, ikusmen arteak, medialab...).

- Baluartean Espazio bat sortzea arte garaikideko erakusketa handietarako, eta horrela erantzun gure Erkidegoak horrelako espazioetan duen gabeziari, Iruñeko Udalak Gotorlekuan gauzatzen ari den Hiriartea Proiektuarekin elkarlanean eta koordinazioan.

- Kultur espazioen Mahaia sortzea, espazio horien teknikariak eta kudeatzaileak bilduko dituen.

- Egoitza Artistikoak bultzatzea.

Kultura Departamentuak hainbat udalekin elkarlanean (Barañain, Tafalla, Tuter, Burlata...) Egoitza Artistikoak ezarriko dituzte. Beharrezko baldintzak betetzen dituzten espazioak izanen dira, non kultura eta sorkuntza artistikoa bultzatuko den laguntza eta koordinazio programen bitartez.

- Sareko programak ezartzea.

Sareko programazioa sustatuko dugu, tokiko taldeen eta artisten produkzioekin bateratzeak erraztuz.

Ekimen kulturalak programatu eta garatuko ditugu espazio ezberdinetara egokituz.

Antzoki Sarea zabaldu eta indartuko dugu tokiko lanen programazioa zein programazio garestiagoak eta handiagoak garatzeko.

Sareko lana bultzatuko dugu hornidura eskasagoa duten herri txikietako espazio kulturetan. Zentzu horretan, Kultura Departamentuak programa berezi bat garatuko du landa eremuetarako eta herri txikietarako pizgarriak, laguntzak, aldizkako akordioak edo programa zehatzak erabilita, esate baterako, Landarte.

- Kultur industriei babesa ematea.

Laguntza iraunkorrek indartuko ditugu Nafarroako materiagabeko ondasunak edo aberastasun materiadunak sortzen dituzten industria eta kultur ekimen sortari zuzenduak, izan ere, industria horiek Nafarroarako “enplegu sorguneak” izan baitaitezke. Laguntza horiek laneko irizpide independenteak kontuan hartuta bideratuko dira eta lehentasuna izanen dute helburu sozial ezaguna eta lan-jardun justua dutenek.

- Sortzaileak diruz laguntzeko plana ezartzea.

Beharrezkoa da beka politika bat egitea, oparoa, independentea eta profesionala, artista nafar guztien ibilbidea, proiektuak eta trebakuntza bilduko dituen, gaur egun dauden diru laguntzak aldatuz. Era berean, aztertuko dugu zer eskumen dituen Nafarroak neurri fiskal eta lanbidezkoak ezartzeko sortzaile-artisten ezegonkortasunaren aurka.

- Kultur trebakuntza sustatzea.

Aitorpena, babesa eta laguntza materiala eta ekonomikoa ematea artisten, profesionalen eta herritarren prestakuntza sustatzen duten erakundeek. Bereziki, ezarpen eta ibilbide zabala eduki ez ezik, etorkizunera begira proiektu integralak ere bultzatu dituztenei.

Kultura garaikiderako Trebakuntza Programak ezarriko ditugu kudeatzaile ezberdinentzat, prestakuntza jarraitua eta integrala izateko baliabideak bermatuz. Halaber, jarduerari beharrezko segimendua egiteko ere balioko du Trebakuntza Programak.

- Hainbat urtetarako finantziario hitzarmenak eratzea, beren programak hala eskatzen dieten erakundeekin. Esate baterako, Nafarroako Antzerki Eskolarekin, Dokumentazio Zentroarekin eta IPEeko Emakumeen Liburutegiarekin, Nafarroako Abesbatzen Federazioarekin...

- Administrazioen laguntza publikoa sustatzea kultura euskaraz babesteko.

Sormen ekintzak euskaraz sustatu eta ezarriko ditugu eremu artistiko guztietan.

Era berean, euskarazko proiektuak baloratzea eta lehenestea bermatuko dugu kultur laguntza ezberdinetan.

Euskarazko ekimen kulturalen programazioa ezarriko dugu Nafarroako administrazio guztietan.

- Nafarroako Kulturaren Kontseilu Parte Hartzailea sustatzea.

- Sektoreko mahaia bultzatzea, sektore bakoitzeko protagonistak biltzeko (administrazioa, enpresak, sortzaileak).

Liburuaren mahaia (liburu saltzaileak, liburuzainak, argitaletxeak); arte plastikoaren mahaia (artistak, tailerrak, akademiak, galeriak); musikaren mahaia (kontserbatorioa, musika aretoak, sustatzaileak), arte eszenikoaren mahaia...

- Autogestio kulturalaren aldeko apustua.

Diru laguntza publikoaren programa espezifikoak ezarriko ditugu oinarri autogestionatuak dituzten proiektuentzat. Espazio autogestionatuak eta kogestionatuak sortzeko neurriak ezarriko ditugu, hala nola lokalak uztea, entseatzeko lokal publikoak sortzea edo talde artistikoentzako ekintza artistikoak burutzea.

Nafarroako kultur zentro autogestionatuen eta kogestionatuen sarea sortuko dugu lokal horiek denak bilduko dituen eta beren eskakizunei erantzunen duena.

- **Kultura askea bultzatzea**, softwarea eta kultura askea inplementatzeko programa garatzea administrazioan. Programa horrek liburutegiak eta kultur etxeak barne hartuko ditu, eta Wi-fi sare irekiak eta dohainik edo internet dohainik eta askerako sarrerak jarriko ditugu kultur zentroetan eta espazio publiko guztietan.

Era berean, kultura askea ezarriko dugu laguntza behar duten proiektu kulturalak baloratzeko irizpideen artean (software askea erabiltzea proiektu horietan, lizentziak, eduki libreak sortzea...).

- **Nafarroako ondare historikoa eta herrikoia babesteko eta zaharberritzeko neurriak ezartzea**, irizpide profesionalak, independenteak eta publikoak kontuan hartuz.

Gure hirietako eta landa eremuetako arkitektura tradizionalaren eraikinen errolda-mapa eratuko dugu, zein egoeretan dauden baloratzeko eta gehiago degradatzen ez uzteko.

Nafarroako lurralde osoan kontzientziario kanpaina zabalduko dugu gure ondare arkitektonikoa baloratu, zaindu eta kontserbatzeko. Kanpainak aholkularitza eta erakundeen babesa izanen du.

- **Nafarroako Museo Etnografikoa sortzea eta, besteak beste, “Museo Etnológico Julio Caro baroja” izeneko biltegietan dauden fondoak barne hartuko ditu.**

Nafarroako Ondare arkeologikoa ikertzen, azaleratzen eta berreskuratzen jarraituko dugu.

- **Materiagabeko ondarea bildu eta kontserbatzeko ikerlanak eta ekimenak sustatzea eta babestea.**

- **Nafarroako Liburutegien plana gauzatzea, dauden beharrianak eta liburutegiak kontuan hartuta lurralde osoan behar bezalako ezarpena lortzeko. Irekitzeko ordutegia zabalduko da zerbitzu egokia eman ahal izateko.**

HIZKUNTZA POLITIKA

Euskara Nafarroako hizkuntza propioa da, baita gure kultura eta nortasunaren funtsezko osagaia ere, eta hura da Nafarroan egoera gutxituan dagoena eta normalizatu beharrekoa. Bertako hizkuntza izanik, nafar guztiok dugu hura ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. Euskarak, gainera, badu balio erantsia, denok irabazten baitugu beraren normalizazioarekin, eta gizarte kohesiorako funtsezko tresna da.

EH Bilduren ustez hizkuntza politikaren oinarrian egon behar duten parametroak eta printzipioak berdintasuna eta justizia soziala dira, baita herritar guztien hizkuntza eskubideen bermea ere. Herritarrek egon behar dute, beraz, hizkuntza politiken eta hizkuntza legedien erdigunean.

Eta hori hala izan dadin, euskarak Nafarroan hizkuntza politika berria behar du, burujabea, eta kanpo esku hartzerik gabea. Azken legegintzaldian abiatutako norabide aldatetari eutsi behar dio, beraz, baina irmotasunean eta sendotasunean irabaziz.

Nafarroan gauzatuko den hizkuntza politikak, bestalde, euskarari arauzko esparru berri bat ere eman behar dio, euskara lurralde osoan ofizial bihurtuko duena eta herritar guztiei hizkuntza eskubide berdinak aitortuko dizkiena, eta euskararen ezagutza eta erabilera bermatzeko hainbat esparrutan neurriak hartu beharko ditu: administrazioa, hedabideak, irakaskuntza, helduen euskalduntzea nahiz alfabetatzea, sozioekonomia, kultura, aisia eta kirola, informazio- eta komunikazio-teknologiak, sustapen-lana, ikerketa soziolinguistikoa, gainerako lurraldeetako administrazioekiko eta gizarte eragileekiko lankidetzatza...

Hizkuntza politika horrek, betiere, eta eraginkorra izanen bada, zeharlerroa izan beharko du Nafarroako Gobernuaren gainerako politika eta lan-ildo guztietan, eta eragile zein herritarrekin elkarlanean osatua izango da, parte-hartzean oinarrituta.

Euskararen normalizazioak eta sustapenak, hizkuntza politikak, horretaz guztiaz gainera, plan estrategiko sendo eta eraginkor batean oinarrituta egon behar du, funtsezkoak diren arlo eta neurri guztiak bilduko dituena eta behar beste baliabide izanen dituena, eta plan estrategiko horrek izan behar du Nafarroako Gobernuaren eta oro har Administrazio Publiko guztien hizkuntza politikaren oinarria. Halaber, ebaluazio-irizpide eta ebaluazio-tresna eraginkorrak eta zehatzak beharko ditu.

Azkenik, eta ezinbestean, hizkuntza politikak behar adina baliabide izan behar ditu, bai giza-baliabideak eta bai baliabide ekonomikoak, eta horrek urteroko aurrekontuetan ere isla egokia eta nahikoa izan behar du.

2019-2023 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

Euskararen arauzko esparrua

- Euskararen Foru Lege berri bat idatzi eta onartuko da, euskararen ofizialtasuna lurralde osora hedatuko duena eta herritar guztiei hizkuntza eskubide berdinak aitortuko dizkiena. Lege hori izanen da errealitate soziolinguistiko ezberdinetarako egokia izanen den hizkuntza politikaren oinarri eta euskarri juridikoa, nafar guztion ondarea den euskara normalizatzen eta sustatzen lagunduko duena.
- 103/2017 Foru Dekretua, administrazioan euskararen erabilera arautzen duena, berrikusiko da, eta Euskararen Foru Lege berriak ezartzen dituen printzipio eta oinarrietara egokituko da.
- 130/1998 Foru Agindua, merezimendu gisa atzerriko hizkuntzek duten balorazioa arautzen duena, berrikusi egingen da.
- Nafarroako Foru Administrazioan langile elebidunak baztertzen eta zigortzen dituen araua indargabetu egingen da.
- Diru-laguntzen Foru Legea egokituko da, toki-entitateekin, hedabideen sektorearekin nahiz euskalgintzako eragileekin egonkortasuna bermatzeko duten hitzarmenak sinatu ahal izan daitezkeen.

- Herriguneeen izen ofizialak arautzen dituen Foru Dekretua berrikusiko da, udalerrien nahiz kontzejuen izen ofizialak finkatzeko eta ezartzeko prozedura eta eskumena zehazteko.
- Lege, dekretu eta oro har lege-xedapen guztietan euskararen normalizazioaren ikuspegia txertatzen eta aintzat hartzen dela bermatzeko mekanismoak eta baliabideak ezarriko dira.

Baliabideak eta aurrekontuak

- Euskarabidearen ardura eta egitekoa izanen da, euskalgintzarekin eta gizarte eragileekin elkarlanean, hizkuntza politika diseinatzea, martxan jartzea eta eremu guztietan betetzen dela ziurtatzea.
- Nafarroako Gobernuaren departamentu guztiek euskara atala izanen dute, dagokien arduradun eta planarekin, haiei zuzenean dagozkien planak eta neurriak diseinatu, gauzatu eta ebaluatu ditzaten.
- Euskarabidea behar adinako baliabidez hornituko da, bai giza-baliabideak eta bai baliabide ekonomikoak, bere egitekoa eraginkortasunez gauzatu ahal izan dezan.
- Euskararen Kontseilua organo arin, operatibo eta eraginkorra izanen da, orain artekoa baino maiztasun handiagoz elkartuz, eta hizkuntza politikako eta euskararen normalizazioari buruzko gai esanguratsuen inguruan eztabaida sakonak eta emankorrak egin daitezen metodologia egokia ezarriko da.
- Nafarroako aurrekontuetan 2016tik 2019ra hizkuntza politikarako ataletan inbertsioa handituko da, nahikotasun mailara iritsi arte, batez ere estrategikoak diren sektoreetan (euskarazko hedabideak, helduen euskalduntze eta alfabetatzea eta toki entitateak).

Administrazioa

- Nafar guztien hizkuntza eskubideak bermatuak izan daitezen, administrazioaren jardunean euskara txertatzeko neurri eraginkorrak hartuko dira. Besteak beste, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen direla begiratu eta zainduko duen egitura zein den zehaztuko du eta horretarako behar dituen baliabideak emanen dizkio.
- Nafarroako Gobernuko Departamentu guztietan lanpostu elebidunen beharra asetzeko urratsak planifikatu eta emanen dira: lehentasunak ezartzeko irizpideak ezarri, plantilla organikoetan lanpostu elebidunak definitu nahiz ezarri, lan eskaintza publiko guztietan beharrezko lanpostu elebidunen kopurua finkatu...
- Administrazio jakin batek bere jardueran hartzen duen eremuan euskararen ezagutzaren indizea % 70etik gorakoa denean administrazio horretako lanpostu publikoetan langile guztiak euskaldunak izanen dira: osasun zerbitzuetarako langileak, liburutegietako langileak, basozainak, suhiltzaileak, eta abar.
- Euskararen ezagutza nahitaezkoa ez den lanpostu guztietan euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratuko da Nafarroa osoan. Euskararen Foru lege berriak arautuko du lanpostu berriak eskuratzeko noiz izanen den euskara jakitea derrigorrezko eta noiz merezimendu.
- Administrazioiko langileen euskalduntzea planifikatuko da eta horretarako baliabideak jarriko dira.
- Administrazioan zirkuitu elebidunak sortuko dira euskarazko zerbitzua bermatzeko eta euskara lan-hizkuntza ere izan dadin urratsak ematen hasteko.
- Nafarroako Gobernuaren administrazioaren irudi korporatiboan euskararen presentzia nahikoa eta duina bermatzeko urratsak ematen jarraituko da: errotulazioa, komunikazio eta argitalpen politika, hizkuntza paisaia eta abar. Komunikabideetan egiten den publizitatean euskararen presentzia ziurtatuko da.

- Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen (udal eta mankomunitate) arteko lankidetzaz hitzarmena berreskuratuko da, erakunde publiko guztien hizkuntza politika koordinatzeko, baliabideak partekatzeko eta elkarlana sustatzeko. Hitzarmen hori gauzagarria izan dadin beharrezkoak diren egokitzapenak egingen dira, besteak beste Diru-laguntzen Foru Legean.
- Udal euskara zerbitzuei bultzada emanen zaie eta Nafarroako lurralde osora zabalduko dira, aurrekontuetan ere horretarako behar diren laguntzak txertatuz.
- Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikak koordinatzeko eta informazioa nahiz irizpideak elkarrekin trukatzeko eraberrita dauden edo eratuko diren organoetan parte hartuko du, euskararen lurraldea osatzen duten beste administrazio publikoekin eta gizarte eragileekin batera. Euskara sustatzeko hitzarmenak eta akordioak egingen ditu horiekin guztiekin.
- Nafarroako Gobernuak, dagokien organoekin batera, neurriak hartuko ditu Estatuak Nafarroan duen Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko.
- Nafarroako Gobernuak urratsak emanen ditu Europako Batasunean eta bestelako nazioarteko erakundeetan euskararen ofizialtasuna onar dadin eta erakunde horietan guztietan euskara erabil ahal izan dadin.

Arnasguneak

- Euskararen arnasguneek euskararen normalizazioan duten funtzio estrategikoa kontuan izanzen da. Gune horietan politika eta egitasmo berezituak ezarriko dira bertan lanean ari diren erakundeekin eta eragileekin elkarlanean, bereziki Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekin (UEMA).
- Hizkuntza politikaz gainerako politikek eta lan-ildoek arnasguneetan izan dezaketen eragin linguistikoa neurtu egingen da, horretarako sortu diren baliabide teknikoak erabilia, eta azterketa horren emaitza aintzat hartuko da.

Irakaskuntza

- Nafarroa osoan derrigorrezko eta ondorengo irakaskuntza publikoan, baita Lanbide Heziketan ere, euskaraz ikasteko aukera eskainiko da. Hezkuntza sistemak bermatu beharko du ikasketak bukatzeko garaian ikasle guztiek euskararen gutxieneko ezagutza izanzen dutela, eta bermatu beharko du, halaber, euskarazko irakaskuntza esakiniko duten ikastetxe berri guztiek behar adinako baliabidez hornituko direla.
- Gaur egun indarrean dagoen hizkuntza ereduaren eskema gaituz, Hizkuntzen Tratatua Bateratua abian jartzeko urratsak emanen dira. Horra iritsi baino lehen, epe laburragoan, eredu guztiek euskararen gutxieneko presentzia eta eskaintza bermatu beharko dute.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoak neurriak hartuko ditu epe jakin baten barruan bere graduak eta ikastaroak euskaraz eskaini ahal izateko, eta graduondoko ikastaroetan eta masterretan euskarazko eskaintza sustatzeko.
- Udako Euskal Unibertsitatearen jarduna babestu eta lagundu egingen da.
- Nafarroako Gobernuak neurriak hartuko ditu Lanbide Heziketako moduluen euskarazko eskaintza bermatzeko.
- Ikastolekin hitzarmen berri bat egingen da.
- Nafarroako herri eta auzo guztietako haur eskoletan irakaskuntza euskaraz egiteko eskaintza zabalduko da.

- D eredua lurralde osora zabal dadin euskarazko irakaskuntzaren aldeko sentsibilizazio kanpaina sakon eta eraginkorrak eginen dira, eta horretarako behar beste baliabide jarriko da.

- Jabetza publikoko musika- eta arte-eskola guztietako ikastaroak euskaraz egoteko neurriak hartuko dira.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea

- Helduen euskalduntze-alfabetatzeari babes instituzionala, legala eta ekonomikoa eskainiko zaio.

- Sektoreko eragileekin batera sektorearen beraren azterketa eta horri buruzko gogoeta sakona eginen da, datozen urteetarako politikak eta urratsak definitu eta adosteko alde batetik, eta, bestetik, arauaren egokitzapenak, finantzazioa eta bestelako egitasmoak diagnostiko eta gogoeta horretan eta epe luzeko plangintza orokor baten barruan kokatzeko.

- Euskaltegiak sartzeko, finantzaketa-sistema egonkortzeko, lana planifikatzeko eta funtzionamendu egokia izateko hitzarmen bat sinatuko da. Hitzarmen hori gauzagarria izan dadin indarrean dagoen legedian beharrezko egokitzapenak eginen dira, Diru-laguntzen Foru Legea ere egokituz, besteak beste.

- Euskaltegi guztiak nahikotasunez diruz lagunduko dira eta ikasleentzako laguntzak eskainiko dira, egoera sozioekonomiko ahulenean dauden pertsonengan arreta berezia jarritz, doakotasunera iristeko, asistentzia, baliabideen erabilera zuzena eta sektorearekin adosten diren bestelako irizpideak aintzat hartuta.

- Nafarroa osoan euskaltegien sarea sendotu eta zabalduko da, herri ekimenaren eta bitarteko instituzionalen arteko osagarritasuna oinarri hartuta.

- Euskalduntzearen aldeko sentsibilizazio kanpaina on eta eraginkorrak eginen dira.

Hedabideak

-Nafarroako Gobernuak beharrezko neurriak hartuko ditu informazioaren eta entretenimenduaren alorrean euskarazko behar besteko eskaintza bermatuta egon dadin.

- Euskarazko hedabideei babes instituzionala, legala eta ekonomikoa eskainiko zaie.

- Euskarazko telebistak —orokorrak nahiz tokikoak— lurralde osoan euskaraz ikusteko aukera bermatuko da. ETB-3ren emisioa lurralde osora zabaltzeko urratsak emanen dira, behar izanez gero ETB-2ren emisioaren aurretik lehenetsiz.

- Euskarazko irratiak —orokorrak nahiz tokikoak— lurralde osoan entzuteko aukera bermatuko da.

- Euskararen komunikazio-esparru sendoa eta iraunkorra lortzeko, hedabideen finantzaketa-sistema egonkortzeko eta hedabideen azpiegiturak eta laguntzak finkatzeko hitzarmen bat sinatuko da. Hitzarmen hori gauzagarria izan dadin indarrean dagoen legedian beharrezko egokitzapenak eginen dira, Diru-laguntzen Foru Legea ere egokituz, besteak beste.

- Euskarazko hedabideak kontsumitzeko kanpainak eginen dira.

- Nafarroako Gobernuak euskara erabiliko du bere publizitate instituzionalean, legez ezarriko diren irizpideen arabera.

- Nafarroako Gobernuak emandako kontzesio bidez emititzen duten ikus-entzunezko hedabideek, baita diru-laguntza publikoak jasotzen dituztenek ere, euskarazko gutxienezko eskaintza bermatu beharko dute, euskararen ezagutza indizeen adinakoa edo altuagoa izanen dena.

Sozioekonomian

- Euskara plana duten enpresentzako diru-laguntza deialdia mantenduko da eta behar den neurrian hornituko da. Azken urteotan nahiz datozenetan deialdi horretan parte hartu duten enpresek egindako urratsen zabalkundea egingen da, baita ildo berean urratsak eman dituzten gainerakoek ere, dauden aukerak ikusarazteko eta ekimena hedatzeko.
- Zerbitzu publikoak eta orokorrak kudeatzen dituzten enpresek (aseguru-etxeak, energia hornitzaileak, garraio-zerbitzuak, finantza-erakundeak, telefonia-zerbitzuak, osasungintza, posta-zerbitzua...) neurriak hartu beharko dituzte euskaldunen eskubideak bermatzeko.
- Administrazioak lehenetsuna emanen die herritarren eskubideak bermatzen dituzten enpresei, betiere zerbitzu publikoa emateko xedez kontratazioak eta esleipenak egiteko tenorean, baita diru-laguntzak emateko tenorean ere.
- Nafarroako Gobernuak, lanbide-elkargoekin, patronalekin, sindikatuekin nahiz bestelako entitateekin elkarlanean, euskararen ezagutza eta erabilera sustatuko du sozioekonomiaren alorrean, besteak beste lantokietan, lan-harremanetan, lan-hitzarmenetan, enpresa-itunetan, lan-kontratuetan, dokumentazioan eta enplegurako trebakuntzan.
- Administrazioak euskaldunon hizkuntz-eskubideak bermatu eta babestuko ditu. Herritarrok bezero garen heinean eta eskubide horien jabe izaki, gure aldarrikapenak babesteko ekimenak sustatuko ditu administrazioak berak.

Kultura

- Nafarroako Gobernuak honakoak lagundu eta sustatuko ditu: euskarazko literatura sormena eta sormen zientifikoa, baita sormen horren inguruko itzulpen-lanak ere; euskarazko liburuak eta aldizkako argitalpenak editatzea eta banatzea; euskarazko ekoizpen zinematografikoa; euskarazko ikus-entzunezko materialak; euskarazko ikuskizunak; euskarazko musika; oro har, euskarazko kultur ekoizpena.
- Nafarroako Gobernuak sortzen edo sustatzen dituen kultur ekoizpenetan eta jardueretan euskararen erabilera bermatuko da, nahikotasunez, eta horretarako Gobernuaren beraren programazioetan irizpideak zehaztu eta ezarriko dira.
- Euskarazko kultura sustatzen duten eragileen aitortza egingen da eta, hitzarmenen bidez, sektore honentzako azpiegiturak eta laguntzak finkatuko dira.
- Kultur arloko egitasmoetarako laguntzetan —haien izaera edozein dela ere— euskararen erabilera balioetsiko da eta horretarako irizpideak zehaztu eta ezarriko dira.

Aisia eta kirola

- Nafarroako Gobernuak sortzen edo sustatzen dituen aisia eta kirol arloko ekoizpenetan eta jardueretan euskararen erabilera bermatuko da, nahikotasunez, eta horretarako Gobernuaren beraren programazioetan irizpideak zehaztu eta ezarriko dira.
- Aisia eta kirol jarduerak euskaraz eskaintzen dituzten elkarte eta entitateentzako diru-laguntza deialdiak egingen dira.
- Aisiaren arloko nahiz kirolaren arloko egitasmoetarako laguntzetan —haien izaera edozein dela ere— euskararen erabilera balioetsiko da eta horretarako irizpideak zehaztu eta ezarriko dira.
- Aisiaren eta kirolaren arloko euskarazko jardunetarako baliabide teknikoak eta materialak eskainiko dira, jardun horietan euskaraz ari direnei laguntzeko: prestakuntza, aisiaren eta kirolaren arloko hiztegiak, idatzi-ereduak, itzulpen eta zuzenketa zerbitzuak...

- Aisialdirako kontsumo-produktuen euskarazko eskaintza zabaltzea bultzatuko da, bereziki gazteentzat direnak eta IKT alorrekoak.

Komunikazio- eta informazio teknologiak

- Nafarroako Gobernuak euskara bultzatu eta sustatuko du informazio eta komunikazio teknologietan.

- Euskararen garapen digitalerako estrategia digitala bultzatuko da ildo horretan lanean ari diren bestelako administrazioekin, unibertsitate- eta ikerketa-taldeekin, enprekin eta eragileekin elkarlanean.

- Euskararentzako hizkuntza teknologiak garatuko dituzten ekimenak babestu eta sustatuko dira, horren bidez administrazio publikoetan, enpresetan, merkataritzan, hedabideetan eta bestelako gizarte eremuetan euskara sustatzeko.

- Nafarroako Gobernuak herritarrek, enpresek eta administrazioek erabili ohi duten softwarearen euskarazko eskaintza sustatu eta lagunduko du.

- Sare sozialetan, eta bereziki gazteen adin-taldeetan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartuko dira, diagnostiko sakon bat eginez, proposamenak eta aukerak landuz, eta proposamen eta aukera horiek zabaltzeko ekimenak abiatuz (harreman-sareak, kanpainak...).

- Internet euskarazko edukiz hornitzea sustatuko da.

Euskararen sustapena

- Nafarroako Gobernuak euskararen erabilera sustatuko du gizarte bizitzako alor guztietan, herritarrek beren eguneroko bizitzan –merkataritzan, kulturean, aisialdian, kirolean eta bestelakoetan- euskara erabil ahal izan dezaten.

- Euskarabidea euskararen sustapenean ari diren euskalgintzako nahiz gizarteko eragile guztiekin lankidetzan ariko da, estrategiak eta ekimenak partekatuz eta osagarri bihurtuz.

- Euskaraldia ariketa soziala lagundu eta sustatuko da, diruz lagunduz eta azpiegiturak nahiz baliabideak eskainiz.

Ikerketa soziolinguistikoa

- Euskararen garapena eta normalizazioa lagunduko duten ikerketa soziolinguistiko orokorrak eta berezituak egingen dira.

KULTURA-ANIZTASUNA ETA MIGRAZIOAK

Nafarroa askotarikoa da kulturaz; beraz, gure helburua izango da herritarren arteko aniztasun horretatik abiatuz eraikitzea gure herria, edozein delarik haien sorlekua. Horretarako, aniztasuna kudeatzeko eredu demokratiko bat proposatzen dugu.

Eskubide guztiak eta aukera-berdintasuna aldarrikatzen ditugu pertsona guztientzat. Harrera-herria izan nahi dugu, solidarioa, eskubide guztiak eta aukera-berdintasuna bermatuko dituen, aintzat harturik Nafarroako herritar guztiak kontuan hartuko dituen ikuspegi oso batetik landu behar dela kultura-aniztasuna. Horregatik uste dugu bi alderdi kontuan hartuta egin behar dela hori: gizarteratzeko neurriak pertsona guztientzat, eskubide guztiak aukera-berdintasunean aintzatetsiz; eta bizikidetzaren eta egokitzapen kulturala gauzatzeko politikak, hau da, harrera-, bizikidetzaren-, salakuntza- eta kontzientziazio-politikak, eta, horretarako, funtsezkoa da elkar ezagutzea eta elkar onartzea, kultura askotarikoen bizikidetzan datzalako giltza gizarte kohesionatua lortzeko, non euskara izango baita bizikidetzaren horren komunikazio-, kohesio- eta gizarteratze-tresna.

Paradigma berri bat proposatzen dugu Nafarroan politika kulturaz sustatzeko. Eredu demokratikoa, berezkoa, barneratzailea, parte-hartzailea, transbertsala Nafarroako herritar guztientzat.

Badakigu Espainiako esparru konstituzionalak eragotzi egiten duela Nafarroatik berezko politika bat landu ahal izatea migrazioei eta kultura-aniztasunari buruz, horiek kasik Estatuaren eskumen eskusiboak direla deritzolako, eta estatu horrek berak eragotzen digu, bere nazionalitate migrazio-politikekin edo atzerritarren legeriekin, pertsona guztiei eskubide guztiak bermatu ahal izatea. Horregatik uste dugu gure migrazio- eta nazionalitate-politikak erabakitzeke eskubidea dugula, biztanle guztiei eskubideak bermatzeko, eta edonork eskuratu ahal izateko zerbitzu guztiak.

Hori guztia, EHBildukook aldarrikatzen dugun gizarte feministaren eraikuntza horretan, emakume migratzaileek bizi duten egoera ahaztu gabe; diskriminazio-egoera larrian baitaude, emakume eta migratzaile izateagatik, eta horri gehitzen zaizkio etnia, jatorri kultural edo sorburu edo lan-egoeraren diskriminazioa; beraz, emakume migratzaileek pairatzen duten alde askotariko diskriminazio hori gainditzeko, ikuspegi feminista intersektoriala baliatu behar da, prekarietate-egoerak aintzat hartu, agerian jarri, prekarietate-egoerak salatu eta hobetu, indarkeria matxistatik libre bizitzeko eskubidea bermatu, e.a.; eta emakume migratzailea gizarteko subjektu autonomotzat aitortu ahal izatea bultzatu behar dugu.

Erljio-aniztasunari dagokionez, EHBildukook uste dugu erlijioa aukera pertsonal eta librea dela, pertsonen esparru pribatuari dagokiola, eta administrazio publikoak errespetatu eta bermatu egin behar duela norberaren hautabide hori. Hartara, aintzat hartuko da erlijio-askatasuna pertsonen eskubide bat dela. Era berean, erlijio-aniztasuna aitortuko da fede edo sinesmenen arteko berdintasunean. Edonola ere, edozein erlijioi ezingo ditu baldintzatu politika publikoak. Horregatik iruditzen zaigu laikusotasuna kudeaketa publikoaren osagai funtsezkoa dela, gizartean dauden jarrera eta sentipen erlijiosoen eta ez-erlijiosoen artean beharrezkoa den askatasun eta berdintasuneko orekari bide ematen baitio. Beraz, erlijio-askatasuna defendatuz eta errespetatuz, garapen pertsonala bermatu egingo da administrazio laikoaren bidez.

Esan behar da, gainera, Nafarroako herritarren zati handi bati ukatu egiten zaiola bozkatzeko eta bozkatu izateko eskubidea; horregatik, neurriak hartuko ditugu egoera hori zuzentzeko, uste baitugu Nafarroan bizi diren pertsona guztiek dutela hautatzeko eta hautatuak izateko eskubidea.

2019-2023KO LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

1. Arau, ekimen eta politika publiko guztiek bizikidetzaren sustatu eta kultura-aniztasuna errespetatzen dutela bermatzea. Esparru instituzional propioa sortzea.

1.1 Atal hori Bake eta Bizikidetzako Zuzendaritza Nagusian kokatzea, **berriazko alor bat sortuta**, bere langile eta aurrekontuz hornitua, eta beren-beregi kultura-aniztasunari eta migrazioei buruzko politikak diseinatu, planifikatu, sustatu eta koordinatuko dituen.

1.2 **Departamentuen arteko koordinazio-talde bat sortzea**, aniztasunaren ikuspegia sail edo departamentu guztietan aintzat hartzeko, eta baita araugintza eta legegintzako neurri guztietan ere. Jatorri kultural ezberdineko pertsonen partaidetza sustatzea.

1.3 **Nafarroan Kultura-aniztasuneko Bizikidetzarako Departamentuen arteko Plana diseinatzea**, kultura-aniztasunaren eta migrazioen alorreko jarduketa guztiak zehaztu eta antolatuko dituen.

1.4 Berariazko **prestakuntza-programak** kultura-aniztasunari buruz erakundeetako langileentzat, haren balio eta printzipioetan hezteko. Beharrezkoa da inolako diskriminaziorik gerta ez dadin herritarrekiko harremanetan.

1.5 **Udalei baliabideak, finantzazioa eta koordinazioa eskaintzea** era guztietako planak edo programak landu ditzaten (harrera orokorra, hizkuntza-harrera, bizikidetzak, elkar-ezagutzea, parte-hartzea...). Besteak beste, horien helburua izango da pertsona guztiak gizarteratzea, zeinahi delarik haien sorlekua, eta bizikidetzaren kudeaketa, bai erakundeetatik eta bai esparru komunitarioan eta sozialean.

1.5 Erakundeen lankidetzak sare bat eratzea alor horretan Nafarroako erakundeen artean (Gobernua, udalak, partzuergoak...).

2. Jatorri- eta kultura-aniztasuna kohesio-elementu bihurtzea. Bizikidetzak kulturala sustatzea.

2.1 **Parte-hartze sozialerako** programa bat diseinatu eta abian jartzea, hainbat mailatan parte-hartze sozio-politikoko dinamika bat garatuko duena kultura-aniztasunaren eta bizikidetzaren inguruan.

2.3 **Lankidetzak eta solidaritate-programak egokitzea**, beste sorleku batekoak izanik Nafarroan bizi diren pertsonen beren herri eta herrialdeekiko lankidetzan aritzeari lehentasuna emateko, aintzat harturik zenbait sorlekutakoek duten presentziaren zenbatekoa, eta baita batzuek herri gutxituetako edo estaturik gabeko nazioetakoak izateak dakarren berezitasuna.

2.4 **Hezkuntza-zentroetan** kultura-aniztasunari trataera egokia ematen zaiola ziurtatzeko beharrezkoak diren baliabideak ematea, zentro bakoitzak dituen berariazko premien arabera.

2.5 **Matrikulazio-prozedurak antolatzea**, eragozteko zenbait familiari iradoki edo behartu ahal izatea, jatorriaren arabera, beren seme-alabak ikastetxe jakin batzuetan matrikulatzera, familiaren berezko borondatearekin zerikusirik ez duten interesez.

3. Elkarren ezagutza, ulerkuntza eta aintzatespena sustatzea.

3.1. **Elkar ezagutzeko neurriak** («ezagutzetik aintzat hartzea») diseinatu eta abian jartzea, biztanle guztiengana bideratuta, beste sorleku bat dutenei Nafarroa eta euskal kultura ezagutarazteko eta, bestalde, haien errealitatea, hizkuntzak eta kultura, beren sorlekuko komunitate, herri edo nazioen egoera politikoa Nafarroako gainerako herritarrei ezagutarazteko.

3.2 **Bizikidetzak sustatzeko berariazko programak lantzea**, elkar ezagutu eta aintzat hartzetik abiatuz, jarrera paternalistatik gabe eta xenofobiari aurka eginez, xede nagusiagizarte-kohesio-dinamikak eta komunitate-topaguneak sortzea delarik.

3.3 **Hezkuntza-komunitatera, formal eta ez-formalera**, bideratutako berariazko programa bat diseinatu eta abian jartzea, elkarren ezagutza eta aintzatespena lantzeko. Programa horren barnean abiaraziko ditugu kontzientziazio- eta

prestakuntza-dinamikak ikastetxeetan eta gune komunitarioetan, familia horien sorburuko hizkuntzek (eta kulturek) beren lekua eta aitorpena izan dezaten gure hezkuntza-sistemaren barnean.

3.4 Beste nonbait jaio eta Nafarroan bizi diren pertsonen herri eta herrialdeekin **senidetze eta lankidetzatrukerako programa** bat antolatzea.

3.5 Nafarroako kultura-aniztasunaren eta migrazioen fenomenoak **ikertu eta jarraitzeko azterlanak** egitea, ikuspuntu kuantitatibotik eta kualitatibotik. Betiere ikuspegi integral eta transbertsalarekin, Nafarroaren nortasun- eta kultura-berezitasuna abiapuntutzat harturik.

3.6 Gune intelektual eta akademiko bat sortu eta sustatzea, **ikerketa, gogoeta** eta zabalkundea egiteko, eta baita haren kudeaketa ere, Nafarroako kultura-aniztasunaren eta identitateen fenomenoari buruz.

4. Nafarroan bizi diren pertsona guztientzat eskubide guztiak bermatzea. Herritartasun osoa sustatzea pertsona guztientzat, zeinahi delarik haien sorlekua.

4.1 Foru-administrazioaren politika eta zerbitzu guztiak **Nafarroan bizi diren pertsona guztientzat** zabaltzea, aintzat hartu gabe haien sorlekua edo lege-egoera: gizarte-zerbitzuak, hezkuntzakoak, osasunekoak, kulturakoak, enpleguakoak, ekonomiakoak... Administrazioaren zerbitzu eta baliabideak hainbat hizkuntzatan kaleratzea.

4.2 **Osasun, Ekonomia, Enplegu, Gizarte Arreta eta abarrei dagozkien politikak Nafarroako biztanle guztiengana bideratzen direla, haien sorlekua aintzat hartu gabe**, ziurtatzeko neurriak hartzea (osasun-, gizarte-, enplegu- eta gainerako zerbitzuak unibertsalak eta doakoak izan daitezen), eta, hala, aukera-berdintasuna ziurtatzea. Migrazio-prozesuek eragiten dituzten premiei berariazko arreta eskaintzea.

4.2 Kultura-aniztasuna eta migrazioak kudeatzeko **esparru burujabe** baten behararen aldarrikapen politikoa eta instituzionala egitea. Estatu mailako hesiengatik alor horren kudeaketan dauden mugak salatzea. Nafarroako Gobernuak immigrazio-gaietan **bereganatu** behar dituen eskumen guztiak definitzea (lan-baimenak, harrera-legeria, e.a.), haien azterketa egiteko.

4.4 Nafarroan bizi diren pertsona guztiek, zeinahi delarik haien sorlekua, **bozkatzeko, elkartzeko eta politikan parte hartzeko** dituzten eskubideak babesteko erabil daitezkeen tresna juridiko-politikoiei buruzko azterketak egitea.

4.5 Erakundeak inplikatzeko, **salakuntzaren** eta Nafarroako herritarren defentsaren bitartez, **eskubide politiko eta zibilak larriki urratzen zaizkien kasuetan**. Nafarroako biztanleen babesa bermatzea **migrazio-legeek eta araudiek urratzen dizkieten eskubideak** baliatu behar dituztenean.

4.6 Doakotasun unibertsalak eta **euskararen ikasketa pertsona helduengana hurbiltzea** Nafarroan bizi diren pertsona guztientzat, zeinahi delarik haien sorlekua.

4.7 Azterlan bat egitea Nafarroan asiloa eskatzen duten **personen eskubideak babesteko** abian jar litezkeen baliabide juridiko-politikoaren inguruan. Asiloa duten eta errefuxiatuta dauden pertsonentzako aholkularitza-bulego bat sortzea. Euskal Herrian asiloa duten eta errefuxiatuta dauden pertsonen eta haien sorleku diren herri eta herrialdeen errealitateak ezagutarazteko programa bat sortzea, betiere elkarren ezagutzaren, ulerkuntzaren eta aintzatespenaren ikuspegitik.

4.8 **Aholkularitza eta lege-arreta eta arreta soziokulturala** eskaintzeko zerbitzu bat sortzea, harrera-sareari bere lanean lagunduko diona, hona etorri diren, pasaeran dauden edo gure lurraldera oraintsu iritsi diren migratzaile guztiei begira, administrazio-egoera irregularrean daudenak tartean.

4.9 Beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak ematea **erreferentziatzeko pertsona heldurik gabe Nafarroara etorri diren haur eta nerabeei**, haien babes-eskubidea bermatu ahal izateko.

5. Gure herritar guztiei gizartean eta politikan parte hartzeko eskubidea bermatzea.

5.1 **Lankidetzaren eta koordinazio-esparru misto bat eratzea** Nafarroako kultura-aniztasunaren errealitate guztietako eragile sozialekin, eta lurraldeko eragile instituzional eta politikoekin. Erabakiak hartzeko esparru bat izan dadin kultura-aniztasun eta migrazioen ataleko politikei dagokienez, baita lankidetzarako, laguntzarako, babeserako eta aholkularitzarako ere.

5.2 **Sustapen-, lankidetzaren eta laguntza-programak** sorleku edo kultura ezberdinen inguruan eraturako elkarlanean.

5.3 **Harremanak lantzea** askotariko osaerako elkarrekin (hemengo payo zein ijitoek, migratzaileek osatutakoak, edo mistoak), eta elkarlanerako oinarriak definitzea. Elkarleen arteko elkarlanerako esparruak eskaintzea.

5.4 **Nafarroan dauden elkarleen eta erakundearen arteko lankidetzarako esparruak** eskaintzea.

5.5 **Herritarren parte-hartzea** sustatzeko mekanismoak eta araudiak ezartzea, batez ere, Nafarroan bizi diren eta beren naziotasuna dela-eta bozkatzeko eskubidea ukatzen zaienei begira.

6. Eskubideen eta betebeharren edo erantzukizunen berdintasuna aukera-berdintasunarekin lotzea.

6.1 Osasun, Ekonomia, Enplegu, Gizarte Arreta eta abarrei dagozkien politikak Nafarroako biztanle guztiengana bideratzen direla, haien sorlekua aintzat hartu gabe, ziurtatzeko neurriak hartzea: **osasun-, gizarte-, enplegu- eta gainerako zerbitzu unibertsalak** eta doakoak, eta, hala, **eskubide eta aukera-berdintasuna ziurtatzea**.

6.2 **Euskararen** irakaskuntzaren doakotasun unibertsala ziurtatzen ez den bitartean, **laguntza-programak** abian jartzea egoera sozioekonomiko behartsuenean daudentzat, benetako aukera izan dezaten euskara ikasten hasteko.

6.3 **Euskara ikastea ahalbidetzen duten hezkuntza-ereduetako matrikulazioa sustatzea**, baita migratzaileen eta beste sorleku batzuetakoen artean ere, aukera-berdintasuna bultzatzeko.

6.4 **Beste sorleku batzuetako emakumeek** berriaz emakumeentzat antolatutako programetan esku hartu ahal izatea bermatzeko neurriak hartzea.

6.5 **Emakume migratzaileen** aintzatespena, agerikotasuna, autonomia eta ahalduak bultzatzeko jarduketak, haien berezitasun kulturala aintzat hartuta, baita haien errealitate eta premiak ere, bakoitzaren sorlekuaren, egoera ekonomikoaren, kulturaren eta abarren arabera.

6.6 Lan-merkatua aztertzea, jakiteko zein diren emakume migratzaileen laneratze-sektore nagusiak eta lan-baldintzak.

6.7 **Zaintzarekin zerikusia duten sektoreetako lan-baldintzak hobetzeko ekimenak abian jartzea**, edo laguntzea, gehienak emakume migratzaileak baitira haietako askotan: pertsonen zaintzan, garbiketa-sektorean, etxeko langileak, e.a.

6.8 Administrazioaren oinarrituta, **lege-neurriak eta neurri administratiboak hartzea** Nafarroako herritarren erlijio-adierazpenen aukera-berdintasuna babesteko.

7. Xenofobiaren eta arrazakeriaren aurkako borroka, batik bat erakundeen lege eta neurri arrazisten aurkakoa. Aurreiritzi xenofoboaren aurkako informazio-jarduketak.

7.1 Bulego bat sortzea arrazakeria eta xenofobia gaietako **salaketak jasotzeko**, eta horrelakoen biktima direnei lagundu eta aholkuak emateko.

7.2 Ezaugarri xenofoboa edo arrazista duten **lege-neurri eta neurri administratiboak salatze**ko dinamika bat abian jartzea. Bozkatzeko eta bozkatua izateko eskubidearen ukazioa salatzea.

7.3 Abian jartzea **kontzientziario sozialerako** kanpaina bat, ezaugarri arrazista edo xenofoboa duten jarrera indibidual nahiz kolektiboak deuseztatze helburuarekin.

7.4 **Lankidetzaren eta laguntza-programak** salaketaren eta migratzaileen eskubideen defentsaren alorren lanean ari diren elkarlanean.

7.5 **Zurrunburu eta estereotipo arrazista edo xenofoboaren aurkako** informazio- eta kontzientziario-kanpainak abian jartzea.

8. Nafarroaren eskubideak etortzen ari diren pertsonen eskubideekin bateratzea.

8.1 **Harrera-sare bat** sortzea, diziplinarteko aholkularitza-zerbitzu batekin, alde batera utzita asistentzia hutseko ekinbidea, eta ikuspegi osoarekin eta transbertsalarekin lan egiteko: etortzen ari diren edo oraintsu Nafarroara iritsi diren pertsona guztiak aintzat hartu, eta orientabideak eta argibideak eskaini beharreko alor guztiak landuko dituen.

8.2 **Aholkularitza eta lege-arreta eta arreta soziokulturalerako zerbitzu bat** sortzea, harrera-sareari bere lanean lagunduko diona, etortzen ari diren edo oraintsu Nafarroara iritsi diren pertsona guztiak aintzat hartuko dituen, baita administrazio-egoera irregularrean daudenak ere.

8.3 **Itzulpen-zerbitzu bat** sortzea, harrera-sareari bere lanean lagunduko diona, aintzat hartuko duena, alde batetik, migratzaileen jatorrizko hizkuntzen aniztasuna, eta, bestetik, euskara bera (harrera-lana egiten dutenei itzulpen-aukera bermaturik, euskaratik beste hizkuntza batzuetara, eta alderantziz).

8.4 **Harrera-gida bat** argitaratzea hainbat euskarri eta hizkuntzatan, Nafarroara bizitzera datozen guztientzat, informazioa eta orientabideak emango dizkiena egoera politikoaz, kulturalaz, sozialaz, lanaz, osasun-arloaz, hezkuntzaz, e.a.

8.5 **Hizkuntza-harrerarako programak**, beste sorleku batzuetatik datozenak Nafarroako hizkuntzetara hurbil daitezen gazteleraz eta euskaraz.

8.6 **Borondatezko itzulerarako** laguntza-programak, hori nahi duten pertsonentzat, batez ere estatusen sozioekonomiko larrian direnentzat, itzulera duintasunez egin ahal izateko. Itzuli nahi duten pertsonen segurtasun fisikoa, materiala, legala eta juridikoa bermatuko da.

SEXU- ETA GENERO-DIBERTSITATEA

Sexu- eta genero-dibertsitateaz mintzatzea Giza Eskubideez aritzea da; pertsona desberdinez, baina izateko, sentitzeko eta adierazteko eskubide berak dituztenez; finean, pertsona askeez.

Sortze beretik, sexua ezartzen digute, genital jakin batzuen arabera; horrez gain, hezten gaituzte esanez nola izan, sentitu eta adierazi behar dugun eredu hegemoniko batzuen arabera, sistema heteropatriarkal honen barruan, zeinak ezarritako ereduekin bat egiten ez duten pertsonak zapaldu egiten dituen. Haatik, eredu horiek ez dute ezartzen pertsonen izateko eta sentitzeko modua, baina bai baldintzatu, hainbeste ezen desparekotasun handiak eragiten dituzten pertsonen artean, larriki diskriminatzen dutelarik gizartean ezarritako arautik at dagoen oro.

Hala, emakume eta gizon, singularrean, izateko bi eredu bakar eta nagusi daude. Bakoitzak ezaugarri fisiko zehatz batzuk ezartzen ditu, bai eta jokabide zehatzak ere; emakumerengan adierazpen maskulino oro erreprimitzen da, eta gizonarengan femeninoak. Eredu horietan, desira alde aurretik ezarrita dago, bai eta ezartzen diren harremanak ere; gainera, hertsiki mugaturik daude genitaletara, koitora eta heterosexualitateara, eta, ondorioz, ugalketa-helburuetara. Eredu matxistak eurak, zeinak beren adierazgarri handienetako batekin batera, LGTBIfobiarekin, hain zuzen ere, hierarkiak ezartzen dituzten eredu eusten dien: gizona emakumearen gainetik jartzen dute, heterosexualitatea homosexualitatearen gainetik, eta trans* identitateak erabat ikusezin egiten ditu. Laburbilduta, eredu zaharkituak.

Alta, LGTBIQ+ kolektibo eta erakundeek urte luzez egindako lan eta borrokari esker, pluralaren garrantzia ulertzen ari gara. Zein garrantzitsua den pertsonen mintzatzea pertsona izateko modu ugariak aintzat hartuta, berdintasun identitateei, gorputzei, desirari, gozamenari, bikoteei, maitasunari, sentimenduari, harreman erotikoei eta maitasunaren adierazpenei buruz. Ulertzen ari gara pertsona bakoitza parekorik gabea garela, errepikaezina, besteren desberdina, baina ez horregatik balio gutxiagokoa. Azken lau urteotan legearen alorrean aurrerapen inportanteak egin badira ere, urrun gaude sexu- eta genero-dibertsitatea balio positibotzat eta, ondorioz, desiragarritzat jotzen duen jendarte batean bizitzetik. Nafarroan, sexu-eskubideek erabat bermatuta egon barik jarraitzen dute, eta sarri urratzen dira.

Horregatik, EH Bilduk pluralen ildotik egingo du lan, pertsona bakoitzari merezi duen eta beretzat nahi duen lekua emateko. Hau da gure helburu nagusia: sexu- eta genero-dibertsitatea ikusgai jartzea eta errespetaraztea.

2019-2023 LEGEALDIRAKO PROPOSAMENAK

LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Legea onartuta, hura garatzeko eta LGTBI+ pertsonen benetako berdintasuna Nafarroako jendarteko eremu guztietan eta gure politika publiko guztietan zeharkakotasunez txertatzeko beharrezko ekintza-plana zein plan sektorialak sustatzeko unea da. Horretarako, neurri hauek hartuko dira:

Finkatu eta bermatu Nafarroako LGTBI+ pertsonentzako arreta-zerbitzuaren (Kattalingune) aurrekontu-zuzkidura eta jarraitutasuna, bai zerbitzua bera eta bere kalitatea hobetzeko bai deszentralizatzeko.

– Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak sustatu, bestelako kontzientzia solidarioa eragiteko eta, horrela, bai jarrera-aldaketa bai lesbianen, gayen, transen* eta intersexualen kontrako aurreiritziak nahiz fobiak desagerrarazteko, beren herritartasun-eskubide guztiak eraginkortasunez egikaritzeko moduan bizi daitezen.

– Administrazioetako kargu publikoak informatuta eta prestatuta egon daitezten sustatu, horrela aurreiritzirik gabeko eta sexu-dibertsitatearen kontra egingo ez duten jarrera publikoak bultzatzeko. Halaber, Foru Legean zehazturiko erregimen zigortzailea oinarri, matxismoa, transfobia, lesbofobia eta homofobia sustatzen dituzten herri-administrazioen zerbitzurako langileak zigortu.

– Argi ezarri eta definitu LGBTBI+ Kontseiluaren, LGBTBI+ Berdintasun-unitatearen eta Kattalingune zerbitzuaren helburuak eta funtzioak, hiruretan oinarri hauek ezarrita:

·Foru Legea bera betetzen dela zainduko dute, bai eta garatzen dela ere hainbat plan sektorialetan eta ekintza-plan batean, zeinak neurri zehatzak eta adierazle ebaluagarriak jasoko dituen.

·Lotura nahiz komunikazio egonkor eta aratuak ezarriko dira Nafarroako transexual, lesbiana eta homosexualen erakunde eta kolektiboekin, hala nola genero-rolen esleipen sexistaren aurka diharduten mugimenduekin, haien interes eta beharrak behar bezala ezagutzeko eta babesteko, eta herri-administrazioarekin eta erakunde publikoekin jarduketa-estrategia komunak eratzeko.

·Azterketak eta ebaluazioak egingo dira Nafarroako gizartean sexu joera edo identitatea dela eta gertatzen diren diskriminazio-egoeren gainean (zehatzak kasuistiken arabera: intragenero indarkeria; bullying edo eskola-jazarpen transfobikoa, lesbofobikoa, homofobia eta bifobikoa; lan-merkatuan sartzeko eta integratzeko arazoak). Orobat, kasu bakoitzean neurri eta esku-hartze zuzentzaile eta prebentziozkoak proposatuko dira.

·Aholku emateko erreferenteak izango dira administrazio guztietan sexualitatearekin loturiko lege, arau eta politikak eratzeko orduan.

·Aholkularitza juridikoa emango diote hala eskatzen duen edozein herritarri, sexu joera edo identitateari dagokionez haren eskubideen balizko bortxaketak daudenean.

·Ekitatez jardun eta lurralde-kohesioa bultzatuko dute; landa-eremuak bereziki artatuko dituzte, eta zerbitzuak deszentralizatze beharrezko neurriak hartuko. Horretarako, Kattalinguneren eta Toki Erakundearen arteko hitzarmenak sustatuko dira, eskualde bakoitzean gutxienez zerbitzu bat dagoela bermatzeko.

Horrez gain, neurriak hartuko dira hainbat esparrutan, plan sektorialen eta ekintza-planaren baitan:

Hedabideak

– Berariazko kanpaina instituzionalak eta publizitatezkoak sustatuko dira sexu-errealitate gutxituak ikusgai jartzeko, modu positibo eta aberasgarrian aipatuta. Tratu txarren kontrako kanpainetan, intragenero indarkeria jaso eta ikusgai jarriko da.

– Eskuliburu deontologiko bat eratuko da hedabideetan LGBTBI+ kolektiboen (lesbiana, gayak, bisexualak, transak*, intersexualak...) errealitateei eragiten dieten albisteak emateko, bereziki trans* pertsonen buruzkoak. Era berean, eskuliburuak gomendio gisa balioko du publizitate ez-heterosexista zabaltzeko.

Hezkuntza

– SKOLAEren eta hezkidetzaren baitan, irakasleak eta hezkuntza-arloko etorkizuneko profesionalak sexu- eta genero-dibertsitatearen eta familia-dibertsitatearen alorrean prestatu eta trebatuko dira.

– Ildo horretatik, kalitatezko material didaktiko propioak sortuko dira, bai ikasleentzat bai irakasleentzat bai familientzat eurentzat. Egungo errealitate sexual, afektibo eta familiakoak islatuta, xedea da horiek guztiak ikusgai jartzea eta modu positiboan integratzea. Hezkuntza-curriculumean, sexu- eta familia-dibertsitateari buruzko prestakuntza jasoko da, modu transbertsanean eta maila guztietan.

- Esparru afektibo-sexualean, errespetu, berdintasun, askatasun, gozamen eta erantzukizunaren printzipioak sustatuko dira, bai eta bestelako maskulinitate-ereduak ere, berdintasuna ahalbidetzeko eta eredu matxistak kolokan jartzeko.
- Trans* ikasleei arreta emateko protokoloa berraztertu eta hobetu egingo da. Horrez gain, eskola-jazarpen edo bullyingaren kontrako protokoloetan transfobia, lesbofobia, homofobia eta bifobia jasoko dira.
- Diziplina anitzeko lantalde bat sortuko da trans* adingabekoen kasuei jarraipena egiteko (hezkuntza, osasuna eta egoki irizten zaion beste edozein zerbitzu).
- Unibertitate Publikoan, sexu- eta genero-dibertsitatearen gaineko azterketak integratu eta sustatuko dira, osasun-zerbitzu publikoekin batera.

Herritarren askatasunak

- Epaileei, fiskaltzari eta poliziari begirako prestakuntza- eta sentsibilizazio-programak sustatuko dira, sexu dibertsitate eta askatasunaren kontrako jarrerak eraginkortasunez zigor daitezkeen arlo penalean, halako erasoen biktimek babes handiagoa izan dezaten, hala nola aurreiritzirik gabeko tratua jaso dezaten arlo honetako diziplina anitzeko funtzionario-taldearen aldetik.
- Tratu txarren biktimak artatzeko protokolo integraletan, intragenero indarkeria jasoko da, eta NAn emakume-generoa jasota ez duten emakume transexualek jasaten dutena ere bai.
- Aholkua eta laguntza emango dira sexu joera edo identitateagatik jazarriak diren eta eskaera egiten duten pertsona guztiei asilo politikoa ematea eta dagozkien eskubideak aitortzea ahalbidetzeko, edozein izanda ere haien egoera administratiboa.

Arlo sozioekonomikoa

- Sindikatuekin batera, sexu joera edota identitateagatik lantokietan izan daitezkeen fobien kontrako sentsibilizazio- eta borroka-neurrien dekalogoia eratuko da, pertsona horien lan-integrazioa bultzatzeko.
- Bereziki hartuko dira kontuan trans* pertsonak, eta, kasu honetan, lan-sustapenerako berariazko politikak eta ekintza positiboak eratu eta aplikatuko dira, lan-kontratazioan haien diskriminazio sistematikoa saihesteko.

Arlo soziosanitarioa

- Jarduketa-protokolo ez-patologizatzaileak zabalduko dira, dibertsitatearen eta askatasun indibidualaren bermatzaileak, gomendio eta gida gisa bai sistema publikoko bai pribatuko profesionalentzat.
- Transbide zerbitzua finkatu eta handitu egingo da.
- Arreta pertsonalean diharduten baliabideetako langileek arlo honi buruzko prestakuntza jasoko dute, bereziki abegi-baliabideetan adin txikikoen lan egiten duten pertsonak.

POLITIKA FEMINISTA

Krisi orokor eta sistemikoak menderakuntza-eredua, bai patriarkala eta bai kapitalista, gain behera ekarri duen sasoi honetan, emakumeek bereziki pairatu dituzte botere politikoak, elite ekonomikoekin lankidetzan, azken urte hauetan egin dituen murrizketak.

Oraintsu egin diren azterlanek agerian uzten dute ezberdintasun-mailak gero eta handiagoak direla, nola soldatetan hala lan ordaindua lortzerakoan, eta baita pentsio edo «laguntzak» jasotzerakoan ere. Ezberdintasunaren arrakala sakontzen ari da gizonezkoen eta emakumezkoen artean; baina are larriagoa da emakumeen artean ere haztea arrakala hori, batez ere zenbait sektoretan; esate baterako, emakume migratzaileen artean.

Gainera, eta txit garrantzitsua da hori guretzat, emakumeok gure planteamenduak, eskubideak, helburuak, nahiak, errealitateak, egoerak eta beste ditugu, zeinak, gehienetan, botere publikoek sustatzen dituzten politiken ildoarekin bat ez datozen inondik ere.

Abortatzeko eskubidearen alde arestian egin diren borrokek, «Nire gorputza nirea da», «Nik erabakitzen dut», «Amatasuna, bai edo ez, libre eta borondatez» eta halako aldarriekin, agerian utzi dute Nafarroan emakumeek oso bereziki nozitu behar izan dugun Espainiako eskuin ultra katolikoaren mehatxu berrien aurka altxatu egin garena emakumeak.

Beste salakuntza-ildo etengabeetako bat da beti emakumeei esleitzea zaintzako eta ugalketako lanak. «Derrigorrezko familia-zaintzaren» aurkako intsumisioa proposatu, eta langintza horietan gizonezkoen erantzunkidetasun osorik ez izatea salatzea baino harago doa aldarria. Horrez gain, feminismoaren aldarrikapenerako ezinbestekoa da exijitzea Administrazio Publikoak izan daitezela, lehenik eta behin, gizarte-laguntza unibertsaleko zerbitzuak antolatu eta ematen dituztenak. Gainera, aldarrikapen horren beste ildoetako bat da zaintza-lanak guztien artean banatzea, eta horiek guztiak lantzat hartzea, ondore guztietarako.

Botere publikoek esku har dezakete, eta hartu behar dute, arazo sozial latz hori onbideratzeko. Gure erantzukizuna da eta lehentasunezko eginkizuna dugu planteamendu horiek ordezkartza-erakundeetara helaraztea.

Emakumeok jasan ditugun injustiziak, nola historikoak hala gaur egungoak, agerian jartzeko beharrezkoak diren kontzientziario- eta sustatze-lanetatik hasi, eta emakumeek ugalketa-lanetan eta esparru pribatuko zaintzakoetan daramaten gainkarga deuseztatuko duten zerbitzuak sortu eta mantentzeko neurri zehatzetaraino, tartean direla emakumeen aurkako edonolako indarkeria ezabatzeko estrategia egokiak.

Ildo horretan, gure helburu nagusia da politika publikoak eraldatzea jarrera feminista batean oinarrituta, emakume guztientzat baldintza sozial eta ekonomiko duinak berma daitezen.

Hala, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko ezberdintasun iraunkorra, eta emakumeen artean diskriminazio-faktore soziokulturalengatik gero eta nabarmenagoa egiten ari den arrakala dela eta, gure ustez hartu beharrekoak diren hainbat neurri proposatzen ditugu, berariazkoak batzuk eta transbertsalak besteak. Legegintzaldi honetako lehentasunak hauek izango dira:

- Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Foru Legea erabat garatzea, sektorekako planak eta helburu eta neurri zehatzak aurreikusiko dituen plan estrategikoa landuz, eta adierazleak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ezarri.
- Berdintasun-gaietarako erreferentziazko den erakundeari, hau da, Nafarroako Berdintasunerako Institutuari, zentralitatea eta behar besteko baliabideak ematea.
- Foru Erkidegoko Administrazioaren departamentu guztietan ikuspegi eta praktika feministaren transbertsaltasuna bermatzea. Nafarroako Aurrekontu Orokorrak, eta enplegu-politikak, genero-ikuspegi batean oinarrituta lantzen aurrerapausoak ematea, soldata-arrakala gainditzeko helburuarekin.

- Politika publikoak erabakitzen eta egikaritzen dituzten organoetan herritarren parte-hartzea sustatzea, batez ere, emakume-elkarteena eta mugimendu feministarena.
- Lurralde-ekitatea eta kohesioa bermatzea, Nafarroako eskualde guztietako berdintasun-zerbitzu eta -eragileen artean. Administrazioaren foru- eta udal-mailen arteko koordinazioa hobetzea, landa-eremuetako emakumeen ezberdintasunak onbideratzeko.
- Zaintza jasotzeko edonork duen eskubidea bermatzeko aurrerapausoak ematea, horrek emakumeentzat gainkargarik izan gabe.
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko, erabakimenez borroka egitea, eta biktimen ahalduntzea sustatzea. Askotariko diskriminazioen prebentzioa eta arreta bereziki aintzat hartzea.
- Emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubide guztiak bermatzea, osasun publikoan haurdunaldia borondatez eteteko aukera barne.

2019-2023KO LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

Transbertsalitatea. Politika publikoen eraldaketa

- Behar diren baliabideak (ekonomikoak nahiz pertsonalak) zuzkitzea legegintzaldian Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foru Legea erabat garatzeko, sektorekako planak eta helburu eta neurri zehatzak aurreikusiko dituen plan estrategikoa landuz, eta adierazleak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ezarriz.
- Pausoka, aurrekontuaren % 1 gutxienez berdintasunaren sustapenera bideratzeko helburua aintzat hartzea, bai ekintza positiboko politiketarako, bai politika transbertsaletarako.
- Politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko eta politika feminista bat garatzeko baldintzak sortzea. Horretarako, berdintasun-gaietarako erreferentzia den erakundeak, alegia, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, gidatuko du politika feminista osoro. Foru Erkidegoko administrazio-egituraren erdigunean kokatuta egongo da, berezko autonomia eta politika transbertsalak lantzeko benetako gaitasuna edukiko du, eta behar besteko baliabide ekonomiko eta pertsonalak izango ditu.
- Gainera, berdintasun-politiken ardura duen erakundea den heinean, Nafarroako Berdintasunerako Institutuan lan egiten duten guztiei berariazko prestakuntza bermatuko zaie berdintasun-gaietan.
- Enpleguaren esparruak duen garrantzi sozialarengatik, eta une honetan enpleguak eta langabeziak Nafarroan duten egoeragatik, garrantzizkotzat jotzen da atal berri bat sortzea, emakumeen enpleguari buruzko neurriak eta soldata-arrakalaren aurkakoak eta enpresekiko harremanetakoak (berdintasunerako neurriak eta planak, jazarpen-protokoloak, e.a.) landuko dituena.
- Berdintasun-gaietan berariazko prestakuntza bermatzea erabakiak hartzeko ardura duten politikarientzat: Parlamentuan, Foru Administrazioan eta tokiko erakundeetan.
- Departamentu guztietan, transbertsalitatea bermatuko duten berdintasun-unitateak finkatzea eta garatzea.
- Koordinazio-nukleoak departamentu bakoitzean. Departamentuen arteko koordinazio-nukleoak, nola maila teknikoan hala politikoa.

- Genero-inpaktua sistematikoki aztertzea proiektu estrategiko guztien eta aurrekontuen diseinua eta lanketa egiterakoan, eta, behin burutuz gero, beharrezkoak diren tresnak sortzea eduki duten egiazko inpaktua neurtzeko.
- Administrazio publikoan egiten diren diagnosi, lan estatistiko eta analisi guztietan datu bananduak lantzeko betebeharra ezartzea.
- Klima-aldaketa arintzeko eta egokitzeko estrategiak ikertu, aztertu, diseinatu eta abian jartzerakoan, genero-ikuspegia txertatzea.
- Berdintasun-legean aurreikusitako maiztasunarekin lantzea berdintasun-planak. - Udalei laguntzea, sarean lan egitea eta udalekin lankidetzeta eta ideia-trukaketa egitea.
- Berdintasun-zerbitzuak unibertsalak bihurtzea maila lokalean (udaletan edo eskualdeko gutxieneko zerbitzuen bitartez). Behar izanez gero, halakoak sortzea, eta zerbitzu horiek baliabide teknikoak eta ekonomikoak hornitzea.
- Udalei laguntza tekniko eta ekonomiko ematea, bakoitzak bere berdintasun-politikak landu ditzan.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eskumenez eta baliabidez hornitzea, udalen berdintasun-sarea sendotu eta hedatzeko, berdintasun-teknikak sarean lantzea sustatzeko eta udal-betekizunak gainditzen dituzten proiektuak hausnartu eta adosteko.
- Mugimendu feministak edo emakumeen elkargoek, udal-administrazioaren zuzendaritzapean, udaletan landutako proiektu estrategikoak lagundu eta bultzatzea.
- Kontratazioaren jarraipena egiteko batzorde bat eratzea, kontratazio publikoko gaiak kontrolatzeko, kontratazioetan berdintasun-klausulak eta -irizpideak ezartzen direla bermatu ahal izateko, emakumeek lan-baldintza duinak izango dituztela bermatzeko, emakumeek enpresak parte hartzen dutela ziurtatzeko, sexu-diskriminazioa desagerrarazteko, kontziliazio-neurriak segurtatzeko, e.a.
- Genero ikuspegia txertatzea diru-laguntzetan. Sexuaren araberako diskriminazioa egiten duten jarduketak ez dira diruz lagunduko, eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintza zehatzak eta abar aurreikusi beharko dira.
- Nafarroako Berdintasunerako Institutuak udaletan berdintasun-ordenantzak egin daitezela bultzatzea eta ahalbidetzea.
- Enplegu publikoaren kalitatea indartzea, zerbitzu publikoak hobetu ahal izateko.
- Kontziliazioa ahalbidetzea eta erantzunkidetasuna sustatzea, berariazko programak eta kanpainak sortuz (administrazio publikoa bera eredutzat harturik).
- Administrazio publikoan lana eta bizitza pertsonala bateratu ahal izateko neurri zehatzak lantzea; esate baterako, lanaldien malgutasuna, hurbiltasun-zerbitzuak,...
- Zaintza-lanetan gizonezkoek erantzunkidetasuna beretu dezaten, ekintza-plan bat diseinatzea.
- Langile publikoen amatasun- eta aitatasun-baimenak parekatzea.
- Komunikazio-eredu ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea. Foru Administrazioan hizkera inklusibo ez-sexista erabili eta aplikatzeko plan bat abian jartzea.

- Hedabideetatik eduki sexistak kentzeko lan egitea, eta halakoak desagerraraztea.
- Irudi ez-sexistak eta inklusiboak erabiltzeko konpromisoa. Horretarako irizpideak zehaztuko ditugu, eta haien betetze-mailaren jarraipena egin. Arreta berezia eskainiko zaie erakundearen inprimakiei eta barne-dokumentazioari, foru-erkidegoko administrazioaren kanpo-komunikazioko baliabideei; adibidez, aldizkariari eta prentsa-oharrei, eta baita kanpo-harreman edo jendaurreko agerraldiei ere: erakunde-ordezkaritza mistoak, parekideak, pluralak...

Emakumeen parte-hartze soziopolitiko

- Parte hartzeko eredu onuragarri, orekatu, jasangarri eta eraldatzailea sustatzea.
- Emakumeen Parte-hartze Politikorako Estrategia eta beste ekintza positibo batzuk garatzea, berariaz emakumeen parte-hartzea sustatzeko politikako maila guztietan, eta jardunbide egokiak eta esperientzia eraldatzaileak ezagutzeko eta ezagutarazteko.
- Emakumeak ahalduentzeko helburua duten proiektuak sortzea edo sustatzea, edo, bestela, sendotzea, landa-eremuak bereziki aintzat harturik.
- Emakumeen lokalak, ahalduentze-eskolak, autodefentsa-feministako elkarteak, e.a. sendotzeko edo sortzeko laguntza ematea.
- Berdintasunaren Kontseiluaren esparruan politika publikoak diseinatzeko, erabakitzeko eta jarraipena egiteko orduan, mugimendu feministen edo emakume-elkargoen parte-hartzea sustatu eta indartzea, haiekin zuzenean hitz eginda edo beste mekanismo batzuen bitartez.
- Mugimendu feministari eta emakumeen elkargoei laguntza ekonomiko eta instituzional egonkorra bermatzea. IPES, COMFIN eta gainerako finantzaketa bermatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak sustatzen dituzten ezgaitasunaren alorreko erakunde sozialen proiektuak finantzatzea.
- Ekintza positiboko neurriak lantzea ezgaitasuna duten emakumeen aukera-berdintasuna sendotzeko, kideko gizonen aldean, enpleguan, parte-hartze politikoan eta halako alorretan.
- Tokian tokiko berdintasun-batzordeak sendotzeko edo sortzeko laguntza ematea.

Biziaren jasangarritasuna. Produkzio- eta ugalketa-lana.

- Ugalketa- eta zaintza-lanaren balioa nabarmendu. Biziaren jasangarritasuna erakunde-jardueraren ardatzean ipini behar da ekonomikoki eta sozialki.
- Pertsona orok zaintza jasotzeko duen eskubidea bermatzen aurrerapausoak ematea.
- Zaintzari buruzko diagnosi orokor bat lantzea, honako alderdi hauek bilduko dituena, besteak beste: analisi zorrotz bat eta plan bat, zaintza-premia guztiak aintzat hartuko dituzten zerbitzu publikoen hedapenean aurrera egiteko; lanpostu publiko gehiagoren sorrera, eta plaza pribatuen itzulketa, eta koordainketaren murrizketa.

- Zahartze aktiboaren estrategia ausarki sustatzea, norberaren autonomia laguntzeko eta mendekotasuna atzeratu ahal izateko.
- Zaintza-lanetan dihardutenei laguntzeko bitartekoak ugaritzea, haien eskueran ipiniz autozaintzako eta etxe-barneko negoziatorako baliabideak.
- Zaintza-lanetan dihardutenek hats/atseden har dezaten programak.
- Lanbidez zaintzaileak ez direnen lan-baldintzak hobetu eta duintzea, familiartekoak zaintzen dituztenen ongizateari lagunduz eta haien eskakizunak aintzat hartuz, eta zaintzen banaketa gizalegezkoagoa sustatuz familietan eta etxeetan.
- Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluko kideek parte hartu ahal izatea Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziako (edo sortzea egoki irizten den erakundearen) zuzendaritza-batzordean.
- Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren arduradun tekniko zein politikoen prestakuntza feminista egokia bermatzea.
- Lan-eskubideak araupetzea, eta ezkutuko ekonomien aurka borroka egitea.
- Zaintzaile profesionalean garrantzia aintzatestea, eta haien lan-baldintzak hobetzearen alde egitea. Zaintza profesionalen sektorearen lan-baldintzak duintzea, arreta berezia ipiniz etorkinengan.
- Kontratazio publikoetan berdintasun-irizpideak betetzen direla kontrolatzea, besteak beste, lan-baldintza duinak bermatuz zaintza-sektorean diharduten langileentzat.

Emakumeen autonomia ekonomikoa

- Prestakuntza- eta enplegu-planak lantzea, autonomia ekonomiko nahikorik ez duten emakumeentzat eta guraso bakarreko familietako emakumeentzat bereziki.
- Prestakuntza-programak identifikatu eta lantzea emakumezkoen lan-sektoreetarako, eta planak lantzea emakumezkoen lan-esparru autonomoetako lan-baldintzak hobetu ahal izateko.
- Kooperatibismoa sustatzea emakumeen artean, kooperatibak sortzeko prestakuntza, aholkularitza-zerbitzuak eta laguntzak eskainiz, arreta berezia ipiniz emakumezkoak diharduten lan-sektoreetan.
- Emakumeen prestakuntzarako jarduketa-plan bereziak, kooperatibismoarekin eta esparru batzuetan (laborantzan, zerbitzuetan, nekazaritzako elikagaien industrian, zaintzan, e.a.) dituzten aukera eta hautabideekin lotuta.
- Erakundeetan lan-baldintza duinak ziurtatzea, lan-merkatutako erreferente izan daitezen.
- Behin-behinekotasuna eta lanaldi partzialak murriztera bideratutako kontratazio-politika diseinatzea.
- Kontratazioetan eta dirulaguntzetan genero-klausulak ezartzea, besteak beste, langile guztien lan-baldintzak araupetuta.
- Emakumeen lan-prekarietatearen aurkako premiazko neurriak abian jartzea.
- Pertsona zaurgarrienak (ezgaitasuna dutenak, migratzaileak, e. a.) aintzat hartzen dituzten ekimen sozialak lagundu, bultzatu eta sustatzea.

- Esplotazio-egoerak ahalbidetzen dituzten zaintza ez-formalen sareei buruzko diagnosiak landu, eta halakoak araupetzeko jarduketa-plana egitea.

- Lan ordaindua behar dutenen eta langileak behar dituztenen arteko bitartekaritza-esparru irregularretan esku hartzea. Esate baterako, batzuetan, emakume etorkinei aholkua ematen zaie edozein lan-baldintzatan ari daitezen, baita egoera jasangaitzetan ere.

Emakumeen aurkako indarkeria

- Baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak zuzkitzea, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen ekintza-plana garatzeko, eta baita Gobernuaren departamentuetako sektore-planetarako ere.

- Publikotasuna eta doakotasuna emakumeen kontrako indarkeriarekin zerikusia duten zerbitzu eta baliabide guztietarako (baliabide administratiboak zein judizialak eskuratu ahal izateko).

- Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio eta arretarako baliabideak hobetu eta hedatzea (harrera-etxeak, pisuak, arreta orokorreko lantaldeak, prebentziorako udal-baliabideak, e. a.). Nafarroako Berdintasunerako Institutuak 2017an egin zuen ebaluazioa du abiapuntutzat hobekuntza horrek.

- GEA-Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren zenbatekoa LAGS-Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren parean ipintzea indarkeria matxisten biktima izan diren emakume guztientzat.

- Genero-indarkeriarako Nafarroako jarduketa-protokoloaren eta tokian tokiko jarduketa-protokoloen koordinazioa lortzea (tokiko erakundeetan haien ezarpena hauspotu, NUKFarekin lankidetzan).

- Genero-indarkeriako espedienteen kudeaketa integralerako fitxategi informatizatua (RIEVG), zeina jada egina baitago, abian jar dadin bultzatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren espediente guztien kudeaketa homogeneous eta bateratua egin ahal izateko esku hartzen duten instantzia guztietan, eta, bidenabar, horrelako delituen biktima direnei arreta integrala eskaintzeko eta kontsolidatutako informazioaren ustiapena egiteko, Leihatila Bakarra sortzeko lehen urratsa izan dadin, eskura dauden baliabide guztiei buruzko informazioa bateratuta, administrazio-atal batetik bestera ibili beharrik izan ez dezaten.

- Nafarroako Arartekoaren baitan Berdintasuneko Teknikariaren figura sortzea, indarkeria matxistaren biktimak defendatzeko.

- Indarkeria sexistaren aurkako kontzientziazio-kanpainak bultzatzea. Bitartekoak jartzea herritarrek, eta batez ere emakumeek, eskueran dauden baliabideei buruzko informazioa izan dezaten.

- Indarkeria sexistari buruzko protokolo orokor bat lantzea, hedabideetan trataera egokia ematen zaiola segurtatzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta eduki sexistak desagerrarazteko, besteak beste.

- Prestakuntza ematea emakumeen aurkako indarkeria-kasuen prebentziorako eta kudeaketan diharduten profesionaleri (polizia-kidegoetakoei, epaileei, fiskaltzakoei, gizarte-zerbitzuetakoei, osasunekoei, enplegukoei, hezkuntzakoei, e. a.).

- Hezkidetzat, prebentziorako oinarritzko neurria izan dadin (SKOLAE erabat garatu).

- Jarduera medikorako protokolo bateratu bat abian jartzea.

- Tokian tokiko jarduketa-protokoloak abian jartzea, eta horietan inplikatzea hezkuntzako eta osasuneko ordezkariak, gizarte-zerbitzu eskudunak, udaletakoak, elkarte-bilbeakoak eta polizia-kidegoetakoak, halakorik balitz.
- Biktimak adierazten ez badu ere tratu txarrak dauden egoerak detektatzea ahalbidetzen duten adierazleak gehitzea. Genero-indarkeriari antzemateko lanabes metodologikoen ezagutza helaraztea osasun- eta hezkuntza-zentroetako langileei (esate baterako, SARA-Spousal Abuse Risk Assessment deitua). Babes-neurriak landa-eremuetan. Baliabide guztien koordinazioa (protokoloa).
- Indarkeria sexistaren biktima diren emakumeen babesa hobetzea (tresnak eta estrategiak).
- Larrialdiko prestazio ekonomikoak (autonomia bultzatzeko), eta bidea ireki enplegu-programetarako, etxebizitzarako...
- Laguntza psikologiko espezializatua ziurtatzea emakumeentzat eta haien alaba eta semeentzat, eta prozesu osoan bermatzea.
- Ezgaitasuna duten neskek eta emakumeek pairatzen duten genero-indarkeriaren prebentzio eta arretarako berariazko neurriak lantzea. Erreferentziatzat CERMIN-Nafarroako Desgaituen Entitate Ordezkarien Batzordearen dekalogoia hartuz, premia larrikoa da neurri egokiak hartzea, genero-indarkeria detektatu eta horrekin zerikusia duten zerbitzu, baliabide eta informazio guztiak eskueran daudela bermatzeko.

Sexu- eta ugalketa-eskubideak

- Emakumeek beren gorputza libreki, nahierara eta askatasunik handienarekin, hirugarrenen esku-hartzerik gabe, erabili ahal izatea defendatzea.
- Emakumeen sexu-organoen mutilazioari buruzko protokoloa kontsolidatu eta ezagutaraztea, praktika horren prebentziorako ekinbideak sustatu eta jarraipena egin, eta baita berariazko bitartekaritza-lanak eta esku-hartzeak, mutilazioa egina duten emakumeengan ondorio edo aztarna fisiko zein psikikoak artatzeko.
- Sexu- eta ugalketa-osasuneko dekretua bete eta garatzea, jasotzen dituen eremu guztietan: giza-ugalketaren erabilpen unibertsala, haurdunaldia borondatez etetea osasun-sistema publikoan, ugalketa lagunduaren eskubidea emakume ororentzat Osasunbidean, CASSYR-Sexu eta Ugalketa Osasuna Artatzeko Zentroyen garapena...
- Baliabide nahiko eta egokiak ematea sexu- eta ugalketa-osasuneko zentroyei:
- Sexu-osasunerako kalitatezko arreta-zerbitzuak eskaintzea, edonorentzat eskueran izan daitezen.
- Afektibitate- eta sexu-prestakuntza lantzea, emakumeak ahalduzko gai izango dena, beren sexualitatearen eta gorputzaren kontrola areagotu eta heteroaraua zalantzan jar dezaten.
- Antisorgailu-politikak egitea emakume guztientzat, batik bat, sektorerik prekarizatuenei begira; esaterako, emakume etorkinei eta gazteei.

GAZTERIA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Gazteria herri honen oraina eta etorkizuna da, kolektibo anitza eta zabala, eta eremuz eremu sistema ekonomiko eta sozialaren ondorioak modu berezitan pairatzen dituena. Hori dela eta, zeharkako eran landu beharreko esparrua da, neurri integralak behar dituena, egoera iraultzeko eta etorkizun duina gaurdanik bermatzeko.

Gazteak zokoratzen dituen herria etorkizunik gabeko herria da. Gazte burujabeak behar ditu herri honek, eredu propioak garatzeko ahalmenarekin, horregatik, bermatu behar dugu gazteen hitza entzuten eta kontuan hartzen dela bizi ereduaren alderdi guztietan.

EH Bildutik aurrera eramango dugun gazte politikaren oinarri nagusia kultura sozialean, solidarioan, ekologistan, euskaldunean eta feministan herritarrek hezteko baldintzak sortzen laguntzea izango da. Adin honetan, beste batzuetan baino gehiago, ezinbestekoa da genero berdintasunean, hezkidetzan eta parekidetasunean indarra egitea.

EH Bilduren apustua, beraz, argia da: eremu guztietatik politikak bultzatuko ditugu gazte trebatuak, solidarioak, burujabeak eta beren herriarekin konprometituak izan daitezen.

Oinarri eta ikuspegi horretatik abiatuta, EH Bilduren helburu orokorra hauxe izanen da: beharrezkoak diren baldintzak bermatzea, gazteek beren ikasketa-, lan- eta bizitza-proiektua (enplegua, etxebizitza, zerbitzuak, mugikortasuna...) Nafarroan garatu ahal izan dezaten. Horretan ariko gara lanean.

Gure helburu nagusia izanen da, halaber, guztion beharrezkoak bermatzen dituen eskaintza zabala eta integrala egitea. Gazteena kolektibo espezifikoak den heinean, erantzun espezifikoak behar ditu, arlo guztiak zeharkatuko dituzten neurri eta ildoen bidez.

Gazteriaren parte-hartzea bizitza politiko, sozial eta kulturean ezinbestekoa da, gure eskubideak bermatzeko eta jendartearen transformazioaren motorra izateko. Parte hartze horretarako baliabideak bermatzearen alde lan egingo du EH Bilduk.

2019-2013 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK:

Gazteen bizi-baldintza objektiboak bultzatzea

-Alokairu soziala bultzatzea. Etxebizitza eskubide subjektiboa izendatua den heinean, hurrengo neurrien inplementazioa:

- Gutxiengo soldatarik ez eskatzea, hau da, adinez nagusia den eta lanean edo lan bila ari den edozein pertsonak eskatu dezake babesturiko alokairuko etxebizitza.
 - Emantzipaziorako alokairuaren laguntzetan, gehienezko prezioa muga izan ordez, bestelako irizpideak kontuan hartzea.
 - Nasuvinsaren bidez, edo herrietan horretarako baldintzak erraztuz, alokairurako etxebizitza poltsak handitzen jarraitzea, dagoen eskaerari bidea eman ahal izateko.
- Administrazioak dituen etxebizitza hutsen errolda argitaratzea urtero.
- Etxebizitza handiak banatzeko aukerak erraztea, babesturiko alokairura bideratzeko udalerriek etxebizitza handiak

banatu eta zaharberritzea, alokairura bideratzeko diru-laguntza programa, eta alokairu sozialera bideraturiko etxebizitza handiak banatzeko diru laguntzen plana.

Etxebizitza eredu komunitarioak bultzatzeko plana eta medioak

Gazteen lan-baldintzen hobekuntzari dagokionez:

- Gazteen lan-baldintzak hobetzeko, gazte-prekarietatea murrizteko plana, sindikatuekin eta gazte eragileekin adostua.
 - Lehen sektoreko ustiategi berriak martxan jartzeko laguntza publikoak indartzea, baita belaunaldien arteko eskualdatzeak egiteko asistentzia teknikoa eta diru-laguntza ere.
 - Gazte nekazari eta abeltzainei emandako laguntzak zabaltzea.
 - Gazteen artean ekintzailatza kolektiboa eta sozialak bultzatzeko programak martxan jartzea eta publizitatea egitea, hurrengo irizpideak aintzat hartuta:
 - Prestakuntza: ekonomia sozial eta solidarioarako eta kooperatibismoaren gaineko prestakuntzarako bitartekoak eskaintzea.
 - Proiektuak sortu eta garatzeko aholkularitza juridiko, estrategiko eta finantzarioa.
 - Ekonomia sozialean eta solidarioan eta ekoizpen ekologikoan oinarritutako produktu-sareak sustatzeko proiektua.
 - Proiektu horiek garatu eta eskaintzeko mintegiak sortzea.
 - Administrazioarekin kontratuak egiten dituzten enpresetan, edo administrazioaren diru-laguntzak jasotzen dituzten enpresetan, gazte guztien lan baldintza duinak bermatzea.
 - Krisiaren urteetan arrazoi ekonomikoengatik kanporatuak izan diren gazteen itzulerako plana.
 - Erdi-mailako zein goi-mailako ikasketetan egiten diren praktikak ezin dira baliatu lanpostuak ordeztuko.
 - Curriculum-etik kanpoko praktikan lan-baldintza duinak bermatzea exijituko dugu.
- Garraioa
- Derrigorrezko ikasketa zein ikasketa profesionaletarako, batxilergorako edo ikasketetarako eguneroko garraiorako beka ezartzea, gazteak, ikasketak egiten dituzten bitartean, beren herrietan bizi ahal izateko.
 - Nafarroan eskualdeen arteko zein eskualde barneko garraio publikoaren zerbitzua handitzea; gazteen errekurtsio eta beharren arabera zerbitzua bultzatuko dugu.
 - Gazteen artean ahalduntze prozesuak aktibatzea
 - Udalerrietatik zein Nafarroako Gobernutik, gazteek proiektu kolektibo autogestionatuak eta kogestionatuak garatzeko baliabideak, tresnak, tokiak... erraztuko ditugu.

- Gazteengan zuzenean eragiten duten neurrien, planen, dekretuen zein legeen garapenerako gazteen parte-hartzerako prozesuak jarriko dira martxan, zeinetan erregistratua dauden edo ez dauden gazte elkarten eta asoziatuak ez dauden gazteen parte-hartzea bultzatuko den.
- Nafarroako Gobernuak, Gazteriaren Legearen arabera gazteriaren ordezkaria den heinean, horren egoeraren eta etorkizunaren azterketa egingen du.
- Eskualdeko eta herrietako gazte kontseiluen sorrera bultzatuko dugu, zeinetan gazteen elkarteak, erroldatuak egon edo ez, eta asoziatuak ez dauden gazteek parte hartuko duten.
- Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren banaketa. Gazte Politika Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuan egongo da, beraren zeharkakotasuna bermatze aldera.
- Gazte politikak bideratuko dituen organismo autonomoaren sorrera; Gobernuaren departamentu ezberdinak koordinatzeaz arduratuko da.
- Nerabeei bideraturiko ludoteka eta gaztelekuen sare publikoaren sorrera.
- Gazte politiketako zerbitzuen publikazioa bultzatzeko, teknikarien kontrataziorako laguntzak indartuko ditugu, eta beharrezkoa den aholkularitza bideratuko da Nafarroako Gobernutik.
- Gazte Behatokia bultzatuko dugu.
 - 2021-2026 Gazte Plana egiteko, gazteen parte hartze erreala bermatuko dugu. Aisia eta osasuna.
- Gazte sortzaileen arteko sarea bultzatzea; horretarako tresna, baliabide eta sortzeko tokiak lagatzeko programa eratuko dugu.
- 16-30 urte artean, jarduera fisikoa eta lehiak kanpoko kirola bultzatzea.
- Kontsumismoan oinarritzen ez den aisia bultzatuko dugu; osasungintza, gizarte politika eta berdintasuna eta LGTBI zerbitzuekin batera, gazteen osasungintzarako programak indartuko ditugu (sexualitatean, kontsumoan, elikaduran, jarduera fisikoaren sustapenean).
- Gazteen artean aisiarako barne turismo kulturala sustatuko dugu.

Hezkuntza

- Euro-eskualdean (Nafarroa, EAE eta Akitania) ikasteko programak bultzatzea. Bigarren hezkuntzako zein goi-hezkuntzako zentro publikoen arteko lankidetzak indartzea, ikasle eta ikerlarien harremana helburu.
- Goi-ikasketetako zentro publikoen tasen prezioa errentaren arabera izatea.
- Goi-mailako zein lanbide ikasketetan euskaraz egiteko eskaintza zabaltzea.
- Nafarroako Unibertsitateko gradu zein graduondoko eskaintza zabaltzea lehentasuna izango da guretzat, baita euskaraz ikasteko eskubidea bermatzea ere.

Gune autogestionatuak

- Pensamos que es conveniente que los modelos de Convenio y cesión de locales concreten un marco de funcionamiento en el que la autogestión sea plena pero no exenta de responsabilidades, y en el que la Institución de pasos en el aprendizaje de nuevas maneras de gestión y gobernanza. La autogestión debe llevar compromisos de autoresponsabilidad, y la gestión mecanismos de participación y horizontalización del ejercicio del poder.

KIROLA

Ariketa fisikoa eta kirola eskubide gisa ulertzen ditugu; pertsona bakoitzaren garapen integrala osatzen duten elementuetako bat da, baita gizarte kohesioaren zein gizarteratzearen faktore bat ere. Genero, arraza, ekonomia, gaitasun fisiko edota kirol-gaitasunean oinarritutako edozein arrazoik eragindako diskriminazioak saihestuz, herritar guztiek aukera berdintasuna eta kirola zein ariketa fisikoa egiteko eskubidea izan dezaten bermatu beharra dago.

Kalitatezko jarduera fisikoa eta kirola ezinbesteko tresna dira gizartearen arlo eta maila guztietan (aisialdia, adineko pertsonak, gizarte kohesioa eta gizarteratzea), baita heziketaren arlo guztietan ere (eskola zein unibertsitate mailan), berdin federatua, ez federatua edo errendimenduzkoa izan.

Jarduera fisikoa eta kirola ezinbestekoak dira Nafarroaren kohesio, egituraketa eta garapenerako, aukera luzatzen baitigute gure identitatea eta sinboloak bultzatzeko, euskarari lehentasuna emateko, jarduera fisiko eta kirolaren euskal eredua eraikitzeke, esparru lehiakorra definitu eta egituratzeko, eta herrialdeen arteko lankidetzak sortzeko.

Jarduera fisikoa eta kirola eskubidea direla abiapuntutzat hartuta, herritar guztiek bermatua izan behar dute kalitatezko jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukera, baita horretarako baldintza duinak izateko eskubidea ere; izan ere, kirola ezinbestekoa da pertsonaren garapen integrala ahalbidetzeko eta bizi-kalitate ona izango duen jendarte osasuntsu, kohesionatu eta integratua lortzeko.

Bide horretan aurrera egin nahi badugu, jarduera fisikoa eta kirola ezinbestekoak dira:

- Gorputz-garapenerako ohitura harmoniko eta osasungarriak eskuratzeko, baita kirola egiteko ohitura hartzeko ere. Zentzu horretan, hezkuntza-prozesuan barne hartzen diren adin guztietan jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukerak hobetu eta zabaltzearen aldeko apustua egiten dugu; betiere, adinik goiztiarrenetan kirolaren sustapenari arreta berezia eskainita eta ordutegi egokiak bermatuta.
- Etengabeko prestakuntza eskaintzea, hezitzaileek eta jarduera fisikoen zein kirol entrenamenduen arduradunek prestakuntza egokia izan dezaten.
- Euskararen ezagutza eta erabileraren normalizazioan aurrera egiteko.
- Egiturak (federazioak, elkarteak, ...) eta esparru lehiakorra definitu eta artikulatuz, horiek baitira kirol eredu propioa eraikitzeke gakoak.

2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

- 1- Jarduera fisikoaren eta kirolaren errealitatea ezagutze aldera, azterketa egingo da hainbat arlotan: hezkuntza, aisialdia, emakumeen esparruak, gizarteratze arriskuan dauden taldeak (migratzaileak, beharrian bereziak dituzten taldeak, ...).
- 2- Diagnostikoa egitea, genero ikuspegia barne hartuta, jendartearen egungo beharrian eta ahultasunak identifikatzeko helburuz.
- 3- Instalazio, azpiegitura eta ordutegien erabilera ezagutzea, herritar guztiek horiek erabiltzeko aukera berdintasuna ote duten aztertze aldera (emakumeak eta aniztasun funtzionala duten pertsonak, besteak beste).

4- Nafarroako Gobernuak, udalek eta federazioek egindako kudeaketaren ikuskaritza ekonomikoa.

Kirol eta jarduera fisikoaren egituraketa (nafarroako kirol eta jarduera fisikoaren kontseilua)

5- Kirol eta jarduera fisikoaren Plan Estrategikoa osatuko da Nafarroan eta kontseilua osatzen duten erakundeek proposatuko dituzte aipatutako Plana betetzeko ekintza zehatzak.

Nafarroako kirol-jokoak.

6- Nafarroako kirol-jokoak errotik berrantolatzea. Une honetan kirol-joko lehiakorrak eskaintzen dira 6 urtetatik aurrera, eta eredu hori ez da parte-hartzailea, ezta berdintasunezkoa ere. Eredu horrek ez du jarduera fisikoa sustatzen, kirol espezializazio goiztiarra baizik; horren ondorioz, kirolotan parte hartzen dutenek ez dute gorputz osoaren psikomotrizitatea nahikoa lantzen.

7- Kirol-joko ez lehiakorrak 11 urtetara arte sustatzea.

8- Derrigorrezko hezkuntzan herri kirol eta jokoak, euskal dantza eta pilota sustatzea, curriculumaren barnean eta hezkuntza-proiektuen bitartez ikasturte osoan zehar landuta.

9- Eskolen eta herrien artean joko eta kirol tradizionalen topaketak antolatzea: lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, batxilergoan, unibertsitatean eta arlo sozialean.

10- Bertoko kirolen hedapena erraztu eta sustatzea presentzia txikiagoa duten inguruetan. Horretarako behar besteko giza baliabide eta baliabide materialak eskainiko dira, finkatze eta aurrerabidea bermatze aldera.

11- Genero berdintasunean oinarritutako parte-hartzea pixkanaka sustatzeko kanpainak antolatuko dira.

12- Berrikuntza eta garapena: jarduera fisiko eta kirol jarduera hauen baitan elementu berritzaile positiboak barne har daitezten bultzatuko da eta horien hedapenean lagunduko da, betiere sustraiei eta ezaugarri tradizionalei uko egin gabe.

13- Kirol tradizionaletan emakumeen parte-hartzea sustatzeko programak antolatzea, eta horien parte-hartzea ezagutzera ematea.

14- Joko mistoak sustatzea.

Jarduera fisikoa, aisialdiko kirola eta osasuna

15- Helduentzako kirol-jokoak antolatzea, lehiakortasuna alde batera utzita eta aisialdi hutsa sustatuz.

16- Gazteen sedentarismoa eta haurren gizentasuna jarduera programen bidez ezabatzea. Sail ezberdinen arteko programak.

17- Jarduera fisikorako eta hiri-mugikortasunerako espazioak egokitzea (ibiltzea, korrika egitea, bizikletaz ibiltzea).

18- Naturan jarduera fisikoaz gozatzeko espazioak egokitzea: ibilbideak prestatu, egokitu eta seinaleztatu.

19- Jendartean kirola eta jarduera fisikoa egitearen gaineko kontzientzia pizteko jarduera hezigarriak diseinatu eta martxan jartzea.

- 20- Kirol eta jarduera fisiko ez lehiakorra: jarraitutasuna bermatzea, pertsona batek eskaintza ez lehiakorren ezagatik aukerak galdu ez ditzan (jarduera fisikoa eta kirola adin-tarte eta maila guztietan eskaini).
- 21- Jarduera fisikoa eta kirola Osasun Planaren esparruan ere sustatzea, Nafarroako gainerako administrazioekin koordinatuta.
- 22- Osasun zentroetan, udalekin koordinatuta, prebentziozko eta neurrizko jarduera fisiko osasungarria sustatzeko estrategiak bultzatzea, beharrezkoa duten biztanle-talde guztiei zuzenduta (adinekoak, menpekotasuna duten pertsonak, beharrian bereziak dauzkatenak).
- 23- Kirol segurua: kirolari, epaile, teknikari eta gurasoek Lehen Sorospenen gaineko gutxieneko prestakuntza izatea.
- 24- Prebentzio eta ohitura osasungarriari buruzko prestakuntza-ekintzak antolatzea, hitzaldi eta ikastaroen bitartez (jarduera fisikoa, atsedena eta elikadura).

Jarduera fisikoa eta kirola eskolan

- 26- Jarduera fisikoaren modalitate berriak sustatzea, Multikirola kasu; betiere, kultura aniztasuna kontuan hartuta.
- 27- Eskola eta kirol arloan berdintasuna eta lankidetzatza sustatzeko sentsibilizazio kanpainak antolatzea.
- 28- Kirol jarduera barne-hartzaileak eskainiko dira.
- 29- Egun gorputz heziketari eskainitako eskola-ordu kopurua areagotzea LH, DBH zein Batxilergoan.
- 30- Eskola-orduetan zein eskolaz kanpokoetan egiten diren jardueren helburuak pedagogikoak izango direla bermatzea, eta balio zein ikuspegi berak partekatzen dituztela ziurtatzea.
- 31- Eskolako kirol instalazio publikoak hobetzea.
- 32- Monitoreen, gorputz-heziketako irakaslearen eta familien arteko koordinazio eta komunikazio egokia bultzatzea (helburuak, metodologiak, jardueren azalpena, ... zehazteko).
- 33- Familiek eskolaz kanpoko jardueretan parte har dezaten sustatzea (antolaketa eta koordinazioa).
- 34- Kirol jardueren eskaintza zabalagoa ezartzea (kirol gutxituak barne hartuta eta, horiekin batera, tokiko zein kanpoko kirol kulturaren aniztasuna eskainita).
- 35- Administrazio, federazio, klub, elkarte, ikastetxeen eta guraso elkartearen arteko hitzarmenak bideratzea, kirol modalitate ezberdinak gorputz-heziketa klaseen eta eskolaz kanpoko jardueren bitartez transmititzeko (curriculumean txertatzea).
- 36- Kirol modalitateen eta horien didaktikaren gaineko prestakuntza espezifikoa eskaintzea gorputz-heziketako irakasle, monitore, hezitzaile eta eskolaz kanpoko jardueretako koordinatzaileei.

Jarduera fisikoa eta kirola unibertsitatean

- 37- Kirol modalitate ezberdinak eskaintzea, unibertsitateko ikasleentzako kirol-eskola espezifikoen bitartez; betiere, izaera ludiko eta ez-lehiakorra sustatuta.
- 38- Unibertsitatean bertan lehiaketa mailako kirola egiteko aukera eskaini eta bultzatzea maila ezberdinetan: barne-lehiaketak, unibertsitateen arteko lehiaketak, probintzia artekoak...
- 39- Euskal joko eta kirolak unibertsitate arloan sustatzea.

Jarduera fisikoa eta kirola gizarteratzeko tresna gisa

- 40- Norbanakoen errentekin bat datozen prezio publikoak sustatzea.
- 41- Modalitate bakoitzean kirol egokituari zuzendari aritzeko gaitasun espezifikoak dituzten teknikariak trebatzea.
- 42- Kirol lehiaketetan beharrezkoak (hala fisikoa, nola psikologikoa) dituzten pertsonen parte hartu ahal izateko beharrezko egokitzapenak txertatzea.
- 43- Kirol Egokituaren Nafarroako Federazioa mantentzea, ohiko kirol federazioen egituren barnean erabateko eta kalitatezko integrazioa bermatzerik ez dagoen bitartean.
- 44- Egungo nesken esparrua finkatu eta zabaltzea, baliabide material zein ekonomikoaren berdintasun osoa lortzea helburu izanik. ç
- 45- Sexismorik ezaren eta generoaren gaineko kontzientziario kanpainak antolatzea.
- 46- Emakumezkoen jarduera fisikoa, kirola eta lehiaketak babestu, koordinatu eta sustatzea.
- 47- Nesken jarduera fisikoa eta kirola ezagutzera ematea, emakumezko kirol erreferenteak ere sortzeko.
- 48- Bertoko kirolean emakumearen parte-hartze aktiboa sustatzea.
- 49- Pertsona guzti-guztien parte-hartzea sustatzea: presoak, buruko osasun arazoak edota menpekotasunak dauzkatenak, beharrezkoak dituztenak, migratzaileak edota gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonak.

Adinekoen jarduera fisikoa

- 50- Adineko pertsonen zuzendutako jarduera fisikoa sendotu eta areagotzea, adin-tarte horretako biztanleak etengabe ugartuz doazelako.
- 51- Osasun zentroetan, udalekin koordinatuta, prebentziozko eta neurritzko jarduera fisikoa osasungarria sustatzeko estrategia bultzatzea, bereziki adineko pertsonen zuzenduta.

JARDUERA FISIKO ETA KIROLA: EZ FEDERATUA, FEDERATUA, ERRENDIMENDU ALTUKOA ETA ELITEKOA

- 52- Mendizale Mendi-kirolen Napar Federakundea sustatzea, mendizaletasuna Euskal Herriko erreferenteetako bat da eta.

53- NICDO egitura berrantolatzea.

54- Probintzien arteko lankidetzak, Nafarroakoak baino maila handiagoko jardura eta lehiaketak sortzeko.

-55- Nafarroako eta EAEko lehiaketen arteko koordinazioa, elkarren artean parte-hartzea oztopatu ez dezaten.

56- Egitura federatuen baitan maila txikiko lehiaketak sortzea, baita beste edozein organismo pribatu zein publikoren baitan ere (Administrazioa, klubak, Gazte Elkartek, Auzo Elkartek, GKEak eta Kirola Sustatzeko Erakundeak).

57- Modalitate jakin batzuetan lehendik dauden errendimendu-zentroak finkatu eta hobetzea, eta kirol-mailak hala ahalbidetzen duenean zentroak eratzea. Hala eta guztiz ere, zentro horien presentzia justifikatu egin beharko da; Federazio bakoitzarekin zehaztu beharko da kirol-maila alturik ba ote dagoen, eta, hortaz, errendimendu-zentro bat egotea justifikatuta dagoen ala ez.

58- Administrazioaren eta Federazioen arteko hitzarmenak sortzea, errendimendu-zentroei finantzazio nahikoa emateko.

59- Administrazio, Federazio eta Fundazioen arteko hitzarmenak: Kirol Fundazioek errendimendu-zentroen finantzazioan lagunduko dute, beka eta diru-laguntzen bitartez.

60- Estamentu arbitralean jardura fisikoa sustatzeko plana bultzatzea.

61- Goi-mailako kirolari, epaile eta teknikari ohiak errendimendu-zentro horietako koadro teknikoetan barne hartzea.

Prestakuntza

62- Prestakuntzaren eskaintza Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin batera sustatzea.

63- Teknikari eta epaileen artean oinarriko prestakuntza sustatzea maila guztietan, kostu ekonomikoa eta aurrez aurreko eskolen karga erraztuz.

64- Prestakuntza plan ofizial berriak martxan jartzea, Hezkuntza Sailarekin, Federazioekin eta hezkuntza arloko beste edozein estamenturekin batera; betiere, kirol modalitate bakoitzari dagozkion curriculumak eratuta.

65- Hezitzaile eta kirol arloko langileei etengabeko prestakuntza eskaintzea hezkuntza arloan, lan-jardura guztietan genero ikuspegia txertatzeko helburuz.

66- Prestakuntza espezializatua: beharizan bereziak dauzkaten pertsonekin lan egiteko, haurren jarduerak antolatzeke eta adineko pertsonekin aritzeko kirol teknikari espezializatuak.

67- Probintzien arteko lankidetzak, lurralde bakoitzak dituen baliabideak komunean jarritz eta prestakuntza-arlo ezberdinetan sinergiak aprobetxatuz.

Ekonomia

68- Izendun diru-laguntzarik ez ematea.

69- Tokiko erakundeek diru-laguntzen hartzaile izateko programa barne-hartzaileak presta ditzaten sustatzea.

- 70- Zerbitzu publikoentzako diru-laguntzei lehentasuna ematea.
- 71- Ikastetxe eta ikastolak diruz laguntzea, joko eta kirol tradizionalen ikasketa bideratu ahal izan dezaten.
- 72- Kirol arloko langileentzako lan-hitzarmen propioaren proposamena prestatu eta idaztea.
- 73- Kirol ekitaldien inpaktu eta eragin ekonomikoen gaineko azterketa egitea eta txostenak sortzea, enpresa laguntzaileen artean kirol arloko babesa finkatze aldera.
- 74- Erosketen baterako negoziazioa eta zenbait elementuren esleipena: kirol aseguruak, hornidurak, kirol materiala...
- 75- Administrazioak, federazioen eta irabazi asmorik gabeko kirol eragileen tutore gisa, hitzarmen individualen bidez arautuko du dagokion kirol-babesa, indarreko lege-esparruaren arabera baina onuradunen bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jarri gabe.

Instalazioak eta azpiegiturak

- 76- Udal instalazioen politika berria, izenik gabea eta eskari eta beharren arabera.
- 77- Instalazio publikoak erabiltzeko herritarrentzako txartel publikoa.
- 78- Udal kirol instalazioak hobetzea eta erabilera publikoko espazioak prestatzea.
- 79- Zerbitzu, langile, material eta instalazioak bateratzea, mankomunitate eta udalek zerbitzu zabalagoa eskain dezaten.
- 80- Oinarriko kirola eta udal zein eskola kirola babestea, instalazioen erabilera erraztuz.
- 81- Pertsona guztiek bere gain hartu ahal izateko moduko prezioak.
- 82- Kirol instalazioetan familia kontziliazioa errazteko tresnak martxan jartzea (ludotekak, jarduerak eta ordutegi bateragarriak, ...).
- 83- Instalazio publiko eta pribatuen mapa osatzea, horien erabilera ahalik eta gehien ustiatu ahal izateko.
- 84- Kirol instalazioen zaintza eta mantentze plana sortzea, kirola modu seguruan egingo dela bermatuta eta etorkizunean instalazioek baldintza onetan jarraituko dutela ahalbidetuta.
- 85- Kirol instalazioetako eta federazio/klubetako kudeatzaile publikoen edota pribatuen arteko lankidetzak-hitzarmenak sustatzea, instalazioen lagapena dohainik edo prezio txikian elkartrukatze; horren truke, nahikoa giza baliabide eta baliabide material izango dituen eskolak edo bestelako kirol jarduerak ezartzeko konpromisoa hartuta.

Euskara

- Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren menpeko jarduera fisiko eta kirol guztia euskaraz egingo dela sustatzea. Edozein motatako programei diru-laguntzak emanda.
- Euskara erabiltzea jarduera, informazio eta ezagutzen transmisiorako hizkuntza gisa. Jarduera fisiko eta kirol mota oro euskaraz eskaintzea, baita webguneak, barne- zein kanpo-komunikazio euskarriak, araudiak eta abarrak ere. Kirol modalitate bakoitzaren hiztegi teknikoak euskaraz erabil dadin sustatzea.

- Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz eskaintzea, gure hizkuntza eskola ordu eta espazioetatik kanpo ere erabil dadin.
- Kalitatezko itzulpen zerbitzu eskuragarri eta eraginkorra eskaintzea, federazio eta klubetako webguneak, zirkularrak, araudiak, aktak eta abarrak euskaraz irakurri eta kudeatu ahal izan daitezten.
- Federazioek eta beste edozein organismo modalitate bakoitzean erabiltzen diren terminoen hiztegi teknikoak eta bestelako baliabideak sortu eta zabal daitezten sustatzea; horrela, kirolari, teknikari eta epaileek, euskaldun izan zein ez, terminoak ezagutu eta barneratu ahal izango dituzte.

Euskal herriko kirol selekzioak

- Euskal Herriko Selekzioaren aldeko apustua egitea, lehentasunezko helburu izanik kirol modalitate guztietan ofizialtasuna lortzea eta nazioarteko txapelketetan lehiatzeko aukera izatea.
- Euskal Herriko Selekzioari eta kirol modalitate guztietan ofizialtasuna lortzeko helburuari babes publikoa ematea, eta, ondorioz, nazioarteko lehiaketetan parte hartzea bultzatzea.
- Administrazioaren eta federazioen arteko hitzarmenak, hala nahi duten kirolari nafarren deialdiak bultzatu eta normalizatu daitezten, horren inguruan sor litekeen traba oro saihestuta.
- Deialdi eta ekitaldien koordinazioa, Euskal Herriko eta Nafarroako selekzioen jarduerak bat egin ez dezaten.

Komunikabide eta hedabideak

- Jarduera fisiko eta kirol jarduera guztietan -txiki zein nagusietan- komunikabideen presentzia bermatzea.
- Genero, jarduera, kirol eta hizkuntzari dagokionez tratamendu orekatua ematea.
- Komunikabideekin koordinatuta, jendartearen kontzientziatzeko kanpainak antolatu eta martxan jartzea (heziketa ez sexista, genero kontzientziazioa, ohitura osasungarriak, sasoi fisiko ona izatearen garrantzia, osasun azterketak, ...).
- Biztanleek jarduera fisikoa eta kirola neurritz egin dezaten sustatzea.
- Administrazioetik eratorritako ekintza guztietan euskararen presentzia bermatzea, publizitate euskarriari, kanpainari, komunikazioari eta abarrei dagokienean.



Nafarroa duina

Osasungintza	49
Adinekoak eta pentsioak	65
Politika sozialak eta Kooperazioa	67
Etxebizitza	73

ehbildu

OSASUNA

Osasunaren alorreko gure gobernu-programa oinarritzko premisa batzuetatik abiatzen da:

1. Osasuna inbertsio bat da, ez da gastu bat. Eskubide bat da, ez da negozio-nitxo bat. Beraz, osasun-ereduak bermatu behar du pertsonak, biztanleak, sistemaren erdigune izatea.
2. Osasun-sistema osoaren ardatzak osasuna izan behar du; labur esanda, zainketak, kalitatea eta humanizazioa, ez, ordea, gaixotasuna.
3. Osasunaren ikuspegiak modu integralean eta integratuan azaldu behar du politika guztietan.
4. Osasun Sistema Publikoaren (OSP) alde egin behar da argi eta garbi, Lehen Mailako Arreta nabarmenduz bereziki.
 - a. Ezinbestekoa da orokorrean pairatzen ari garen kontrarreforma sanitarioaren egoera etetea: desunibertsalizazioa (osasun-zerbitzu publikoak eskuratzeko eta erabiltzeko mugak), pribatizazioa, desinbertsioa, inbertsioen neoliberalizazioa eta ekitate-eza gero eta handiagoa izatea.
 - b. Osasun-sektorearen pribatizazioen, osasun pribatuarekin sinatutako hitzarmenen eta deribazioen inguruko politika sistematikoaren eta kudeaketa publikoaren/pribatuaren eredu mistoen (Alzira eredu) aurka azaltzea.
5. Zainketa-premietara egokitutako finantzaketa, pertsona guztiei kalitatezko zerbitzu publikoa ematea bermatuko duena. Ezinbestekoa da eskaintza publikoa arlo komunitarioetan eta soziosanitarioetan sustatzea eta zabaltzea; esate baterako, osasunaren, laneko osasunaren, gizarte-lanaren, laguntza psikologikoaren, osasun mentalaren, eta abarren sustapena eta prebentzioa.
6. Soilik osasun-laguntza baino eremu zabalago bat hartzen duen osasunaren ikuskera eta kudeaketa integralaren alde egitea. Baldintzatzaile sozioekonomikoak ez ezik, politika publikoek herritarren osasunean dituzten ondorioak ere kontuan hartuko dituen, genero-ikuspegitik begiratuta. Alderdi hauek ere kontuan hartuko dituen: pobrezia, gizarte-desberdintasunak, malnutrizioa, lan-baldintza prekarioak, etxebizitza-gabezia edo etxebizitza-prekariatatea, etab.
7. Nafarroak erabakitzen du Osasunean ere. Osasun-politika propioaren alde egiten du, Nafarroako biztanleriaren premiei erantzunen dion politikaren alde, kanpoko esku-hartzerik gabe.
 - a. Aurrera egin behar da gure osasun-politikak erabakitzeko gaitasunean, Gobernu zentraletik datozen neurri atzeragarri eta murriztaile guztiei aurre eginez.
 - b. Protokoloak eta hitzarmenak ezartzen aurrera egitea, hurbileko sistema publikoen arteko koordinazioa hobea izateko eta baliabideak hobeto erabiltzeko, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren artean (bai Osakidetxari/Osasunbideri dagokionez, bai puntako teknologiari, unibertsitate-mailako prestakuntzari eta abarri dagokionez) bi erkidegoetako osasun-laguntzan ahalik eta efizientzia handiena lortzeko.
8. Lehen Mailako Arretaren alde egitea lehen mailako arreta osasun-sistemaren ardatz nagusi gisa, ekitatearen, eskuragarritasunaren, unibertsaltasunaren eta arretaren kalitatearen bermatzaile gisa. Lehen mailako arreta (ez, ordea, lehen mailako asistentzia), OMEren definizioen arabera, osasuna sustatuko duten, gaixotasunak prebenituko dituzten, eta arreta emanen duten errehabilitazioa egingen duten osasun-politika integralak eta integratuak antolatzeko nukleo nagusia da.

9. Erabakiak hartzeko garaian eta planak eta estrategiak diseinatu eta ezartzeko garaian, funtsezkoa da herritarren, profesionalen eta sindikatuen partaidetza NOZ zerbitzuaren kudeaketa eta antolamendua ona izateko.

10. Osasun publikoaren alorreko prestakuntzaren eta ikerketaren alde egitea, kalitatezko sistema publikoaren etorkizuneko berme gisa.

11. Informazioa metodo propioak (Big Data) erabiliz kontrolatzea Nafarroako Estatistika Erakundetik.

Azken batean, mota honetako osasun-sistema baten alde egiten dugu:

- publikoa
- unibertsa
- doakoa, erabiltzen den unean
- propioa, Nafarroako biztanleriaren premietara egokitzen dena.
- prebentiboa eta errehabilitatzailea.
- gaixotasunean oinarritu ordez osasunean oinarritzen dena
- Lehen mailako arretan oinarritzen dena, Arreta Espezializatuaren garapen egokiarekin

- parte-hartzailea
- integrala osasunaren dimentsioei eta baldintzatzaileei dagokienez
- osasunaren arreta-mailen integratzailea
- ikerketa zientifikoaren sustatzailea
- eskuragarria
- pertsonalizatua eta zainketekin jarraitzen dela zaintzen duena.
- kronikotasunaren aurkako eta segurtasunean aurrera egiteko estrategia berriak garatzen dituena
- Klinikoa.
- osasuna lanean integratzen duena.

2019-2023 LEGEALDIRAKO PROPOSAMENAK

1. Finantzaketa sanitarioa eta aurrekontu-kudeaketa

- Baliabide sanitario publikoen finantzaketa eta kudeaketa publikoa. Ezinbestekoa da azken urte hauetan Osasunaren alorrean egon diren aurrekontuak hobetzen jarraitzea, betiere finantza-ahalmenen barnean. Osasun publikoaren alorrean aurreratuen dauden herrialdeen inbertsio-mailen antzeko inbertsio-mailak lortzea da helburua. Aurrekontuen erabilerak aldeztu aurretik jarritako helburuetan oinarritutako benetako erabilera izan behar du.

- Nafarroako osasun-sistema osorako erosketen zentralizazioan aurrera egitea, material sanitarioa eta medikamentuak eskuratzeko garaian efizientzia handiagoa izatea ahalbidetzeko.

- Aurrekontu-fiskalizazioko organoak sustatzea. Arloko eta ospitaleetako zuzendaritzetan osasun-eremuko ekonomialariak (JPT) sartzeta, gaur egun ez dago horrelakorik Nafarroan.

- NOZi hainbat zerbitzu eskaintzen dizkioten enpresa eta erakunde pribatuekin sinatutako kontratu, hitzarmen eta itun guztiak berrikustea, aurrezteko bideak bilatzeko edo baliabide propioak erabiliz aurrezteko mekanismoak ezartzeko.

2. Osasun-plangintza eta arau-esparrua

2.1 Legeria eta plangintza

- Osasunari buruzko Foru Lege berria, azken urte hauetan onartutako legeria bateratuko duena eta herritarren eskubideak eta osasun-zerbitzuen kudeaketa eguneratu eta bideratuko duena, Osasun Sistema Publikoa babestuz. Horretarako, eremu profesionalean, sozialean, politikoa eta sindikalean parte hartzeko prozesu handi bat egingen da.
- Ildo horretan bertan, 2014-2020 aldiko Nafarroako Osasun Plana eta “Osasunaren alde bidea eginez” Estrategia (2015-2020) berrikustea eta eguneratzea, parte hartzeko prozesu baten bitartez.
- Osasuneko eskualdeak eratzen aurrera egitea, zonifikazio soziosanitarioa eguneratuz.

2.2 Osasuna politika guztietan

- Osasuneko Departamentu arteko Kontseilua –Osasun Sailak zuzentzen duena– sustatzen jarraitzea, eta Gobernuaren Presidentzia betetzen duen pertsona buru dela, Nafarroako Gobernuaren politiken baterako orientazioa ezartzea, osasuna eta osasunaren erabakitzaile guztiak politika publiko guztietan sustatzearen ikuspegitik.
- Osasun Komunitarioaren Behatokia eta oinarritzko zonen eta osasun-esparruen eremuan lan-ildoak erraztuko dituzten azterketak egin daitezzen irmoki bultzatzea. Esparru horretan, osasunari buruzko egungo krisialdi ekonomikoaren gaineko azterketa sakon bat egingen da, genero-ikuspegitik, Nafarroako Gobernuak berak edo gizarte-erakundeek (Caritasek edo Pobreziaren aurkako Sareak, adibidez) gizarte-bazterketaren eta haurren malnutrizioaren edo desnutrizioaren, energia-pobretasunaren eta abarren inguruan emandako ahalik eta datu eguneratuenak txertatuz.
- Ezarriko da ezinbestekoa izanen dela Foru Lege Proiektuek osasunean eragindako inpaktuei buruzko txostenak eta herritarrentzat garrantzitsuak izanen diren eta herritarrengan inpaktu handia eragingen duten Planak egitea. Horretarako, behar den legegintza-garapena egingen da eta prozedura eta metodologia espezifikoa egingen da.
- Osasunerako Hezkuntzarako programa espezifikoa sustatzea (janari osasuntsua, hezkuntza afektibo-sexuala, ariketa fisikoa...).
- Osasunerako Hezkuntza eta bihotz-biriketako errehabilitazioa (BBE) eskola-curriculumaren barnean sartzea bi urteko epean, ebidentzian oinarritutako irizpideak erabiliz.
- Osasuna Sustatzen duten Eskolen Sarea zabaltzea, ikastetxeen sarea hedatuz, eta ikasleen eta profesionalen arteko topaketa-foroak sortuz proiektu hauek guztiak eta jardunbide egokiak partekatuz.
- Neurriak ezartzea irakasleek osasunarekin lotutako gaiari buruzko prestakuntza jaso dezaten sustatzeko. Osasunean oinarritutako hezkuntzako langileen prestakuntza eta eguneratzea garatuko duten prestakuntza talde bat sortzea.

- Lehen Mailako Arretan integratutako gizarte-arreta garatzea hainbat arazo (ekitaterik eza eta pobrezia, adibidez) konpontzeko eta goiz identifikatzeko eta genero-indarkeriaren nahiz txarren kasuak, ludopatiak eta abar prebenitzeko, gizarte-langileen eta psikologoen figura sartuz eta garatuz biztanleria kalteberari arreta integratua emateko.

3. Antolamendua eta kudeaketa

3.1 Organigrama, plantilla

Azken lau urte hauetan ez dira berritu lanpostuak betetzeko prozedurak. Estatuak eragotzi du Nafarroak osasunaren eta langileen alorretan maniobratzeko gaitasuna izatea eta alor horietan eskumena izatea; burujabetza berreskuratu behar dugu bi alderdi horietan.

- Osasun Sailaren eta Osasunbideren organigramaren diagnosi-azterketa sakona, kuantitatiboa eta kualitatiboa eta sistemaren berregituraketa efizientea egiteko Plana egitea, burutzak eta goi-kargudunak, haien funtzioak eta eskumenak arrazionalizatzeko asmoz.
- Osasunbideko plantillaren diagnosi-azterketa sakona, kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea, estamentu guztietan dauden langileen premiak estaltzeko asmoz. Hainbat alderdi direla-eta (behin-behinekotasuna handia izatea, batez besteko adina handia izatea eta plantilla zahartzea) aurreikus daiteke langileen premiak eta langile-gabeziak egon daitezkeela, erretiroa dela medio epe laburrean eta ertainean izanen diren lanpostu hutsengatik. Horregatik, langileen gida-plan bat egin behar da, plantillaren gaztetzea eta egonkortasuna helburu izanen duena; prozesu hori indar sindikalekin batera egingen da Mahai Sektorialean.
- Krisialdia dela medio Nafarroa utzi behar izan duten profesionalak itzul daitezen sustatzea. Plan bat egitea profesionalak erakartzeko eta leialtzeko, bereziki nekazaritza-eremuetan. Plan horretan kontratazioaren alorreko hobekuntzak eta dispersio geografikoagatik pizgarriak bilduko dira.
- Asistentzia-taldeetako langileen ratioak sartzea Osasunari buruzko Foru Lege berrian edo horretarako lege espezifiko bat onartzea, asistentzia-zainketak egiteko beharrezkoak diren langileak definituko dituen.
- Eztabaida integralari ekitea Lanbide Karrera edo Lanbide Garapena Osasunbideko eta Funtzio Publiko osoko langile guztiei hedatzeko. Eztabaida hori ezagutza etengabe eguneratzearekin lotuta egonen da, baita zerbitzuak etengabe hobetzeko planekin ere.
- Langileen erretiro aurreratuak errazteko har daitezkeen neurriak planifikatu eta sustatuko dira.
- Sexu-aniztasunari eta genero-berdintasunari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-kanpainak garatu eta egingen dira NOZ zerbitzuaren barnean.
- Kudeaketa-postuetan ordezkaritza paritarioa dagoela zaintzea, eta hori arau gisa ezartzea ahal den guztietan.
- Azterketa xehatua egitea Osasunbideko langile guztiek, eta bereziki emakumeek, familia bateragarri egiteko neurriak hartzeko, emakumezko langileen egoerak berekin dakartzan premiak sustatzeko estrategiak aztertuz.
- Berehalako Enplegu Eskaintza Publikoa, ahalik eta handiena, epe laburreko eta ertaineko premietara egokituko dena. Hautaketa-prozesuak eta merezimendu-baremoak sinplifikatzea, gardentasuna bermatuz, eta garatu behar diren eskumenekin lotuta.

- Kudeaketa-postuak betetzen dituztenek lanbide-garapeneko proiektuak egitea. Proiektu horiek Nafarroako gizartearen premietara egokituta egonen dira eta ez dute interes partikularrik izanen.
- Osasun-kudeaketa profesionalizatzea, kudeatzaile-karguak beteko dituztenak merezimenduaren eta gaitasunaren arabera izendatuz, merezimendu-lehiaketak eginez; ez dira alderdikerien edo adiskidekerien bitartez izendatuko. Prestakuntza plantillara hedatzea eta biziarteko kargudunek kudeaketaren alorrean duten eraginkortasuna eta efizientzia aztertzea.
- Zerbitzuaren/atalaren burutzak denboraldi jakin batzuetarako eta zeregin eta helburu jakin batzuetarako izendatuko dira. Gainera, barne-igoera irizpide gisa ezarriko da.
- Lege-erregulazioa, bateraezintasunak ezarriko dituen eta osasun publikoan kudeaketaz arduratzen diren pertsonak beren postu publikoa utzi ondorengo bost urtean gutxienez osasun pribatuan edo osasun publikoarekin interesak dituzten edo negozio-harremanak dituzten enpresetan kudeaketa-postuak betetzea eragotziko duena.
- Euskararen erabilerari buruzko Dekretua garatzea eta Osasunbideren etengabeko hizkuntza-normalizazioaren Plan estrategiko bat egitea, osasun-arreta Nafarroako bi hizkuntzetako edozeinetan emanen dela bermatuko duena.
- Hizkuntzen (euskaldunak/postuak) azterketa egitea, baita herritarren hizkuntza-eskubideen egoerari buruzkoa ere eta osasun-arreta, osasun-dokumentazioa eta biztanleriarekiko/euskaldunekiko komunikazioa segurtasun klinikora egokitzea. Zirkuitu elebidunak sortzea.
- Administrazioan sartzeari eta lanpostuak betetzeari buruzko foru-dekretua berriro egitea, osasun-funtzio publikoan sartzeko garaian bi hizkuntzak kontuan hartzeko. Prozedurak bizkortzea.
- Nafarroako biztanle guztiek, non bizi diren kontuan izan gabe, administrazio-eremuan nahiz profesional sanitarioek euskara komunitateko bi hizkuntzetako edozeinetan artatzeko duten eskubidea aktiboki defendatzea eta sustatzea.

3.2 Ekitatea eta irisgarritasuna

- Modu eraginkorrean bermatzea osasun-arreta emanen zaiola biztanleria guztiari, bereziki egoera irregularrean dauden etorkinei; guztiek eskubide berak izanen baitituzte. Beharrezkoak diren administrazio-neurriak hartzea eta langile eskudunei jarraibide argiak ematea fakturarik egin ez dezaten.
- Neurriak ezartzea migratzaileei arreta egokia emateko, bereziki hizkuntza- eta kultura-arloko alderdiei dagokienez. Horretarako, komunitate eta kolektibo horiekin lan egingen da, eta profesionalen prestakuntza ez ezik, material espezifikoak egitea ere sustatuko da behar bezalako arreta emateko. Halaber, sustatuko da migratzaileei osasun-hezkuntza ematea, osasun-arreta egokia izan dezaten saihesteko modu gisa eta herritar horien osasuna sustatzea / herritar horiek zer baliabidetara jo behar duten jakinaraztea.
- Presoei arreta egokia emanen zaiela bermatzea. Askatasunaz gabetutako pertsonak bizi duten kalteberatasun-egoera dela medio, guk uste dugu pertsona horien premia soziosanitarioei erakunde propioek erantzun behar dietela (Osasunbidea, Gizarte Zerbitzuak...), ez, ordea, Barne Arazoetarako Ministerioaren mendeko erakundeek (Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia mendeko erakunde bat da). Horregatik, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira espetxeetako osasun-arreta berehala, osorik eta benetan transferitzeko, eta osasun-alorreko profesionalak transferentzia horren barnean hartuko direnez, Osasunbideren mende egonen dira.
- Egungo osasun-prestazioen azterketa zabala egitea prestazioen katalogoa gizarte-premien arabera berrantolatzeko, arrazionalizatzeke, osatzeko eta eguneratzeko, Nafarroako osasun-zerbitzuen zorroa ezartzearren. Gaur egun ez dago horrelakorik.

- Osasun-zerbitzuak eta zerbitzu soziosanitarioak eskualdeetan mugatzeko eta barrutiak sortzeko zereginetan aurrera egitea, arreta deszentralizatzeko, zerbitzuak hurbiltzeko eta arreta integratua sustatzeko. Ildo horretan, nekazaritza-eremuetako tratamendu espezifikoak bermatuko da:
- Nekazaritza-eremuetako absentsien estaldura bermatzea, kalitatezko arreta ematean oinarrituta, populazio-datuetatik haratago.
- Bermatzea landako osasun-zentro guztiak beharrezkoak diren ekipamendu guztiez hornituko direla (ekipamendu sanitarioa, ibilgailu egokituak, uniformeak...) arreta urgente bitala eta ez-bitala emateko.
- Telefonía mugikorreko aparatuen eta GPS motako lokalizagailu geografikoen estaldura bermatzea sakabanatutako etxebizitzak kokatuz, eta/edo bilagailuak bermatzea landa-eremu guztietan.
- Neurriak hartzea landa-eremuetako biztanleei beharrezkoak ez diren bidaiak saihesteko.
- Zidak emateko zirkuitu bereziak ezartzea.
- Arreta espezializatuaren kasuan, ahal denean, bertaratu gabeko interkontsultak areagotzea.

3.3 Itunen eta deribazioen politika

- Zerbitzu pribatizatuak kudeaketa publikora pixkanaka itzultzeko ekintzarekin jarraitzea, batez ere osasun-garraioa.
- Osasun publikoa eta pribatua argi eta zehazki bereiztea. Zerbitzu-burutzetan jarduten duten pertsonen bateraezintasunen jarraipen zehatza egitea eta kontrolatzea, kontuan hartuta pertsona horiek ezin direla medikuntza pribatuan aritu, eta profesional sanitarioei dedikazio eskusiboa eskatzea.
- Erakunde pribatuekiko hitzarmenak/itunak derrigorrezkoak soilik izatea.
- Beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko dira zentro pribatuetara deribazio sistematikoak egitea saihesteko, eta espezialitate batzuk une jakin batzuetan deribatzea eragiten duten urte-sasoiko arrazoiak aztertuko dira.
- Azpiegitura sanitario publikoak errentagarri bihurtuko dira, esate baterako ebakuntza-gelak edo OTAko aparatuek, ekografoak eta erresonantzia magnetikoak, beharrezkoak diren txandak/ordutegiak ezarriz.
- Sustatuko da eta lehenetsiko da aparatuek sare publikoak erostea, erakunde pribatuekiko mendetasun teknologikoa saihesteko. Osasun Publikoak PET bat izanen du.

3.4 Farmazia- eta teknologia-prestazioa

- Medikamentuaren Erabilera Arrazionalizatzeko Planaren jarraipena egitea, eta, hala badagokio, berrikustea, kudeaketa egokia egiteko eta medikamentu-gastuari eusteko politika integralak ezarriz:
- Lehen mailako Arretan eta bereziki Arreta Espezializatuan, medikamentuak printzipio aktiboaren arabera erabil daitezen sustatzea.
- Bereziki gaixo kronikoei eta patologia anitzeko gaixoei medikamentuak, dosiak eta kontsumoa dosibakarraren edo botikan prestatutako blisterren bitartez dosifikatzea.

- Farmazia-estaldura bidezkoa eta progresiboa ezartzea, haren doakotasuna bermatuz kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboak eta pertsonak.
- Medikamentuen erosketaren eta horniduraren kontrola erosketaren organo kudeatzaile bakar batean zentralizatzea, eraginkortasunaren eta efizientziaren irizpide objektiboak erabiliz.
- Agentzia bat sortzea teknologia sanitario berriak ebaluatzeko eta kontrolatzeko. Finantzaketa publikoan medikamentu berriak eta teknologia sanitarioak sartzeko baimena emateko premiaren irizpidea sartzea, eta farmazia-industriak medikamentuen eta baliabide teknologikoen inguruan egindako sustapena kontrolatzea.
- Urratsak egitea farmazia multinazionalen mende ez egoteko, bai medikamentuen eta material sanitarioaren hornidurari dagokionez, bai langile sanitarioaren prestakuntza finantzatzeari dagokionez.
- Farmazia-faktura berrikustea eta baliabide propioak errentagarri bihurtzea.
- Medikamentu generikoen patentea duten funtsezko medikamentuetara bideratutako farmazia-industria publikoa gara dadin sustatzea.
- Teknologia sanitarioari (elektro-medikuntza, medikamentuak...) buruzko informazioa emateko eta aholkularitzako lana arautzea, industriak profesionalengana iristeko duen aukera mugatuz eta sistema publikoaren aholkularitza-egitura profesionalak garatuz. Medikuntzako bisitariak osasun publikoko profesionalengana iristea arautuko da.
- Bermatzea irizpide medikoa aplikatuko zaiela edozein motatako tratamendua behar duten pazienteei.

3.5 Asistentzia sanitarioa

- Maila guztietan homogenea den antolamenduaren eskema, koordinazio-mekanismo eraginkorrak erabiliz. Asistentziaren kudeaketa Asistentzia Prozesu Integratuen arabera antolatuko da, profesionalak beren arloko eta lanpostuko kudeaketan inplikaturik.
- Arreta sanitarioaren benetako humanizazioa, estrategiak eta helburuak ezarri arreta emateko eta zaintzeko baldintzak hobetzeko.
- Sustatzea paziente bakoitzak bere osasuna autokudeatzen jakin dezala, zerbitzu sanitarioetara behar duenean soilik joz, eta gaitasun profesionalak autozaintzarak laguntzera egokitzea.
- Profesional guztien protagonismoa sustatzea, lana prozesuak eta pazienteak artatzera eta helburuak lortzera bideratuz.
- Asistentzia Espezializatua Osasun Zentroetara hurbiltzea, bi mailen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetuz: lantaldeak sor daitezkeen bultzatzea, baterako bilerak sustatzea, protokolo komunak garatzea, irakaskuntza koordinatzea eta sartzea bi mailetan eta abar.
- Lehen mailako Arretaren eta Arreta Espezializatuaren arteko koordinazioa garatzea, pazienteak jarraitutasuna izateko bere arreta-prozesuetan eta bere asistentzia-zirkuituari buruzko informazio pertsonalizatua jaso ahal izateko edozein unetan, eta zerbitzuen funtzionamendua kalitatezko informazio gehienera egokitzeko, proben bikoiztasunak saihesteko, bertaratu gabeko kontsultak eginez, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiliz, eta abar, arreta emateko diziplina anitzeko lantaldeek egindako kasu pertsonalizatuaren benetako kudeaketa-estrategia ezartzea eta zainketen hiper-espezializazioa saihestuz, arretaren atomizazioa saihestuz.

- Lantaldeen diziplinartekotasuna bermatuko da. Hori funtsezko alderdi bat da arreta soziosanitarioaren kasuan, arreta mota horretan gizarte-langileak indartzea nabarmenduko baita.
- Prozedura diagnostikoetarako eta terapeutikoetarako gehieneko itxarote-denborak ezarriko dira.
- Itxaron-zerrenden kudeaketan, ekite integrala egingen da. Bertaratu gabeko kontsultak sustatuko dira. Kasuen azterketa xehatua egitea lehentasunak ezartzeko itxaron-zerrendetan, bigarren hitzorduak eta ondorengoak azpimarratuz.
- Toki hutsen kudeaketa, dauden azpiegiturak errentagarri bihurtzeko eta inbertsioak arrazionalizatzen.

3.5.1 Lehen mailako arreta

Lehen mailako arretaren eta arreta komunitarioaren, etengabeko arretaren eta arreta urgentearen aldaketa integrala egitea Nafarroa osoan, 2015-2019 aldiko legegaldian landutako planaren zirriborroan ezartzen denari jarraituz. Ezinbestekoa da Lehen Mailako Arreta sistemaren ardatz bihurtzea, honako alderdi hauetan diziplina anitzeko arreta integrala emateko beharrezkoak diren giza baliabideez eta baliabide materialez hornituz:

1-Bizi-etapa desberdinetan: haurtzarora, gaztarora, helduarora, zahartzarora.

2-Osasu- edota gaixotasun-egoera desberdinetan: Prozesu akutuak, kronikoak, berriro larriagotzeak barne, ospitaleratu osteko jarraipena, etxeko ospitalizazioa barne eta arreta bizitzaren amaieran (Zainketa Aringarriak). Neurri honekin ez litzateke beharrezkoa izanen Etxeko ospitalizazioaren zerbitzua eta Etxeko zainketa aringarrien zerbitzua zabaltzea, paziente bakoitzak bere erreferentziako sanitarioak izanen lituzkeelako zerbitzu horiek egiteko.

- Osasunaren prebentzioa eta osasunaren sustapena bere jardueraren ardatz gisa.

- Egungo mikro-zaintzen ordez dauden baliabideei efizientzia emanen dien, lan-kargak partekatuko dituen eta taldean lan egitea sustatuko duen sistema bat ezartzea osasun-eremu guztietan, eta etengabeko arreta egokitzea lehen mailako arretaren antolamenduan.

-Lehen Mailako Arretari eta lantaldeei kudeaketarako autonomia handiagoa ematea (arloekin koordinatutako egitura propioa) eta erabakiak hartzeko gaitasun handiagoa izatea, proba diagnostikoetarako sarbidea eta proba horiek erabiltzeko prestakuntza egokia izanik.

- Profilak eta eginkizunak berriro definitzea eta langile sanitarioak administrazio-zereginetatik libratzea, eta pazienteei arreta emateko behar adinako denbora bermatzea, banakako osasun-txartel (BOT) kopurua murriztuz, % 5 urte bakoitzeko, batez beste % 20 murriztu arte.

-Medikuntzako, Erizaintzako eta Gizarte Laneko graduatu aurreko eta graduondoko Prestakuntza, Ikerketa eta Irakaskuntza sustatzea. Harrerako Langileen prestakuntzan ere parte hartzea.

-Baliabideak ematea Osasun Komunitarioetako programak ezartzeko. Programa horiek pertsonak osasunaren erantzunkide gisa inplikatu dituzte eta baliabide guztiak (gizarte-zerbitzuak, eskolak eta tokiko erakundeak, adibidez) koordinatuko dituzte efizienteagoak izateko.

- Baliabideak eta gaitasuna ematea pazienteei laguntzeko sisteman barrena ibiltzen.
- Medikuntzako eta erizaintzako kupoak berrikustea, helburua gehienez ere 1.200 BOS eta Pediatrian 800 izatea delarik, Oinarrizko Eremu bakoitzeko ezaugarri demografikoak eta Osasun Zentroetako Irakaskuntza-profila kontuan hartuta. Osasun-zentro guztiak ez dira Familiako Medikuntzako espezialistak prestatzeko Irakaskuntza Unitateak; irakaskuntza-zentroak badira, kupo bakoitzeko BOS gutxiago izan beharko lituzkete.
- Lehen Mailako Arretan osasunaren inguruko heziketa eta prebentzioa errazten duten espezialitateak eta diziplinak sartzea. Eraginpean hartutako biztanleriaren araberako Arreta Psikologikoaz eta behar bezala dimentsionatutako langileez hornitzea.
- Gaixo kronikoen eta patologia anitzeko gaixoen koordinatzaileak ezartzeko lana arintzeko mekanismoak ezartzea.

3.5. 2 Pediatria

Nabarmena da pediatria gutxi daudela. Hainbat urte daramatzagu egoera horretan, zeinetan estatu-eremuko neurriek (BAME plaza aldaezinen ezarpena, lanpostu hutsak eta erretiroak berriz betetzeko tasa mugatzea) eta NHB eta NAS alderdien aurreko gobernuen politikek (murrizketa-neurriak, 2013ko eta 2015eko EPEak; bi EPE horietan pediatriako zazpi lanpostu soilik atera ziren...) lan-baldintzetan eta pediatria-zerbitzuaren kalitatean eragina izan duten, baita lehen mailako arretako medikuengan eta gainerako profesionalengan ere.

Pediatrek artatu behar dituzte haurrak. Horregatik, profesionalak erakartzeko eta leialtzeko neurrien alde egiten dugu. Pediatriako lanpostuak pediatrekin betetzea zaila den uneetan, ez gaude lanpostu horiek familia-medikuen bitartez betetzearen aurka, betiere egoera hori denbora mugatu batean egiten bada eta haurrak artatuko dituztenak pediatrik izateko ahalegina egiten den bitartean.

Egoera horri aurre egiteko hartu behar diren neurri zehatzen artean hauek daude:

Ez da eredia berrikusi behar –arestian esan dugu pediatrek artatu behar dituztela haurrak–, baizik eta Osasunbidek edo osasun-sistemak berak haur osasuntsuari dagokionez proposatzen duen jarduna, baita Pediatriako lana arintzeko Erizaintzak bete behar duen zeregina ere.

Ahalik eta EEP zabalenak egitea, iraupen luzeko egiturazko kontratuak iraupen luzeko lanpostu huts eta kontratu bihurtzea, pediatriako diziplina anitzeko irakaskuntza-unitate berriak egiaztatzea eta pediatriako erizain espezialista jartzea.

3.5. 3 Arreta espezializatua

- Eskaintza gizarte-premietara eta prozedura berriak aplikatzera egokitzea.
- Sustatzea espezialistak Lehen mailako Arretako profesionalen aholkulari gisa duen zeregina; horri esker, saihestu eginen liriateke pazienteen beharrezkoak ez diren aurrez aurreko kontsultak, eta itxaron-zerrendak murriztu eginen liriateke eta horren ondorioz, sistema eraginkorragoa izanen litzateke.
- Egonaldi ertaineko eta luzeko unitateei dagokienez sare publikoan dauden premien eta azpiegituren azterketa egitea. Ospitaleratze laburreko unitateak sortzea, pazienteak egonkortzeko unitate espezifikokoak, Lehen Mailako Arretaren eta Arreta Espezializatuaren arteko zubi gisa jardunen luketenak.

- Kalitate-sistemetan oinarritutako egiaztapena sustatzea, pazientea bideratuz (prozesu/jarduera bakoitzaren premiak, prozesu/jarduera bakoitzaren arduradunak, prestakuntza eta emaitzak ez ezik, esku hartu duten pazientearen eta langileen gogobetetasuna/kexak/erreklamazioak) ere txertatuz, arlo urriak hobeto ebaluatu ahal izateko eta hobetzeko programak eta profesionalen ratioak zainketen arabera ezarri ahal izateko.
- Kirurgia ambulatorioa, diagnostiko azkarreko zirkuituak hobetzea eta zabaltzea (azterketa azkarrago egiteko paziente ospitaleratzera behartu gabe).
- Berrikuntza teknologikoko urte anitzeko plan bat garatzea, izan behar dituzten ezaugarriak zehazteko gida/protokolo batekin (beste zerbitzu batzuekin koordinatzea, bateragarritasun informatikoa...).
- Protokoloak garatzea, helburua pertsonen eskubideak errespetatzea izanik beti.
- Akonpainamendua eta laguntza psikologikoa hobetzeko neurriak hartzea ospitaleetan ere.
- Fisioterapia jartzea oinarrizko osasun-eremuetan.
- Pediatriako arreta nafarroako ospitalean

Zainketa espezifikoak eta beste zentro batzuetarako deribazioak eragotziko dituen kalitatezko arreta ematea eskatzen duten patologia desberdinak dituzten pazienteen kopuruak gora egin duenez, Nafarroako Ospitaleko pediatria-zerbitzuak berregituraketa-plan bat egitea eskatu du. Plan horretan honako alderdi hauek hartu beharko lirateke kontuan:

- 1- Pediatriako zainketa intentsiboetako Unitate berri bat sortzea, 8 ohe, banakako boxekin, ezarriz
- 2- Ezinbestekoa da, halaber, bitarteko zainketetako edo zainketa kritikoetako unitate bat ere, 6 ohe ezarriz; ohe horietatik 2 teknika inbaditzaileetarako erabiliko dira.
- 3- Pediatriako Ospitaleratzeko Unitatea erabat berritzea, hiru oheko gelak kenduz eta Onkologia pediatrikoko Unitatetik bereiziz.
- 4- Plana egin beharko da pediatriako Larrialdiaren gainean sortuko liratekeen lekuak aprobetxatuz, PZIUari, Bitarteko zainketako unitateari eta Ospitaleratze pediatrikoko unitateari jarraipena emanez, eta dena maila berean egonen litzatekeenez, antolamendua eta pazienteari eman behar zaion arreta erraztuko lirateke, eta, gainera, arreta emateko denborak murriztu egingen lirateke.
5. Azterketa sakona egitea eta ondorengo neurriak ezartzea hainbat alorretan dauden premiei erantzuteko. Aipatutako alorrek honako hauek dira: pediatriako etxez etxeko arreta (Neonatologiatik ematen den alta goiztiarra barne), jaioberriaren garraioa eta garraio pediatrikoa, jaioberria pediatriako lantalde batek edo jaioberrien erizain batek suspertzea erditzeetan (betiere jaioberrien erizaintzako plantilla badago).
6. Esne-banku bat sortzea, edo horrelakorik ez badago, esne-banku satellite gisa elkartzea dagoeneko martxan dagoen bankuren batekin.

3.5.4 Urgentziako arreta eta larrialdiak

- Eskualdeko Urgentzietako Zerbitzua (EUZ) garatzea eta benetan hedatzea Nafarroa osoan. Leku guztietarako neurriak:
- Urgentzia larrien eta larrialdien kasuan, sanitarioek, beharrezkoa den ekipamenduarekin, iristeko behar duten denbora 20 minutura murriztea gehienez.

- Bermatzea larrialdiak ordubetetik gorakoa ez den denboran iritsiko direla erreferentziako ospitaleetara.
- Bermatzea Nafarroa osoan dauden anbulantzia-zerbitzuen estaldura behar adinakoa izanen dela.
- Garraio sanitarioa. Baliabideak premien arabera areagotzea eta Garraio Sanitarioaren Mahaian hartutako akordioak behin betiko sustatzea; erabaki horien artean pixkanaka publikatzea dago.

• Ospitaleetako urgentzia-zerbitzua

Ospitaleetako, Nafarroako Ospitaleguneko, Tuterako eta Lizarrako urgentzia-zerbitzuen azpiegitura aztertzea eta aldaketa integrala egitea kalitatezko arreta ziurtatuz, eta benetako premiei buruzko diagnostikoa eginez. Ezinbestekoa da tokiak berriro dimentsionatzea; horretarako, hainbat ezarpen-fase izanen dira zerbitzua sortu zenetik enkistatutako arazoak saihesteko edo desagerrarazteko. Nafarroako Ospitalegunerako neurri zehatzak:

- 1- Arreta urgentea berrantolatzea: larritasun txikiagoa duten pazienteak lehenengo solairuan artatuko dira. Horrekin tokiak lortuko da paziente larriak beheko solairuan artatzeko eta horrek laguntza ematen jarraitzea ahalbidetuko luke.
- 2- Emaizten zain egoteko toki duinak eta humanizatuak egokitzea, pazienteek nahiz laguntzaileek kalitatezko zainketak jaso ahal izateko.
- 3- Bizkortze-gela berriro dimentsionatzea eta “geldialdiarako/gaixo kritikoentzako” box bat lortzea, patologia horiei arreta efizientea eman ahal izateko, leku-arazorik ez izateko eta larrialdietan artatzen diren herritarrei eragozpenik ez eragiteko.
- 4- Bitarteko zainketarako gutxienez 4 ohe izateko aukera balioestea. Paziente larriak ohe horietan egon daitezke eraikin berean, mugimendu arriskutsurik egin gabe egonkortzen dituzten arte, eta zerbitzuko beste paziente larri batzuei ere estaldura emanen zaie.
- 5- Eraikin berean paziente kritikoentzako urgentiako ebakuntza-gela bat egiteko aukera balioestea. Pazienteak mugitu ordez langileak mugituko dira.
- 6- Arreta psikiatriko urgentea bereiztea arreta ahalik eta humanoena izan dadin paziente psikiatrikoentzat nahiz arreta urgentea eskatzen duten gainerako herritarrentzat eta profesionalentzat.
- 7- Urte-sasoiko kolapsoak saihesteko eta prebenitzeko plan estrategikoa ezartzea, premiak aurreikusiz eta ospitaleratzeak egin behar direnean ilarak saihesteko oherik ez dagoelako eta ospitaleratutako pazienteei altak emateko garaian atzerapenak saihesteko. Ospitale-burokrazia kentzea eta igarotze-arloa sistematizatzea jarduera handieneko denboraldietan.
- 8- Antolamendu-sistema berrantolatzea, eraikinari autonomia propioa emanez zerbitzu gisa eta zainketak lortzeari buruz erabakitzeke gaitasuna emanez.
- 9- Lehen mailako arretarekin eta ospitalez kanpoko urgentziarekin koordinatzeko plan bat ezartzea, herritarri ahalik eta arreta urgente hoberena emateko.
- 10- Ebaluazio-plan bat ezartzea, epe ertaineko eta luzeko emaitzak ikuskatuko dituen eta arretak eraginik ez badu, zuzentzeko mekanismoak ezarriko dituen.

Eta neurriak ezartzea Reina Sofia Ospitaleko nahiz García Orcoyen Ospitaleko Larrialdietarako.

- Tuterako ospitaleko larrialdi-zerbitzuaren instalazioak zabaltzea.

-Emaitzen zain egoteko toki duinak eta humanizatuak egokitzea, pazienteek nahiz laguntzaileek kalitatezko zainketak jaso ahal izateko.

-Bizkortze-gela berriro dimentsionatzea eta “geldialdietarako/gaixo kritikoentzako” box bat lortzea, patologia horiei arreta efizientea eman ahal izateko, leku-arazorik ez izateko eta larrialdietan artatzen diren herritarrei eragozpenik ez eragiteko.

- Arreta psikiatriko urgentea bereiztea arreta ahalik eta humanoena izan dadin paziente psikiatrikoentzat nahiz arreta urgentea eskatzen duten gainerako herritarrentzat eta profesionalentzat.

- Urte-sasoiko kolapsoak saihesteko eta prebenitzeko plan estrategikoa ezartzea, premiak aurreikusiz eta ospitaleratzeak egin behar direnean ilarak saihesteko oherik ez dagoelako eta ospitaleratutako pazienteei altak emateko garaian atzerapenak saihesteko. Ospitale-burokrazia kentzea eta igarotze-arloa sistematizatzea jarduera handieneko denboraldietan.

-Lehen mailako arretarekin eta ospitalez kanpoko urgentziarekin koordinatzeko plan bat ezartzea, herritarrari ahalik eta arreta urgente hoberena emateko.

-Ebaluazio-plan bat ezartzea, epe ertaineko eta luzeko emaitzak ikuskatuko dituen eta arretak eraginik ez badu, zuzentzeko mekanismoak ezarriko dituen.

3.5. 5 Farmazia-arreta

- FARMAZIA-ARRETARI BURUZKO AZAROAREN 16ko 12/2000 FORU-LEGEA aldatzea, jardun bereziko eremuak eta Konprometitutako Bideragarritasun Ekonomikoaren alorrean aintzat hartutako farmazia-bulegoak bereziki kontuan hartuta. Helburua Foru Legea eguneratzea eta hiri- nahiz landa-inguruneetan dauden errealitate berrietara egokitzea izanen litzateke eta neurri egokiak hartzea zerbitzua Nafarroa osoan ekitatez ematea bermatzeko.

- Bide egokiak ezartzea farmaziako langileek, beren jarduera lurralde osoan garatzen duten osasun-agentek diren aldetik, osasunaren sustapen-planen eta prebentzio-planen, medikamentuetara atxikitze planen, paziente kronikoak eta medikamentu ugari hartzen dituzten pazienteak artatzeko planen eta abarren ezarpenean parte hartu ahal izateko eta agente aktiboa izateko aukera edukitzeko.

3.5.6 Eremu soziosanitarioa

- Lurralde-eredua eta lehen mailako arretako eta arreta komunitarioko estrategia garatzea, arreta soziosanitario integralena eta integratuena errealitate bihurtzeko alait lasterren, deszentralizazioaren eta parte-hartze sozialaren printzipioei jarraikiz. Neurriak ezartzea osasun-laguntzaren eta gizarte-laguntzaren arteko koordinazioa eta integrazioa handiagoa izateko.

- Lantaldeen diziplinartekotasuna. Lehen Mailako Arretan integratutako gizarte-lana. Neurriak hartzea gizarte-langileen figura osasun-zentroetan indartzeko.

-Heriotza duina:

- Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko martxoren 24ko 8/2011 Foru Legea betetzen ote den jarraipena egitea eta Heriotza Duinaren Behatokia eta bizi-testamentua sustatzea.

- Eutanasiarako eta suizidio lagundurako eskubidearen defentsa irmoa egitea kasu jakin batzuetan hurbileko pertsona maite batek bere bizitzako azkenaren prozesuari duintasunez aurre egiteko duen nahia betetzeko. Era berean, gai horren inguruko legeak Nafarroan egin eta arautu ahal izateko gaitasuna aldarrikatzea.

- Beilatoki-zerbitzuaren izaera publikoa sustatzea pixkanaka, bazterketa-egoeran edo kalteberatasun-egoeran dauden eta asegururik ez duten edo enpresa pribatuei ordaindu ezin dieten pertsonak eta familiek zerbitzu hau eskuratu ahal izateko. Horretarako, itunak ezarri ahal izanen dira enpresa horiekin edo baldintza jakin batzuk betetzen dituzten familiek eskatu ahal izanen dituzten laguntzak prestatu ahal izanen dira.

3.5.7 Osasun mentala

- Osasun Mentalaren Plan berria ezartzea, garatzea eta haren etengabeko ebaluazioa sustatzea.
- Diziplina anitzeko Osasun Mentaleko Egoitza sendoa, zabala eta herritarrengandik hurbil dagoena berregituratzea. Presa dago horrelako jardun bat egiteko biztanleen artean areagotu egin direlako gaixotasun mentalen ugaritasunaren estatistikak. Gaixotasun horiek, gainera, egungo krisialdi sozioekonomikoari irteera emateko gobernu-politikek eta biztanleriaren zahartzeak eta adikzioen goraldiak areagotzen dituzte.
- Osasun mental publikoaren alde egitea. Zentro pribatuak publiko bihurtzeko prozesuekin jarraitzea eta arreta sare publikoan barneratzea.
- Irizpideak eta protokoloak bateratzeko mekanismoak ezartzea.
- Eguneroko bizitzako arazoak “desmedikalizatze” eta “despsikiatritzatze” neurriak.

Doluari arreta ematea kalteberatasun-egoeratzat eta berariazko premiak dituen bizi-prozesu natural eta ohikotzat hartuta; izan ere, doluaren ondorioek prozesu oso konplikatua edo lotutako patologia eragin ditzakete.

- Langile kualifikatuak eta behar adinako kopuruan ematea pazienteekin modu pertsonalizatuan lan egin ahal izateko eta langile horiei tresnak ematea beren eguneroko bizitzari aurre egin ahal izateko.
- Lehen mailako Arretan psikologiako langileak edo BAEEd (psikiatriako espezialitatea) duten erizaintzako langileak sustatzea, baita koordinazioa eta pazienteen zainketak Osasun Mentaleko lantaldeekin partekatzea ere, maila espezializatuko tratamendu laburragoetara bideratuta.
- Gaixotasun Mental Larri eta Kronikoa artatzen denean, egoerari buruzko diagnostiko bat eginen da eta neurriak sustatuko dira mota horretako pazienteek behar dituzten baliabideak biztanleria honek gaur egun dituen premietara eta familia antolatze modu berrietara egokitze. Ezinbestekoa da baliabide horiek bizkorak izatea eta sektore publikoaren barnean sartzea.
- Koordinazioa. Gizarte Harremanarekiko harremana errazteko, desburokratizatzeko, kasu bakoitza irizpide klinikoekin eta sozialekin balioesteko eta epeak bizkortzeko neurriak.
- Ospitaleko psikiatriako unitateen (akutuak) azpiegiturak eta ekipamenduak eguneratzea. Larrialdietarako berariazko sarbidea.
- Estigma elkartuaren aurkako borroka eta gaixotasun mentala duten pertsonen ahalduzkoa babestea eta sustatzea.

3.5.8 Sexu- eta ugalketa-osasuna

- Sexu eta Ugalketa Osasuna Artatzeko Zentroak (CASSYR) gizon eta emakumeentzako sexu-orientazioko zentro gisa sustatzea hezkuntza afektibo-sexuala, lan komunitarioa eta berariazko programak jardun-eremu nagusiak izanik.
- Sexu eta Ugalketa Osasunari buruzko 103/2016 Dekretua erabat eta benetan garatzea eta emakume orok bere gorputzarekiko duen eskubidearen eta haurdunaldia borondatez osasun-sistema publikoaren barnean eteteko duen eskubidearen alde egitea, baita emakumeek laguntza bidezko ugalketarako duten eskubidea bermatzearen alde egitea ere, inolako diskriminaziorik pairatu gabe sexu-identitatea edo sexu-orientazioa edo generoa eta egoera zibila direla medio.
- Hezkuntza Sailarekin elkarlanean arituz, SKOLAE programa bultzatzea eta tailerrak eta kanpainak sustatzea, baita hezkuntza-arloko profesionalen prestakuntza egokia bermatzea ere.
- Eskola-inguruetatik haratago, sexu- eta afektibitate-hezkuntza sustatzea gazteen artean bereziki. Horretarako, Nafarroako gazteen ohiturei buruzko diagnostiko bat egin behar da, lehentasunak ezarri behar dira eta beharrezkoak diren mekanismoak eta baliabideak ezarri behar dira, sexu-hezitzaileen sarearen partaidetzarekin eta inplikazioarekin.
- Erditzea. Nafarroako ospitaleetan modu naturalean erditzeko laguntza –ez medikalizatua eta ahalik eta esku-hartze txikienarekin– emanen zaie haurdun dauden emakumeei, arrisku-faktorarik gabe edo arrisku gutxiarekin, amaren eta fetuaren beharrezko zaintza bermatuko da nahi ez diren arriskuak saihesteko eta emakumearen erabakia eta informazioa errespetatuko da beti, baita haurdunaldia, erditzea eta puerperioa artatzeko prozesu osoan emakumeak nahi duen pertsonak laguntzeko duen eskubidea ere.

3.5.9 Osasun publikoa

- Behar adina baliabide ematea eta aurrekontua igotzea Osasun Publikoko eta Laneko Nafarroako Institutuari (OPLNI), Nafarroako Gobernuaren Osasuneko politiken ardatz gisa. Ildo horretan, OPLNIko plantilla indartuko da langile propioekin Nafarroako Gobernuak Osasuna prebenitzeko eta sustatzeko proiektu guztiak gauzatzeko eta bultzatzeko eta Tokiko Erakundeetako proiektuak gauzaten laguntzeko.
- OPLNIa buru izanen da Zahartze Aktiboaren Estrategia garatzeko eta haren jarraipena egiteko, Osasunaren Sailarteko Kontseiluaren esparruan.
- Adikzioen Foru Plana garatzea, substantziarik gabeko adikzioei eta alkohol-kontsumoari arreta berezia eskainiz. Sailarteko lantaldeak sortuko dira eta Osasuna, Gizarte Eskubideak, Hezkuntza eta Barne Sailak parte hartuko dute, baita Tokiko Erakundeek, eraginpeko elkarteek eta pertsonak ere, prebentzio-politika publikoak guztiz koordinatzeko asmoz.
- Arreta jartzea STGen gorakadan. Prebentzio-kanpainari eta Hiesa Programaren susperraldiari jarraipena ematea. Gaixotasun bat desagerraraztea izanen da funtsezko helburua, baldin eta gaixotasun hori kutsatzea erraz saihestu badaiteke. Eremu horretan funtsezkoak dira GKEek eta Osasunbideak modu koordinatuan egiten duten prebentzioa eta lana. Horregatik, neurri egokiak hartuko dira elkarteek programa horiek garatzen jarraitu ahal izateko, jarraituko dutela eta behar adina baliabide izanen dituztela bermatuz.
- Bultzada politikoa eta aurrekontu-arlokoa ematea Osasun Komunitarioaren Behatokiari.

3.5.10 Laneko osasuna

- Laneko Osasuneko plantilla indartzea.
- Laneko osasunarekiko arreta Osasunbiden txertatzea. Prebentzioan oinarrituta dagoen eta prebentziora bideratuta dagoen sistema publiko unibertsala, ekitatiboa, parte-hartzailea eta integrala sustatzea arretaren arloan. Sistema horrek gaur egungo enplegu- eta lan-baldintzen eta osasunean dituen ondorioen arteko harremani buruzko ikerketa asko bultzatzen du, horrek azaltzen baititu osasunaren alorrean gaur egun dauden desberdintasunak.
- Enplegu-politikak langileen osasunean duen eraginaren ebaluazioa egitea, indar sindikalen partaidetzarekin.
- Langile publikoak NOZ zerbitzuan pixkanaka sartzeko plan bat egitea, kontingentzia profesionaleri dagokienez, dagozkion mutualitateekin sinatutako hitzarmenak alde batera utzita.
- Prebentzio-zerbitzuen egungo sistema pribatuari buruzko kontrola egitea hasieran eta, ondoren, desagerraraztea, mutualitateak desagerraraztea laguntza-sistema gisa eta urratsak egitea gizarte-segurantzaren sistema propio bat prestatzeko, lanaren ondorioz dauden gaixoen eta ezinduen gizarte-eskubideak areagotuko dituen sistema bat, alegia.
- Laneko Ikuskatzailetzaren eskualdaketa onartzea.
- Lanerako ezintasun-egoeretan ematen den arreta hobetzea, zerbitzu publikoak pribatuaren aurretik hautatzeko aukera defendatuz, eta itxaron-zerrenden kudeaketan irizpide soziolaboralak ere balioetsiz.

3.6 Odol- eta ehun-bankua. Transplanteak.

- Odol eta Ehun Bankuaren kudeaketa hobetzea: odola, ehunak eta organoak ematea altruista da, eta, beraz, horren kudeaketa etikak eta gardentasunak zuzendu behar dute eta osasun-sistema publikoan ezarri behar da. Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan bezala, aurrera egin behar da produktu horien maneian autosufizientzia eta ahalik eta segurtasun handiena lortzeko; izan ere, produktu horien jatorria (gizakia) eta urritasuna direla medio produktu horien erabilera izugarri kontrolatu behar da.
- Emateko jarduerak eta transplanteak publikoak izanen dira. Zuzendaria irizpide teknikoak erabiliz izendatuko da eta Osasun Publikoko profesionala izanen da. Neurriak ezartzea produktu hemoderibatuak sortzeko, bertako plasma erabiliz. Hemoderibatu plasmaticoak, zatikapenaren ondoren, gure ospitaleetara itzuli beharko dira dohainik. Jarduera horren datu kuantitatiboan eta kualitatiboan gardentasun handiagoa izan behar da gure Erkidegoan. Produktu guztiak Nafarroako Odol eta Ehun Bankuan zentralizatzea eta NKUan zentralizatuta egotea, gaur egun bezala, desagerraraztea. Sektore pribatuaren barnean transplanteen arloa garatzea (eta ez da soilik emileen organoak jasotzeaz eta erauzteaz arduratuko).
- Immunologia Klinikoko Zerbitzu bat ezartzea Osasunbiden.

4. Partaidetza eta gardentasuna

- Erabiltzaileei informazioa emateko eta erabiltzaileek erreklamatzeko prozedurak hobetzea.
- Pazienteari arreta emateko zerbitzuarekin lan egitea pazienteek edo ahaideek jarritako kexen eta erreklamazioen azterketa sakona egiteko. Kexa horiei buruzko informazioa emateko eta kexa horiei buruz egiten den jarraipenaren gaineko informazioa

emateko mekanismoak ezartzea, hobekuntza-arloak identifikatuz, hala badagokio, eta jardun zehatzak ezarriz. Jardun horien berri emanen da modu indibidualean eta pazienteen elkarteei.

- Biztanleriak sistemaren maila guztietan parte hartzeko tresnak sortzea, tresna betearazleak eta ebaluatzeko gaitasuna dutenak; Herritarrek Parte Hartzeko Batzordeak ezartzea eta Osasun Kontseiluak berreskuratzea eta bultzatzea, Kontseilu horien araudia aldatuz, benetako botereak emanez eta aholku ematekoak soilik ez izateko, orain arte bezala. Osasunaren kudeaketa demokratizatzea, langile sanitarioen eta herritarren partaidetza sustatuz.

- Ospitaleko Gobernu Kontseiluak suspertzea eta bultzatzea, langileen eta erabiltzaileen presentzia handiagoa izanik eta erabakiak hartzeko gaitasuna ere handiagoa izanik.

Neurriak hartzea profesionalen partaidetza eta inplikazioa sustatzeko. Zerbitzuen birbideratzeak profesional guztiak komunikatzeko, profesional guztiei informazioa emateko eta profesional guztiak prestatzeko prozesuak kontuan hartu beharko ditu.

- Osasun Kontseiluak sustatzea udalerriko eta eskualdeko premiak detektatzeko. Egitura horizontalago bat hedatzea eta erabakitze gaitasun handiagoa ematea. Urtean bilerak egiteko gutxieneko maiztasuna ezartzea, Kontseiluekin hertsiki aritzeko elkarlanean, edo elkarlan espezifikoa izateko udal-erakundeekin eskola-jantokien eremuan, adingabeek dituzten elikagai-premiak detektatzeko mekanismoak ezartzeko eta premia horiek estaltzeko jardun koordinatuak sustatzeko.

5. Prestakuntza eta ikerketa

- Etengabeko prestakuntza iraunkorra bermatuko zaie langile guztiei eta egungo eta etorkizuneko lanbide-karrerarekin lotuko da.

- Behar adinako aurrekontu-zuzkidura profesionalen irakaskuntzarako, teknologia sanitarioarekin lotutako enpresen mendekoa ez den profesionalen irakaskuntzarako. Teknologiaren alorreko aurrekontuaren ehuneko bat irakaskuntza-funtsean erabiltzea, osasun publikotik kudeatuta.

- Irakaskuntza publiko denetik publiko denera emanen da, erakunde pribatuekin sinatutako hitzarmenak - Irakaskuntza sektore publikoari ordaintzen diotenak- alde batera utzi gabe.

- Aurrekontua bultzatzea eta sektore zientifiko/ikertzailea sustatzea sare publikoan. Nafarroako Osasun Ikerketako Institutuaren (IDISNA) eta NavarraBioMed zentroaren garapena sustatzea.

Minbiziaren ikerketa indartzea Nafarroan, estatuko Minbiziaren Ikerketarekin bat etorritik eta hura osatuz.

Ikerketa sustatzea Gaixotasun Arraroen eremuan.

- Medikuntzako Gradu publikoa irmoki sustatzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoari beharrezkoak diren baliabideak bermatuz gradua behar bezala garatzeko. Lehentasuna ematea unibertsitate publikoetako erizaintzako eta Medikuntzako ikasleen prestakuntzari.

- Medikuntzako (BAME) eta erizaintza espezialistako (emaginak...) profesional berriak prestatzera bideratutako plaza kopurua zabaltzea.

PROGRAMA: ADINEKOAK.

Zahartzaroari eta erretiroari buruzko XX. mendeko kontzeptuak ez dira gaur egun indarrean dauden kontzeptuak. Adineko berriak hobeto prestatuta daude, aktiboagoak dira, eta, gainera, biztanle askotarikoak eta heterogeneoak dira, talde gazteenen eta talde oso zaharrenen artean desberdintasun handiak baitaude. Gizartearen zati aktibo eta garrantzitsuak direnez, erakundeek eremu horretan egiten dituzten politikek kontuan izan behar dute hori eta asistentziaren eta osasunaren arlokoa soilik den ikuspegia gainditu behar dute.

Era berean, kontuan izan behar dugu adinekoak premia espezifikoak, arazo sozialak, osasun-arlokoak eta erantzun behar diren zainketa espezifikoak behar dituzten kolektibo bat direla.

Ezin dugu ahaztu baldintza sozialak edo erabakigarriak (esate baterako, lurraldea, maila sozioekonomikoa, pobrezia-egoeran bizitzeko arriskua, etnia, generoa) garrantzitsuak direla desberdintasunak sortzen dituzten elementuak direlako, eta bizitzaren etapa horretan oraindik nabarmenagoak direla.

Horregatik, bizi-baldintza duinak ziurtatu behar dira eta pertsona guztiei gutxieneko diru-sarrerak eta prestazio egokiak, elikadura-bermea, etxebizitza, zahartzaroko zainketak eta osasun-arreta bermatu behar zaizkie, baita norberaren aisiarako eta kulturarako bermea ere.

Politika publikoek erantzun koherentea eta egokia eman behar diote autonomia galtzeari. Horregatik, autonomia pertsonala galtzearen prebentzioa sustatu behar da, eta, gainera, urratsak egin behar dira edonork zaindua izateko duen eskubidea eskubide subjektibo gisa onartzeko legeak.

Horretarako, aurrera egin behar da zerbitzu publiko unibertsalen sare batean eta koordinketa pixkanaka desagerrarazi behar da zerga-sistema orokor batetik finantzatzuz, herritar guztientzako kalitatezko zerbitzuak, irisgarritasun-zerbitzuak eta berdintasun-zerbitzuak bermatu ahal izateko.

Emakumeen partaidetza sozial aktiboa oso txikia da oraindik (elkarteetan, plataformetan...). Horregatik, aurrera egin behar da paritatean, erantzukizunen banaketan, gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasunean, emakumeek presentzia aktiboa izanen dutela bermatzeko.

Adinekoek gizartearen duten papera indartu behar dugu, eta hori zeharkako politiken eta partaidetzako politiken bitartez egin behar da; era berean, kalteberatasun-egoeren aurrean gizarteak nahiz etxeak eragiten dizkien tratu txarrak desagerrarazi behar ditugu.

2019-2022 LEGEALDIRAKO PROPOSAMENAK.

Bizi-baldintza duinak bermatzea oraingo eta etorkizuneko adinekoentzat.

- 1- Errealitate Sozialaren Behatokia beharrezkoak diren azterlanak eta azterketak egiten ari da adinekoen benetako egoera zein den jakiteko eta politikak egoera horretara egokitzeke.
- 2- Nafarroan gaur egun dauden pentsioen azterketa eginen dugu, eta, ondoren, pentsio horiek pixkanaka igoko ditugu 1080 euro izatera iritsi arte. Europako Gutun Sozialaren arabera, zenbateko hori gutxienekoa da pentsio duinak izateko.
- 3- Beharrezkoak diren urratsak eginen ditugu pentsioen berezko sistema publikoa eraikitzeke eta garatzeko, sistema hori garatu ahal izateko behar diren legegintza-tresna eta berme juridiko guztiak erabiliko ditugu; horrez gain, eskatuko dugu Gizarte Segurantzaren alorreko eskumen guztiak eskualdatzea.

- 4- Egoitzen eskaintza publikoa areagotuko dugu kudeaketa-eredu berriekin, eta koordainketa berrikusiko dugu koordainketa pixkanaka murrizteko.
- 5- Gizarte Zerbitzuetako Lehen Mailako Arretaren Erreformaren barnean: Beste hainbat programaren artetik mendekotasun-egoeran bizi diren pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko programa definituko dugu.
- 6- Tafallako arreta soziosanitarioari buruzko egungo esperientzia pilotua Nafarroa osora hedatuko dugu pixkanaka.
- 7- Tokiko jantokiak edo bestelako zerbitzuak sustatuko ditugu, baita laguntzak ere, errentaren arabera, jantoki edo zerbitzu horiek eskuratu ahal izateko.
- 8- Adinekoei eragindako tratu txarren aurkako eta adinekoei tratu egokia ematearen aldeko kanpainak egingen ditugu. Era berean, adinekoei eragindako tratu txarra prebenitu, detektatu eta horren kontra jardunen dugu, baita adineko emakumeen aurkako indarkeria kontra ere; horrez gain, inplikaturako profesionalei prestakuntza emanen zaie.
- 9- Irisgarritasun unibertsalari buruzko Legea betetzea, adinekoen autonomia pertsonala mantentzeko hainbat eremutan, hala nola hirigintza-plangintzetan, mugikortasunean, garraio publikoan, eraikin irisgarrietan, etab.
- 10- Bizitoki-eredu berriak lagundu eta sustatuko ditugu: Elkarlaneko etxebizitzak, zerbitzuak dituzten egoitzak/ etxebizitzak, cohousing...

Adinekoen partaidetza soziala bermatzea.

- 11- Zahartze aktiboa sustatuko duten politikak bultzatuko dira. Politika horiek Nafarroako adinekoen elkarte guztiekin egin eta kudeatuko ditugu.
- 12- Eremuko elkarteekin elkarlanean arituta, pertsonaren garapena bilatzen duten prestakuntza-arloko, kultura-arloko eta aisia-arloko mota guztietako jarduerak sustatuko ditugu.
- 13- Berdintasunerako Legean bilduta dauden politikak abian jarriko ditugu.
- 14- Nafarroako Adinekoen Kontseilua sustatuko dugu adinekoak protagonistagoak eta aktiboagoak izan daitezen kolektibo horri eragiten dioten politika guztietan. Helburu horrekin, foru-erakundeek ez ezik, sektore horrekin lotutako elkarte eta eragile guztiek ere parte hartzea bilatuko da.
- 15- Komunikazio-plan bat diseinatzea eta egitea dauden zerbitzu, prestazio eta laguntza guztien inguruan eta adinekoekin harremana duten zerbitzu, prestazio eta laguntza horiek lortzeko moduaren inguruan: publizitatea, webgunea, sare sozialak, bideoak, kaleko ekintzak, etab.
- 16- Zahartzeari buruzko informazioa ematea gizarteari eta gizartea horren inguruan sentibilizatzea, zahartzaroari buruzko irudi positiboa eta aktiboa emanez
- 17- Belaunaldien arteko esparru sozio-komunitarioak, autokudeatuak, sortzea.
- 18- Elkarri Laguntzeko Komunitateak garatzeko Foru Legea sustatzea; ezarpen hori Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren edo Foru Berriaren testu berrian jasota dago adinekoak erakunde geriatrikoetan ez isolatzeko eta bakardade-egoerarik ez bizitzeko aukera gisa.

GIZARTE-ESKUBIDEAK

Gizarte-politikak giza eskubideen defentsan eta aplikazioan oinarrituta egonen dira nahitaez; era berean, kalteberenak (migratzaileak, generoa, haurtzarua, adinekoak...) defendatzen dituzten nazioarteko itun guztiak defendatu behar dituzte eta itun horietara egokitu behar dute, eta, gainera, modu eraginkorren bermatu behar dute pertsona guztiek kateberatasunaren, pobreziaren eta gizarte-bazterketaren mende ez bizitzeko duten eskubidea.

Oraingo honetan ere pertsonak dute lehentasuna; horregatik, funtsezkoa da herritar bakoitzari, salbuespenik gabe, behar adina baliabide ematea herritar bakoitzak hezkuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren, enpleguaren, elikagaien, gutxieneko diru-sarreraren eta abarren arloan dituen oinarritzko premiak duintasunez bete ahal izateko. Horrela, existentzia duina eta aukera-berdintasunean bermatuko da.

Gizarte-politikaren helburua gizarte babesa lortzea da desberdintasunaren ondorioen eta gizarte-desoreken aurka; horregatik, gizarte-zerbitzuak ezinbesteko tresna dira gizarte-politika garatzeko. Gizarte-zerbitzuak herritar guztientzat dira, unibertsalak dira, eta prebentzioaren, laguntzaren, gizarteratzearen eta gizarte-sustapenaren eremuetan jarduten dute; horrez gain, eskumen publikokoak izan behar dute.

Haurren pobrezia biztanleria kalteberenaren sektoreetako bat da eta haurren pobreziaren egoeretan, gizarte-zerbitzuek haurrak babesteko sistema batzuk garatuko dituzte. Sistema horietan haurren eta nerabeen eskubide indibidualak, kolektiboak eta sozialak bermatuko dira, gizarte-desberdintasunak gainditzera bideratutako politika prebentiboak sustatuz; izan ere, pobrezia da haurren babesgabetasunaren alderdi nagusia eta Nazio Batuen Erakundearen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren arabera dagozkien eskubideak bermatuta ez edukitzeko arrazoi nagusia. Hertsatzeko edo kontrolatzeko politikak eta neurriak gainditu behar dira eta esku-hartze sozioedukatioak jarri behar dira lehen mailan. Esku-hartze horiekin batera hezkuntza-sistema publikoa, osasun-zerbitzu publikoak, bizilagunen erkidegoak protagonista dituzten prebentzio-proiektuak sustatzeko eta garatzeko zerbitzuak edo arreta ekonomikoa eta hezkuntza-arlokoa behar duten familiei arreta hori emanez oinarritzko premiak bermatuko dizkieten gizarte-zerbitzuak indartu behar dira.

Bestalde, beste sektore kaltebera bat mendeko pertsonak eta desgaitasuna duten pertsonak osatzen dute; pertsona horien aurrean funtsezkoa da pertsona horien berezitasunak eta premiak aintzatesten dituen gizarte-politika bat garatzea ikuspegi integratzailetik begiratuta eta ez soilik laguntzaren ikuspegitik begiratuta.

Politika horiek, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenean bildutakoari jarraikiz, herritarren benetako berdintasuna lortu behar dute, Hitzarmen horretan bildutako printzipio hauek betez:

- 1- Berezko duintasunarekiko errespetua.
- 2- Autonomia indibiduala, norberaren erabakiak hartzeko askatasuna barne.
- 3- Diskriminaziorik eza
- 4- Gizartean parte hartzea eta gizarteratuta egotea erabat eta modu eraginkorren.
- 5- Desgaitasuna duten pertsonak onartzea giza baldintzaren eta aniztasunaren zati gisa.
6. Aukera-berdintasuna.
- 7.- Irisgarritasuna.

Hori guztia Hirugarren Sektorea ahaztu gabe. Sektore horren helburuetako batzuk gobernuekin elkarriketak izatea, azterketa kritikoa egitea eta politika publikoak eraikitzen eta garatzen partaidetza aktiboa izatea dira. Hirugarren Sektore horretako irabazi-asmorik gabeko erakundeen helburua pertsonak sustatzea eta funtsezko eskubideak defendatzea denez, koordinaziorako, komunikaziorako eta baterako lanerako bideak antolatu behar dira, eta bide horiek bien arteko harreman egokia bermatuko dute. Era berean, kudeaketa-ereduen artean bizilagunen erkidegoek garatutako jardunak hartu behar ditugu kontuan. Jardun horiek osagarriak izanen dira administrazioak estali ezin dituen eremuetan.

2019-2022 LEGEALDIRAKO PROPOSAMENAK

Gizarte-zerbitzuen sistema publiko eta unibertsala

1. Neurriak hartzea zerbitzuak unibertsalak eta doakoak izatea lortzeko.
2. Ratioen dekretu arautzaile berri bat egitea zerbitzu guztien kalitatea hobetzeko funtsezko elementu gisa eta langileen lan-baldintzak hobetzeko bermatzaile gisa.
3. Nafarroako Gobernuak inplikazio aktiboa izatea lan-hitzarmen sektorialak sustatzeko garaian, bereziki, hitzarmenik ez duten gizarte-zerbitzuen eremuetan, esku-hartze sozialarekin eta mendetasuna artatzeko zerbitzuekin gertatzen den bezala.
4. Koordainketa kentzea. Koordainketa pixkanaka murriztea, Egoitzetatik hasita. Gobernuak finantzaketa bere gain hartuko luke zerga-sistema orokorraren bitartez.
5. Gizarte-zerbitzuen eredu deszentralizatua, komunitarioa eta hurbilekoa ezartzea eta garatzea.
6. Gizarte-eskubideak bermatzea Nafarroan bizi diren pertsona guztiei, salbuespenik gabe.
7. Sustapen- eta prebentzio-politikaren garrantzia nabarmentzea laguntza-politiken aurrean.
8. Gizarte Zerbitzuei buruzko lege berria.
9. Gizarte-lanak protagonismo handiagoa izatea oinarritzko gizarte-zerbitzuetan eta zerbitzu horiek burokratizatzea saihestea.
10. Europarekin bat egitea Gizarte Zerbitzuetan egindako inbertsioaren eta gastuaren ehunekoari dagokionez.
11. Enplegua sortzen duten zerbitzu eta programa guztiak hedatzea eta laguntza ekonomikoa ematea.
12. Sareko lana eta zerbitzuen arteko koordinazioa ezartzea Lehen mailako arretaren erreforman bilduta egon behar duten metodologiekin eta Tokiko Mapari buruzko Legean ezarritako ildoei jarraikiz.
13. Erabiltzaileen eta profesionalen hizkuntza-eskubideak errespetatzea (euskarazko zirkuituak bermatzea tokiko eta foruko eremuen arteko harremanean, baita zerbitzuen artean ere)
14. Etengabeko prestakuntzako planak onartzea gizarte-zerbitzuetan lan egiten duten sektore profesional guztientzat, eta haien laguntza izatea premiak detektatzeko eta prestakuntza-paketeak eratzeko.
15. Oinarritzko gizarte-zerbitzuei beharrezkoak diren bitartekoak eta finantzaketa egokia ematea udalerrri bakoitzeko gizarte-premiei erantzuteko, zerbitzu horiek finantzatzeari buruzko dekretu berriaren testuinguruan. Dekretu hori profesionalekin adostu beharko da.

Mendeko pertsonen autonomia pertsonala eta haiek artatzea

1. Laguntza teknologikoak izateko eskubidea aitortzea.
2. Laguntza-produktuen katalogo ortoprotesikoa egitea, egungo eredu sanitarioa gaindituz eta produktu berriak sartuz; era berean, laguntza-produktuen Orientazio Zerbitzua sustatzea.
3. Desgaitasuna duten edo mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako laguntza indibidualak berreskuratzea, autonomia pertsonala eta erabateko gizarteratzea lortzen laguntzeko.
4. Komunitateak, eta bereziki adinekoek eta desgaitasunak dituzten pertsonen parte har dezaten sustatzea: espazioen diseinuan eta hiri-plangintzan esku hartuz, pertsona horiek gizarte-arloko eta kultura-arloko jardueretan inplikatu direla bermatuz eta funtzionamendu autonomoa izateko gaitasuna indartuko duten baliabideak lortzea ahalbidetuko dieten ekintzak sustatuz.
5. Garraio egokitua, baliabideak eskuratzeko garaian berdintasuna bermatuko duena
6. Tutoretzapeko etxebizitzak, etxebizitza komunitarioak eta/edo bizitegi-aukerak
7. Mendetasuna artatzeko politika propio bat defendatzea eta sustatzea. Mendetasuna artatzeari buruzko lege propio bat onartzea.
8. Prestazio ekonomikoen aurrean zerbitzuen alde egitea, ahalmen ekonomikoetara egokitutako zerbitzuen alde, alegia. Zerbitzu-eskaintza zabaltzea zainketak emakumeen esku geratzen jarraitzea saihesteko edo murrizteko.

9. Agenteeek erakundeetan nahiz gizartean eta elkarteetan partaidetza izan dezaten sustatzea.
- 10- Ohiko ingurunean, familia-ingurunean eta gizarte-ingurunean kalitatez jarrai dezaten ahalbidetzea.
- 11-Egoitza-gailu bat edukitzea, kalitatezko arreta eskaintzeaz gain, ingurune bizigarriak eta komunitateari irekita daudenak sustatuko dituenak.
10. Lurralde osora zabaltzea mendeko pertsonak artatzeko programa soziosanitarioa; programa hori, gainera, inklusiboa eta mendetasuna duten Pertsonen buruzko Nazioarteko Hitzarmenarekiko koherentea izanen da.
11. Mendetasun zonifikatuari eta deszentralizatuari arreta eskaintzea, hurbiltasun-zerbitzuak, egoitza-zerbitzuak eta ekimen komunitarioak sarean txertatuz, kasuak tratatzeari dagokionez (informazioa, aholkularitza, orientazioa, dinamizazioa) erreferentziatzeko langileak izanik premiei eraginkortasun handiagoz erantzuteko eremu egokientzat hartuta.
12. Zaintzaile informalei aitortzea beren premiak balioesteko eskubidea, erabiltzaileak zeintzuk diren kontuan hartu gabe, eta biztanleria horri bideratutako laguntza-zerbitzuak garatzea: laguntza psikologikoa, teknikoa, prestakuntza-arlokoa, atsedenaldirako programak...
- 13- Zaintzaile profesionalak kontratatzeke laguntzak emateko konpromisoa hartzea, administrazio publikoak prestakuntza eta zaintzaile profesional horien lan-eskubideak beteko direla bermatuz. Beste zerbitzu batzuekin (adibidez, eguneko zentroak, etxeko laguntza-zerbitzua...) bateragarriak izaten jarraituko duten laguntzak.
- 14- Familia-ingurunean eta gizarte-ingurunean jarraitzea ahalbidetuko duten zerbitzu publikoen garapena: Etxeko laguntza Zerbitzua –ELZ- indartzea (ratioak, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak) Arreta Integraleko Zerbitzu bilakatuz, bere prebentzio-ikuspegia garatuz, eta arretaren intentsitatea, prestazio-eskaintza, profesional kopurua (fisioterapia, laguntza pertsonala...) eta zerbitzuaren ordutegi-eskaintza areagotuz.
- 15-Prestazio ekonomikoen bitartez finantzatutako arretaren kalitatea gainbegiratzeko mekanismoak ezartzea.
- 16-Plan progresibo bat egitea gaur egun pribatizatuta/itunduta dauden zerbitzuak itzultzeko eta haien kudeaketa publikoa egiteko.
- 17-Inbertsio publikoen plan bat egitea, zeinak, detektatutako premien arabera, egungo egoitzak bizikidetzako gune bizigarriagoak eta egoiliarren itxaropenetara eta nahietara egokituago daudenak izan daitezten sustatuko duen.
- 18-Irugarritasun unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Legea benetan betetzea.
- 19-Behar den laguntza emanez, egoiliarren bizitzen kudeaketan egoiliar horien gaitasunak eta ahalmenak ahalik eta gehien sustatzen dituzten egoitzak.
- 20- Eguneko zentroen eskaintza publikoa areagotzen jarraitzea
- 21-Pertsonen laguntzeko Gaitasunari eta Neurriari buruzko Lege berri bat sustatzea Lege horren arauketa Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumaren edo Foru Berriaren testura egokitzeke.

Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka

1. Gizarteratzeko esparru-programa bat egitea Lehen mailako Arretan (gizarte-akonpainamendua, gizarteratzeko eta laneratzeko akordioa, esku-hartze komunitarioa, partaidetza, etab.)
2. Gizarteratzeko talde profesionalak indartzea eta egonkortzea sare publikoan.
3. Egungo Errenta Bermatuaren legea aldatzea:
 - a. Egoitza egiaztatzeke denbora laburtzea: gaur egun edo iraganen urtebeteko denbora.
 - b. Errentaren iraupena bermatzea enplegurik ez dagoen bitartean edo behar adinako diru-sarrerarik ez dagoen bitartean.
4. Koordinazioko eta Arreta integraleko Sare bat sortzea. Sare horrek autonomia pertsonaleko prozesuak sustatuko dituzten egoitza-ibilbideak sortzea eta pertsonen egoera espezifikotara egokitutako bizitoki egokien benetako dibertsifikazioa hartuko ditu bere gain. Larrialdi-egoeretara bideratutako protokoloak eta baliabideak ezartzea.

5. Gizarte-akonpainamendua bermatzea eta indartzea, gizarte-bazterketaren egoeran dauden pertsonen etxebizitzari eusteko neurriak errazteko.
6. Etxebizitza-premia duten eta geletan bizi diren pertsonen eta familien errolda egitea. Errolda Gizarte Zerbitzuekin, osasun-zentroekin eta ikastetxeekin elkarlanean arituz egingen da.
7. Etxebizitzarik ez duten pertsonen Arreta emateko Sare bat bermatzea.
8. Arreta eta esku-hartze integratua ezartzea gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen artean, gizarteratzeko eskubidea gizarte-zerbitzuen integrazioaren bitartez (ERSISI) indartzeko proiektuaren ondorioei jarraikiz, enplegarritasunari buruzko gizarte-diagnostiko bat eta erantzun egokitua eta pertsonalizatua emateko gizarte-diagnostiko bat eginez, gizarteratzea benetakoa izan dadin.
9. Askatasunaz gabetutako pertsonen eskubideen berdintasuna bermatuko dien kalitatezko hezkuntza- eta gizarte-arreta bermatzea; horretarako, premiei buruzko diagnostiko bat eta neurri zehatzen eta baliabide kopuruaren plan bat egingen dira.
10. Etxebizitzaren, errenta bermatuaren eta bestelako prestazioen alorrean behar diren neurriak hartzea, presoeri eta preso ohieei eta haien ahaideei baldintza duinak emateko.

Haurrak, nerabeak eta familia

1. Haurren Plana erabat garatzea eta ezartzea
2. Eremu horrekin lotutako politika guztiek kontuan izan behar diren haurrak eta nerabeak eskubide indibidual eta sozial guztiak dituzten herritarrak direla; horregatik, ikuspegi paternalista edo protekzionistegi oro gainditzen ahaleginduko dira.
3. Haurren politiken zeharkakotasuna bermatzea, lege, politika, plan, programa edo aurrekontu guztiak bat etortzeko haurren interes nagusiarekin eta Nazio Batuen Hitzarmenak ezarritako haurren eskubideen ikuspegiarekin.
4. Arrisku-egoeran edo babesgabekotasun-egoeran dauden haurrak eta nerabeak dituzten familiei laguntzeko neurriak ezartzea, babes-sistematan gizarte-desberdintasunak berriro ez sortzeko neurriak, alegia.
5. Haurrak eta Nerabeak Artatzeko bitarteko taldeak finkatzea kudeaketa publikoa duten Gizarte Zerbitzuen Zentroetan.
6. Haurrei eta nerabeei dagokienez egin behar den politikaren inguruko debatea eta gogoeta egiten hastea eta lehenetsunak ezartzea.
7. Haurtzaroren alorreko baliabide gehienak bideratzea, proiektu eta neurri hertsatzaileak edo gizarte-kontrolkoak garatzera eta finantzatzera bideratuta egoteari uzteko, eta esku-hartze sozioedukatiiboak eta prebentziozkoak lehenengo mailan jartzeko. Esku-hartze horiei lehenetsun ematea kalte konpontzeko esku-hartzeen aurretik.
8. Haurrei eta nerabeei zuzendutako prebentzio komunitarioko proiektuak –lurralde-inbrikazioa dutenak– auzoetan eta herrietan sustatzea eta finantzatzea. Proiektu horiek tokiko erakundeek eta kolektibo komunitarioek gara ditzakete.
9. Familia-harreraren eredu sustatzea eta baliabideak ematea eredu horri:
 - i. Harrera-eredu desberdinak garatzea (urgentzia, profesionalizatua...)
 - ii. Abegi-familiak eta familia biologikoak erakartzeko sustapena, jarraipeneko, trebakuntzako eta laguntzako neurriak ezarriz.
 - iii. Adingabearen interes nagusiak haurra eta nerabea bere familia-ingurunean mantentzea izan behar du ardatz, adingabearen babesa bermatu ezin izan behar den salbuespeneko kasuetan soilik etengo da guraso-ahala, eta beti hartuko da konpromisoa egoera problematikoa gainditzen denean adingabea bere familiarekin itzuli ahal izan behar dela.
10. Egungo egoitza-harrerako sistema berrikustea:
 - i. 2-3 urteko gehieneko iraunaldiaren helburua betetzea adin nagusikoa izan arte luzatzeko egungo egoera gaindituz.
 - ii. Familia biologikoekin lan egiteko eta familia horiei laguntzeko estrategiak garatzea haurra edo nerabea familiarengandik bereiztea eragin zuten arazoak gainditzeko, baita laguntzeko beste estrategia batzuk ere garatzea haurra edo nerabea bere familia-nukleora itzultzeko.

iii. Egoitza-harreraren eskaintza hobetu eta dibertsifikatu behar da dagoen eskaerari erantzungo dioten baliabide egokituak erabiliz (babes-etxebizitza espezializatuak), bereziki neskontzat.

iv. Langileen lan-baldintza duinak bermatzea, plantillen egonkortasuna errazteko.

11. Emantzipazio-programen bitartez zintzotze- edo babes-zentroak uzten dituzten gazteei laguntzeko neurriak ezartzea.
12. Baliabide kopurua areagotzea gainezkatutako baliabiderik eta itxaron-zerrendarik ez izateko; horregatik, plaza kopurua handituko da babesa eskatzen duten hurrek eta nerabeek babeserako duten eskubidea bermatzeko.
13. Giza baliabideen kopurua handitzea etxeko edo eguneko zentzoko hezkuntza-programen saturazioari irteera emateko.
14. Programen eta baliabide ekonomikoen kopurua handitzea babes-sistematik igaro diren gazteen autonomia-prozesuak edo desinstituzionalizazio-prozesuak sustatzeko.
15. Langile publikoak eta espezializatuak dituzten kanpoko taldeak eta peritu-taldeak.
16. Kontrolatzeko eta gainbegiratzeko mekanismoak ezartzea haur eta nerabe batzuek babes-sistemaren barnean paira dezaketean edo pairatzen duten erakunde-arloko tratu txarra prebenitzeko eta/edo detektatzeko.
17. Haurraren interes nagusia demokratikoki aplikatzeko, haurraren iritziak hartuko dira kontuan haurrari eragiten dioten administrazio-prozedura guztietan.
18. Adingabeen zentroak kudeaketa publikora itzultzea.
19. Administrazio publikoaren kontrol-sistemak ezartzea. Sistema horiek baldintza duinak bermatuko dituzte eta adingabeen zentroetan paira daitekeen edozein motatako tratu txar prebenituko dute.
20. Beren migrazio-prozesuan inoren kargura ez dauden haurrei edo nerabeei babes eta arreta integrala emanen zaiela bermatzea.
21. Haurrak eta nerabeak sustatu, artatu eta babesteko abenduaren 5eko 15/2015 Foru Legea aldatzea bere arauketa Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Bildumaren edo Foru Berriaren testura egokitzeke.

Harremana gizarte-ekintzako hirugarren sektorearekin.

1. Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorera egokitutako arau-esparru bat sortu eta garatzea
2. Sektorearen finantzaketa bermatzea diru-laguntzei eta kontratuei buruzko lege bat –gizarte-premietara egokitutako proiektu iraunkorrak garatzea erraztuko duena– aldarrikatuz, “hainbat urtetarako hitzarmenak aztertuz”; horrez gain, Gizarte Hitzarmenei buruzko legearen garapena eta diru-laguntzak eskuratzeko deialdia behar adinako epearekin iragartzeko konpromisoa bermatzea.
3. Hirugarren Sektoreko hitzarmena esku-hartze sozialean inplikatzeko eta garatzea.

Bestelako neurriak:

- 1- 2019-2022 aldiko desgaitasunari buruzko planean bildutako neurriak aurrera eramatea.
- 2- Inklusioari buruzko plan estrategikoan bildutako neurriak aurrera eramatea.
- 3- Ijito biztanleria garatzeko Estrategia abian jartzea, estrategia horren jarraipena egiteko batzorde bat sortuz estrategia horretan inplikaturik dauden erakundeekin eta elkarteekin.

Garapenerako lankidetzak eta ekintza humanitaria.

- 1- Garapenerako Lankidetzako zerbitzu espezifiko bat sortzea Giza Eskubideen sailaren barnean, eta baliabide teknikoak, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ematea zerbitzu hori behar bezala betetzeko.
- 2- Epe luzeko lankidetzak plan egitea eta betearaztea, behar den aurrekontua emanez benetan egiteko.
- 3- Legealdian zehar, benetako konpromisoa hartzea aurrekontuen % 0,5era iristeko % 0,7ra iristeko ildoan. Plangintza hori Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin egiten da.
- 4- Nafarroan egiten den GLO ekarpena kontabilizatzeari dagokionez, adostasuna lortzen saiatzea. GLOren funtsen % 10

ekintza humanitarioari emateko hartutako konpromisoa betetzea, oraindik ez baita konpromiso hori bete, eta aldi berean, hainbat urtetako finantzaketaren alde egitea gero eta konplexuagoak eta luzeagoak diren krisialdi humanitarioei modu eraginkorragoan erantzuteko.

5- Sailarteko batzordea sustatzea Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzeko eta 2030 agendan aurrera egiteko Nafarroan, GKEen, sektore sozialaren eta gizarte zibilaren partaidetza bermatuz.

6- Duela gutxi sortutako garapenerako lankidetzako eta ekintza humanitarioko osasun-batzordeari bultzada eraginkorra ematea mota guztietako erraztasunak emateko profesional sanitarioak GKEek, nazioarteko erakundeek eta abarrek egindako garapenerako lankidetzako, ekintza humanitarioko eta larrialdiko proiektuetan inplikatzeko.

ETXEBIZITZA

Eredu sozialago baten alde egiten dugu eta hori lortu nahi dugu, eredu espekulatibotik eredu sozialago batera igaroz.

Pertsona guztiok etxebizitza duinaz eta egokiaz gozatzeko dugun eskubidea defendatzen dugu, eta, horretarako, egin behar den lehenengo debaiteetako bat etxebizitza duina zer den zehazteko da, etxebizitza duina ez baita etxebizitzak dituen metroen kopuruarengatik neurtzen etxebizitzaren kalitatearengatik eta erabiltzailearen premiengatik baizik.

Orain arte honako printzipio eta interes hauek nabarmendu dira debatean eta legeetan:

- 1-Eraikuntza eragile ekonomiko gisa.
- 2-Etxebizitza duina ongizate-egoeraren sinonimo gisa, etxebizitza duina zer den definitu gabe eta ziurtzat jota sustatzaileek adierazten dutena dela.
- 3-Bankuak eta bankuen etekinak.
- 4-Sustatzaileak.

Etxebizitza duina kontzeptuaren barnean, oinarrizko etxebizitza kontzeptua ere kontuan hartu beharko litzateke, azken kontzeptu horrek definituko bailuke etxebizitzarako eskubidea; emantzipazioarekin edo bizitzako etapa desberdinekin lotuta dagoen zerbait, kontuan hartuta premiak desberdinak direla unean-unean.

Orain dena familia kontzeptuarekin eta gizarte-eredu horrekin erlazionatzen edo lotzen da, baita familia-eredu tradizionalarekin ere; horregatik, eredu bakar batean pentsatuz hitz egiten da etxebizitza duinaz: hiru gela dituen 90 metroko etxebizitza... Hori da, gainera, sustatzaileek eta eraikitzaileek sustatzen duten eredu hobereana, horrekin etekin handiagoak lortzen dituztelako eta hipoteka handiagoak sortzen dituztelako.

Horregatik, aldatu egin behar dugu, oinarrizko etxebizitzaz hitz egin behar dugu eta eskaera behetik gora sortu behar dugu, pertsonen premien arabera, ez, ordea, arestian esan dugun bezala, bankuen, sustatzaileen eta eraikitzaileen premien arabera.

Bestalde, ezin ditugu ahaztu hainbat familia bizi diren etxebizitzak, ezta gela bakoitzean familia bat bizi den etxebizitzak ere, nahiz eta familia horiek beren artean inolako loturarik ez izan, horrek guztiak pertsonaren garapenerako eragiten duen kaltearekin alderdi guztietatik begiratuta: pertsonala, soziala, osasuna, arazo psikologikoak, eta adingabeen kasuan, beren garapen intelektualean eta pertsona gisa garatzeko; egoera horren ondorioz, adingabeak ezin baitira jolastu, eta aldatu egiten baitzaizkie beren ikasketa-baldintzak, irakurketa-baldintzak, loaren erritmoak, etab.

Azken batean, ikuspegi berri bat eta ikuspegi hori garatzen lagunduko duten neurri batzuk sustatu behar dira.

Ikuspegi hori bultzatzeaz gain, gizarte-eskubideen eremuan eta lurralde-antolamenduaren eremuan aplikatu beharreko politikekiko koherentea izanen den etxebizitza aurreratuaren politika bat egiteko, honako hau proposatzen dugu:

.- Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legea implementatzea. Lege horren etenaldia kendu egin zen neurri handi batean hainbat neurri praktikan jartzeko eta behar bezala garatzeko, esate baterako inor bizi ez den etxebizitzaren errolda, desjabetzea eta abar.

.- Nafarroako Gobernuaren alokairurako parke publikoa handitzea.

- .- Etxebizitzak alokatzeko parke publikoaren kudeaketa egokia egitea, Lege Foruan biltzen dena kontuan hartuta, honako honen bitartez:
 - a.- Desjabetzen diren edo erabilera desjabetzen zaien etxebizitzak, 28/2018 Foru Legean biltzen denaren arabera.
 - b.- Foru Komunitatearen administrazioak helburu horrekin eskura edo susta ditzakeen etxebizitzak.
 - c.- Edozein kausa dela medio administrazioaren titulartasunekoak diren edo administrazioak erabil ditzakeen eta beste xederik ez duten etxebizitza guztiekin automatikoki.
- .- Nasuvinsaren alokairu-poltsa bultzatzen edo sustatzen jarraitzea, jabeek gaur egun lortzen dituzten etekinak areagotuz, baita udalekin sinatutako hitzarmenen kopurua ere areagotuz, partikularrek eta Toki Erakundeek etxebizitza hutsak Nasuvinsaren esku jar ditzaten, eta horrela helburuak lortzen lagunduz.
- .- Etxebizitzen baldintzak aldatzea alokairu-poltsan onartu ahal izateko, gaur egun eska daitekeen tipologia zabalduz.
- .- Diagnostiko eta azterketa tekniko bat egitea tamaina handiko etxebizitzek, leinu-etxeek, sortutako problematika aztertzeko, etxebizitza horien egoera eta egungo funtzionaltasun batera egokitzeko premia kontuan hartuta eraikin eta etxebizitza horiek birgaitzeko baldintzak eta laguntzak errazteko, edo etxebizitza horiek alokairu-poltsan sartu ahal izateko bete behar dituzten baldintza teknikoak kontuan hartuta. Hori Toki Erakundeekin elkarlanean arituta eginen da.
- .- 2018-2020 aldiko Nafarroako Etxebizitza Plana abian jartzea eta etxebizitzarako eskubide subjektiboan aurrera egiten jarraitzea. Horretarako, lege integral berri bat eginen da eta lege horretan etxebizitzarako eskubide subjektiboa bilduko da etxebizitza eskuragarriaz, duinaz eta egokiaz gozatzeko eskubide gisa ulertuta.
- .- Etxebizitza-premia duten pertsonen eta familien eta geletan bizi diren pertsonen errolda egitea. Errolda hori Gizarte Zerbitzuekin, Osasun Zentroekin eta Ikastetxeekin elkarlanean arituz eginen da, bizitegi-larrialdiari aurre egiteko.
- .- Administrazioak alokairuko etxebizitza sustatzeko neurriak hartzen jarraitzea.
- .- Etxebizitza-kooperatibak sustatzea erabilera-lagapenaren erregimenaren bitartez, baita bizitegi-eredu berriak ere: elkarlaneko etxebizitzak, zerbitzuak eskaintzen dituen etxebizitza/egoitzak, cohousing.
- .- Berehalako neurriak hartzea energia-pobreziari aurre egiteko.
- Etxebizitzak esleitzeko baremazio berri bat abian jartzea, familia-unitatearen diru-sarrerak eta pertsona kopurua lehentasunezko faktoretzat hartuta. Alokairua ez da familia-unitatearen diru-sarreraren % 30etik gorakoa izanen inoiz, eta alokairu sozialaren kasuan, % 15etik beherakoa izanen da.
- .- Diru publikoarekin eraikitzen diren etxebizitza guztiak alokairu sozialekoak izanen dira, eta alde batera utziko da diru publikoaren pribatizazioa.
- .- Eraikitzaileri neurri zorrotzak jartzea, prezioak kontrolatzeko asmoz.
- .- Zerga-neurri espezifikoak alokairua sustatzeko, eta erosketara bideratutakoak murriztea. Gobernuak segurtasuna eman beharko lieke etxebizitzen jabeen beren alokairuak kobratzeari dagokionez eta ordaintzean etxebizitza horiek erabiltzeko moduan egonen direla.
- .- Okupazioari dagokionez, ezaugarriei, premiari, neurriei eta egon litekeen despenalizazioari eta erregulazioari buruz eztabaidatzeko prozesu bat irekiko da gai horrekin harremana duten agenteekin.

- .- Eskuragarri dauden neurri guztiak abian jartzea etxegabeteak saihesteko, finantza-erakundeekiko harremanak sakonduz eta egoera bakoitzerako konponbideak lortzen saiatuz.
- .- Nafarroako Gobernuak ez du etxegabetzerik gauzatuko bere eskumeneko etxebizitzetan, baldin eta horren jatorria maizterren arazo ekonomikoak badira.
- .- Autokudeatutako herriak; haiek garatzen laguntzea.



Nafarroa justua eta aurreratua

Politika Fiskala	77
Banka Publikoa	84
Enplegua	86
Industria	93
Merkataritza	101
Turismoa	105
Elikadura Burujabetza	109

ehbildu

OGASUNA ETA FINANTZA-POLITIKA

Politika fiskala da aberastasuna birbanatzeko tresna funtsezkoenetako bat. Finantzaketa-eredu egokia erabakigarria da baliabideen birbanaketa behar bestekoa eta eraginkorra egin ahal izateko aukerak ahalik hobekien aprobetxatzeko.

Zerga-sistema justua, aurrerakoia, ekitatezkoa eta solidarioa nahi dugu guk, sektore publikoaren bideragarritasuna ziurtatzeko dirubideak bermatuko dituen, egiazko progresibitatea eta iruzurraren aurkako konpromiso eraginkorra abiapuntutzat hartuta.

Zerga-sistemak ahalbidetu behar du aberastasuna birbanatzea, solidaritatearen printzipioa gauzaturik; zerga-sisteman errentek jasaten duten karga fiskalak berdina izan behar du, diskriminaziorik egin gabe haren sorburuaren arabera.

Ekitatean eta progresibitatean oinarritutako zerga-sistema batek eskuratzen dituen dirubide publikoek sektore publiko sendoa bermatu behar dute. Sektore publikoaren barnean, lehentasuna honako hauek izan behar dute: hezkuntzak, osasunak, pentsioek eta herritarrentzako zerbitzuek, batez ere haurtzarorekin (haur-eskola, jangela publiko eta abarrekin) eta mendekotasunarekin (etxez etxeko zerbitzuak, adinekoen zaintza, e.a.) zerikusia dutenek. Herritarrentzako zerbitzuetan oso-oso atzera gaude Europako iparraldeko gizarteekin alderatuta, eta horixe da enplegua sortzeko giltza, eta gaur egun zaintzaileak diren emakumeek enplegu duin eta ordaindua lor dezaten.

Zaintzan inbertitzea herritar guztientzat izango da onuragarria; enplegu duina sortuko du, eta aldaketa egiten lagunduko du gaur egungo eredu produktibista-konsumistatik bestelako eredu batera, non bizitza zaintzea eta denbora produktu prestigiokoak izango bailirateke, planetaren etorkizuna galbideratzen ari den kontsumismo suntsikor horren ordez.

Behingoz, desagerrarazi egin behar da inbertsio publikoa soilik azpiegituretako inbertsioa delako ikuspegia (zenbat eta handiagoa, orduan eta hobe). Zerbitzu publikoetan inbertitzeak sustatu egiten du ekonomia, diru-sarrerara publikoak elikatzen ditu eta gizartea hobeto antolatzen laguntzen du.

Diru-sarrerarik ez izateak aurrekontuen murrizketak dakartza, eta horren ondorioa da osasun-sistema publikoen, hezkuntzaren, zerbitzu sozialen eta abarren gainbehera. Gainera, lan- eta gizarte-eskubideen, pentsioen, prestazio sozialen, sektore publikoko soldaten eta gainerako murrizketak egiten ari dira bata bestearen ondoren.

Zerga-iruzurrari gogor egin behar zaio bere aldaera guztietan. Haren aurkako borroka da guk proposatzen dugun zerga-erreformaren helburu nagusietako bat. Zerga-iruzurra, gehienbat, soldata-errentak ez direnetan egiten da; zerga-sistemaren gaitz handiena da; horrenbestez, erauzi egin behar da zergak saihestea, galarazi egin behar dira zerga gutxiago ordaintzea ahalbidetzen duten legezko bideak.

Gehienbat, fortuna eta enpresa handiek erabiltzen dituzte mekanismo horiek, eta edozein lan-errentak baino zerga gutxiago ordaintzea lortzen dute haiei esker. Bereziki larria da zenbait estatutan aritzen diren multinazionalen kasua, ahalik gutxienean ordaintzen baitute azkenean egokitzen zaien lekuan.

Zerga-politikaren helburu nagusia ahalbideak eskuratzea da. Beraz, diru hori nola bildu da zerga-politikaren gakoa; alegia, erabaki behar da zein irizpideren arabera egiten den diru-bilketa. Gainerako helburuek gastuekin dute zerikusia, edo ez dira horren garrantzizkoak.

Zergak nola bildu behar diren galdetzen zaigunean, gure erantzuna argia eta garbia da. Honako irizpide hauek aintzat hartuz egin behar da:

- Ekitatea da oinarria. Irabazi berberak dituztenek zerga berberak ordaindu behar dituzte (Ekitatea), irabazkinen edo errenten sorburua ezberdina bada ere (esate baterako, soldata kobratu nahiz interesak jaso: zenbatekoa berdina bada, zerga ere bai).
- Progresibitatea. Ahalbide ekonomikoa handitu ahala, ekarpenak ez du proportzionala (ehuneko berekoa) izan behar, baizik eta handitu egin behar du, gehiago duenak ekarpen handiagoa egin dezan.
- Berdintasuna. Herritar guztiak berdin tratatu behar ditu Ogasunak. Berdina izanik trataera, areagotu egiten da iruzurren aurkako exijentzia, ez baitago aitzakiarik.

Ilido horri eutsiz, gastu-politikan ere beste irizpide batzuei men egin behar zaie:

- **Gardentasuna.** Dirua zertan eta nola gastatzen den jakin behar dute herritarrek. Alderdi hori argitaratzen den heinean, iruzurra egiteko aitzakiak desagertu egiten dira.
- **Nahikotasuna.** Ahalbide nahikoa bildu behar da gizartearen oinarritzko zerbitzuak bermatu ahal izateko. Sektore publiko sendo batek egituratu eta kohesionatu egiten du gizartea. Horrelako sektore publiko bat eratu ahal izateko, nahitaezkoa da zerga-erreforma bat, dirubide gehiago lortuko dituen, eta, aldi berean, gizarte-zerbitzuak hedatu egin behar dira.
- **Gastu-lehentasuna.** Azken lau urte hauetan gastu-lehentasunak aldatzen hasi badira ere orain hurrengo legegintzaldietakoan aldean, zerbitzu publikoak bermatzen jarraitzea eta gizarte-gastuari lehentasuna ematea izango da gastu-politikaren oinarria EH Bildurentzat.

Labur esanda, zerga-politika jakin bat sustatu behar da lortu nahi ditugun helburuak erdiesteko. Ahalbideak biltzeko erak eta bildutakoak gastatzeko erak erabakigarriak dira aberastasuna birbanatzeko: gehien duenak, ekarpen handiagoa egin, eta itzulpen txikiagoa jasotzen du. Gutxi duenak, alderantziz. Horrela, zerga-politika eta gastu-politika tresna garrantzitsua bihurtzen dira ezberdintasun sozialak murrizteko. Horregatik, zerga-sisteman egin behar diren erreformek progresibotasuna eduki beharko dute, gizartea orekatzeko asmoz, eta baliabide publikoen nahikotasuna eta hazkundera bermatu behar dute.

Laburtuz: zerga-sistemaren zein gastu publikoaren helburua izan behar du errentaren edo enpresa-mozkinen banaketa egoki bat lortzea, eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzea, eta, hala, justizia soziala handiagoa izango da.

2019-2023KO LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

1.-Helburu orokorrak

Datozen lau urteetan mantendu eta sakondu egin nahi dugu zerga-politika bat ezaugarritzat izango dituen unibertsaltasuna, ekitatea, progresibitatea, berdintasuna, nahikotasuna eta gardentasuna, gizarteak sortzen dituen eta administrazioak kudeatzen dituen ahalbideak eskuratzeko orduan.

Zerga-politika horien pausokako helburua izan behar du gaur egungo zerga-presioa handitzea, Europar Batasuneko estandarrekin bat egiteko; gizarte-babes publikoa eta garapen ekonomiko bidezkoa lortzeko egokiak diren politikak lantzeko gaitasun osoa ekarriko digu helburu horrek.

Horregatik, lehen helburuetako bat da 2015etik hona abian jarritako zerga-erreformak, oro har, defendatu eta iraunaraztea, aberastasunaren birbanaketa handiagoa ahalbidetu baitute, eta politika publikoetarako, bereziki gizarte-politiketarako, ahalbideak eskuratzeko zilegitu baitute.

2015etik hona abiarazi diren zerga-erreformen gidari izan dira ekitatearen, progresibitate handiagoaren eta berdintasunaren printzipioak, eta gure erkidegoa zerga-politika aurrerakoien eredu bihurtu dute, oraindik ere bide luzea egin beharko bada ere Europako zerga-presioaren mailak erdiesteko.

Legegintzaldi honetan abian jarri diren neurri fiskal gehienak zapuztea proposatuko dute sektore atzerakoienek. Hain zuzen ere, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak hauxe esan du jada: «Foru Erkidegoaren egoera fiskalak okerrera egin du oinarri-oinarririk»; beraz, orain arte lortutakoaren defentsa lehen mailako gatazka ideologikoa izango da aurrerantzean.

Helburu orokor bezala, proposatzen dugu gure erkidegoko presio fiskala hiru puntu igotzea, Europako batezbestekoarekin berdintze bidean.

Zerga-figura bakoitzean dauden onura fiskalak aztertu behar dira, jakiteko haiekin lortzen ote diren erdietsi nahi diren helburuak, esleitzen zitzaizkien irizpideak errespetatzen ote dituzten, eta ez ote duten sistemaren diru-bilketako ahalmena gehiegi murrizten.

2.- Fiskalitatearen alorrean burujabetasun-maila jasoagoak lortzera bideratutako neurriak abian jartzea, politika osoak eta koherenteak landu ahal izateko. Neurri horien helburuak, gutxienez, honako hauek izan behar dute:

BEZaren eta zerga berezien gaineko eskumen-gaitasun osoa lortu ahal izatea.
ECOFINen zuzenean parte hartzeko estrategiak lantzea.

3.- Neurri zehatzak zenbait zerga-figuratan:

A).-Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga:

- Aitortzeko betebeharririk eza 16.000 euroraino hedatzea, lanaren etekinengatik diren errentak soilik pagatzaile bakar batetik eskuratzen dituzten zergapekoentzat.
- Lanaren eta kapitalaren errenten trataeran gertatzen den dualtasuna ezabatzea.
- Zenbatespen objektiboko modulu-erregimena pausoka desagerraraztea.

B).- Sozietate-zerga:

- Neurriak hartzea, zerga horren ekarpen orokorra handiagoa izan dadin diru-bilketa sistema guztizkoan.
- Horretarako, zerga-kenkari eta pizgarri guztiak berraztertu egin behar dira, onartzerakoan esleitzen zitzaizkien helburuak egiazki betetzen dituzten jakiteko.
- Likidazio-oinarri negatiboak konpentsatzeko epeak laburtzea.
- Zoru fiskala egokiago arautzea, benetakoa izan dadin, zerga-bilketaren higadura argia ekarriko ez duten salbuespenak soilik gordez.

C).-Kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zerga.

Zerga-tasa 0,30era aldatzea, zerga horrek gutxieneko bilketa-ahalmen bat eduki dezan.

D).-Ondarearen gaineko zerga.

- Babesgarri fiskala desagerraraztea.

E).-Fiskalitate berdea.

Karga fiskala birbanatzean datza ingurumen-zergen zergatia. Hala, zuzenean zigortu egiten dira ingurumen naturalerako kaltegarrienak diren portaerak eta jarduketak, eta, zeharbidez, saritu jardunbide berrietarako eta garapen-formula jasagarrien bidean aurrera egiteko mesedegarriak direnak; horregatik, proposatzen da azterlan bat egitea ingurumen-helburuak litzuzkeen zerga-figuraren bat ezartzeko, gradualtasun, gardentasun eta parte-hartze printzipioak kontuan hartuta.

Helburua da zerga-sistema erabiltzea ingurumenaren ikuspegitik positiboak diren portaera-aldaketak sustatzeko. Bai aberastasunaren banaketan eta bai ingurumen-arazo nagusiei buruzko arretan ezberdintasuna gero eta handiagoa den testuinguru batean, pizgarri ekonomiko horiek ingurumen-politika ekonomiko eta sozial zabalago baten osagaiak izan behar dute, arrakala hori murrizten laguntzeko, klase behartsuenei portaera jasagarrienak hobesten laguntzeko eta zerga berdeen diru-kutxara ekarpenik handienak ingurumenaren eraginik latzena duten eragile ekonomikoek egin ditzaten bermatzeko.

Era berean, nahitaezkoa da zerga-politika horren bitartez biltzen dena oso-osorik trantsizio ekologikorako izatea, eta planetaren mugak aintzat hartuko dituen eredu sozioekonomikoa lortzeko.

Proposatzen dugu Nafarroak, zerga-gaietan dituen eskumenak baliatuz, azter dezala zerga-figura berde berriak ezartzeko aukera; hauek, esate baterako:

- Lurzoruaren erabilpenaren aldaketaren gaineko zerga: zerga horren helburua da lurzoru ez-urbanizagarria urbanizagarri bihurtzeko sustagarria kentzea. Hartara, baliotsua eta gero eta urriagoa den baliabide baten, alegia, lurzoruaren, erabilpena babesten da, landa-lurra dena hiri-lur bihurtzen duten hirigintza-jarduketa berriak zergapetuz.

- Abeltzaintza intentsiboaren ingurumen-inpaktuaren gaineko zerga: Proposatzen dugu zerga bat ezartzea abeltzaintza intentsiboko ustiategiek sortzen dituzten mindak eta metano-igorpen difusoak kargatzeko. Halaber, proposatzen da ziurtagiri ekologikoa duten abeltegiak zergaren zati batetik salbuestea. Era berean, manei usten intentsiboa erabiltzen duten ustiategiak zergatik salbuetsita geratuko lirateke, landa-eremuetarako dituzten ingurumen- eta gizarte-onurengatik.

- Berrerabili ezin diren ontzien gaineko zerga:

Zerga horren helburua da ontzi berrerabilgarri eta iraunkorren erabilpena sustatzea, eta, horretarako, behin bakarrik erabiltzeko ontzien gaineko zerga ezartzea proposatzen da. Zerga horrek pizgarri bat ekarriko lioke ekonomia zirkularrari, egunero kontsumitzen diren erabilera bakarrekoko ontzien kopuru itzela murriztu egingo luke, eta sustatuko luke ontziratzaileek formatu berrerabilgarrietara jotzea.

- Mea-erazketako jardueren gaineko zerga: Erazketa-lanek oker larriak egiten dituzte ingurumenaren, baliabide natural ez-berriztagarriak agortzen dituzten heinean. Aire zabalean aritzen diren ustiategien kasuan, gainera, paisaia eraldatzen dute. Ustiategi horietan du justifikazio argiena zerga ekologikoa ezartzeak.

- Ostatu-gauaren gaineko zerga: Turismo-establezimendu eta jarduerak ingurumenaren duten inpaktua zergapetzea izango litzateke zerga horren helburua. Bestalde, turismorako mesedegarria da kalitatezko ingurumena, eta bidezkoa da berak ere ekarpena egitea alor horretako politikak finantzatzeko.

Gainera, ebaluatu egin behar da instalazio pribatu zein publikoetan hondakinak bota eta errausteari buruzko zerga ezartzea 2017an onetsi zen Hondakinen Foru Legearen arabera.

- Aztertuko litzateke pizgarri fiskalak berrezartzea energia-auditoreek proposatzen dituzten neurriak aplikatzen dituzten enpresentzat, mugikortasun jasangarriko planak aurrera ateratzen dituztenentzat eta beren garraioak trenbidez egiten dituztenentzat.

2.-Iruzur fiskalaren aurkako borroka

- Iruzur fiskalaren aurkako borrokarako neurriak areagotu egin behar dira, besteak beste, giza-baliabideak eta baliabide teknikoak ugarituz, informazio gurutzaketa masiboak areagotuz, eta araugintza-gaitasuna eta enpresa handien eta nazioarteko operazioen ikuskapena handitzeko urratsak eginez.
- Iruzur eta saiheste fiskalaren aurkako Nafarroako Behatokia sortu.
- Nafarroako Zerga Agentziaren benetako independentzia bermatzeko, proposatzen da entitate hori zuzendu behar duen pertsona Nafarroako Parlamentuak izenda dezala 4 urterako.
- Iruzuraren aurkako borrokarako zerga-figurek gaur egun duten funtzionalitatea edo diseinua ebaluatzea. Salbuespenak eta kenkariak ahalik gehiena murriztea. Etorkizunean zerga baten diseinuan egiten den edozein arau-aldaketak atxikita eduki beharra iruzurraren aurkako borrokan izango duen eraginari buruzko memoria.
- Zerga-erantzukizunaren araubidea aldatzea. Gaur egun indarrean dagoen erantzukizun-deribazioaren sistema garantistegia, eta Zerga Administrazioari froga-eskakizun batzuk ezartzen dizkio erantzukizun-deribazioak eraginkortasun gutxikoak izatea dakartzanak disuasioari eta benetako diru-bilketari dagokionez.
- Iruzurtutako kuotetatik eratortzen den zehapen-araubidea gogortzea, eta abian jartzea beharrezkoak diren mekanismoak isunak eta iruzurtutako zenbatekoak kobratzeko.
- Iruzuraren aurkako hainbat urtetarako plan berri bat lantzea, 2016-2019ko aldirako onetsi zenaren betetzea ebaluatuta.
- Hainbat urtetarako planaren helburuei buruzko kontzientziazio-kanpaina egitea, azpimarra ipiniz nola zigor-osagaietan hala zergak ordaintzeak dituen onuretan. Plan horren diseinuak orokorra izan eta gizarte osoa aintzat hartu behar luke.
- Alarma-sistema bat ezartzea bereziki arriskugarriak diren zergapekoei buruz, haien jarraipen estua egitea ahalbidetuko duena, jokabide iruzurtiei buruzko informazioa lantzea hobetzeko tresna moduan.
- Nafarroako Gobernuak urteko txosten bat landu dezala –eskuduna den departamentuaren bitartez– egiturazko iruzur fiskalaren aurkako borrokaren aurrerapausoei buruz. Txosten horrek iruzurraren adierazle kuantitatiboak eta haien bilakaera adierazi behar ditu.
- Gainerako Foru Aldundiekiko eta Estatuarekiko koordinazioa/lankidetzak hobetzea iruzur fiskalaren aurkako borrokan; horretarako, ezinbestekoa dirudi datu-baseen arteko lotura ahalbidetzeak.

3.-Aurrekontu-politika

A).- Azken lau urte hauetako esperientzian oinarrituta, aurrekontuen doikuntza-politikak itzulbidean jartzeko politikak sakondu

behar dira, politika hedakorrari eutsiz gizarte-gastuan.

Horretarako, beharrezkoa da gobernu sendo, erakarle eta aitzindaritza publikoa beretuko duen bat, eta proposamen ausartak eta asmo handikoak, eta burujabeak egingo dituen, eta, une honetako premia handiei ez ezik, epe ertainean eta luzean gizarte legez ditugun erronkei aurre egitea ahalbidetuko dutenak, baita horretarako mekanismo egokiak ezartzea zilegituko dutenak ere.

B).- Gure aurrekontu-politikari dagokionez, oinarritzat izango ditu baliabideak kudeatzeko arrazionalizazioa eta zorrotasuna, genero-ikuspegia, gardentasuna, eraginkortasuna, partaidetza eta egoera ekonomiko txarrei aurre egiteko erresilientzia, lehentasuna pertsonengan ezarrita.

Gure helburua da pertsonak oinarritzat hartuz eratzea aurrekontuak, garapen ekonomiko justu eta jasangarriaren katalizatzaile izan daitezen, baita genero-ikuspegi batetik landutako aurrekontuak ere. Izan ere, administrazio guztien jardunbideak egon behar du genero-ikuspegi oinarrituta. Aldi berean, eutsi egingo zaio azken aurrekontu-ekitaldietan gizarte-inbertsioan egin den mailakako hazkundeari, alor horietarako aurrekontu-esleipen handiagoa duen europar estandarera hurbiltzeko.

Hori dela eta, honako ekintza hauek proposatzen ditugu:

- 1.- Burujabetza Ekonomikorako Presidenteordetza bat eratzea, eztabaidaren eta jarduketa politikoaren lehen mailara ekarriko duena lanabesak eskuratuz joateko beharra, gai sozioekonomikoetan gure politikak lantzeko –asmo handikoak, koherenteak eta osoak–, ezinbesteko aitzindaritza eta sustapen publikoan oinarrituta. Besteak beste, Presidenteordetza horrek proposamenak egingo ditu finantza-, zerga- eta lan-alorrean.
- 2.- Gure zorpetze-politika bat diseinatzea, adostea eta, gero, Estatuarekin negoziatzea, eragile sindikal eta sozialekin adostutako defizit-muga jasoko duena, eta gure ehun sozial eta ekonomikoari erantzungo diona, eta ez Estatuko Gobernuaren erabaki aldebakarrei.
- 3.- Azken urte hauetan fiskalitate progresiboagoa eta ekitatiboagoa lortzearen hartu diren neurri fiskalak mantendu eta sakontzea, gizarte-babes publiko eta garapen ekonomikorako beharrezkoak diren politika egokiak garatzeko gaitasuna areagotzeko.
- 4.- Proposamen bat lantzea Nafarroako herritarren aurrezkiek balio izan dezaten, zuzenean eta berehala, ekonomia erreala sustatzeko eta politika publikoak indartzeko, eta pertsonen zein gizataldeen eta entitateen ekarpenak areagotzeko eta bermatzeko.
- 5.- Lehentasunez lantzea belaunaldien arteko solidaritate-plan bat, datozen 10 urteetan sektore publikoan zein pribatuan bete beharko diren milaka lanpostuetan ordezkapen masiboa eta baldintza duinetan eginga planifikatuko eta bermatuko duena. Arreta eskainiko diogu lana eta aberastasuna banatzeari; espezializatzeari eta prestatzeari, produkzio-eredu berriak direla eta, eta gazteak eta iraupen luzeke langabeak laneratzeari.
- 6.- Aurrekontuen lege-proiektuak lantzen eta aurkezten jarraitzea, pertsonen eskubideak ardatz hartuta, eta lehentasuna emanda eskubide sozialei, gizalegezko ekonomiari eta kalitatezko enpleguari.
- 7.-Eraginkortasun, Gardentasun eta Genero Ikuspegiaren Zuzendaritza Nagusi bat sortzea Ogasun Departamentuan. Besteak beste, aurrekontu-prozeduretan parte hartzeko mekanismoak diseinatzea izango da haren helburua, eta, hala, zehaztuko du aurrekontuen zer portzentaje erabiliko den herritarren parte-hartze zuzenaren edo bestelako partaidetza-mekanismoen bidez erabakitako helburuetarako.

8.- Emaitzak ebaluatzeko mekanismoak ezartzea aurrekontuen ahalbideak erabiltzerakoan, aurrezpen-irizpide zorrotzak aplikatuta, batez ere ondasunak eta zerbitzuak erosteko eta laguntzak emateko diru-sailetan.

9.- Zerga-paradisuetan kokatuta dauden enpresekiko jarduketak eta kontratazioak ezestea administrazioan.

Aipatutako ekintzak abian jartzea.

Proposatzen ditugun neurriak munta handikoak direnez, ahalik adostasun handiena lortzen saiatuko gara, bai alderdi politikoen eta bai sindikatu eta eragile sozialen artean, prozesu horietan eragile aktiboak izan behar baitute; haiekin negoziatu, adostu eta apurka-apurka abian jartzeko aitzindaritza dagokigu.

Eraginkortasun, Gardentasun eta Genero Ikuspegiaren Zuzendaritza Nagusiari dagokionez, haren helburuak eta egitekoak hauek izango dira:

- a) Neurriak sustatzea, hurrengo aurrekontuetan genero-ikuspegia benetan txertatuta egon dadin.
- b) Ikertu eta aztertzea Nafarroako Gobernuaren eta tokiko erakundeen artean dauden bikoiztasunak eta desdoitzeak, eta bikoiztasunak eragozteak, gero eta urriagoak zaizkigun ahalbideak doitu eta Nafarroako erakundeen artean zentzuzko lan bateratua egiteko hautua eginez.
- c) Alor publikoaren kudeaketaren eraginkortasuna handitzea, eskuduntzen nahasmena eta horrek aurrekontuetan duen eragina eragotziz.
- d) Administrazioaren esparru guztietan ezartzea ebaluazio-mekanismo zorrotzagoak aurrekontu-ahalbideen erabilpenerako.
- e) Kudeaketa ez-eraginkorrak edo gardentasunik gabeak detektatu, aurreikusi eta kontrolatzeko tresnak landu eta ezartzea.
- f) Aurrekontuen gauzatze-mailari buruzko kontrol-neurriak zorrotzea, eraginkortasun-adierazleak ezarrita, baita egindako jarduketan gardentasuna bermatzekoak ere.
- g) Aurrekontu-prozesuetan parte hartzeko mekanismoak diseinatzea, eta erabakitzea aurrekontuen zer portzentaje erabiliko den herritarren parte-hartze zuzenaren edo bestelako partaidetza-mekanismoen bidez erabakitako helburuetarako.

BANKA PUBLIKOA

Moneta-politikaren eta merkataritza-bankuen (aurrezki-kutxak; gordailu-banku publikoak; banku-politika, oro har) gaineko jarduketekin batera, sustapen-banku publikoen eta kreditu publikoko agentzien edo erakundeen bitartez garatzen den ekimen publikoa da botere publikoen tresna nagusia kreditu-eskaeran eta eskaintzan eragiteko.

2007an hasitako krisialdiaren izaera finantzarioaren eta, bereziki, horrek enpresa-kreditua murrizteko izan zuen eraginaren ondorioz, enpresa-finantzaketa bultzatzeko politikak krisialdiari aurre egiteko estrategia funtsezkoetakoa bihurtu ziren.

Testuinguru horretan, Europako administrazioek jarrera ezberdinak erakutsi dituzte: batzuek, hein handi batean, modu pasiboan jokatu dute, baldintza makroekonomikoen hobekuntzaren zain; beste batzuek, aldiz, enpresa-finantzaketari laguntzeko politika aktiboak garatu dituzte.

Aipatu finantzaketa bultzatzeko, sustapen- edo garapen-banku publikoak eta kreditu publikoko erakundeak administrazioen tresna nagusietakoak dira.

Tresna horiek zituzten eta egungo krisialdian modu aktiboan baliatu dituzten administrazio publikoek gain, Europako zenbait eskualdek kreditu publikoko institutu berrien edo sustapen- edo garapen-bankuen sorrera bultzatu dute. Hala, erakunde publiko eratu berrien adibide batzuk aipa genitzake Europako esparruan: British Business Bank (BBB, Erresuma Batuan), Banque Publique d'investissement (BPI, Frantzia), Instituição Financeira de Desenvolvimento (IFD, Portugalen) eta Strategic Banking Corporation of Ireland (SCBI, Irlandan).

Bestalde, Nafarroan, enpresek eta kooperatibek finantzaketa-arazoak izaten jarraitzen dute. Ildo horretatik, Nafarroako Kutxa desagertu izanak ondorio larriak izan zituen, eta oraindik ere baditu. Industria-sektorea ez bada ere, finantza-sektoreak berebiziko garrantzia du industriarako. Horregatik, nahitaezkoa eta premiazkoa deritzogu finantza-erakunde publiko bat edukitzeari, Nafarroako bigarren sektorea hobeto gara dadin.

Finantza-sistema ezinbestekoa da ekonomia bideratzeko, lehiakortasunerako, inbertsioetarako, enplegua sortzeko eta aberastasuna birbanatzeko; horretarako, finantza-tresna publikoak sortu behar ditugu, eta, gainera, sistema antolatzeko ahalmena eduki behar dugu. Finantza-sistema publikoa eratzeke beharrari dagokionez —Nafarroako ekonomiarako funtsezko elementu gisa—, gure jarrera berretsi behar dugu. Ezinbestekoa da estrategikotzat jotzen ditugun izaera ekonomikoko sektoreak ekintza publikoaren esparrura gehitzea. Halaber, finantza-sistema publikoaren eraketa dela eta, ez dugu sektore pribatuarekiko subsidiariotzat jotzen, ez eta arlo pribatuaren defizitak ordaintzeko modutzat ere. Aitzitik, finantza-sektore publikoa trakzio-elementua izan behar da kreditua eta aurrezki sozializatzeke, inbertsio produktiborako eta enpresei zein norbanakoei laguntzeko.

Aurreko legealdian, zenbait azterketa eta txosten egin ziren finantza-erakunde publikoaren osaketaren gainean, eta ikerketa-prozesu bat ere egituratu zen 27 eragile sozioekonomikorekin. Haatik, gure aburuz, orduan bildutako iritzien emaitzak ezin du, inola ere, gobernu-ekintza ordeztu; Nafarroako Gobernuak interes kolektiboa aintzat hartu eta finantza-sektore publikoaren aldeko apustua egin behar du. Izan ere, oinarritzko gaien gainean gehiengoa bat datorrelakoan gaude:

- Nafarroako ekonomiari begirako inbertsio estrategikoak egin behar dira, hala publikoak nola pribatuak.
- Finantza-sektoreak gehiago hartu behar du parte I+G+b delakoaren garapenean, eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeko azpiegiturak sortu behar dira.
- Nafarroako jendarteak lurralde- eta gizarte-garapen orekatua izan behar du.

-Finantza-sistema sektore pribatu espekulatuaren nagusitasunean oinarritzen da, eta egiaztatuta dago ezegonkorra dela. Horregatik, aipatu inbertsio-erronkei aurre egiteko modurik onena da finantza-sektore publiko indartsua baliatzea, zeinak gogor eutsiko dien merkatuko gorabeherari.

Finantza-tresna hori eratzeko eragingo luke SODENA enpresa publikoak sortu zenetik betetzen dituen funtzioak eta rola sakonki eraberritzea; izan ere, erakunde berriaren esku geratuko lirake abalak edo partaidetza-maileguak ematearekin lotutako haren eginkizun asko.

2019-2023 LEGEALDIRAKO PROPOSAMENAK

Finantza-sektore publikoa sortzeko dagokionez, Nafarroan banku publiko bat eratzeko proposatu nahi dugu. Zehazki, ondoko xedeei begirako laguntza-tresna publiko nagusia izango litzateke: enpresa berriak sortzea, industria-sektore estrategikoetan inbertitzea eta kooperatibak finantzatzea. Azken prozesu batean, aurrezki pribatuak erakartzeko eta txikizkako bankuei zerbitzuak emateko finantza-erakunde bihurtuko litzateke.

Hori lortze aldera, gure proposamena da Nafarroako Banku Publikoaren ezartzeko Plan Estrategikoa egituratzea, bi alditan, azken prozesura heldu ahal izateko:

1.- Lehenengoan, Nafarroako Finantza Institutua sortuko litzateke, hiru jardueratan aritzeko:

- a).-enpresa-finantzaketarako abalak, beste erakunde batzuek —elkar bermatzeko sozietateak, kasu— egin dezaketen zuzkiduraren osagarri edo bestelako aukera gisa.
- b).-arrisku-kapitaletako eragiketak eta partaidetza-maileguak.
- c).-modu osagarrian, eta aldizka, kreditu-eragiketa bereziak.

2.- Bigarrenean, Nafarroako Banku Publikoaren izatera igaroko litzateke; banku-fitxa izango luke, eta Europako Banku Zentralaren banku-sisteman parte hartuko luke. Aldi honetan, ekimena arrakastatsua izango bada, zenbait berme ezarri beharko lirake, halako finantza-erakunde bat abiatzea prozesu konplexua baita —bai politikaren bai legearen aldetik—.

Hasiera batean, hauek lirake Nafarroako Finantza Institutua banku publiko bilakatzearen helburu nagusiak:

- kapitalen merkaturako sarbide irekia.
- Europako Banku Zentralaren finantzaketarako zuzeneko sarbidea.

Banku-fitxa eskuratzea prozesu konplexua da, kontuzkoa, eta izapidetze luzea du, urtebete ingurukoa. Alta, prozesua behar bezala burutzeko, Nafarroako Gobernuak bi bide, alternatiboak edo osagarriak, aztertu beharko ditu:

- a).-Nafarroako Finantza Institutuaren ezarpen jarraitua, zeinak izapidetzea behar bezala burutuko dela bermatzeko beharrezkoa den konfiantza —kaudimenarekin eta egonkortasunarekin lotuta— ahalbidetuko duen.
- b).-Prozesua indartzeko eta bermatzeko, Nafarroako Gobernuaren apustu instituzional sendoa edo haren kudeatzaileen borondate politikoa.

ENPLEGU-POLITIKA, LAN- HARREMANAK ETA BABES SOZIALA

Pertsona orok du eskubidea enplegu duin eta kalitatezkoa edukitzeko, bizi-baldintza duin eta autonomia bermatuko dioten soldata jasota.

Lana diogunean, lan produktiboa eta lan erreproduktiboa edo ugalketakoa esan nahi dugu. Etxeko lana eta zaintzakoa ere aintzat hartuko dituen enplegu-politikaren aldeko hautua egiten dugu. Egiturazko aldaketak egin behar dira, biziaren jasagarritasuna goratu eta genero-estereotipoak eta -rolak deuseztatuko dituen gizarte-eredu berri baterantz egiteko. Gizarte-aldaketa bat abiarazi behar dugu, soldatetan edo segregazio bertikalean nahiz horizontalean dauden genero-arrakalak ezabatzeke. Gizarte-eredu berri bat eraikitzeke, garrantzizkoa da lana eta aberastasuna egoki banatzea.

PSOeko eta PPko gobernuek, UPNren onespenearekin, bat bestearen atzetik sustatu dituzten lan-erreformen ondorioz, langileak kaleratzea erraztu eta merkatu egin da, eta enplegua suntsitzea ekarri du horrek. Aldi baterako kontratazioa bidegabeki orokortu da, soldatak eta lan-baldintzak eskatu egin dira, eta emakumeak eta gazteak izan dira neurri horiek gehien nozitu dituzten gizataldeak. Erreforma horiek guztiek lan-prekarietatearen handitzea ekarri dute eta, horrekin batera, lan-ezbeharrak, soldata-arrakala eta gizarte-ezberdintasunak areagotzea. Horregatik, EHBildukook enplegu duin eta kalitatezkoaren aldeko hautua egiten dugu, langileen osasuna errespetatuko duena, eredu parekidea izango duena eta negoziazio kolektiboa indartuko duena.

Nafarroari ukatu egiten zaio lan-merkatua eta gizarte-babesa arautu ahal izatea. Euskal Herria Bildukook eskumen osoak eskatzen ditugu gure lan-harremanen esparrua eta gure gizarte-babeseke sistema publikoa arautu ahal izateko, lan-erreformetatik urrunduko gaituen lan-harremanen eredu berri bat eraiki ahal izateko, negoziazio kolektiboa babestuko duena «estatalizazioaren» aurka, enplegu duin eta kalitatezkoa eta pentsio duinak bermatu eta arautuko dituen pertsona guztientzat.

2019-2023KO LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

•Berezko eskumenak.

- Nafarroako lan-harremanetarako eta gizarte-babeserako berezko esparrua behar du. Nafarroako erakundeek beren eginkizunen lehen mailan jarri behar dute gai hori, berezko esparru hori etengabe aldarrikatzeko eta egunero-egunero ildo horretan zer pauso eman litezkeen aztertzeke.
- Gauzatu egin behar da Lan Ikuskaritzako transferentzia, enplegu-politika aktiboena eta Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoarena.
- Pentsio duinak bermatuko dituen berezko pentsio-sistema publikoa eraiki eta garatzeko egin beharreko urratsak sustatu behar dira, 1.080 euroko gutxieneko pentsioak bermaturik betiere. Hori dela eta, eskuduntza ahalik azkarrena lortzearen, analisi eta azterlan bat bultzatuko dugu, erabaki ahal izateko zer pentsio-sistema publiko komeni zaigun, eragile sozial eta sindikal guztien partaidetzarekin.
- Lan-agintaritzaren eskumenak indartu eta garatu behar dira.

•Enplegua sortzea

- Gazteen autoenplegua sustatu behar da, administrazio publikoaren ekimen eta laguntzen bidez kreditua lortzea ahalbidetuz.
- Izaera kolektibo eta sozialeko gazte-ekintzailatza sustatzeko programak lantzea.

- Ekonomia soziala sustatzea, eredu parte-hartzaile eta demokratiko moduan, Gizarte Ekonomiaren Plan Integrala 2017-2020 gauzatzea bultzatuta.
- Nafarroako Gobernuaren barnean berariazko erakunde bat sortzea gizarte-enpresako ekonomiaz arduratzeko.
- Ezgaitasuna duten edo bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen kontratazioa bultzatzea.
- Ikuskapen-neurriak areagotzea enpresek % 2ko erreserba aintzat hartzen dutela bermatzeko, eta ezgaitasuna duten pertsonen kontratazioa sustatzeko neurriak hartzea.
- Aurrekontu-zuzkidura nahikoa bermatzea ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeko neurriak sustatzeko: enpresentzako kontzientziazio-kanpainen bitartez; ezgaitasuna duten pertsonen kontratazioa sustatzea enpresei laguntza zuzenak emanez, kontrataziorako eta lanpostuak egokitzeko; prestakuntzaren bitartez, e.a.
- Enplegu lagundua sustatzea.
- Enplegu Zentro Bereziatarako laguntzak mantentzea, eta inbertsiorako laguntzak handitzea.
- Dirulaguntzen ordainketa bizkortzeko neurriak ezartzea; hartara, entitate hartzaileek ez dute gastu larrietan sartu behar, dirulaguntzen kobrantzen atzerapenak finantzatzeko ordaindu beharreko interesak direla-eta.
- Enpresa txiki eta ertainei eta langile autonomoei kredituak lortu ahal izatea eta likidezia ahalbidetuko dizkieten neurriak abian jartzea.

•Kalitatezko enplegua

- Nafarroak jarrera publiko eta aktiboa eduki behar du lan-erreformak aplika ez daitezenean, Madrilen egindako lan-erreformen ezarpenari uko eginez eta negoziazio kolektiboa sustatu eta defendatuz.
- Enpresa pribatuek kalitatezko enplegua sor dezaten bultzatu eta sustatzea. Enpleguaren kalitatea baldintza bat izango da edozein dirulaguntza edo sorospen publiko lortu ahal izateko, eta haiek atzera bota ahalko dira bete ezean. Horretarako, dirulaguntzen lege berri bat bultzatuko dugu, non ezarriko baitira oinarritzko lan-legeria eta aplikagarriak diren hitzarmen kolektiboak betetzeko bermeak, kontratu publikoen legean jasota dagoenaren ildoan, eta ez-betetze kasuetarako, zehapenak ezarri, eta kontrol-mekanismo egokiak bermatuko dira.
- Kontratu Publikoen Foru Legean ezarrita dauden gizarte-klausulen eta gainerako lan-bermeen aplikazioa eta betearazpena sakontzea. Horretarako, esleipenak egiten dituzten aginte guztiei bermatuko zaie prestakuntza egokia eta jarraitua. Kontratu Publikoen Foru Legean aurreikusten diren kontrol-mekanismo guztiak abian jartzea bultzatuko dugu.
- Lanbide arteko gutxieneko soldata 1.200 eurotan ezarri, eta zenbateko hori errespetatzen dadin lan egitea.
- Sindikatuekiko eta gazte-mugimenduarekiko lankidetzaren sustatzea, lan-prekarietateari aurre egiteko plana lantzeko.
- Aldi baterako laneko enpresekin kontraturik ez egitea.
- Publikazio-prozesuekin aurrera egitea, azken hamarkadetan egin diren pribatizazioak indargabetuz, eta haien eraginpean dauden langileen eskubideak eta enplegu publikora sartzeko printzipioak bermatuz.

- Soldatei eutsirik lana banatu eta enplegua sortzearen aldeko hautua egiten duten enpresei laguntzeko proiektuak aztertu eta sustatzea.

- Lanbide Arteko Hitzarmen bat sustatu eta bultzatzea, Nafarroako hitzarmen kolektiboak babesteko eta lan-erreformak dakarren estatalizazio-prozesuari aurre egiteko.

- Enpresa-eredu berri bat, inklusiboa eta parte-hartzailea bultzatu eta sustatzea, kudeaketa-sistema parte-hartzaileak ezartzeko neurriak babestuz.

Nafarroako Kooperatiben Legea aldatzea, langileen eskubideen kaltetan kooperatiben erabilpen iruzurtia zigortzeko mekanismoak ezarri ahal izateko.

•Nafarroako enplegu-zerbitzua

NEZen eraldaketan eta berrikuntzan aurrera jarraitzea, honako helburu hauekin:

- Enplegu-politika aktiboen kudeaketa publikoa bermatzea.

- Enplegu-politika aktiboen berrantolaketan sakontzea, eskualde bakoitzeko beharrak aintzat harturik.

- Gizarte-zerbitzuetako eta enpleguko departamentuen arteko koordinazioan lan egiten jarraitzea.

-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lan-bitartekaritzako organo gisa duen betekizuna indartzea, kontratazio-prozesu publikokoak, gardenak, parekideak eta egiaztagarriak sustatzeko. Enplegua lortzeko aukera-berdintasuna bermatzea, irizpide objektiboetan oinarritutako hautaketa-prozesuak diseinaturik, non ez den balioetsiko gehiago izangaien sexua haien gaitasunak edo trebeziak baino.

- Neurriak lantzea Nafarroako industria-sektoreak NEZera jo dezan langileak kontratatu behar dituenen.

•Lan-osasuna

- Osasunbidea-Osasun Sistema Publikoaren barnean, lan-osasuneko sistema publiko bat bermatzea. Sistema publikoa, unibertsala, ekitatezkoa, parte-hartzailea, arretan integratua, prebentzioan oinarritua eta hartara bideratua; eta bizirosustatuko dituen gaur egungo lan- eta enplegu-baldintzen eta haiek osasunean dituzten ondorioen arteko loturen ikerkuntza, gaur egungo osasun-ezberdintasunen zergati nagusietakoak baitira.

- Lan-ezbeharren aurkako borrokari lehentasuna ematea, horretarako behar diren baliabide publikoak, nola humanoak hala ekonomikoak, bermaturik.

- Lanbide-gaixotasunen aurkako politika aktiboari lehentasuna ematea.

- Enplegu-politikak langileen osasunean duen eraginaren ebaluazioa egitea, indar sindikalen lankidetzarekin.

- Lanean segurtasuna sustatzen duten enpresei laguntza ematea.

- Gaur egungo prebentzio-zerbitzuen sistema pribatua, lehenik, kontrolpean jarri, eta, gero, desagerrarazteko prozesuari ekitea; mutualitateak asistentzia-sistema gisa desagerraraztea, eta berezko gizarte-segurantzako sistema bat, lanaren ondorioz gaixo edo ezinduta dauden langileen eskubide sozialak areagotuko dituen, antolatze urratsak egitea.

- Langile publikoak NOSen barneratuz joateko plan bat lantzea, lanbide-gorabeherak direnerako, bazter utzirik kasuan kasuko mutualitateekin egindako hitzarmenak.
- Amiantoa Ezabatzeko Gida Plana exekutatzen dela bermatzea, eta konpentsazio-funtsaren eraketa bultzatzea.
- Sexu-jazarpeneko eta laneko jazarpeneko kasuetarako protokoloak berrikusi, eguneratu eta aplikatzea.
- Osasun publikoan diharduten langile guztiei genero-ikuspegian prestakuntza bermatzea.

•Lan-erakundeen demokratizazioa

- Gizarte Elkarrizketako Kontseilua desagerraraztea. Lan-harremanetako hiruko organoa desagerraraztea. Gizarte-hitzarmeneko ereduak atzera utzi behar da elkarrizketa sozialaren eredu berri batera joateko, non parte hartuko bailukete, sindikatu eta enpresaburuek ez ezik, beste eragile sozial batzuek ere.
- Nafarroako Lan Epaitegia demokratizatzea.
- Eskubide eta Askatasun Sindikalen Behatoki baten sorrera bultzatzea.

•Soldata-arrakala

Erakunde publikoan erantzukizunen artean dago egin behar diren jarduketak sustatu eta lantzea kalitatezko enplegua sortzeko; lan guztiak berdinki aintzatetsiko dituen balioespen ekonomiko eta sozialean aurrerapausoak egiteko, eta emakumeen eta gizonen artean dauden lan-ezberdintasunak murrizteko. Horretarako, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala aztertzeke eratu zen Batzorde Parlamentarioak adostu zituen ondorioen dokumentuan jasotzen diren neurri guztiak abian jartzeko konpromisoa hartzen dugu Euskal Herria Bildukook.

2019-2023ko legegintzaldirako neurri zehatzak

- Lan-diskriminazioari aurre egiteko neurriak sustatzea, haren hiru alderdietan: lanpostu bat lortzeko diskriminazioan, lanpostuari eusteko diskriminazioan eta gora egiteko diskriminazioan.
- Kontratazio-eredu berri bat ezartzea, kontrol-sistema publikoa edukiko duena, pertsona orok erabili ahalko duena, duen sexua, azal-kolorea, etnia edo sinesmen ideologikoa duela. Parekidetasuna bermatuko duen sistema bat, eta sindikatuen kuota eta prebenda-banaketak desagerraraziko dituen. Sistema garden bat, edonor aintzat hartuko duena.
- Informazio- eta kontzientziazio-kanpainak egitea zaintza-lanak duintzeko. Zaintza-lanen eta haiek egiten dituztenen garrantzia ikusarazi behar dugu. Ildo horretan, funtsezkoa da zaintzaile ez-profesionalek eta profesionalek dituzten lan-baldintzak duintzea.
- Estereotipoen eta joera inkontzienteei buruzko kontzientziazio-ekintzak sustatzea enpresaburuen artean eta gizartean.
- Enpresaburu-eredu berri bat sustatzea. Izan ere, enpresa-egituraren aldaketa bat egin ezean, aukera-berdintasuna ezinezko izango da lan-alorrean.
- Barneko genero-langak identifikatzeko, horien inguruan gogoeta egiteko eta gainditzeko programak sustatzea.

- Kontzientziatio-programak sustatzea enpresetan eta, batez ere, zuzendaritza-mailetan, emakumeek zuzendaritzetara iristeko eta haietan jarraitzeko dauden kanpoko genero-langei buruz.
- Gizarte, enpresa eta erakunde mailako itun bat sustatzea, lan-ordutegi zentzuzkoak eta malguak ezartzeko, eta, hala, bizi pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeko eskubideak erantzunkidetasunez baliatu ahal izateko.
- Kontziliatio Planak eta Berdintasun Planak oso lanabes baliagarriak izan daitezke erantzunkidetasuna sustatzeko, eta emakumeen karrera profesionalean eta haiek lan-munduan sartzeko orduan eragina izateko, baldin eta negoziatio kolektiboaren ondorioz sortzen badira, eta aurretiaz enpresaren eta ordezkari sozialearen artean landutako diagnosi bati erantzuten badiote. Kontziliatio eta Berdintasun planak lantzerakoan baldintza horiek bete egiten direla bermatzeko neurriak sustatuko dira.

Kontziliatio Planen eta Berdintasun Planen erregistro bakar bat eratuko da, eta haren kudeaketa Nafarroako Lan Agintaritzaren eskuetan egongo da; hain zuzen ere, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiko Lan Zerbitzuaren eskuetan, eta haren egitekoen artean egongo da bi urtean behin Kontziliatio eta Berdintasun planen inplementazioa eta emaitzak balioestea.

- Hitzarmen kolektiboek, lan-harremanak arautzeko berariazko esparruak diren heinean, hainbat ahalbide dituzte, eta jarduketaren eremu egokia dira sektore pribatuko lan-alorrean ere txertatzeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta sexuagatik diskriminaziorik jasan behar ez izateari buruz indarrean dagoen araudia.

Funtsezkoa da negoziatio kolektiboan genero-berdintasunaren irizpidea txertatzea, eta, horretarako, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (NBI), lan-agintaritzarekin lankidetzan, prestakuntza-jarduketak sustatuko ditu genero-berdintasunari buruz enpresa eta ordezkari sindikalentzat, gutxienez ondorengo gai hauetan:

- Lanbide-sailkapena. Enpresa guztietan lanpostuen deskribapen bat egin beharko da, Zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeak parte hartuta, eta lanpostuaren ezaugarrien izendapenak homogeneizatu beharko dira. Kontrol-neurriak ezarriko dira deskribapena objektiboa dela ziurtatzeko, lanpostuen deskribapenaren kanpo-auditoria bat eginez edo eskuduna den lan-agintaritzaren edo lan-ikuskaritzaren ikuskapen baten bidez.
- Soldata. Hitzarmen kolektiboari atxikitako ordainsari-politika publikoa sustatuko da. Genero-ekitatearen irizpidea aplikatuko da soldata-osagarriak sorrarazten dituzten inguruabarrak direnean, soldata-osagarriak irizpide objektiboetan oinarritzen direla bermaturik, eta lanpostuarekin zerikusi zuzenik ez duten inguruabarrak aintzat hartzea alboraturik.
- Antzinasun-osagarria ez dadila murriztu amatasun-baimenengatik edo mendekotasuna duten familiartekoak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi murrizketarako baimenen ondorioz. Hori negoziatio kolektiboaren bitartez sustatu behar da.
- Enpresa guztiek eduki beharko dute ordainsari errealean urteko informazioa eta estatistika-analisia, soldataren eta lanpostuaren arabera bananduta, eta urtero aurkeztu beharko zaio Lan Agintaritzari, hark azter eta balioetsu dezan.
- Genero-ikuspegia kontuan hartuko duen lan-osasunari eta arrisku psikosozialei buruzko nahitaezko prestakuntza jarraitua ezartzea gai horretan diharduten eragile guztientzat.
- Hitzarmen Kolektiboaren Erregistro Atalari eskumenak ematea hitzarmen kolektiboak edo enpresa-itunak erregistratu eta argitara eman baino lehen egin beharreko egiaztapenak egin ditzan, ziurtatzeko hitzarmenak egoki betetzen duela araudia aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren gaitan. Eskuduntza hori bete ahal izateko, langile publikoen prestakuntza bermatuko da.
- 0-3 urtekoa, doan eta kalitatezkoa.

•ENPLEGU PUBLIKOA

Enplegu publikoak oro har Nafarroako ekonomian duen garrantzia ukazina da, bai ikuspuntu kuantitatibotik bai kualitatibotik, eta islatu ere islatzen du zein den Administrazioak sustatzen duen enplegu-politika. Ehuneko hori ez da horren altua, eta Europar Batasunean erdietsi den maila baino aski baxuago da.

UPNk bultzatu zituen austeritate- eta murrizketa-politiketako batzuk desegin dira aurreko legegintzaldian, eta legegintzaldi honetarako helburua da murrizketa guztien indargabetze-prozesuan aurrera egitea eta sektore publikoan enplegu duin eta kalitatezkoa sustatzea.

2019-2023ko legegintzaldirako neurri zehatzak

- Foru Administrazioaren erreforma demokratikoan aurrera egitea, irizpide hauekin funtziona dezan: profesionaltasuna, gaitasuna, eraginkortasuna, herritarrenganako irekitasuna eta funtzionarioen parte-hartzea funtzio publikoa gauzatzean.

- Funtzio Publikoaren Estatutu berria eta aipatu irizpide horietara egokitua lantzea, Nafarroako enplegu publikoa oinarritzen den printzipioak arautuko dituen, baita berezkoak dituen inguruabar guztiak: eskubideak eta betebeharrak, erantzukizuna, lanaldia, planifikazioa, sailkapena, sarbidea (baldintzak, nola lortu eta nola galdu, hautaketa-prozedurak eta -sistemak, hautaketa-organoak), prestakuntza, NAPIa, langile finkoen zein bitartekoen karrera profesionala (modalitateak, bertikala eta horizontala), egoera administratiboak, ordainsari-sistema, diziiplina-araubidea, ordezkartza-organoak, negoziazio kolektiboa...

Estatutu berri hori landu aurretik parte-hartze eta negoziazio-prozesu bat egin beharko da Nafarroako Foru eta Tokiko Administrazioan ordezkartza duten erakunde sindikalekin.

- Zer administrazio-egitura eta langile mota behar diren berraztertu behar da, Giza Baliabideen Gida Plan bat landuta, eta lanpostuak, lanbide-profilak eta hizkuntza-eskakizunak zehaztu.

- Gaur egun dauden Burutza eta Zuzendaritzen berrikuspen orokorra egitea, ez dadin egon Burutza edo Zuzendaritza batere funtzionalitate eta administrazio-antolamenduzko izate-arrazoi justifikagarririk gabe eta bere agindupeko langilerik gabe. Haien izendapena arautzen duen foru-dekretua aldatu egingo da, unitate bakoitzeko langileen parte-hartze efektiboa bermatu ahal izateko buruzagiak izendatu eta balioesteko orduan.

- Zuzendaritza-ardurak, Zerbitzu-zuzendaritzak eta Idazkari Nagusi Teknikoak merezimenduen eta gaitasunaren arabera esleitzea, eta haien jarduera aldian-aldian ebaluatzea.

- Neurriak hartzea ezgaitasuna duten enplegu publikoan sartu ahal daitezen, eta, horretarako, honako hau proposatzen da:

a) Ezgaitasuna duten pertsonentzako erreserba betetzea.

b) Enplegu lagundua kontuan hartzea, Administrazio Publikoaren barneko sustapen-neurri gisa.

c) Beharrezkoak diren diskriminazio positiboko neurriak sustatzea ezgaitasuna dutenen barne-sustapena bultzatzeko, Administrazioaren beste maila batzuetara hel daitezen.

d) Lanpostuak azkar egokitzea, lanpostuaren eta ezgaitasuna duenaren bateragarritasunari buruzko txostenak urgentziaz eginik.

- Foru Ogasuneko kudeatzaileen eta ikuskarien plantilla indartzea, zerga-iruzurraren aurkako borrokaren emaitzak hobetu ahal izateko, eta Foruzaingoan eginkizun horretarako dauden zerbitzuak indartzea.
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuak duen plantilla nabarmenki handitzea: ikuskaritza, tutoretzak, eskualdeetako zentroetarako errefortzuak...
- Privatizatu ziren zerbitzuen kudeaketa zuzena berreskuratzea, batez ere gizarte-zerbitzuetan.
- Lan-eskaintza publiko bereziak egitea, Foru Administrazioaren departamentu guztietan dagoen bitartekotasun-maila handia desagerrarazteko.
 - Enpresa publikoen eginkizuna berrikustea, baita Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoarena ere, eta haien egitekoak, helburuak eta beharrak mugarritzea, eta haietako batzuen desagertzea ere aintzat hartzea, halakoen ardura duten departamentuen administrazio-egituraren barnean egin dadin haien lana. Berariaz aztertu beharko da SODENAREN eginkizuna, Nafarroako Finantza Institutua sortzen bada.
- Enpresa publikoen kontratazioan legea zorrotz betetzen dela zaindu beharko da (kontratuen legea, hitzarmenak, lan-osasuna,...), eta aparteko orduak, ABLEen bitartezko kontratazioa eta justifikaziorik gabeko azpikontratuak egitea ezetsiko da.

INDUSTRIA

EHBildukoon ustez, pertsonen ongizaterako, haien bizi-maila eta bizi-kalitatea hobetzeko tresna da ekonomia. Ekonomia pertsonen zerbitzura.

Iruditzen zaigu erakundeek modu aktiboan esku hartu behar dutela gaur egungo eredu ekonomikoaren akatsak arintzeko eta gizartearentzat justuagoa izango den eredu ekonomiko berri bat garatzen laguntzeko.

Industriaren aldeko hautua egiten dugu, etorkizunean gure ekonomiaren giltzarrietako bat izan dadin. Iraganean industria funtsezkoa izan da Nafarroako herritarren bizi-baldintzak hobetzeko. Orobat, oso garrantzitsua izan da, gure ekonomiaren eragilea izan den heinean, eta berak sortu du kalitate handieneko enplegu gehiena.

Nafarroako ekonomiarako nahitaezkoa da industria-sektore sendoa, eraberritua, askotarikoa eta eskualde guztietan banatua edukitzea. Sektorre publikoak irauli egin behar du gaur egungo industria-eredua, ekonomia espekulatuarean eskuetan geratzen ari baita; eta, eragileen laguntzarekin, beste plan orokor bat landu behar du, garapen industrial endogenoa sustatuko duena, erabakiguneak Nafarroan bertan izango dituen, eta bere balio erantsia langile-klasearen trebakuntzara eta gure teknologia-zentroetako ikerkuntzara bideratuko duena.

Industria-sektore dibertsifikatuaren aldeko hautua egiten dugu, bai eskualdeei eta sektoreko jardueri dagokienez. Eskualdeen errealitateari eta haietan dauden baliabideei atxikitako industria, eta teknologia-maila jasoagoa izango duena. Ingurumenaren eta baliabide naturalen errespetua bermatuko duen industria. Langileek kudeaketan eta/edo zuzendaritzan esku hartzea ahalbidetuko duena, eta nazioarteko merkaturak merkataritza-harreman arduratsuak edukitzeko gaitasuna izango duena.

Sektore publikoak sendotasun berezia eduki behar du, eta enplegurako estrategikoak diren sektoreetan eraldaketak egiteko inbertitu, trakzio-lana egingo duten jardueren aldeko hautua egin eta, halaber, sektore berrietan inbertitu (bioteknologia, nanoteknologia...). S3 Espezializazio Adimendunaren Estrategian aurreikusitako ildo eta printzipioei men eginez, administrazio publikoek gidatu behar dute haren garapena, lehendik dauden tresnak egokitzuz edota berriak sortuz hartarako; hori guztia gardentasuna areagotuz eta iraganeko garaietan usu nabarmendu ziren adiskidekeriei uko eginez.

SODENA enpresa publikoa nahitaezko tresna da gure sare ekonomiko eta enpresa-ehuna sustatzeko; eta berrikusi egin behar ditu gaur egun dituen eraketa eta mekanismoak, eta erabakiak hartzeko prozedurak, erakutsi ere erakutsi baitu ez direla eraginkorrak interes publikoekin zerikusirik ez duten jardueretatik baliabide publikoak babesteko, hartarako antolatzen lerketa Batzordearen ondorioetan agerian geratu den moduan. Erabakien gardentasunak eta objektibotasunak izan behar du araua, zeina ez uste subjektiboek ez asmo pertsonalek aldaraziko ez baitute. Horregatik, haren berrikuspena aurrerapauso bat izango da Nafarroako Kreditu Institutua eratzeke bidean, eta une honetan SODENAK dituen akzio-ahalbideak berrantolatze aldera.

EHBilduk hautu argi eta garbia egiten du I+Garen alde; enpresek balio erantsian eta berrikuntzan oinarrituz bultzatu behar dute lehiakortasuna, eta ez lanaren kostuetan, eskulana merkatzan edo ingurumenaren kaltean. Hain zuzen ere, horrek duen garrantziagatik da are premiazkoagoa gai horren eskuduntzaren transferentzia, zeina eskubidez zor zaigun.

Ekonomia berdearen aldeko hautua egiten dugu, ingurumena errespetatuko duen industria sustaturik: energia berriztagarriak, hondakinen tratamendua, ekonomia zirkularra, material biologikoen ekoizpena...

Gure bigarren sektoreak egokiago funtziona dezan beharrezkoak liratekeen lege-aldaketa guztiak egiteko ezintasunak (esate baterako, Gizarte Segurantzari buruzkoak eta bere fiskalitatearen ingurukoak), eskuduntzetan ditugun muga desegokiak direla eta, agerian jartzen du berriro ere gure autogobernua sakondu egin behar dugula, modu ziurrena baita gizarte-eredu justuagoa eta aurreratuago bat bermatzeko.

2019-2023KO LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

- Eskualdekako oreka gordeko duen berrindustrializazio-prozesua bultzatzea, eskualdeko errealitate sozial eta ekonomikoan txertatu, eta tokian tokiko baliabideekin bat egingo duena. Garapen endogenoari lehentasuna ematea.
- Enpleguan intentsiboena den industria sustatzea (ikerkuntzari garrantzi handiagoa ematen diona), eta baliabideen eta energiaren kontsumoan intentsitate gutxiena duena.

Nafarroako behar duen industria-eredu berriari buruzko eztabaida sustatzea, non herritarrek, gizarte-eragileek eta sindikatuek parte hartuko duten.

Kalitatezko enplegua.

Nafarroako industria-politikaren helburuak kalitatezko enplegua sortzea izan behar du, langileen eskubide guztiak bermatuko dituen eta berdintasunezko, integraziozko eta kalitatezko gizarte baten isla izango dena. Horregatik, eta ENPLEGUA atalean jasotzen ditugun gogoeta eta neurrien osagarri modura, honako konpromiso hauek azpimarratzen ditugu:

- Lanaren banaketa justuaren aldeko hautua egiten dugu.
- Enplegua berdintasunezko baldintzetan lortu ahal izateko neurri bermatzaileak sustatu behar dira, gaur egungo diskriminazioak bazterturik eta askatasun sindikala bermaturik.
- Eskubide Sindikalen Kontalariaren figura sortzea, enpresetan langileen askatasun sindikala berma dezan, egiten diren abusuak jaso, dokumentatu eta salatzeke. Zigor-neurriak ezarriko dira langileen eskubide sindikalak urratzen dituzten enpresen, enpresaburuen elkargoen eta sindikatuen aurka (kontratazioetan, kaleratzeetan, barne-promozioetan...)
- Bigarren sektorean jende gaztearentzako enplegua sortzearen alde egitea, haiek izan baitira, emakumeekin batera, krisi ekonomikoetako eta lan-erreformatako kaltetu handienak.
- Autoenplegua sustatzea, udal-mailako ekimenen eta laguntza publikoen bidez.
- Ikastetxe edota prestakuntza-zentroen eta Nafarroako enpresa-ehunaren arteko lankidetzak-esparruak indartzea. Prestakuntza duala.
- Pertsona zaurgarrientzat edo bazterkeria-arriskuan daudentzat bigarren sektorean enplegua sortzearen alde egitea. Laneratze-enprekin lankidetzak eratzea.
- Zaurgarritasun ekonomikoan dauden 40 urtetik gorako enplegua sustatzeko berariazko programak indartzea.
- Lan-ikuskapenak sustatzea, eta haien edukia eta maiztasuna hobetzea. Arreta berezia eskainiko zaie langileen segurtasun-baldintzei, baita lan-baldintzei eta eguneko lanorduak errespetatzeari ere, zorrotasun handiagorekin zehaturik hiru alor horietan araudia ez betetzea, eta baita aparteko orduak erabiltzea ere.
- Dirulaguntza publikoen araudi osoa eraberritzea, haiek emateko irizpideak hobetuz, klausula eta irizpide sozial berriak ezarriko dira, eta gardentasuna eta kontrol-mekanismoak indartuz. Klausula sozialen artean honako konpromiso hauek ezarriko dira, besteak beste: enpleguari eta lan-baldintzei eusteko konpromisoak, berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoak, lan-erreforma ez aplikatzekoa, negoziazio kolektiboa sustatzekoak eta deslokalizazioaren aurkakoak. Ikuskapen-sistema erregularra ezarriko da, helburuak eta klausula sozialak betetzen direla bermatzeko. Zehapen-

mekanismoak eratuko dira laguntza publikoen erabilpen zuzena egiten ez dutenentzat.

- Deslokalizazio-prozesuak eragozteko neurriak ezarriko dira. Neurriak hartu behar dira deslokalizazioa ez dadin areagotu gure lurraldean. Gizalegerik gabeko enpresaburu askok darabilten estrategia hori dago Nafarroan azken urte hauetan enpleguaren alorrean egin diren bidegabekeria larrienetako askoren gibelean. Proposatzen dugu deslokalizazioaren aurkako klausulak ezar daitezela sozietateen gaineko zergan, eta berrius dadila dirulaguntza publikoei buruzko araudia, laguntzak jaso ahal izatea lurraldean geratzeko konpromisoarekin uztartzeko, eta zehapenak ezartzea betetzen ez den kasuetarako.

•Ekonomia Sozial eta Solidarioa.

- Ekonomia soziala babestu eta bultzatzea.

- Behar den eta eskaera duen produkzioa egingo duten kooperatiba industrialen garapena indartzea, langileengan oinarritutako enpresa-autogestioa bultzatzeko, halakoek abian jartzeko behar duten kapitala lortzen lagunduko duten neurrien bitartez.

- Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko lekuan lekuko plan estrategikoak lantzea, berariazko finantzaketa-lerroekin batera.

- Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko erreferentziazko ekipamenduak identifikatu eta hauspotzea herritarrentzat eta tokian tokiko eragile ekonomikoentzat: ekonomia sozial eta solidarioko enpresa-poloak eta merkataritza-ganberak, ekintzailatza sozial eta kooperatiboko eskolak eta programak.

- Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak finkatzeko lan-ildoak garatzea: sareko baliabideak, prestakuntza eta aholkularitza, merkaturatzeko estrategiak...

- Enpresa-susperraldiko eta -eraldaketa prozesuak ekonomia sozial eta solidarioko figuretara bideratzeko laguntza ematea.

•Industria-ondasun publikoak.

Nafarroako ondasun publiko industrialak lagundu eta defendatzea, egin beharreko lege-aldaketa eginez gardentasun eta kontrol publikoko neurri zorrotzagoak bermatzeko, haien xedeak eta helburuak betetzen direla bermatzeko.

Kontrol-neurri zorrotzagoak ezartzea ondasun publiko industrialen pribatizazioa eragozteko.

Kalitatezko enplegua sortzen eredugarriak direla bermatzea.

•Politika fiskala

Fiskalitate-gaietan erabateko aldaketaren aldeko hautua egiten dugu.

Politika fiskal berriak aintzat hartu behar du enpresa batzuen eta besteen artean dagoen aldea, hau da, espekulazio-enpresen edo enplegua sortzen eta I+G+Ban inbertitzen batera eraginkorrek ez direnak alde batetik, eta, bestetik, ekoizpen-ekonomiari gehiago begiratzen diotenak, enplegu gehiago sortzen dutenak, langileen partaidetza handiagoa dutenak, ingurumenaren zaintzan ardura handiagoa dutenak eta ikerkuntzan eta ezagutzan intentsiboak direnak.

- Oro har, laguntza arrazoituetan oinarritutako politika hobetsiko da, zerga-salbuespenetan oinarritutako politikaren aurretik.

• Industria bultzatu

- Proposatzen dugu enpresek administrazioarekin duten harremanetan (baimenak lortzeko, laguntzetarako, informaziorako...) izapideak eta burokratizazioa murriztea, eta bizkortasuna areagotzea. Enpresak gehiegizko burokraziaren mende egoteak eragin makurra du haien lehiakortasunean, batik bat enpresa txiki eta ertainen (ETE) eta kooperatiben kasuan.
- Zerikusia duten eragile guztien partaidetzarekin, plan bat sustatzea izapide burokratikoak gutxitu eta bizkortzeko, eta ETEek eta kooperatibek Administrazioarekin duten harremana errazteko.
- Nafarroako Banda Zabalaren Gida Plana 2021 indartzea, banda zabal puntakoenarekin konexioa ahalbidetzeko Nafarroako industria-sektore osoari.
- Sozietateekiko harremanetarako datu-base bateratua eratzea Administrazio osorako, Ogasun Departamentuak eguneratuko lukeena, non Industria Departamentuko langile baimenduek ere sarbidea izango bailukete.
- Iruditzen zaigu erakundeek ekonomian duten esku-hartzeak ez duela araugintza hutsean geratu behar, eta gure gobernuak eragile ekonomiko aktiboa izan behar duela; etorkizunean gure bigarren sektorearen bilakabidean aitzindaria izan behar duela; sektore estrategikoetan jardun behar duela, eta haien funtzionamendu egokia ziurtatu, eta gure gizartearentzat onurak sortzeko gai izan behar duela.
- SODENAREN gaineko gardentasun- eta kontrol-mekanismoak indartu behar dira, haren jarduera Nafarroaren garapenerako helburu estrategikoekin bat datorrela ziurtatzeko. Horretarako, Sozietate Publiko horren estatutuak aldatu egingo dira, ziurtatu ahal izateko erabakiak hartzeko prozedurak objektiboak eta egiaztatuak direla, eta baliabide publikoak jokoan diren erabaki guztien egokitasunari buruz behar besteko bermea dutela. Era berean, Sozietate Publikoak, gogoeta eta azterketa bat egin, eta erabaki bat hartuko du gaur egun SODENAK zenbait enpresa-proiektutan dituen ahalbideei buruz.
- Gure bigarren sektorea teknologikoki aurreratuagoak diren, I+G+Ban ahalegina egitea eskatzen duten eta balio erantsi handiagoa sortzen duten jardueretarantz dibertsifikatu eta bideratzen saiatzearen alde egitea.
- Sektore estrategikoak sustatu eta gure industriarentzat jarduera-azpisektore berriak bultzatzea, eta lehentasuna ematea balio erantsi handiena, errentagarritasun handiena eta ingurumena hobekien errespetatzen duen jarduera duten azpisektoreei.
- Eskualdeetan enpresa- eta kooperatiba-hobiak sustatu eta bultzatzea, haien baliabideak eta aukerak zein diren kontuan harturik, gure industria sektore berrietan gehiago sustraitu eta hedatzeko helburuarekin.
- Ideia-inkubagailuen eta teknologian oinarritutako enpresen sorrera hauspotzea CEINen bitartez, NUPekin lankidetzan.
- Gure enpresak gehiago nazioartekotzearen aldeko hautua egitea, laguntzak emanez eta ETEek nazioartekotze-prozesuak aurrera eramateko eta bezero berrietara heltzeko neurriak sustatuz.
- Gure industria eta gure marka propioak kanpoan sustatzeko laguntzak ezartzea.
- Lankidetzeta eta babes ekonomikoko neurriak abian jartzea Nafarroako enpresek kanpoko azokak ezagutu eta haietaraino hel daitezen.

- Hizkuntzen ezagutza indartzea, Hizkuntza Eskolen sarea landa-eremuetaraino hedatuz, fisikoki bertan egotea eta joan-etorririk eskatzen ez duten baliabideen bidezko ikasketak ahalbidetuz.
- Energia berriztagarrietarako merkatu berriak bilatzea kanpoan.
- Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresentzat berariazko nazioartekotze-programak eratzea, atzerrian, batez ere Txina, Brasil eta halako merkatu berrietan, saltzeko ahalmenik handienetakoa duen sektorea delako.
- Erakundeen eta eragileen egitura berri bat sortzea, herrialde osoko kooperatiben eta enpresa txikien nazioartekotzea sustatuko duena, gaur egun banaka egiten den lanketa koordinatu ahal izateko; aholkularitza- eta dokumentazio-lanean laguntzea, eta atzerriko merkatuei buruzko informazioa eskuratzeko bideak erraztea.
- Nazioartekotzeari ekin nahi dioten enpresentzat aholkularitza bermatzea.
- Harreman bidezko eta solidarioetan oinarritutako kanpo-merkataritza sustatzea.
- Langileen eta herrien eskubideak errespetatzen dituzten herrialde eta herriekiko harremanak bultzatzea.

•Kooperatiba eta ETEei buruzko ekintza exekutiboko neurriak.

- Gure bigarren sektoreko ETEen eta kooperatiben iraupenerako, garapenerako eta modernizaziorako neurriak ezartzea, eta baita antolakunde berriak sortzeko ere.
- Langileak kudeaketan eta jabetzan partaide izateko helburua duten proiektuak laguntzea eta, oro har, kooperazioaren balioak ezagutarazteko programak lantzea.
 - Doako bulego publiko bat sortzea, estutasun ekonomiko larrian dauden kooperatiba, ETE eta mikroenpresa industrialei aurrera egiteko eta indarberritzeko aholkularitza eta laguntza eskaintzeko, eta ekonomia sozial eta eraldatzaileko enpresa berriak sortzen laguntzeko.
 - Kooperatibak eta ETEak, batez ere mikroenpresak, une zehatz bateko ez-ordaintze batengatik itxi beharrean aurki ez daitezkeen, laguntza ekonomiko puntuala eta ez-ordainketaren kudeaketan laguntzeko sistema bat sortuko da. Aurreko puntuan aipatu den bulegoak kudeatuko du berariazko laguntza hori. Lankidetzaren hitzarmen bat egingo da bulego berri horren, NUPen eta Nafarroako UNEDen artean, ikasleek zuzenean ezagut ditzaten ETEek eta mikroenpresek paira ditzaketen zailtasunak eta haiek gainditzeko baliabideak.
 - Kooperatiba industrial berriak sortzeko laguntza-neurriak ezartzea, batez ere, ixten diren baina bideragarriak izan daitezkeen enpresen kasuan.
 - Laguntza ekonomikoak eta finantza-babeseko neurriak sustatzea gaur egun zaharkituta geratzen ari diren industria-sektoreetan diharduten eta errentagarritasun-arazoak dituzten kooperatiba industrialek beren jardunbidea sektore modernoago eta errentagarriago berrietara zabaldu ahal dezaten, irizpide sozialak eta ekologikoak kontuan izango dituen trantsizioa eginez.
 - Zaintza –eta inteligentzia– teknologikoko zerbitzu publikoa abian jartzea, tokiko Garapen Agentziekin eta Partzuergoekin lankidetzan, kooperatibei eta enpresa txikiei laguntza teknologikoa eman ahal izateko.

- Plan bat lantzea, zenbait erakunderen partaidetzarekin, enpresentzako zerbitzu aurreratuen esparruan jarduera sustatzeko; esate baterako, ingeniartzak, zenbait esparrutako ikuskaritzak (ekonomikoak, marketinekoak, ingurumenekoak) edo aholkularitzak.
 - ETEetan eta kooperatiba industrialetan energia-ikuskapenak egiteko plan bat lantzea, haien energia-kontsumoa murrizteko helburuarekin.
 - Kooperatibetan eta ETEetan informazioaren erabilera indartzea, baliabide estrategiko moduan, diagnosiak eginez eta Informazio Estrategikoko Sistemak ezarriz, gure enpresa-ehunaren berrikuntza eta aurrea hartzeko gaitasuna areagotuz.
 - Enplegu industrialaren premiari buruzko azterlana egitea eskualde geografiko bakoitzean.
 - Industrien arteko harremanak sustatzea sarean, produkzio-fluxuen koherentzia eta materialen kudeaketaren eraginkortasuna areagotzeko.
 - Teknologia-parke berriak sortzea, banaketa geografiko orekatuago batean oinarrituta, teknologia-zentro berrien edo lehendakik dauden instalazioen inguruan.
 - Banku Publikoa. Nafarroako enpresek eta kooperatibek duten arazorik larrienetako bat finantzaketa da. Caja Navarraren desagertzea ondorio latzak ekarri zituen alor horretan, eta oraindik ere irauten dute. Industria-sektorea izan gabe, gure industriarentzat garrantzi erabakigarria du finantza-sektoreak. Iruditzen zaigu funtsezkoa eta urgentziakoa dela finantza-erakunde publiko berri bat edukitzea, gure bigarren sektorearen garapena egokiagoa izan dadin, Caja Navarraren desagertzea ekarri zuen kudeaketa etsigarriaren ondoren. Nafarroa mailako banku publiko bat sustatu behar da laguntza publikoko tresna nagusia izan dadin, enpresa berriak sortzeko, industria-sektore estrategikoetan inbertsioak egiteko, kooperatibak finantzatzeko eta, oro har, sektore publikoak industria sustatzeko, eta prozesuaren buruan aurrezpen pribatua jaso dezakeen eta banku minoristaren zerbitzuak eskaini ditzakeen finantza-entitatea bihurtu dadin.
 - Enpresak ixten edo saltzen ari diren garai hauetan, Euskal Herriko gainerako erakundeekin batera, inbertsio-funts bat sortu behar da, Industriadako Plan Orokor batean inbertsio publikoa bermatuko duena, enplegu industrialak sortzea helburu izango duena, eta politika industrialak zehazteko, erakundeen, eragile sozialen, sindikalen eta ekonomikoen partaidetza bermatuko da. Aintzat hartuko dira Tokiko Garapen Agentzien eta Partzuergoen plan estrategikoak eta proiektuak, eta eskualde guztien industrializazioa lagundu eta sustatuko da inbertsio publikoaren bitartez.
 - Trantsizio-aldi honetan, beharrezkoa da ekintza-planak abian jartzea eskualde batean edo sektore batean eragin handia duten eta desagertzeko arriskuan egon daitezkeen enpresentzat, erori edo merkeegi saldu baino lehen salbatu ahal izateko.
 - Etorkizunean garrantzitsuak izan daitezkeen sektoreetan, inbertsio publiko-pribatua eduki dezaketen proiektuak eta enpresak sortzearen alde egitea, eta kontrol-sistemak zorrotzea.
 - Energiaren kontsumoa gutxitu, ingurumena errespetatu eta enplegu berdea sortzen duten proiektu industrialak bultzatzea.
 - Nafarroaren suspertze ekonomiko eta langileen protagonismo soziala aintzat hartzen duten industria-jarduerako ereduak sustatzea.
- Oro har, ehun industrial zabala, askotarikoa, modernoa eta ekologikoa bultzatzea.

•Energiaren sektorea.

- Era berean, eta etorkizuneko sektore publiko bateko osagai erabakigarria den aldetik, energiaren sektorea jarduera ekonomiko funtsezkoa da sektore industrialean; beraz, iruditzen zaigu sektore horretan beharrezkoa dela jarduketa ekonomiko publiko bat, teknologia garbi eta errentagarriak garatzera bideratutako ikerketa-lan sendo bat bilduko duena.
- Energia-eredu burujabe berri bat bultzatu behar da, autokontsumoa sustatuko duena. Garrantzizkoa iruditzen zaigu autokontsumoa bultzatzea eta energia-kooperatiba txikiak sortzen laguntzea, kontsumo-guneetatik hurbileko lekuetan energia sortzeko, garraioan galtzen den energia gutxitzeko.
- Udalen arteko tokiko energia-kooperatibak, publikoak sortzen laguntzea.
- Tokian tokiko energia-baliabideen ustiapen arrazionala, jasangarria, ingurumena errespetatuko duena eta defizitarioa izango ez dena sustatzea.
- Teknologia berrien ikerketa eta garapena indartzea, energia lortzeko orduan ingurumena gehiago errespetatuko duten era berrien kudeaketa errentagarria ahalbidetuko dutenak.
- Burujabetasun energetikoaren eta energia berriztagarrien garapenaren bidean aurrerapausoak emateko, beharrezkoa da sektorean Agentzia publiko bat sortzea, gai izango dena egin behar den ikerketaz eta energia kontsumitzailearenganaino helarazteko jarduketa guztiez arduratzeko.

Lehen sektorearekin lotutako azpisektoreak (haragiaren eta esnearen industriak, edarigintza, fruta eta barazkien prestakuntza eta kontserbazioa, larrugintza...):

Bigarren sektoreak lehen sektorearen bultzagile ekonomiko gisa joka dezake, eta, horretarako, honako hau behar da:

- Merkataritza-harreman zintzoagoa ezarri hornitzaileen eta sektoreko industriaren artean, bi sektoreen artean integrazio maila handiagoa ahalbidetu dezaketen eskemak lantzerantz iritsita.
- Produkzio-eredu ekologiko eta kalitatezkoaren aldeko hautua egin behar da, azpiegiturak bikainduz, sektoreko ekimenei laguntza emanez eta, gehienbat, sektorearen beraren eskuetan egon behar duten merkaturatze-kanalak indartuz.
- Lehen sektorean sortutako produktuak gure industrian eraldatzeko bideak sustatzea. Nekazaritako elikagaien tokiko industriaren garapena bertan ekoiztutako lehengaiarekin eta tokiko merkaturan bertan merkaturatuetan oinarritzeko ekimenak bultzatu behar dira, ekoizleen lan-baldintzekin konprometituz, herritarrei informazio gardena eskainiz, eta familia-nekazaritzako eredia sustatzearekin bateragarriak diren politikak gauzatzuz.
- Lehen eta bigarren sektorearen arteko lotura-formulak eratzea, zeinek lehen sektoreko langileen errentak osatzeko bidea emango baitute. Mozkinaren zatiki handiagoa lehen sektoreko langileentzat izateko bidea emango duten estrategiak landu behar dira, gure nekazaritza-ustiapenek errentagarritasun egokia, duina, lor dezaten erraztasun handiagoarekin.
- Laguntza emango da kooperatiboa mistoak sortzeko, nekazaritza-industrialak, non kide-langileek erabili ahalko baitute beren eguneroko eta/edo urteroko lanaldiaren zati bat beren nekazaritza-ustiapenean lan egiteko, eta lanaldiaren beste zatia eraldaketako jarduera industrialerako kooperatiban, lehen sektoreko langileen errenta osatzeko modu bezala, eta haien mozkinak lagungarria aurki dezan eraldaketa industrialeko jardueratik eratortzen diren irabazkinekin.

- Belaunaldien ordezkapena sendotzeko neurriak ezartzea.
- Administrazioak erraztu egin behar du langile berriek gutxieneko errentagarritasun bat izango duen ustiapen bat eskuratzeko modua izatea, errentagarriak izan daitezkeen ustiapen-unitateak, behar izanez gero, alokairuaren bitartez osatuz, horrek jabetza ukitu gabe.
- I+G+Bko lana indartzea, makinerian, tresnerian eta instalazioetan hobekuntzak lortzeko, laborarien, abeltzainen eta baso-langileen lan-baldintzak hobekuntza izan daitezen.
- Jatorri-deituren berreskurapena sustatzea eta defendatzea.

•I+G+B

- Ikerkuntza, Garapena eta Berrikuntzaren sustapenean sakontzea, gure bigarren sektoreak gaur egun duen maila teknologikoa hobetzeko, arreta berezia ezarrita gure industria zaharkituta geratzen ari den azpisektoreetan. Zientziaren eta Teknologiaren legeak ezarritako zaintza- eta kontrol-mekanismoak indartu eta koordinatzea.

MERKATARITZA

ONARRI IDEOLOGIKOAK

Merkataritza sektoreak rol garrantzitsua dauka gure gizartean, BPGari ekarpen nabarmena egiten diolako, enplegua sortzen duelako eta transakzio ugari eragiten dituelako egunero.

Bereziki garrantzitsua da hurbileko hiri-merkataritzaren rola, gure herri eta hiriak egituratu eta dinamizatzen dituelako, eta, gure errealitate kulturaletik harago dagoen periferietako merkataritza zentroen fenomenoaren aldean, identifikatzen gaituen hiri-eredua ezartzen laguntzen duelako.

Merkataritza sektoreak erronka handiak ditu bere bideragarritasuna eta biziraupena bermatzeko; aurre egin behar izango baitie azalera handien ugaritze eta finkapenari, merkataritza gero eta zabalagoak diren ordutegiei, kontsumitzaileen ohitura-aldaketari eta merkataritza elektronikoaren hedapenari.

Zorionez, merkataritza eta ostalari elkarteak sortu dira, eta administrazioekin harreman zuzenaren bitartez bultzatzen dute beren jarduna, auzo eta herrietako kaleetan bizitza berreskuratuta eta herritarren arteko harreman pertsonalak sustatuta.

Ezinbestekoa da Administrazioek horrelako ekimenak babestea eta gure eredu sozial eta ekonomikoarekin bat datozen urratsak ematea. Herritarrak tokiko kontsumoaren garrantziaz sentsibilizatu behar ditugu, eredu hori hurbila, pertsonala, profesionala eta, gainera, ekologiko eta iraunkorra delako. Izan ere, tokiko kontsumoak ez ditu globalizazio ekonomikoan oinarritutako produktuak sustatzen, eta garraio gutxiago erabiltzen da, saltoki txikiek udalerrian bertan topa ditzakegun bertoko produktuen alde egiten baitute sarri. Lurrean sustraituta daude, lan-harremanak sustatzen dituzte eta bizia ematen diote inguruari, tokiko ekimen kultural zein ludikoak eta jaiak babestuz.

Ezin ditzakegu tokiko merkatu eta azokak ahaztu; tradizioz nekazaritza, abeltzaintza edota artisau produktuetara bideratuta egon diren horiek, zalantzarik gabe, eskaintza garrantzitsua osatzen dute, saltzen dituzten produktuen kalitatea bermatuta.

Gizartean izan diren aldaketek, merkatu eta zerbitzuen globalizazioarekin batera, merkatu tradizionala aldatu dute; herritarrek behar berriak dituzte eta kontsumitzeko modu berriak sortu dira, bereziki, teknologia berrien garapenak eraginda. Merkataritza azalera handiak irekitzeak saltoki txiki ugari ixtea eragin eta enplegua suntsitu du; hori dela eta, EH Bildu azalera horien ugaritzearen kontra agertzen da tinko.

Ezinbestekoa da Administrazio Publikoek tokiko merkataritza bultzatu eta babestea, eta, horretarako, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsan eragina duten alderdiak arautuko dituen esparrua ezartzea.

LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

- Nafarroako eremu guztietan merkataritza ekipamendu nahikoa bermatuko duen Merkataritza Antolamendurako Plan Zuzentzaile bat bultzatzea, lurralde-orekan eta formatu komertzialen arteko orekan oinarritutako irizpideak ezarrita; horrela bultzatuko dira komunitatearen garapen harmonikoa eta bertako herri zein hirietako bizkortasun sozial zein ekonomikoa. Nafarroako eskualde guztiak ikusarazteko neurriak bultzatzea.

- Nafarroako Hurbiltasunezko Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko 2017-2020 Planean aurreikusitako neurriak ezartzea, lau helburu lortzera bidean: Nafarroako Merkataritza Sektorearen Gobernantza Publikoa sustatzea; Merkataritza Sektorean Enpresen arteko Lankidetzeta estimulatzea; Merkataritza arloko ETEen Lehiakortasun maila hobetzea; eta Merkataritza Sektorean Berrikuntza eta Ekintzaitza erraztea.

-Merkataritzaren ikusgaitasuna bultzatzea eta lurralde zein auzoarekiko konpromisoa duen tokiko merkataria babestea. Hurbileko Merkataritzaren gaineko komunikazio eta sustapen kanpainak martxan jartzea, tokiko erakundeekin, Nafarroako Gobernuarekin eta merkatarien elkarteekin koordinatuta.

- Udal Merkatuak tokiko merkataritzaren lokomotora gisa finkatzea, eta hurbileko produktu fresko eta ekologikoan oinarritutako merkataritzaren garrantzia azpimarratzea.

- Ekintzailtza Babesteko Programa bultzatzea, negozio-idea eta merkataritza formatu berrien laborategi bat ere aurreikusiko duena.

- Hutsik dauden lokalen poltsa eratzea eta argitaratzea, negozio berriak erakartzeko eta gune ezberdinetan merkatu-nahasketa hobetzeko. Merkataritza arloko ekintzailtzari zuzendutako leihatila bakarra ezartzea, merkataritza guneei, merkatu-nahasketari, lokal hutsei, prestakuntzari eta diru-laguntzei buruzko informazioa zentralizatuko duena.

- Eraldaketa digitala bultzatzeko neurriak ezartzea, saltokia ekonomia digitalean txertatzeko, interneten zein sare sozialetan presentzia egokia lortze aldera.

- Ohiko eta tokiko merkataritzaren kudeaketa eta salmentan teknologia berriak txertatzeko bidea erraztea, merkataritza elektronikoa eskaintzen ditun negozio-aukerez baliatu ahal izateko; betiere, prestakuntza, profesionalizazio eta inbertsioaren bidez. Udalekin hitzarmenak bultzatuko dira, auzo edo udalerriko saltoki txiki guztiak bilduko dituen merkataritza elektronikoko proiektuak garatzeko, bakoitzaren populazio-dimentsioaren arabera eta merkataritza elkarteekin koordinatuta.

- Merkealdiak eta sustapen-kanpainak arautzeko beharrezko lege-aldaketak sustatzea.

Ekonomia arloko neurriak sustatzea saltoki txiki eta ertainak ezarri eta finka daitezen errazteko.

- Produktu, prozesu eta antolamenduetan berrikuntzarako gaitasuna sustatzea, enpresaren tamaina edozein dela ere. Horretarako, merkataritzara bideratutako berrikuntza proiektu espezifikoak diseinatuko dugu.

- Merkataritza elkarteak sor daitezen erraztea, enpresa handiei aurre egiteko gai izango diren talde sendoak ezartzeko, sektorearen interes orokorrak defendatuz eta merkataritza-egiturak modernizatuta eskaintza hobetuz.

- Toki erakundeekin eta merkatarien elkarteekin lankidetzan, hiri-inguruetan merkataritzaren biziberritze eta garapenerako planak martxan jartzea, merkataritza inguruak herritarrentzako hiri-merkataritza gune erakargarri izan daitezen. Ahalegin berezia egingo dugu narriatutako guneetan eta erdigune historikoetan; horretarako, oso kontuan izango dira hirigintza arloko esku-hartzeak, besteak beste, kaleak oinezkoentzat egokitzea, Merkataritza pilatzen den guneetan zama-lanak erraztea, etab.

- Banaketa-zirkuitu laburrak edo ekoizle eta kontsumitzaileen arteko salmenta zuzena bultzatu eta erraztea, lehen sektoreari inplikazio eta lankidetzaren berezia eskainita.

- Iraunkortasun irizpideetan oinarrituta, merkataritza txikia eta hiri-merkataritza bultzatzea, periferian Establezimendu handiak ezartzea saihestuz; izan ere, lurzoruzati handiak kontsumitzen dituzte, bide zein desplazamenduek ingurumenean kostu handia dakarte berekin, eta epe luzera tokiko merkataritzaren suntsipena eta hirien desertifikazioa eragiten dute.

- Kontziliazioa erraztuko duten ordutegiak defendatzea, eta aisialdi-kontsumoari halaberrez lotuta egongo ez den gizarte eredu bat aldarrikatzea.

- “Jai eguna, bizi eguna”. - Igande eta jaiegun batean ere ez irekitzea, eta irekitze-ordutegiak murriztea. EHBILDU7 osatzen dugunok merkataritza arloko langile guztien eskubide eta baldintza duinak defendatzen ditugu, probintzia mailako hitzarmenak babestu eta bultzatuta.

- Sektore berrien bultzada. Bidezko merkataritza sareen zabaltea, produktuen merkaturatzea sustatuta.

- Merkatu-azterketak egitea, gune bakoitzaren egiazko beharrak eta eskaria neurtzeko, eta azalera handi berriak irekitzeko gizarte zein ingurumenean izan lezakeen inpaktua aztertzeko. Horrelako azalera guneak irekitzeko baimena emateko orduan ezinbesteko baldintza izatea.

- Sindikatu, merkataritza eta patronalaren arteko lankidetzak, Guztiontzat onuragarriak izango diren hitzarmenak negoziatzeko; eta langileen eskubideen babes publikoa.

3. Udalek eta Eskualdeetako Erakundeek, Merkataritza Elkarteekin batera eta eskura dituzten tresnak baliatuz, bertoko produktuak bultzatuko dituen kalitatezko eredu ekologikoago baten alde lan egin behar dute, eredu moderno, parte-hartzaile eta dinamiko baten alde.

4. Ezinbestekotzat jotzen dugu Administrazio Publikoek kontsumitzaileen babesa handituko duten politika aktiboak indartu eta hobetzea, beren eskubideak sustatu eta defendatze aldera.

5. EH Bildun uste dugu beharrezkoa dela sektore honetako langileen eskubideak babestuko dituzten politikak aplikatzea, hitzarmenen negoziazio kolektiboa bultzatuz eta hitzarmenok enpresetan ezar daitezkeen indartuz.

KONTSUMOIA

- Gizarte eragileekin lankidetzak eta parte-hartze bideak ezartzea, kontsumitzaileen elkarteekin batik bat, garatu beharreko ekintzak elkarrekin planifikatzeko eta aurreikuspen-neurriak bultzatzeko.

- Kontsumo ez arduratsua saihestuko duten kontsumo iraunkorrerako estrategiak sustatu eta bultzatzea. Gehiago kontsumitzearen aldean, “hobeto kontsumitzeko” kultura sustatu behar da; garapen iraunkorra, osasuna, elikadura burujabetza, ekitate soziala, kultura aniztasuna eta komunitateen sendotzea ahalbidetzen duten eroste-erabaki arduratsuak hartuta.

- Kontsumitzaileen gaikuntzarako bideratutako prestakuntza programak sustatzea, informazio eta komunikazio gizaritza erronkei aurre egiteko nahikoa trebetasun eskaintze aldera.

- Kontsumitzaileen Elkarteekin parte-hartzea izango duen bitartekaritza zerbitzua martxan jartzea, gatazken ebazpenerako tresna eraginkor gisa.

- Ikuskaritza zerbitzu espezializatua sortzea, produktu eta zerbitzuen segurtasuna bermatzeko.

- Herritarrek beren interes orokor, kolektibo eta zehaztugabeen defentsan doako laguntza jasotzeko eskubidea izan dezaten sustatzea, kontsumitzaileen elkarteekin eta erakunde publikoen laguntzaz.

- Kontsumitzaileen elkarteak erraztea, haiei eragin diezaieketen gaiak erabakitzen diren foroetan nahikoa ordezkaritza izan dezaten.

- Kontsumitzaileei bideratutako heziketa eta prestakuntza kanpainak programatu daitezkeen bultzatzea.

- Kontsumo Sistema Arbitrala sendotzea, ahalik eta enpresa gehien atxiki daitezen bultzatuz.
- Kontsumitzaileentzako Udal Informazio Bulegoen sarea zabal dadin sustatzea, eta bulegoak beren jardunerako behar besteko baliabidez eta finantzazio publiko nahikoz hornitzea.

TURISMOA

EH Bildun, gure ekonomiaren arlo garrantzitsutzat jotzen dugu turismoa, eta, horregatik, sektore horren aldeko apustua egin nahi dugu. Alabaina, sustatu nahi dugun turismoa urrun dago ohiko eskaintzatik, eta bestelakoa izan nahi du, parametro hauetan oinarritua:

- baliagarria izatea gure herri gisako nortasuna eta kultura ezagutzera emateko.
- gure historia eta ondare historikoa modernitatearekin uztartzea.
- gure gastronomia bultzatzea, gure ondarearen atal gisa.
- gure natura- eta landa-baliabideak errespetatzea.
- masifikazioa helburu duten proiektuak baztertzea.
- aintzat hartzea gune bakoitzeko garapen endogenoa, errealitate soziala eta ingurumena; horien guztien zerbitzura jartzea, ez alderantziz.
- gizarte-errentagarritasuna, ingurumenari dagokiona eta ekonomikoa bilatzea.
- turismo- eta enpresa-sektore sendoa sortzea, merkaturatzeko eta saltzeko ahalmenduna.

Gure xede orokorra da turismo iraunkorra sustatzea, ingurumenari, gizarteari eta gure herriaren sustraiei dagokienez arduratsua.

Turismoak garrantzi handiagoa izan behar du. Hala, EH Bildun gure gain hartuko dugu datorren legealdian turismoa bultzatzeko konpromisoa. Turismo horrek Nafarroa nafarren artean ezagutzera emango du, bai eta mundu osoan ere, eta gure turismo-errealitatearen eta gainerakoenen arteko esperientzia-trukeak ahalbidetuko ditu.

Eredu merkantilistari kontrajarrita, turismo iraunkor eta soziala proposatu nahi dugu, oinarrian pertsonak eta gure herria izango dituen. Halaber, natura, ondare historikoa eta bertako gure produktuak izan behar dira landa-turismoaren abiapuntuak. Turismoa gure kultura ezagutarazteko tresna izan behar da, Pirinioetatik Erriberaraino, eta gure ekonomia sustatzeko balio behar du. Horrez gain, gure berezitasun historikoen berri emateko aukera ematen digu, bai eta beste herri batzuekin topaguneak sortzeko ere.

Turismoa deslokalizatu ezin diren sektore urrietako bat da. Gure eskaintza ezin da beste leku batera eraman, beraz, argi izan behar dugu ezin ditugula gure baliabideak nolana ustiatu. Jakin badakigu ahalmen handia dugula, baina garapen antolatua eta iraunkorraren aldeko hautua egin nahi dugu. Izan ere, turismoa oraingo eta etorkizuneko apustua da sektore horren inguruan lan egin nahi duten pertsonentzat.

Nafarroa osoa eman behar dugu ezagutzera. Lekurik adierazgarrienak baliatzen jarraitu behar dugu, baina beharrezkoa da beste esperientzia eta eskaintza batzuk garatzea, ezin baitugu gure turismo-eskaintza tokirik ezagunenetan bakarrik oinarritu.

Ondo dakigu landa-turismoa oso garrantzitsua dela Nafarroan, baina, gure aburuz, lan handia egin dezakegu oraindik hura garatzen segitzeko eta gure herri zein haranetako motor ekonomikoa bihurtzeko.

Nafarroako dibertsitate geografiko, sozial eta kulturala kontuan hartuta, turismoak garapen-aukera handiak eskaintzen ditu, eta Nafarroako errealitatea gure mugetatik kanpo sendotzeko modu bat ere bada.

Bisita egingo diguten pertsonak ere aintzat hartu behar dira; izan ere, ekarpen ekonomikoa egiteaz gain, haiek izango dira, hain zuzen, aipatu Nafarroako —eta, hortaz, Euskal Herriko— errealitatearen bozeramaileak, zeinak, beren lekukotasunaren bitartez, gure aberastasun soziokulturalaren berri emateko abagunea eskainiko diguten.

2019-2023 LEGEALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

Gobernantza eta turismo-estrategia

1. Turismoak Nafarroan duen benetako garrantzia sakonki aztertzen jarraituko dugu: zenbat lanpostu sortzen dituen, zer-nolako ekarpena egiten dion BPGd-ri, zein zuzeneko eta zeharkako ekonomia-jarduera eragiten dituen, zer garapen izan duen azken urteotan, zein merkatu izan ditzakeen... Bestalde, langile eta eskumen gehiagoren bidez, Nafarroako Gobernuak turismo-behatokia indartuko dugu.
2. Egungo plan estrategikoa sustatuko dugu. Horretarako, turismo-eragileekin ados jarrita, epe motzera eta ertainera bideratuta egongo diren neurri zehatzak abiatuko ditugu.
3. Nafarroan turismoa antolatzeko modua aldatuko dugu, lehenengo toki-mailan, gero turismo-guneetan eta, azkenik, Nafarroa osoan. Erabakiak behetik gorantz hartuko dira, eta Gobernuak aholkulari eta laguntzaile jardungo du, tokiko mapa berriaren garapenarekin bat eginda.
4. Datuen azterketa eta turismo-eragileekiko harremana abiapuntu, merkatu potentzialei begirako jarduketan plangintza egingo dugu, jarraitutasunik gabeko merkatuetan ekintza zehatzez harago.
5. Turismoaren mahai sektoriala eratuko dugu, turismo-eragileekin ohiko eta zuzeneko harremana sendotzeko eta beren proposamenak nahiz iritziak jasotzeko. Mahai horrek egungo Turismo Kontseilua ordeztuko du, eta zabalagoa, parte-hartzaileagoa eta erabakitzaileagoa izango da.
6. Erakunde publiko-pribatuen eta turismo-elkarteen lana indartuko dugu, oso garrantzitsua baiteritzogu. Hori lortze aldera, elkarrekin egingo dugu lan, eta beharrezko laguntza teknikoa eta ekonomikoa eskainiko dizkiegu, legealdi osorako adostuko den plan ekonomikoko baten bitartez.
7. Harremana sendotuko dugu turismorekin lotutako beste eragile batzuekin, haiek ere beharrezkoak direlakoan baikaude. Hala, sektorearekin loturiko nekazariak, merkatariak, artisauak, abeltzainak eta beste zenbait profesional gonbidatuko ditugu.
8. Turismo-elkarteen modernizazioari lagunduko diogu, erakunde sendo eta profesionalizatuak izan daitezen, eta, horrela, turismoa indartzeko parada izan dezaten, bai eta beren produktuak merkaturatzeko gaitasuna ere.
9. Turismo-ekimenak leku bakoitzera (udalerria, harana, gunea) egokitu beharko dira; batetik, izugarritzko proiektuak saihestuta, eta, bestetik, gunea bakoitzeko baliabide endogenoak kontuan hartuta. Gunea bakoitzeko jasate-ahalmena aztertu eta plangintza antolatua egingo dugu.
10. Egungo turismo-araudia modernizatu ez ezik, araudi berriak sortu ere egingo dugu legerik gabeko esparruetan, hala nola gida profesionalen eta jarduera-enpresen arloetan.
11. Sailen arteko koordinatzailearen irudia sortuko dugu, turismoarekin zerikusia duten gaitan sailen arteko zubi-lana egin dezan.
12. Gizonen eta emakumeen eta batzuen eta besteen autonomia sozioekonomikoen arteko berdintasuna bultzatzeko neurriak hartuko ditugu, turismo-jarduera kontu horiek sustatzeko baliagarritzat jota. Horrez gain, autoenplegua babestuko dugu.

13. Funtsezkotzat jotzen dugu Nafarroako toki-erakunde eta turismo-partzuergo guztiekin lankidetzan aritzea, bereziki Iruñeko Udalarekin, zeinarekin turismoaren garapen, dinamizazio eta sustapenerako urteko hitzarmen bat sinatuko dugun. Izan ere, Nafarroako turismoak garapen handiagoa izango du elkarlanak bultzaturiko jarduketek eskutik.

Turismo-produktuen garapena

14. Turismo-dinamizatzailearen irudia bultzatuko dugu, gunean gunekoa. Haren xedea izango da, batetik, gune horretako turismo-egitasmoak babestea, eta, bestetik, tokiko interesen eta Gobernuak izan ditzakeenen arteko bitartekaritza-lana egitea.

15. Bertako gastronomia-turismoa —gure sukaldaritzan, gastronomian eta lurreko produktuetan oinarritua— indartuko dugu. Gure turismo-politikan, funtsezkoa izango da bertako janaria saltzen duten establezimenduei eta gastronomia-ekitaldiei laguntzea, gastronomia-ibilbideak baliatzea eta Nafarroako INTIA institutuarekin lankidetzan jardutea.

16. Ingurumen Departamentuarekin eta Lursarea-Nasuvinsarekin elkarlanean, oinez, bizikletaz eta zaldiz egiteko turismo-bidexken sare baten eraketa sustatuko dugu. Orobat, eskualdez haraindiko eta Europako beste sare batzuekin lotuta egon dadin lan egingo dugu.

17. Urtaroez haragoko turismo-plan bat proposatuko dugu, eta behe-denboraldirako —batik bat, neguan eta udaberrian— eta aste barruko bezeroei begirako kanpaina zehatzak antolatuko ditugu.

Prestakuntza

18. Gure sektorearen kalitatea hobetze aldera, prestakuntza-beharrak antzemateko ikerketa bat egingo dugu. Horiek abiapuntu, etengabeko prestakuntza-programa bat eskainiko dugu, zeina turismo-eragileekin adostuko den prestakuntza-plan baten gauzatuko den.

Sustapena eta merkaturatzea

19. Etorkizunean, Euskal Herria turismo-marka sortzea proposatu nahi dugu. Marka horrek, produktu integrala eskaintzeko aukera emateaz gain —Euskal Herriko gainerako lurraldeekin batera—, ahalmen handia ekarriko dio gure turismoari.

20. Halaber, bide emango diogu gainerako autonomia-erkidego mugakideekiko lankidetzari, turismoaren baitako produktuak eta jarduketak elkarrekin garatu eta sustatu ahal izateko (Donejakue bidea, Ignaziotar bidea, Ardoaren Ibilbideak, Pirinioak, EuroVelo...).

21. Bi mugetako erkidego mugakideekin batera, Pirinioak marka indartzeko jarduketak egingo ditugu.

22. Online-erreserbak egiteko turismo-plataforma birtual eta nagusi bat sor dadin proposatuko dugu, landa-turismoko ostatuen eta jardueren merkaturatzea sustatzeko.

23. Merkatu-ikerketak egingo ditugu, bezeroen joerak ezagutzeko. Azterketa horietan jasotzen diren datuak funtsezkoak izango dira, gure turismo-sustapenerako estrategiaren oinarria osatuko baitute.

24. Turismo-azoketan dugun presentzia aztertuko dugu, hala nola egungo eta etorkizuneko eskaintza eta azoka horien baliaagarritasuna ere. Hala, etorkizunean erabakiak hartzeko aukera izango dugu.

25. Turismo-merkaturatzea sustatuko dugu. Horretarako, laguntza ekonomikoa eta babes teknikoa eskainiko dizkiegu Nafarroako turismo-produktuak merkaturatzen dituzten bidaia-agentziei.

26. Sare sozialetan, turismoa sustatzeko talde bat antolatuko dugu, eta garrantzi handia emango diogu haren zereginari.

Sektoreari lagunduko diogu

27. Gizarte-ekonomiako ekimenak babesten dituzten enpresen eta turismo-zerbitzuen eraketa indartuko dugu. Enpresamota horrek laguntza berezia jasoko du, hala ekonomikoa nola aholkularitzarako.

28. Landa-ingurunean, profesionalen elkarteak sortzen ahaleginduko gara, landa-turismoa berpizteko eta merkatu-hobi hori dinamizatzeko.

29. Laguntza ekonomikoen plan bat jarriko dugu abian, legealdi osorako. Urtero aplikatuko da, uneko aurrekontu-eskuragarritasunaren arabera.

30. Enpresei eta turismo-eragileei aholkularitza integrala eta jarraitua emateko talde bat sortuko dugu.

31. Dinamizazio- eta sustapen-kanpainen luzaroan iraungo dute, eraginkorrak izan daitezzen. Urtero, eta datu objektiboak aintzat hartuta, haien eraginkortasuna ebaluatuko da.

32. Turismo-azpiegituretako inbertsioak bultzatuko ditugu, hauexek ekarriko dituztenak: energia aurrezteak, material ekologikoak erabiltzea, bideragarritasun ekonomikoa, ingurumenarekiko begirunea, eta bai gazteentzako eta emakumeentzako bai gizarte-ekonomiako eta tokiko enpresei begirako enplegua sortzea.

33. Sustapenera bideratutako laguntzek alderdi hauek lehenetsiko dituzte: iraupen ertaineko edo luzeko jarduerak eta ekitaldiak, bertako produktuetarako laguntza, turismo iraunkorra eta sare sozialen nahiz teknologia berrien erabilera.

34. Finantzaketa abantailatsuaren bitartez, lankidetzak indartuko da banketxe etikoekin edo Nafarroako etorkizuneko banku publikoarekin —sortzen baldin bada—.

35. Teknologia berrietarako irispidea sustatuko dugu turismo-enpresen artean, batez ere landa-guneetan, aipatu teknologiak ezartzeko zein erabiltzeko laguntzak baliatuz.

36. Sindikatuekin eta turismo-enpresarekin lan egingo dugu, lan-arloan indarrean diren legeak betetzen eta hobetzen direla zaintzeko beharrezko neurriak hartzeko, esparru horretan gehiegikeriarik gerta ez dadin.

37. Laguntzeko neurrien bitartez, sektoreko profesionalen lana duinduko dugu: batetik, beren prestakuntza hobetuko dugu; bestetik, protagonismo handiagoa eskainiko diegu turismo-produktuen garapenari, sustapenenari eta merkaturatzeari dagokienez.

38. Denboraldiak, ordutegiak eta soldatak direla eta, bestelako neurriak aztertuko ditugu sektoreko kontratazioa turismo-errealitatera egoki dadin.

ELIKADURA BURUJABETZA

Egungo errealitatea abiapuntutzat hartuta, Nafarroak elikadura burujabetzarako trantsizioari aurre egin behar dio, pertsonentzako elikagaiak ekoitziko dituzten nekazaritza eredu autonomo eta iraunkorragoen bila. Elikagai onak, bidezkoak eta garbiak. Elikagai onak, hala osasunaren ikuspuntutik, nola ikuspegi organoleptiko zein emozionaletik. Egindako lana saritzen duten eta herritarrek eskuratu ahal izango dituzten bidezko elikagaiak. Eta, nola ez, elikagai garbiak; hondakin kimikorik gabeak, GEORik gabeak, eskura dauden baliabide naturalak erabili dituzten nekazari eta abeltzainek ekoitzitako produktuak, etorkizuneko nekazari eta abeltzainen jarraitutasuna bermatzen dutenak.

Horretarako, ikuspegi aurrerakoian oinarritutako nekazaritzako elikagaien politikak aplikatu behar dira, nekazaritza arloko familia-ustiapen profesionala erreferente duen gizarte eredu ardatz hartuta; izan ere, eredu horren baitan nekazari eta abeltzainek beren ustategiak zuzen-zuzenean lantzen dituzte, ekonomia sortzen eta lurraldea egituratzen dute, horrela landa-ingurua biziberrituta.

Hortaz, beharrezkoa da aplikatzen diren politikek helburu estrategiko jakin batzuk izatea: elikagaiak ekoiztea, commodities direlakoak baztertuta; funtzio aniztasuna; sistema autonomoak, sistema zaurgarriak baztertuta; biodibertsifikazioa sustatzea, monolaborantzaren aldean; genero ikuspegia bermatzea; enplegua sortzea, nekazaritzari lotutako biztanleria mantendu edo handituz; gazteak barne-hartzea; nekazaritza soziala, etorkizuneko nekazaritza bultzatzea; produktuen kalitate berezituak: JDak, AGBak; osasunari eta sistemen iraunkortasunari lotutako kalitatea; nekazaritza ekologikoa sustatzea eta GEORik gabeko labore zein lehengaiak ezabatzea; konfiantzan oinarritutako kalitatea: banaketa-bide laburrak sustatzea; mantenugaiak birziklatzeko sistemak; eta energiari dagokionez efizienteak diren eta Berotegi Efektuko Gasen isurtze txikia duten sistemak (BEG).

Laburbilduz, ekoizpen prozesuetan esku hartzeko orduan, horien globaltasun eta konplexutasun osoa izan behar da kontuan. Kontsumo ereduetatik bertatik (dietak) hasi behar da aldaketa; zaborretan bukatzen duen janariaren portzentajea murriztu behar da, eta ganaduaren maneia, nekazaritza-errendimendua zein lurzoruaren kudeaketa hobetu. Horrekin guztiarekin, hobetu egingo dira bai giza osasuna bai animalien ongizatea, klima aldaketaren zein biodibertsitatearen galeren prebentzioa erraztuz.

2019-2023 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

Neurriak sektoreka

Helburu estrategikoei epe luzerako nekazaritza politiken norabidea markatu behar badute ere, epe laburreko helburu nagusiak nekazaritza-sarearen biziraupena eta kalitatezko elikagaien ekoizpena bermatzea izan behar du. Hain zuzen ere, hauek dira planteatzen daitezkeen neurrietako batzuk:

- Zerealak, oleaginosoak eta proteaginosoak (ZOP):

INTIA gisako enpresa publikoei lotutako ustiapenen gaineko aholkularitza zerbitzuek hitzarmen hau koordinatu eta dinamizatu beharko lukete, bereziki egituratu gabeko merkatuetan eta etorkizunerako interes handia duten produktuei dagokienean, besteak beste:

- a) Giza kontsumorako zerealak. Bertoko gari motak berreskuratzea eta mota planifikagarriak erabiltzea.
- b) Giza kontsumorako lekadunak. Giza kontsumorako lekadun ekologikoen eskari handia dago ase gabe.

.- Frutak, ortuariak, mahastiak:

- Fruta eta barazkien merkatua ez da industrializazio eta esportazioan soilik zentratu behar. Hurbileko merkatua garapen handiko merkatua da eta potentzial handiagoa dauka sistema ekologikoetan.
- “Oraindik desagertu ez diren” eta kontsumo-nitxo interesgarriak izan ditzaketen bertoko fruta eta ortuari moten gaineko esperimendazio eta aholkularitza. Nafarroako ardoak sendotzea, lurraldeari eta ardo zein mahats motei dagokienean ezberdinak izateak dakartzan indar-guneak aprobetxatuta.
- Ahaztutako mahats motak berreskuratzen jarraitzea, ardo berriei berezitasuna emate aldera.
- Tokiko eskaria eta merkatu-nitxo espezifikoak hornitzeko gai diren artisau kontserbategi eta upategiei babesa ematea.

.- Behi-esnea

•Esne-kuoten desagerpenaren ondorioz, prezioari dagokionez hegakortasun handiko zikloak izan ditzakeen azpisektorea da; eta, sargaien prezioan izandako zikloekin batera, ustiategietan bideragarritasun arazoak eragin ditzake. Marjinen gaineko aseguruak garatzeko babesa.

•Ekoizpen-gune tradizionaletan (bazka-larreetan) ekoizpen mota hau mantendu ahal izateko neurriak hartzea.

•Behi-esnea ekoitzi, eraldatu eta saltzeko proiektuei ikusgaitasun handiagoa ematea, baita ekoizpen ekologikoari dagokionean ere, ustiategi txikien zein mendi-inguruko ustiategien biziraupena ahalbidetze aldera.

.- Behi-haragia, ardi-haragia, zaldi-hazienda

•Behi, ardi zein zaldiekin sistema estentsiboan diharduten haragi ekoizleek zailtasun handiak izaten dituzte produktuaren balioa nabarmentzeko, AGBak izan arren. Sargaien prezioek, oster, diru-laguntzarik gabe bideragarri izateko aukera galarazten dute. Mota horietako ganadurekin lan egiten duten ustiategiek indar-gune handiak dituzte, honakoak besteak beste: erabili gabe geratuko lirakeen bazka-baliabideak aprobetxatzeko gaitasuna dute, baita mota horretako sistemei lotutako funtzio aniztasuna ere.

•Hori dela eta, ezinbestekoa da mendiko bazka-larreak aprobetxatu ahal izateko erraztasun gehiago ezartzea. Basogintza eta ingurumen arloko eragileekin akordioak bilatzea, baso eta mendiko artzaintza garatze aldera.

•Nekazaritzako ekoizpenen, bereziki zerealen, gaineko koordinazio eta erregulazioa hobetzea, uztondo eta eskortak aprobetxatuta, artzaintzaren funtzio tradizionalari eusteko eta bestela alferrik galduko lirakeen baliabideak kalitate handiko haragi bilakatzeko.

•Artaldeek ingurumenean eragiten dituzten abantailak (ingurumen arloko zerbitzuak) kontuan izatea; izan ere, haiei esker lortzen da mendiak garbi mantentzea eta, ondorioz, suteak saihestea, bertoko arrazak mantentzea, bestela aprobetxatuko ez lirakeen baliabideak aprobetxatzea, mendi inguruak eta babesgabeko guneak biziz betetzea... (Landa Garapenerako Laguntzei buruzko Europako 1305/2013 Erregelamenduan jasotako alderdiak).

•Bertoko arrazen eta desagertzeko arriskuan dauden arrazen babesa mantendu eta sendotzea.

.- Ardi-esnea

•Azken urteotan, azpisektore honek argi utzi du ekoizpen, eraldaketa eta merkaturatzea bide laburretan integratzeak posible egiten duela bertoko arrazen eta tokiko baliabideen bitartez ustiategi bideragarri eta iraunkorrak garatzea.

- Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da bertoko arraza eta baliabideei lotutako eredu eta jatorri deiturak defendatzea, horiek funtzio aniztasuna dakartelako berekin.

- Ekoizle-eraldatzaileen ereduak sustatzeak baliabideen balioa nabarmentzea ahalbidetzen du, epe luzera ustiategi bideragarri eta iraunkorrak eskaintzen dituelarik.

- Eredu horiei babes tekniko-komertziala eskaintzea, baita ereduok aurrera eraman nahi dituzten gazteei ere.

.- Monogastrikoak

- Hegatzaintza arloko proiektu ekologikoak ezartzea; horrek, oso proiektu interesgarriak garatu ahal izateko aukera eman die aurretik nekazaritza egitura txikia zuten gazteei, baita inolako egiturarik ez zutenei ere. Horrelako ekimenek babes tekniko zein komertzial handiagoa izan beharko lukete.

- Hegazti-haragiari edo bestelako hegatzaintzari lotutako ekimenak sustatzea.

- Txerri ekoizpena ere Nafarroatik kanpoko enpresa gutxitan integratuz doa. Euskal Txerria markari babes ematea, txerri industrialaren aldean kalitatezko alternatiba den aldetik (Iparraldean ere JD dauka).

.- Erlezaintza

- Erlezaintzari kalte eragiten dioten pestizidak zaindu eta kontrolatzea. Nikotinoideak debekatzea.

- Erlezaintza arloan laguntza tekniko eskaintzen duten elkarteak babestea, nekazarietako lankidetzak sustatzea eta erlezaintza sektoreari zuzenean ezar dakizkiokeen ikerketa proiektuekin kolaboratzea.

.- Nekazaritza eta abeltzaintza sistema mistoak:

- Inguruari egokitutako sistema mistoen balioa nabarmentzeko bideak bilatzea.

I+G+B

- .- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Agronomia fakultatearen eta INTIA enpresa publikoaren arteko koordinazioa hobetu eta optimizatzea; INTIA nekazaritza eta elikadura arloko aholkularitzan espezializatuta dago eta langile kualifikatuak ditu, baita sektorearekin harreman estua ere.

- .- Bai ikerketa arloan, bai esperimentazio eta aholkularitza arloan, herritarrek eskatzen ez dituzten produktuak (GEOetara) bideratutako esfortzu eta baliabideak ezabatzea -ekoizpen eredu jakin batzuen (ekologikoa) aurrerapena oztzatzen dutelako- eta, horien ordez, garatu gabeko lan-ildoak ezartzea. Horrela, herritarren eskariari erantzuteaz gain, gizarteari alternatiba autonomo eta anitzagoak eskaintzen zaizkio, tokian tokikoak eta inguruari egokituta.

- .- Hazien Sarea babestea. Ekoizleen eta kontsumitzaileen helburuak aurretik aipatutako zentroekin koordinatzea, bertoko hazi eta landareei lotutako lan-ildoei lehentasuna emateko eta ekoizpen eta banaketaren egituragatik garatzen ez diren baina merkatu-nitxo interesgarria izan lezaketen laborantzei garrantzia emateko.

Ekoizpena, eraldaketa eta merkaturatzea

- .- Errentaren % 50 gutxienez nekazaritza edota abeltzaintzatik jasotzen duten nekazari eta abeltzainei lehentasuna

ematea, eta laguntza bereziak ematea ingurumena eta habitata zaintzen duten nekazari eta abeltzainei, baita bazkalarre zein mendiak garbi mantentzen dituztenei ere, suteei aurre egiten laguntzen baitute.

.- Muga natural argiak dauzkaten inguruen (mendien) alde diskriminatzea.

.- Produktu ekologikoak eta bertoko laborantza zein ganadua lantzen dituzten nekazariari babes ematea. Tokiko barietateen ekoizleak eraldatze-industriarekin eta banatzaileekin koordinatzea.

.- Kalitate handiko elikagaietan (ekologikoak) eta hurbileko kontsumitzaileetan oinarritutako ekimen txikiak gehiago babestea, hala eraldaketari dagokionean (esnekiak, haragiak... eraldatzeko kooperatibak) nola merkaturatzeari dagokionean (kontsumo kooperatiba eta taldeak).

.- Eraldaketari eta salmenta zuzenari esker tokiko baliabideei (ganadu arrazak, mendiko bazkalarreak, tokiko egiten jakitea) balioa ematen dieten eta sostengu handiko ereduak sortzen dituzten ekoizpen ereduak nekazaritza arloko beste ekoizpen batzuetara eramatea (ardi-esnea, gazta).

.- Salmenta zuzena eta merkaturatze bide laburrak arautzen dituzten araudi eta legeak garatzea, eta babes finantzario, tekniko eta komertziala eskaintzea.

.- Tokiko merkatuak mantendu eta estimulatzeko proiektuak garatzea, landa ingurua garatzeko elkarteekin eta tokiko erakundeekin lankidetzan.

.- Lurralde osoan eraldaketa-zentroen sarea antolatzea, ekoizpenaren eraldaketa eta merkaturatzea errazteko eta nekazariak autonomia lortzeko. Sareak eraldaketak bideratzeko zerbitzua eskainiko du: barazkiak, esnekiak, fruta, haragia, etab. Tokiko ekintza taldeek kudeatuko dute.

Prestakuntza, informazioa eta komunikazioa

.- Prestakuntzaren baitan nekazaritza eta ingurumen arloko formazio sendoa barne hartzea. Horri esker, titularrak etorkizuneko nekazaritzan trebatu ahal izango dira.

.- Bereziki, emakumeentzako prestakuntza ikastaroak eskaintzea eta nekazaritzako produktuen eraldaketa eta merkaturatzeari buruzko proiektuak garatzea.

.- Kontsumitzaileak, oro har, elikadurarekin eta, bereziki, elikadura burujabetzarekin lotutako alderdian trebatzeko ekimenak antolatzea.

.- Lurralde eta kultura bakoitzari lotutako ekintza sozial kolektiboa dinamizatzea, komunitateen eta ingurumenaren arteko loturak sendotzeko eta tokiko ekonomiak berreraikitzeko, betiere, natura zein pertsonen zaintzan oinarrituta.

.- Transgenikoei buruzko politikak aplikatzea, honako alderdiak oinarri hartuta: informazioa, gardentasuna, kontrola, nekazaritza sektoreari zuzendutako komunikazio eta aholkularitza, Administrazioak transgenikoen erabilera eta laborantza gaitzestea, eta horiek ezabatzeko jarrera proaktiboa.

.- Europar Parlamentu eta Kontseiluaren 2015/412 Zuzentarauak (UE) eskain litzakeen aukera legalak aztertu, analizatu eta baloratu, Nafarroan genetikoki eraldatutako organismoen laborantza murriztu edo debekatzera bidean.

Erregulazioak, diru-laguntzak eta fiskalitatea

.- Hirigintza, osasun publiko, ingurumen eta bestelako arauen erregulazioa malgua izatea nekazaritza eta abeltzaintza produktuen eraldaketan eta salmenta zuzenean diharduten ustiategientzat.

.- Administrazioaren menpeko jantoki publikoak tokiko elikagai ekologikoz hornitzea.

.- NPE berriari buruz egin beharreko eztabaidan, honakoak planteatzea:

a) Bigarren zutabeari (gazteak, inbertsioak, nekazaritza eta ingurumena...) lehenengoari (errenta) baino garrantzia handiagoa ematea.

b) Eskubide historikoen desagertzea sustatzea.

c) Ordainketak erregionalizatzea.

d) Nekazariarentzako laguntzak eskaintzea, betiere, nekazari profesionala, familia-ustiapena eta landa-garapen iraunkorra nekazaritza arloko politiken erdigunean kokatuta.

.- Foru Ogasunak kudeatzen dituen zergei dagokienean:

a) Ustiategiko lehengaien eraldaketa Industria gisa ez sailkatzea, nekazaritza jardueraren osagarri gisa baizik; horrela, egun ematen diren eskakizun administratiboen aldeak desagertzeko.

b) Ekoizpen ekologikoko ustiategien inbertsioak ingurumen arloko inbertsioetat hartzea beti, dagozkien hobari fiskalak barne.

Nekazaritza sektore estrategiko gisa

Ikuspegi ezberdinak daude sektore honetatik espero denaren gainean. Alde batetik, beste sektoreen maila berean jartzen da eta dimentsio eta produktibitateari lotutako estrategiak planteatzen dira, beste edozein industrian dauden helburu berak markatuta: hazkundea, produktibitatea, nazioartekotzea...

Beste alde batetik, industria sektorearekin parekaezina den sektore gisa aurkezten da, zenbait arrazoitan oinarrituta: naturalialibideekin lotura estua du, elikagaien hornitzaile den neurrian sektore estrategikoa da, babesik gabeko inguruetan enplegua sortzen du, ondare naturala mantentzen du (arrazak eta barietateak), paisaiak babesten ditu, uraren zikloa erregulatzen du...

Nafarroan, zenbait nekazaritza eredu elkartzeko dituen lurraldea izaki (nekazaritza industrialak eta landakoa), nekazaritza arloko politikan zenbait irizpide kontuan izan behar dira:

.- Familia ustiapenaren eta landa-garapen iraunkorraren diskriminazio positiboa.

.- Ingurumen zerbitzuen ordainketa.

.- Erresilientzia eta elikagaien segurtasuna bermatzea.

.- Lurralde egituratu eta orekatua bermatzea.

Ekoizpen ereduak

Eskura dauden baliabide ekonomikoak aprobetxatzeko eskatuko diote herritarrek Administrazioari; izan ere, naturako baliabideak eta nekazaritza ondareak kalitatezko elikagaiak eskaintzeko erabili nahi dira, orain zein epe luzera; betiere, kopuru nahikoan eta kanpo-menpekotasunik gabe. Hortaz, honakoa proposatzen dugu:

- .- Lurraldearekiko loturarik ez duten ekoizpen sistemak ezartzea galarazten duten lege zein arauzko neurriak onartzea; gauza bera egoera hegakorren aurrean hauskorrek diren ekoizpen sistemak ezartzeari dagokionean ere.
- .- Ekonomia, gizarte eta ingurumenari dagokionez iraunkorrak diren ereduaren gaineko laguntzei lehentasuna ematea, beste eredu espekulatibo batzuen gainetik.
- .- Zerga-sisteman, ekoizpen eredu iraunkorrak bultzatzea.



Nafarroa jasangarria

Nafarroa jasangarriaren bidean	115
Tokiko administrazioa	123
Lurralde antolaketa	126

ehbildu

NAFARROA JASANGARRIAREN BIDEAN

Nafarroak, bere ezaugarri geografiko eta sozialen ondorioz, baita ingurumenari lotutako ezaugarrien ondorioz ere, ahalmen oso handia dauka ingurumenaren ikuspegitik eta ikuspegi sozial eta ekonomikotik lurralde jasangarri bati begirako politikak eta estrategiak garatzeko. Bioaniztasunarekin, urarekin, energiarekin, hondakinekin, baso-politikarekin edo kutsadurarekin lotutako politikak ikuspegi integral batean oinarrituta garatuko dituen lurraldea, jasangarritasunaren, ingurumenaren eta ekonomia zirkularren alde jokatu duena, eta kontuan izanzen duena klima-aldaketak ezinbestean ezartzen digun erronkak jokabide irmoa, ausarta, zeharkakoa, premiazkoa eta koherentea eskatzen digula.

Zoritxarrez, hainbat urtean zehar, proiektu suntsitzailetan eta diru-xahutzailetan oinarritutako garapen ekonomikorako eredu bat nozitu behar izan du Nafarroak, natura-baliabideentzat kaltegarria izan dena, eta nagusiki sektore sozial eta ekonomiko jakin batzuei eta enpresa handiei mesede egin diena. Garapen-eredu horrek, halaber, populazioa eta jarduera ekonomikoak Iruñerrian pilatu ditu eta bazterrean utzi ditu gainerako eskualdeak eta herriak.

2015ean Nafarroan gertatutako aldaketa politikoa eta instituzionala abiatu zenetik eredu hori auzitan jartzen duten irizpideak eta politikak ezartzen hasi da, eta eredu hori ezabatzeko urrats batzuk eman dira, norabide berri horrekin talka egiten duten praktikak egon badauden arren. Badago, beraz, ibili beharreko bide luze bat oraindik ere, behin betiko sustatzen ari garen Nafarroa jasangarri horretara eramanen gaituen eredu sozioekonomiko berrira iristeko.

Nafarroa jasangarriaren aukera kaltetzen eta baldintzatzen duten makroproiektuak alde batera utzi beharra dago, “zenbat eta handiagoa orduan eta hobe” dioen eredu hori hain zuzen ere. Bestelako ikuspegi bat ezartzeko garaia da, zauritutako natura- ingurua berreskuratzeko eta zaintzeko garaia, populazioaren nahiz lurraldearen benetako beharren eta aukeren arabera jokatzeko. Ingurumenari dagokionez eta alderdi ekonomikoan nahiz sozialean eredu jasangarri batera eramanen gaituen benetako trantsizio bat abiatu behar da, pertsonen ongizatea bilatuko duena, eta gu geu ere barnean hartzen gaituen ingurumena errespetatuko duena.

Garapen ekonomikorako planteatzen dugun eredu tokiko garapenean oinarritzen da, eskualdeen potentzialitateetan eta beharretan, ingurumenarekiko errespetuan, ekonomia zirkularrean, eta aintzat hartzen du Nafarroa osoko toki-entitateen, gizarte eragileen eta populazioaren parte-hartzea.

Horretarako Nafarroak bere lurraldearen eta bere natura-baliabideen gainean erabakitze eskubidea berreskuratu behar du, eta politika propioak garatzeko tresnak eskuratu behar ditu.

2019-2023 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

Ingurumenaren kudeaketa

.- Ingurumenaren kudeaketa eta baliabideen erabilera eraginkorra. Gaur egun indarrean dagoen araudia bete dadin beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira, baita sortuz joanen den araudi berria betetzeko neurriak ere, eta ingurumenarekin lotutako helburuak ezarriz eta betearaziz joan behar da, lurraldearen antolamendu egokiari, ingurumenaren zaintzari eta Nafarroako populazioaren bizitzari eta ekoizpen-jarduerei bidea emateko.

.- Kontsumo jasangarriaren aldeko estrategiak bultzatzea eta sustatzea, kontsumo arduragabeari aurre egiten diotenak. Gehiago kontsumitzeari aurre eginez, gutxiago eta arduraz kontsumitzearen kultura sustatu behar da, erosteko garaian erabaki arduratsuak hartuz, baita erosketaren publikoaren alorrean ere, garapen jasangarriaren, osasunaren, elikadura burujabetzaren, ekitate sozialaren, kultur-aniztasunaren eta komunitateen indartzearen alde eginez.

- .- Ingurumenarekin lotutako politika propioetan (baso-kudeaketa, ekonomia zirkularra eta ura, inguru naturala, lurraldea eta paisaia, ehiza eta arrantza, ingurumen-inpaktua, lurraldearen antolamendua...) eta bestelako eremu batzuetan (energia, nekazaritza, abeltzaintza, garapen ekonomikoa...) espazioak eta bitartekoak sustatu behar dira koordinazio eraginkor bat gerta dadin eta ikuspegi integral bat ezar dadin, klima-aldaketaren ondorioak murrizteko eta haietara egokitzeko estrategiak gauzatzeko bidean.
- .- Klima-aldaketarako eta Eredu Energetikoaren trantsiziorako Foru Legearen parte-hartze prozesua eta tramitazioa lantzea eta garatzea, eta klima-aldaketari aurre egingen dion bide-orri bat ezartzea, arazo horrek ezartzen dizkigun benetako beharrei erantzunen dioten anbizio handiko helburuak jasota.
- .- Ekonomia Zirkularerako Nafarroako 2030 Agendan jasotako helburu, lan-ildo eta neurri guztiak ezartzea eta haien segimendua egitea, Administrazio Publiko guztietarako zeharkakoa eta koherentea izanen den ikuspegi batetik abiatuta.
- .- Fiskalitate berderako irizpideak eta neurriak garatzea.
- .- Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Itunari bultzada sendoa ematea.
- .- Herritarren ingurumen hezkuntza eta kontzientziazioa sustatzea; herritarrak sentsibilizatzeko programak eta jarduerak sustatzea eta burutzea.
- .- Administrazioetik ingurumenari buruzko informazio egiaztagarria, egiazkoa eta zientifikoki frogatua bermatzea.
- .- Europako ingurumen proiektuetan parte hartzea.

Bioaniztasuna

- .- Bioaniztasunaren mantentzea eta berreskuratzea bermatzea, politika integralen eta zeharkakoen bitartez, baita berariazko azterlan eta proiektuen bitartez ere.
- .- Espezieak eta habitatak. Europar Batasunaren intereseko espezieen eta habitaten egoera eguneratzea, eta Natura 2000 sareari dagozkion 42 KBGei dagozkien kudeaketa-planen segimendua egitea eta bultzatzea.
- .- Espezie mehatxatuak: oraintsu berri den espezie mehatxatuen katalogoaren barruan dauden espezieak kontserbatzeko eta berreskuratzeke planak diseinatzea eta gauzatzea.
- .- Araudiak: arlokako araudiak eta bioaniztasuna kudeatzeko araudiak eguneratzea.
- .- Izurriak eta espezie inbaditzaileak zorrotz kontrolatzea eta egoki kudeatzea.
- .- Bioaniztasuna mantentzearekin eta berreskuratzearekin bat etorriko diren nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-jarduerak sustatzea.
- .- Transgenikoei dagokienez, honako ideietan oinarrituko diren politikak ezartzea: informazioa, gardentasuna, kontrola, nekazaritza-sektorearekiko komunikazioa eta aholkularitza, Administrazioak erabilerari eta hazkuntzari uko egitea, eta transgenikoak desagerrarazteko jarrera proaktiboa.
- .- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/412 Zuzentarauak eskaintzen dituen legezko aukerak aztertzea eta balioestea, Nafarroako lurraldean genetikoki eraldatutako organismoen hazkundearen murrizteari edo debekatzeari begira.

Ura

.- Ura ez da ekoizpen-baliabide edo salerosgai hutsa, hori baino askoz gehiago da eta, ondorioz, esan nahi duen guztiarengatik baloratu behar da. Uraren kudeaketa diseinatzeko garaian uraren ziklo osoa hartu behar da kontuan, ziklo horretan eragina duten eta bertan sartzen diren jarduera guztiak aintzat hartuz, balioetsiz eta ebaluatuz: baso-kudeaketa, industria, nekazaritza, turismoa, eraikuntza... Eta hainbat hamarkadatan ura kudeatzeko garaian nagusi izan den kudeaketa-eredu merkantilista eta desarrollista bazter utzi behar da, uraren kultura berri batean oinarritutako kudeaketara iristeko, kudeaketa publikoa indartuta.

.- Uraren ziklo osoan kalitate eta kopuru egokiak bermatuko badira, eta ur-ekosistemak bere osoan berreskuratuko badira (iturriak, ibaiak, ur-bazterrak, lakuak, hezeguneak...), haietan eragiten duten inguru eta ekosistema guztiak aztertu eta babestu behar dira, ikuspegi zabal eta integral batean oinarrituta.

.- Ura ondare komun gisa kudeatzea, Uraren Zuzentzarauak jasotzen dituen jasangarritasun eta gardentasun printzipioetan oinarrituta, eta gai honetan inplikaturako eragile guztiak, sozialak nahiz instituzionalak, parte-hartze guneetan bilduta.

.- Ura kudeatzeko agentzia publiko bat sortzea, eta uraren nahiz energiaren kudeaketa entitate bakarrean elkartzeko aukera aztertzea.

.- Nafarroan Hiri-erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailea ezartzea. Parte-hartzean, jasangarritasunean, gardentasunean eta kudeaketa publikoan oinarrituta, eta kontsumo neurritzkoak eta jasangarriak bultzatuko dituen eta ingurumen-inpaktua ahalik eta gehien murriztuko duen Uraren Estrategia Marko baten barruan txertatuta.

.- Hornikuntza-beharrak asetzeko, uraren ziklo integralari lotuta, beharrezkoak diren azpiegituren azterketa sakona egitea, eta azpiegitura horiek haien funtzionamendua eta zerbitzua optimizatzeko helburuarekin kudeatzea.

.- Itoitz-Ubidea sistemaren eta proiektuaren berrikuspen eta azterketa kritikoa egitea, eta bigarren faserako proiektua herritarren, nekazaritzaren eta lurraldearen benetako beharretara egokitzea, ingurumenaren aldetik eta alderdi ekonomikotik nahiz sozialetik jasangarria izanen den ikuspegi batetik abiatuta.

.- Azpiegituren alorrean Nafarroako Gobernuak dituen kontzesioen inguruko alderdi teknikoak eta juridikoak kudeatzeko administrazio-unitate bat sortzea.

.- Esako urtegia handitzeko lanak geldiaraztea, proiektuaren segurtasunaren inguruan Nafarroako Gobernuak agindutako ikerketa-lana bukatzea eta azterlan horren ondorioak aztertzea.

.- Uraren eta ur-baliabideen inguruan dauden edo sor litezkeen gatazkak uraren kultura berriaren ikuspegian oinarrituta kudeatzea, komunikazioan, parte-hartzean, eta mahai gainean jar litezkeen alternatiba ezberdinak aintzat hartzean oinarritutako politika batetik abiatuta.

.- Uraren kudeaketa jasangarriarekin koherentea izanen den Ureztatze Plana onartzea eta gauzatzea.

.- Gaur egun indarrean dauden ureztatze-sistema tradizionalak modernizatzea, toki-garapen jasangarria kudeatzeko baliabide gisa.

.- Hornikuntza-uraren (urtegietako eta ibaietako zentral hidroelektrikoak) eta saneamenduaren (kogenerazio-zentralak eta hondakin-urak arazteko estazioak) ustiapen energetikorako irizpideak ezartzea, eta ustiapen horiek eredu publiko eta jasangarri baten bitartez kudeatzea.

- .- Ur-hornikuntzan eta saneamenduan tasa progresiboak ezartzea, kontsumitutako eta tratamendua emandako ur kopuruaren arabera.
- .- Hirigintza-garapen berrietan euri-ura biltzeko eta berrerabiltzeko sistemak sustatzea.
- .- Energia berriztagarriak uraren ziklo integralaren fase guztietan txertatzea, batez ere uraren ponpaketetan.

ENERGIA

Gaur egungo energia-sistemaren trantsizioa burutzea planteatzen dugu, sistema burujabe eta jasangarri batera igaroz, kontsumoaren murrizketan, eraginkortasunean, energia berriztagarrietan eta ekoizpen dibertsifikatu eta deszentraliztau batean oinarrituta. Hori guztia, toki-entitateek eta populazioak parte hartuta.

- .- Oligopolioetan oinarrituta dagoen gaur egungo sistemaren aurrean, energia-sistema bere eremu guztietan demokratizatzeko apustua.
- .- Energia kudeatzeko agenzia publiko bat sortzea, eta energiaren nahiz uraren kudeaketa entitate bakarrean elkartzeko aukera aztertzea.
- .- Toki-entitateei aholkularitza eta diru-laguntzak ematea eredu berri batean aurrera egingen duten energia-programak eta energia-proiektuak diseinatzeko, planifikatzeko eta garatzeko.
- .- Eremu guztietan kontsumoa murriztearen, energia-autokontsumoaren eta banatutako ekoizpenaren aldeko apustu garbia eta sustapen-lana egitea.
- .- Energia beharrak asetzeko behar diren energia-azpiegituren azterketa sakona egitea eta azpiegitura horiek haien funtzionamendua eta zerbitzua optimizatzeko helburuarekin kudeatzea.
- .- Energia-eskaerak irizpide espekulatuzaileekin, desarrollistekin eta interes ekonomiko hutsekin kudeatzen dituzten proiektuei uko egitea, autobide elektrikoak esate baterako, eta energiaren kudeaketa publikoaren aldeko eredu baten aldeko apustua egitea, autokontsumoa bultzatuko duena eta benetako energia beharrak asetuko dituen.
- .- Autokontsumoan oinarritutako tokian tokiko energia-planen definizioa eta gauzatzea sustatzea, tokian tokiko parte-hartzearekin eta kudeaketarekin (ISO 50.001).
- .- Energia-saldoak (balantze garbia) konpentsatzeko bidea emanen duen sistema baterantz jotzea, urteroko maiztasunarekin.
- .- Auzo-komunitateen ekoizpen fotovoltaikoko instalazioen egoera aztertzeke plana eta aholkularitza teknikoa.
- .- Energia berriztagarriak ekonomia zirkularrean txerta daitezen sustatzea.
- .- Administrazioaren eraikinetako instalazioetan energia-zerbitzurako kontratuak sustatzea.
- .- Smart-city energetikoen proiektuak sustatzea. Argindarraren eta erregaien kontsumoa murriztea, bai eraikinetan, bai herritarrentzako instalazioetan, bai mugikortasun-zerbitzuetan.
- .- Energia aurrezte eta energia-eraginkortasuna sektore guztietan sustatzea, indar berezia eginez energiaren kontsumoa

eta transformazioa dela-eta ingurumenean eragin handiena sortzen duten sektoreetan (energia-sektoreak, energiaren transformazioan ari direnak, Castejongo zentralak eta kogenerazioa).

- .- Administrazioaren eraikin-parkea eraikitze eta berritzeko inbertsioak, energia aurrezte esanguratsuak lortzeko.
- .- Europako proiektuetan parte hartzea, aurreztearekin, eraginkortasunarekin eta energia berriztagarriekin lotutako jarduerak finantzatzeko.
- .- Energia berriztagarria erabiltzen duten argindarrerako PPA (Power Purchase Agreement) kontratuak sustatzea, Administrazioak eta toki-entitateak hornitzeko.
- .- Biomasa instalatzeko proiektuak sustatzea, Administrazioak eta toki-entitateak hornitzeko.
- .- Enpresa elektrikoek ur-jauzietan dituzten kontzesioen legezko egoera aztertze eta azterlan oso bat egitea, administrazio publikoak haiek berreskuratzeko izan lezaketen aukera neurtzeko.
- .- Energia-kooperatibak sortzen eta garatzen laguntzea, proiektuak sortzeko eta abian jartzeko laguntza-deialdien bitartez.
- .- Esklusio egoeran dauden familia eta pertsona guztiei bermatzea banaketa-konpainiek ez dietela argindarraren, gasaren eta uraren horniketa moztuko, horretarako berme hori emanen duten lege-xedapenak eginez.
- .- Hiri-inguruetarako gutxiago kutsatzen duten energiak erabiltzeko planak sustatzea, erregai fosilen erabilera baztertuz.

Hondakinen kudeaketa

Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko 14/2018 Foru Legea onestea mugarria izan da Nafarroako hondakinen kudeaketaren arautzean. Helburu nagusiak hondakinen sorrerari aurre hartzea, horien kudeaketa hobetzea, ekonomia zirkularrean aurrera egitea eta klima-aldaketari aurre egitea izan dira, Foru Komunitatearen eskumenen barruan.

Hondakinei buruzko Foru Legea Nafarroako Hondakinen 2017-2017 Planaren agindu bat da, hori baita hondakinen sorrerari aurre hartzeko, hondakin kopurua murrizteko eta horren kudeaketa hobetzeko helburuak lortzeko bitarteko nagusia.

Estatuaren testuinguruan Hondakinei buruzko Foru Legea arau berritzailea da, eta hondakinen sorrerari aurre hartu ahal izateko neurri zehatzak ezartzen ditu, Europako araudiak agintzen duen moduan. Horretaz gain, gai organikoaren % 100aren bilketa selektiboaren aldeko apustua egiten du eta fiskalitate zabal bat aurreikusten du, hondakinak zabortegira eramatearen edo erraustearen gaineko zerga bat ezarritik, eta Hondakin Funtsa bat sortuz hondakinek giza-osasunean eta ingurumenean eragin ditzaketen kalteak murrizteko.

Datorren legegintzaldian alor honetarako gure apustua aipatutako Foru Legea betetzea izanen da, baita Nafarroako Hondakinen Plana garatzea ere. Plan horren filosofia "0 zabor" da, hondakinik onena sortzen ez den hura da dioen filosofia eta, bestalde, Europak sustatzen duen ekonomia zirkularrean oinarrituta dago. Norabide horretan, honako neurriak bultzatuko ditugu:

- .- Hondakinen tratamendu osoa kudeaketa publikoaren bidez egitea, hondakinen bilketan eta tratamenduan eskumena duten toki-entitate guztiak bilduko dituen Plangintza Orokorrerako Mankomunitatearen eraketaren bitartez.
- .- Mankomunitate horrek tratamendu-guneen kontrol publikoa egingen du kudeaketa egokia berma dadin eta, horretarako, toki-entitate bakoitzak bilketa selektiboan, berreskuratzean eta birziklatzean izan dituen emaitzak ezagutu ondoren,

neurri egokiak hartuko ditu Hondakinen Funtsa banatzeko garaian emaitzarik onena lortu dutenei lehentasuna emateko, gai organikoaren bilketa selektiboan batez ere, inpropioen ehunekorik txikiena dutenei hain zuzen ere.

.- Toki-entitate guztietan hondakinen bilketa selektiboaren aldeko apustu sendoa eta orokorra, Europako araudian eta Hondakinen Planean ezarritako helburuak eskuratzeko.

.- Bilketa selektiboaren bidez jasotako gai organikoari, lehentasunez, hondakinak sortzen diren lekutik hurbil dauden tokiko edo eskualdeko guneean ematea tratamendua, gunehoriek lurralde osoan banatuz, tokiko beharretara egokitutako tamaina emanda eta jasangarriak direla bermatuz.

.- Etxeko Konpostajea eta konpostaje komunitarioa nahiz deszentralizatua indartzea, Mendialdeko (Goizueta) ereduari jarraiki. Apustu hau Nafarroako lurralde osora zabaltzeko behar da, entitate bakoitzak gai organikoaren bilketa selektiboa egiteko hautatutako duen planteamendua aintzat hartuko bada ere. Betiere, horren bitartez gai organikoetarako planteatu diren bilketa-helburuak lortzen direla bermatuz gero.

.- “Kutsatzen duenak ordaindu egiten du” printzipioarekin bat etorriko diren neurriak aztertzea, toki-entitateei hondakinak sortzeagatik sistema bat ezartzeko aukera emanen diena. Oso gai garrantzitsua da gure ustez, ez soilik hondakinen kudeaketan ari diren toki-entitateen jarduera balioesteko, baizik eta baita herritarren jardura balioesteko ere; herritarrek ikusi beharko luke tasak ordaintzeko garaian printzipio hori gauzatu egiten dela.

.- Nafarroan dauden edo eraikitzen ari diren tratamendu-gune guztien kudeaketa koordinatuaren bidez lor litezkeen sinergia guztiak baliatzea, horietan guztietan kudeaketaren kontrol publikoa bermatuz eta, hartara, interes pribatuek interes sozialak edo ingurumenari dagozkionak baldintza ditzaten saihestuz.

.- Hondakinen prebentziorako bulegoa eta ekonomia zirkularreranzko bidea bultzatu, bulego horri baliabideak emanez, bai giza-baliabideak eta bai ekonomikoak, plangintza orokorreko mankomunitateari eta eskumena duten toki-entitateei lagun diezaizen plangintzan eta indarrean dagoen legedian ezarritako helburuak betetzen.

.- Kudeatzeko Sistema Integratu ezberdinekin Nafarroako Gobernuak dituen hitzarmenak berrikustea, prebentzioa, berrerabilpena eta hondakinen bilketa egokia nahiz ondorengo birziklatzea hobetzeko eta indartzeko.

.- Murrizteak, berrerabiltzeak, hondakinak bereizteak eta bilketa selektiboa egiteak duten garrantziaren gaineko kontzientziazio-kanpainak sustatzea, norbanakoaren praktika egokiak bultzatuz.

.- Auzo, herri, herri-kolektibo, ikastetxe eta abarren praktika kolektiboak sustatzea. Horiek dira, izan ere, sinergiak sortu eta herritarrengan errotzen direnak. Norabide horretan, funtsezkoa da maila guztietarako hezkuntza-programak abian jartzea eta gauzatzea. Hezitutako gizartea gizarte heldua da eta erabaki egokiak hartzeko gai da. Praktika kolektibo hauek lantokietara ere eramanez behar dira; lantokietan, hain zuzen ere, badaude oso positiboak izan diren hondakinen bereizketari eta birziklatzeari buruzko esperientziak.

.- Ontziak, enbalajeak eta haien hondakinak murrizteko neurriak sustatzea lantokietan, enpresetan eta saltokietan, baita ontzi horiek berrerabilgarriak eta birziklagarriak izan daitezen sustatzea ere. Halaber, prebentzioa eta bereizketa egokia hedatu behar da saltokietan, ostalaritza txikian, baita enpresa handietan ere. Helburuak ahalik eta gai organiko gehien biltzea izan behar du.

.- Azken batean, ekonomia zirkularraren aldeko apustua. Horren filosofoa honela laburtu daiteke: “erabili eta botatzeko jokamoldetik ihes egitea, eta hondakina baliabidetzat hartzea”. Ekonomia zirkularraren aldeko apustu hori hondakinen kudeaketan inplikaturako administrazio guztien eskutik egin beharko da.

Baso politika

Basoa zura baino askoz gehiago da. Baso-politikek, horrenbestez, lurralde bakoitzeko ahalmen guztiak aztertu behar dituzte eta baliabide naturalen ustiapen iraunkorrari lotutako jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa ekarri behar dute, honako helburu hauekin: biodibertsitatea kontserbatzea eta hobetzea, berotegi efektuko gasen isurpenak gutxitzea, atmosferako CO₂-a finkatzea (klima aldaketa arintzea), aberastasuna eta enplegua sortzea eta pertsonen ongizatea hobetzea. Azken finean, baso-politika, abeltzaintza, nekazaritza, turismo eta aisia gizakiaren ongizatearekin uztartu behar dira, betiere naturaren kontserbazioaren ikuspuntua oinarria izanik.

Hori da baso-politikak izan behar duen helburu nagusia, baina, horretaz gain, bestelako helburu batzuk ere bildu behar ditu, honakoak esate baterako: Nafarroako biodibertsitatea mantentzea edo aberastea; baso naturalaren aldeko apustu trinkoa egitea, batez ere lur sail publikoetan; .- Nafarroan ditugun habitat eta espezie guztiak babestea; basogintzaren bidez landa ekonomia dibersifikatu eta bultzatzea; tokian tokiko baso-politikak eta abeltzaintza estentsiboa uztartzea; menditik jasotzen diren produktu guztiei ustiapen iraunkorraren irizpideak ezartzea; menditik modu jasangarrian jasotzen diren produktu guztien lehenengo transformazioa bultzatzea, landa eremuko ekonomia indartzeko; tokian tokiko biomasa eta zirkuito laburrak bultzatzea; mendietako jarduera ekonomikoak turismoarekin eta aisialdiarekin uztartzea; naturan gizarte-aisialdia eta kirol-jarduerak erregulatzea kalte ekologikorik gerta ez dadin; gure mendietan ditugun baliabide naturalen, kulturalen eta etnografikoen balioa nabarmentzea; kanpoko espezie eta espezie inbaditzaileen aurrean politika zorrotzagoa ezartzea; mendiko jardueretan burokrazia arintzea; mendiko suteei dagokionez, hausnarketa orokor bat egitea eta eskualdeko planak adostea, suaren erabilera eta babes neurriak adostuz; basogintzari lotutako lanbideen formazioaren duintasuna bultzatzea eta lan-baldintzen hobekuntza bultzatzea, berriro ere lanbide erakargarria izan dadin.

Ikuspegi orokor hori eta helburu horiek aintzat hartuta, honakoak dira EH Bilduren proposamenak:

Lurralde plangintzari dagokionez:

- .- Eskualdeko Plan Estrategikoak egitea. Plan horiek kontuan izanzen dute gaur egungo egoera sozioekonomikoa eta, besteak beste, aztertuko dute baliabide naturalek nolako ahalmena duten natur ingurua zainduko duen ekonomia iraunkor bat sortzeko. Horretarako, behar-beharrezkoa da eragile sozioekonomiko guztien eta instituzioen inplikazioa. Halaber, planak hainbat erakunderen artean finantza daitezke (toki-erakundeak, administrazioa, landa garapenarekin lotutako eta konprometitutako elkarte pribatuak).

Baso-plangintzari eta kudeaketari dagokionez:

- .- Eskualdeko plan estrategikoetan adostutako lerro nagusienekin herrietako planak garatzea, baso-politika landa eremuko beste politika orokorrekin uztartuz.
- .- Baso-lanetarako laguntzak mantentzea, bi helburu nagusirekin: baso-lanei lotutako enpresa-ehuna modernizatzea eta bultzatzea eta zabaldu nahi ditugun bertako baso naturalak indartzea.
- .- Basogintzari bideratutako enpresa txikien sorrera bultzatzeko laguntzak bideratzea, enpresa horiek trebatzeko eta lan-merkatuan sartzeko.
- .- Biomasa bultzatzeko eskualdeko edo tokiko planak egitea, ekoizpenetik hasita, transformatzeko moduak ere landuz eta, azkenik, kontsumorako aukerak eta planak diseinatuz, betiere egindako jarduerak ingurumenean eta biodibertsitatean izan lezaketen eragina kontuan hartuta.
- .- Larreetako azientak dauden tokietan larreak hobetzeko planak gauzatzea, larre batzuk hobetuz, baita azpiegiturak ere,

eta baso argiak edo irekiak sortzen laguntzea, gainontzeko baso kudeaketarekin talka egin gabe. Mendiaren sektorizazioa bultzatzea.

.- Mikologiaren arloan erregulazio bat abian jartzeko aukera aztertzea, perretxiko bilketa jarduera onartua eta jasangarria izan dadin.

.- Tokian tokiko materialak erabiliz (zura, lastoa, buztina...) egiten den bioeraikuntza babestea, zuzeneko edo zeharkako laguntzen bidez.

.- Haran guztietan baso-bizitzarako Baso (eta ibai) Erreserba babestuak sortzea eta haien segimendua egitea. Erreserba horiek berezko eboluzioa izango lukete, naturala, gizakiaren esku-hartzerik gabe. Nafarroako baso-bizitzaren gordailuak izango lirateke.

.- Banku genetikoak eta mintegiak sortzeko aukera aztertzea, galzorian dauden edo egon daitezkeen zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak berreskuratzeko eta mantentzeko.

.- Ur-baliabideei arreta berezia eskaintzea. Iturriak, ubideak eta errekek leheneratzeko eta egoera ezin hobean kontserbatzeko plan integralak egitea.

Kutsadura

.- Elektromagnetikoa. Kontrol eta informazio neurriak hartzea.

.- Zarata. Kontrol eta informazio neurriak hartzea. "Zarataren aurkako planak" eguneratzea eta ezartzea.

.- Kimikoa, nitratoak... Legedia betearazteko neurri fiskalak eta araudi positiboak eta negatiboak aplikatzea. Inguru zaugarrietarako jarduera-programak ezartzea eta haien segimendua egitea.

- Airearen kalitatea: berotegi efektuko gasen inbentarioak egiten dituzten eta beren isurpenak gutxitzen dituzten Enpresen Nafarroako Erregistroa sortzea. Ekimen horren bidez enpresa garbien garapena eta enpresa horiek babestutako eta finantzatutako baso dinamikak sustatuko lirateke. "Klima-aldaketarako bide-orrian" zehaztutako neurriak aplikatzeko eta haien segimendua egiteko fasea gauzatzea eta hobetzea. Klima-aldaketarako eta Trantsizio Energetikorako Foru Legea egitea, ezartzea eta garatzea.

TOKIKO ADMINISTRAZIOA

Denok ohartzen gara Nafarroako Tokiko Administrazioak duen garrantziaz, ez bakarrik garrantzia historikoaz, baizik eta egun duen garrantziaz. Herritarrenganako administrazioerik hurbilena da, herritarren premiarik oinarritzkoen zati handi bati erantzuten lehenengoa dena, zerbitzu publiko eraginkor eta efiziente batzuen bidez.

Alde horretatik, Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen berriztapena, 4/2019 Foru Legearen onarpenaren bidez egin zena izan zen joan den legegintzaldiko helburu nagusia. Erreforma horren helburuak honako hauek izan ziren:

- 1.-Nafarroako Tokiko Administrazioaren erakunde berri baten oinarriak ezartzea, herritarrekiko dituen eskumenen betearazpena hobetzeko eta herritarrek beren eskubide zibilak askatasunez gauzatzeko bermatzeko, Nafarroako Gobernuaren sektore-politika guztientzako erreferente izanen den lurralde-orekaren eredu bat oinarri harturik.
- 2.-Nafarroako tokiko erakundeak indartzea, une oro honako oinarritzko printzipio hauek errespetatuz: “subsidiariorotasuna”, “borondatezkotasuna”, “udal-autonomia”, “eskumen-argitasuna”, “nahikotasun finantzarioa” eta “lurralde-elkartasuna”. Gaitasun ekonomiko eta politiko nahikoa ematea, beren lurralde-eremuan tokiko erakunde moduan esleituta dituzten eskumenak gauzatzeko, baita beste administrazio batzuek ematen dizkieten eskumenak gauzatzeko ere.
- 3.-Zehaztasunez ezartzea zein diren tokiko erakundeen berezko eskumenak Nafarroan, eta zein beste administrazio batzuek emandakoak. Beharrezko baliabideak ezartzea eskumen horiek finantza eta baliabide mailako nahikotasunarekin gauzatu daitezkeen.
- 4.-Nafarroako lurraldea definitzea eta egituratzea administrazio-eredu desentralizatu eta orekatu baten bidez, biztanleen arteko eskubide-parekotasuna landuko duena, biztanle horiek landa-ingurunean edo hirigunean izan.
- 5.-Nafarroako tokiko erakundeak berdefinitzea, hau da, bere udalbatzak, udalak, eskualdeak eta mankomunitateak, eremu ezberdinak indartuz, horretarako aukera ematen duen lurralde-antolamendu baten bidez.
- 6.-Nafarroako tokiko erakundeentzako finantziario-eredu berri bat definitzea eta zehaztea, egonkortasun ekonomikoa bermatuko duena, baita berezko eskumenen eta beste Administrazio batzuek utzitako eskumenen ondoriozko zerbitzuei aurre egiteko gaitasuna bermatuko duena ere, Nafarroako Gobernuak unean uneko egoeraren arabera premia berezien arabera funtziona ez dezan.
- 7.-Herritarrek udal-erabakietan parte hartzeko parte-hartze modu berriak arautzea eta gardentasuna hobetzea tokiko erakundeen kudeaketan. Era berean, “gizarte-klausulak” txertatzea tokiko erakundeen kontratazio-agirietan.
- 8.-Parte-hartze egokiko prozesu bat ezartzea, inplikaturako eragile guztiak lan honen ondorioen eta bukaerako emaitzaren parte-hartzaileak sentitu daitezkeen.

Zalantzarik gabe, helburuak zabalak, ugariak eta asmo handikoak ziren, Nafarroak tokiko sektorean behar duen berrantolaketa mailaren arabera. Esan dezakegu denak islatzen direla 4/2019 Foru Legean; hala ere, zioen azalpenean ondorio moduan adierazten denaren arabera: “aipatu behar da foru-lege hori indarrean jartzeak erreferentzia-esparru berri bat ezartzen duela Nafarroako Tokiko Administrazioarentzat, hemen ezarritako printzipioak gauzatu dituzten arauekin zehaztuko den berrikuntza-prozesu sakon bat hasiko duenak.”

2019-2023 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

2019-2023 Legegintzaldirako helburu nagusia 4/2019 Foru Legearen edukiak eta helburuak erabat garatzea izan behar du, foru lege horretan islatutako erreforma egia bihur dadin Nafarroako geografia osoarentzat. Horrekin batera, gai jakin batzuek lehentasuna izan beharko lukete:

a).-Eskualdeak sortzeko prozesua: eratzeko legezko prozesuaren arabera, EH Bildun hainbat sortze-prozesu bultzatuko ditugu; horrela, udal horietako bakoitza izanen da prozesu honen protagonista. Eskualde bakoitzak, Foru Legeak esleitutako gutxieneko legala eskumen propio moduan hartuz, diseinatu behar du zer eskumen-koadro nahi duen tokiko erakunde horrentzat, eta zer zeregin ematen dion bere eskualdeko interesak defendatzeko, baita Nafarroan elkartasun eta lurralde-oreka handiagoa lortzeko ere. Prozesu horretan, udaletan edo udalerriaz gaindiko egungo erakundeetan aritzen diren langile guztien eskubideak bermatzeko neurri guztiak errespetatu beharko dira, baita Foru Legeak jasotakoak ere, lanpostuak galtzea saihesteko; horretarako, dagozkion plantilla organikoa eta ondoriozko enplegu publikoko eskaintzak onartzeko akordioak hartuko dira, lanpostu askoren ezegonkortasuna eta bitartekotasuna amaitzeko.

b).-Tokiko administrazioaren finantziarioaren eredu berria: legegintzaldiaren lehenengo urtean zehar, Nafarroako udalerriek, udalbatzek eta eskualdeek Nafarroako Ogasun Publikoko zergen diru-sarreretan parte hartuko duten ehuneko mugatu beharko da. Gure proposamena, Nafarroako tokiko erakundearen eta Foru Erkidegoaren Administrazioaren arteko eskumen-banaketa kontuan izanik, honako hau da: Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpen ekonomikoa kendu ondoren, ehuneko hori % 15 baino txikiagoa ez izatea, beste foru-erkidego batzuetan gertatzen den moduan.

Era berean, sekoreko legerian zehaztutako tokiko erakundeek emandako zerbitzuen finantziario-moduluen ezarpena onartu beharko da, berezkoak ez diren gaien gaineko eskumen-esleipenaren edo ordezkari bidez esleitutako eskumenean esleipenaren arabera, egungo diru-laguntza finalistak desager daitezten. Adostasun orokorra existitzen da, zeinaren arabera finalista erako egungo transferentzia-sistemak ez baitu ondo funtzionatzen, ez baititu kopuruak bermatzen (ezta hurrengo urtean deialdia izateko aukera ere), eta orokorrean, transferentzia horiek ez baitira nahikoak bete behar dituzten zerbitzuak finantzatzeko.

c).-Egungo legerian, idazkaritza eta esku-hartze lanpostuak berrantolatzekeo prozesu guztia bukatu behar da, tokiko erakundeentzako hain garrantzitsuak diren langile hauek jasan izan duten bitartekotasun-egoera larri hori amai dadin.

d).-Plangintza Orokorreko Mankomunitatea eratzea, egungo Hondakinen Partzuergoa ordeztuko duena: tokiko erakunde berri horren eratze-prozesua atzerapen gehiagorik gabe hasi behar da, non tokiko erakundeek Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan jardunen duten hondakinen tratamenduaren inguruko gai guztietan, eta non, lehen aldiz, tokiko erakundeek boto gehiengoa izanen duten gobernu-organoetan.

2015-2019 legegintzaldian erabat landu ez diren zenbait gai konpondu gabe jarraitzen dute eta tokiko erakundeei eragiten diete:

a).-Irizpide argiak ezartzea tokiko kargu publikoei ordaintzean, aipamen berezia eginez Alkatetzaren kargua dutenei, eta oinarritzko taulak proposatzea, parametro uniformeekin (esaterako, biztanleria, urteko aurrekontua, etab.) araberrako kopuruak zehaztu daitezten.

b).-Gizarteari irekitako eztabaida bati ekitea Sinboloen Lege berri bat izateko premiaren gainean, lege ireki eta ez murriztaile bat izan dadin, non bizikidetzatza berraruko den eta denon artean imajinario kolektibo bateratu bat sortzen lagunduko duen, herritar guztiak eroso sentitu daitezten.

c).-Artzapezpikutzak frankismoaren garaiko arauen arabera immatrikulatutako tokiko erakundearen ondarea defendatu

behar da oraindik ere, eta horretarako, Nafarroako Gobernuaren babesa eta laguntza behar dira (bitarteko teknikoak eta baliabide ekonomikoak gaituz); izan ere, eskandalu politiko eta sozial izugarri handia izan da, bai tamainagatik, bai immatrikulatutako ondareen edukiarengatik.

Nafarroako eskumen-esparrutik kanpo, aurrekontu-egonkortasunarekin eta finantza-jasangarritasunarekin lotutako araudia aldatu behar da, eta kasu batzuetan, baita indargabetu ere; izan ere, udal autonomian muturra nabarmen sartu da, eta horrek tokiko erakundeen gastu-gaitasuna mugatu du; era berean, aurrezpenak eta superabit finantzarioak modu askean erabiltzea erabaki izan denean ere nabarmen sartu da muturra, hainbat arloren premiei aurre egiteko inbertsioak finantzatu behar izan denean.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA

Nafarroako lurralde-egituraren distorsiorik nagusietako bat bere desorekaren ondoriozkoa da, zuzendu ordez, handitzen ari dena urteak igaro ahala. 2016. urte hasieran, biztanleriaren % 55 Iruñea/Pamplonan eta bere eskualdean bizi da jada; eremu horrek du hazkunderik handiena, alde handiz, lurraldearen gainerako tokien kalterako. Iraganean, ikuspegi zentralistegia izan zen, eta hori akats bat izan zen. Izan ere, ikuspegi horren arabera, aurrerapen ekonomikoa eta soziala izateko, biztanleria hirigune handi batean kontzentratu behar zen, eta landagunea periferiatzat hartzen zen, baliabideen biltegi hutsa, hirigune handiaren menpekotasun endemikoa zuena alde guztietatik.

Horrela, gure erkidegoaren lurralde-antolakuntzarako erabili den ikuspegi horren arabera, Nafarroak metropoli zentral handi bat izan beharko luke, kilometro karratu gutxiko azalera baten barruan biztanleriaren zatirik handiena, eta lantokiak eta erabaki politikoak hartzeko tokiak jasoko lituzkeena, Europako hiri handiekin oso ondo komunikatuta egonen litzatekeena, eta non jarduera ekonomikoa, industrialia, komertziala zein soziala ere ia eskusiboki hirigune horretan oinarrituko litzatekeena, Nafarroako gainerako tokiei aisialdia, turismoa edo lehen sektoreko jardueren hornidura utziz.

Eredu horren aurrean, beste proposamen bat defendatu nahi dugu, eremu edo eskualde bakoitzeko potentzialitateak sustatzeko beste lurralde-eredu berri bat planteatuko duena, gure biztanleria guztiak hobeto garatu daitezzen bide publikoko hainbat sektoretan, hirigune handiarekiko duintasun-, justizia- eta ekitate-parametroak mantenduko dituen, baliabide nahikoak eta bitartekoak eskuratzeko gaitasuna izanen duena, landa-eremuan ere industrializazio, merkataritza, eta jakina, zerbitzu publikoen eremuko mundu mailako eskaerei ere aurre egin ahal izateko. Helburua da “foru-zentralismo” hori behin betiko alde batera uztea, gure herri ertainetan edo txikietan, bereziki hirigunetik urrutien daudenetan, hainbat aldiz laidoztatu izan dena, eta arrazoi handiz; eta horren ordez, pixkanaka-pixkanaka, ekitate-irizpideak txertatzen joatea, lurralde mailan orekatutako aurrerapen-metalitate berri batekin.

Nolabaiteko lurralde-oreka berreskuratzeko apustu bat egin behar dugu, Nafarroako eremu handien desertifikazio ekonomikoa eta poblazionala saihesteko, biztanleriaren kokalekua proportziozko moduan finkatzeko, Tokiko Administrazioaren Erreformarekin onartutako tokiko berrantolaketarekin batera; izan ere, apustu horrek kontuan izan behar du landa-eremuaren aldeko nolabaiteko diskriminazio positibo bat, eta landa-eremu hori garatzeko premia ere, nahiz eta herri handiangoetan hori ez onartzeko arriskua izan, baliabide publikoak erabiltzeko lehentasuna izaten ohituta baitaude.

2019-2023 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

Lurralde antolamendua eta hirigintza

- 2015-2019ko programa-akordioak jasotako asmoaren norabidean, Udalez Gaiendiko Plan Sektorialen inguruko araudia egokitzea eta arau horiek jasotzen dituen legea aldatzeko Foru Lege Proiektua onartzea eta gauzatzea, Plan Sektorial horiek ulertzeko modu okerrak eta interesatuak saihesteko eta UGPSak lurraldea egituratzen lagunduko duten tresnak izan daitezzen.

- Hirigintza mekanismo egokiak ezartzea, Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintza arautzen dituen Foru Legea aldatuz,

arauak egungo errealitatera egokituz eta, proportzionaltasuna zainduz betiere, arau horiek herrietako eta eskualdeetako garapen sozioekonomikoarekin bateragarriak direla bermatuz.

- Lurraldearen antolamendu egokia eta lurraldearen garapen orekatua lortzeko Nafarroako erakundeen eta tokian tokiko

eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzaz bermatzea: Nafarroako Lurralderako eta Jasangarritasunerako Agentzia (Lursarea), Nafarroako Garapen Agentziak, toki-entitateak, gizarte-eragileak...

Despopulazioa

Despopulazioa da, besteak beste, lurraldearen antolamenduaren ikuspegitik Nafarroan agertzen den errealitate gordinenetako bat. Herrialde osoan zehar errealitate hori nozitzen ari diren udalerrri asko dauden arren, bereziki nabarmena da eremu jakin batzuetan, Pirinioetan eta Lizarra aldean esate baterako.

.- Despopulazioari aurre egiteak ikuspegi osoa eta zeharkakoa behar du, askotarikoak baitira fenomeno hori indartzen duten faktoreak. Horrenbestez, neurriek ere askotarikoak izan beharko dute, eta hauteskunde-programa honetako hainbat ataletan jasotako neurriak izanen dira, azken finean, despopulazio horri aurre egiten diotenak: hezkuntzan, osasungintzan, garapen ekonomikoan, ingurumenean...

.- Despopulazioaren errealitatearen tamaina eta herrialde osoaren garapen egokirako eta orekaturako daukan garrantzia kontuan izanik, Nafarroako Gobernuak gaiaren lanketa berezi bat egin beharko du, Nafarroako Udalekin lankidetzaz estuan, estrategia egoki bat diseinatu eta gauzatzeko. Estrategia horren zati izanen da, ezinbestean, Pirinioetako Ponentziaren gomendioen artean aipatutako “biztanleria galtzen ari diren lurraldeei buruzko Foru Legea” onestea, lege hori, azken batean, Pirinioetarako ezezik, herrialde osorako ere baliagarria izanen baita.

Pirinioak

IX. legegintzaldian Nafarroako Ekialdeko Pirinioen inguruan lanketa sakona eta emankorra egin da, bertako eragile sozial eta instituzionalek bultzatuta, eta Nafarroako Parlamentuarekin eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzaz estuan. Jardun horretatik aterata zen ondorioetako bat, besteak beste, honakoa da: Pirinioen egoera gordina da oso, kritikoa, ezaugarri bereziak dauzka, eta horrenbestez premiazkoa eta beharrezkoa da lanketa berezi bat egitea eskualde horri begira. Pirinioetan egindako lanketa sakon hori eta bertan jasotako ondorioak aintzat hartuta, honakoa proposatzen da:

.- Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsitako Pirinioetako Ponentzian jasotako gomendioak osorik betetzeko urratsak ematea. Bai Parlamentuari dagozkionak, bai Nafarroako Gobernuari dagozkionak. Besteak beste:

.- X. legegintzaldia hasi eta gehienez ere sei hilabeteko epean, “biztanleria galtzen ari diren lurraldeei buruzko foru lege” bat onestea, deitura horrekin berarekin edo asmo hori bera bildu beharko lukeen beste batekin. Foru lege horrek oso kontuan hartu beharko ditu kontzeptuen definizioetan Ekialdeko Pirinioetako arazoak eta berariazko ezaugarriak, eta tokia eman beharko die.

.- Tokiko maparen erreforma-prozesuan sartzea, bereziki harekin batera joanen den finantzaketa-legean, Pirinioetako Ponentziaz ateratzen diren irizpide eta jarraibideak, deszentralizazioari buruzkoak eta ezaugarri horiek dituzten eremuekiko diskriminazio positibokoak.

.- Pirinioetan eragina duen eta bertako garapenerako eta bizitasunerako garrantzi aipagarria izan dezakeen araudiari buruzko azterlan bat egitea, garapen horretan lagun dezaketen balizko aldaketak identifikatuz. Lan hori egin beharko litzateke biztanleria galtzen ari diren lurraldeei buruzko legea egiten den modu berean; hau da, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Parlamentuaren lankidetzarekin, berariazko lan-mahai bat sortuz eta Ekialdeko Pirinioetako eragile sozial eta instituzionalen parte-hartzearekin.

.- Nafarroako Gobernuaren egituraren unitate organiko bat sortzea, behar adina langile eta baliabide izanen dituen eta Parlamentuarekin koordinatuta egonen dena, Foru Komunitatean sortzen joaten den araudia berrikusi eta haren

jarraipena egiteko; horren xedea izanen da aurreikustea zein kasutan izanen lukeen zentzua eta beharko litzatekeen berariak eta zehazki Pirinioei buruzko edo, oro har, biztanleria galtzen ari diren eremu edo herriei buruzko irizpide edo aipamenak jasotzea. Eskualdean “5 minutu Nafarroako Ekialdeko Pirinioetarako” deituraren pean egindako eskaeren erantzun operatiboa izanen litzateke.

.- Urtero, Nafarroako Gobernuak agerraldia egitea eta informazioa ematea ponentzia honek egindako gomendioen garapenari eta aplikazioari buruz, eta Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko Batzordearen bidez horren guztiaren jarraipen bat egitea.

.- Ponentzian adierazitako lehentasunezko lau eremuetan (etxebizitza, hezkuntza, osasuna eta garraioa) epe laburreko neurriak hartzea edo hartutako horiek sendotu eta hedatzea: alokairu poltsa, ratioen malgutzea aztertzea, osasun arloko kontsulten prozedurak egokitzea eta telemedikuntza nahiz telelaguntza sustatzea, garraio publikoaren gaineko azterlana eta ordutegi-plangintza...

.- Nafarroako Gobernuaren politiketan lurralde-koehesioaren ikuspegi egokia bermatzea, lurralde ezberdinen berezitasunak aintzat hartuta eta, norabide horretan, Nafarroako Lurralde Estrategia berrikusi edo/eta gaurkotzea.

.- Pirinioetako Plan Estrategikoa garatzea eta gauzatzea, erakundeek lurraldearekin adostutako gobernantza eredu egokiak lagunduta.

.- Nafarroako Gobernuaren politiketan Pirinioetako Ponentzian irizpide orokor eta zeharkako gisa eta lehentasunezko jarduera gisa jasotakoak txertatzea: osotasuneko ikuspegia, banda zabala, lurraldearen eta baliabide naturalen babesa bateragarri egitea, zenbait jardueren garapenerako eskakizun burokratikoak soilteza eta arintzea, profesionalentzako pizgarriak aztertzea eta aplikatzea, erosketa publikoak ematen dituen aukerak lantzea, elikagaien segurtasunari eta higienari buruzko araudiaren aplikazio malgua egitea...

Lurraldearen antolamenduarekin lotutako bestelako proposamen batzuk

.- Landa Garapeneko Plana: Nafarroako Gobernuak jarraitu behar du, bere eskumenek uzten dioten neurrian, Landa Garapeneko Plana gauzatzeak ematen dizkion aukerak erabiltzen, irizpide egokiak txertatuz eta bermatuz, ekonomikoki, sozialki eta ingurumenaren aldetik jasagarria den garapen eredu bat bultzatuz, besteak beste lurralde-koehesioa eta lurralde-oreka sustatuko dituen.

.- Nafarroa Ezagutu/Explora Navarra Sarearen garapen egokia bermatzea, besteak beste Nafarroa osoan zehar natur-eremuak, bideak, tokiko garapena eta lurraldearen egituratzea sustatzeko.

.- Azpiegitura berdeen kudeaketa egokia egitea, natur-inguruak, espazioen ohiko erabilera eta prozesu naturalak plangintzetan eta lurralde-garapenean behar den bezala txertatzen eta uztartzen direla zainduduz.

.- Bardeetako poligonoari dagokionez, behin betiko eraistea eta inguru horretarako bestelako alternatiba batzuk adostu eta garatzea.

.- Lurraldean autobide elektrikoak ezartzeko proiektuei aurre egitea, Nafarroako erakundeak eta tokian tokiko erakunde nahiz eragileak elkarlanean jardunez.

Mugikortasuna

- Nafarroako Foru Erkidegoko bidaiarien Hiri-arteko Garraioaren Plan Integrala bultzatzea, Nafarroa egituratzeko eta koehesionatzeko helburuarekin. Garraio bideen multzoaren ikuspegi integral baten bidez (autobusa, trenbidea, taxia, ibilgailu partikularra, etab.), zerbitzuak emateko, arrazoi pedagogikoetarako, kulturaletarako eta aisialdirako komunikazio-premiak aztertzea, Tokiko Administrazioaren Lege berrian aurreikusitako Eskualdeen harreman naturala

ahalbidetuz, gure lurraldeak bai Iruñearekin bai eskualdeko hiriburuekin duen garapen harmonikoa ahalbidetzeko forma moduan.

- AHTren obrak berehala etetea Nafarroan, eta Nafarroako herritarren premiekin bat eginen duen trenbide publiko, sozial eta jasangarri baten aldeko apustua egitea.

-Trenbide sozial baten aldeko apustua egitea, aldirikoen zerbitzua distantzia ertaineko eta luzeko zerbitzuarekin erregulatuko duena, eta bidaiarien eta salgaien garraioa ahalbidetuko duena.

- Autobideak eta errepideak Erakunde esleipendunekin berriz ere negoziatzeko prozesuak bultzatzea, "itzaleko bidaiaria" izeneko metodoaren bidez finantzatzeko formulak sortzen dituen gainkostuak leheneratzeko; eta hala badagokio, metodo hori aldatzeko jarduera juridiko bideragarriak inplementatzea. AP 15ari dagokionez, hau da, Nafarroako herritarrek hainbat aldiz ordaindu duen autobideari dagokionez, autobide hori kudeaketa publikora leheneratzeko beharrezko neurriak hartuko dira, kudeaketa pribatuaren 40 urte baino gehiagoko aldia amaituz.

Errepide-plan errealista bat eta baliabide nahikoak dituen onartzea, "puntu beltz" deitutakoetan jardunez, lehenik, eta erabiltzaileentzako, oinezkoentzako eta ziklistentzako segurtasunari lehentasuna emanez.

- Txartel bakarra: txartel bakarra inplementatzea Nafarroatik igarotzen diren garraibide guztietan, pertsona bakoitzaren errenten (Gizarteratzeko Errentaren) arabera tarifa sozialekin, eta tratamendu berezia emanez langabetutako gazteei eta pertsoneri.

- Kanpoan aparkatzeko eremuak: kanpoko aparkamendu publikoko eremuak ezartzeko aukera aztertzea, hirigunera eta gainerako interes-puntuetara anezka-konexioak eginez.

-Bidegorriak ezartzen jarraitzea. Azpiegitura berriak jartzea garraio jasangarrirako, hau da, bidegorrien sare zabal bat eta oinezkoentzako pasabide seguruak jartzea bereziki; azkeneko horretarako, foru-araudia egokituko litzateke, abiadura-murriztaileak ezarri ahal izateko, hau da, "asto-bizkarrak".

Abiadura handiko tren (aht)

Abiadura Handiko Trenaren eraikuntzak Nafarroan izan duen xahubidearen politikak, tamalez, bizirik jarraitzen du. Orain dela urtebete trenbidearen azpiegitura sostengatuko lukeen plataforma eraikitzeko lanak berreskuratu ziren, errentagarritasun sozial, finantzario edo komertzialeko azterketarik ez duen proiektu batean. Inondik inora ez doan trenbide bat izaten jarraitzen du, alegia, ehunka milioi euro gastatzeko lasterketa zoro bat izaten jarraitzen du, gizartearen beste hainbat premietan erabili ordez. Nafarroak ez du behar xahubidezko tren-eredu hori, ingurumen aldetik jasanezina dena, eta beste hainbat lurraldetan ustelkeriarekin lotu izan dena. Bere eredu propioa behar du, baita eredu hori erabaki ahal izateko ahalmena izan ere.

.- Nafarrorako Trenbide Sozial bat defendatzen dugu, biztanleria diskriminatuko ez duen trenbide bat, lurraldea artikulatzeko eta egituratzeko balio duena, eskualdeen arteko gero eta alde handiagoak bultzatzen lagunduko ez duena, dinamika ekonomiko berriak sortuko dituen, herriak isolatuko ez dituen, igarotzen den lurraldean eragin ekonomikoa sortuko duena, beste garraibide batzuen, bereziki salgaien trafikoa trenbidera eramanen duena, gure lurraldeko geltokiak itxiko ez dituen trenbide bat.

.- Tren Sozial hori ezartzeko, ez da dirurik xahutu behar. Nahikoa da egungo trenbidea hobetzeko, bidea zabaltzeko edo hirugarren erraila gautzatzeko inbertitzea; horrek guztiak Europa mailako gai horren inguruko estandarrak errespetatuko litzuzke. Izan ere, aukera hori 2018ko ekaineko Europako Kontuen Auzitegiaren txostenean ere bermatu da, non abiadura handiko lineak aipatzen diren, honako hau adieraziz: "abiadurak handitu ahal izateko, existitzen diren linea konbentzionalak hobetzeko aukera izan beharko litzateke kontuan, abiadura handiko linea bat eraiki ordez, aurrezpen handia lortuko bailitzateke".

Nafarroako Taxiaren zerbitzu publikoaren defentsa

Irailaren 28ko 13/2018 Errege Dekretu-legeak 16/1987 legea aldatu zuen, mugikortasun eta inguruari buruzko arazoei aurre egiteko asmoz. Bereziki hirigunetan eta ibilgailu gidaridunen errentamenduaren baldintzak arautu eta zehazteko. Zentzu horretan, kontsideratzen da Komunitate Autonomoak izango direla baldintza horiek arautzeko ahalmena izango duten instituzioak. Izan ere beraiek ezagutzen baitituzte hobekien beren eremuan garraio eta mugikortasunaren aldetik dauden beharrak eta baldintzak eta efizientzia gehiagorekin egin dezakete lan hori. Beti ere udal eta udalez gaindiko instituzioek hir barneko mugikortasuna arautzeko dituzten ahalmenak kaltetu gabe.


Horregatik, eta pentsatzen dugulako taxiaren sektorea interes publikokoa dela, nafar herritarrei eskaintzen zaien zerbitzu publiko bat dela, uste dugu dekretu honek eragiten dien Nafarroako Instituzioek -tenporalki edo behin-betirako- zehaztu, garatu edota eraldatu beharko lituzketeela arautegi estatalaren atal batzuk, Nafarroako Parlamentuak 2018ko urriaren 26an onartutako Deklarazio Institutuzionalarekin egin zuen bezalaxe.

Horrela, eta dagozkien kompetentziak erabiliz, Nafar Gobernuak zein Tokiko Entitateek onartu beharko lukete arauketa berri bat, zeinaren ondorioz mugatuko litzatekeen baimen berrien kontzesioa ibilgailu gidaridunen errentamendurako. Horrelako baimenen kopurua eta taxienaren arteko proportzio zehatza bermatzeko, horrelako baimen bakoitzeko taxien 3o izan beharko lirateke alegia.

Halaber, uste dugu Foru eta Udal arauketa berriak VTCren aurrean zerbitzu publikoaren defentsa izan beharko luke helburu. Izan ere VTCren ereduak, modernitate eta prezio baxuen amuaren atzean zerbitzu publikoaren erregulazio eza, prekarietatea, prezioen igoera, eta, aldi berean, zerbitzuaren segurtasun eta kalitate falta.

Nafarroak, beste Komunitate Autonomo batzuek bezala, bere autogobernua baliatu behar du nafar taxiaren defentsan, Foru Komunitatean ibilgailu gidaridunen errentamentuaren bidez egiten den bidaiarien garraio oro arautuz.

Zeregin horretarako, honako gaiak eta baldintzak aztertu beharko lirateke: horrelako prestazioa egiteko horretarako baimena duenak egin ahal izango du; zerbitzuaren aurrekontratazioa; horrelako zerbitzuen komunikazio guztien erregistro bat izatea; prestazio horren baldintzak (nondik ibil daitekeen bezeroak lortzeko eta nondik ez; jende kontzentrazioa edota eskaera handiko tokietan aparkatzea/geratzea debekatzea...); ibilgailuen identifikazioa VTC gisa; beharrezkoa litzatekeen zigorraren taula... Halaber, gaia aztertu beharko litzateke Tokiko Entitateetan eta Udalez gaindiko Instituzioetan, berauek dituzten ahalmen propioak edota ahalmen delegatuen arabera Iruñeko Mankomunitateari -Iruñea eta Iruñerriko eskualdearen entitate kudeatzailea den neurrian- edota taxia eta ibilgailu gidaridunen errentamenduaren erregulaziorako ahalmena duten beste Instituzioei arautze hori egin dezaten eskatzeko.



Nafarroa demokratikoa

Memoria, biktimak, presoak, justizia	132
Memoria historikoa	137
Gardentasuna eta parte hartzea	140
Demokratizazioa eta Autogobernua	142

ehbildu

BAKEA, MEMORIA ETA BIZIKIDETZA DEMOKRATIKOA

EH Bilduk gatazka politikoaren arrazoiak eta ondorioak gainditzearen aldeko apustua egingen du irmoki, baita giza eskubideen urraketarik berriro gerta ez dadin ere. Ildo beretik, gure ustez, Nafarroak, Nafarroako politikaren, sindikatuen eta gizartearen arloetako eragileek eta herritarrek, oro har, protagonista aktibo izan behar dute memoria inklusiboa eta bizikidetza demokratikoa eraikitze bidean, betiere giza eskubideen urraketa guztiak eta gatazkaren ondorio guztiak aintzat hartuta eta gainditze aldera. Nafarroako gizartearen akordioak lortzeko prestasuna izatea eta elkarrizketa oinarritzko faktoreak dira bakegintzan eta bizikidetza eraikitze bidean. Horregatik, EH Bildu prest dago foroak bultzatzeko eta foroetan parte hartzeko, baldin eta herritarrek parte hartzeko aukera izanen duten foro zabalak izanen badira, partaidetza hori ezinbesteko baldintza baita bakearen eta normalizazioaren benetako agertokia lortzeko bidean aurrera egiteko.

Azken hamarkadetan, giza eskubideen urraketak gertatu dira, alde batean zein bestean, motibazio politikoko testuinguru batean. Urraketa horiei guztiei aitortza eta erreparazioa eman behar zaizkie. Gure iragan hurbilean, bai ETAREN indarkeriak, bai Espainiako eta Frantziako estatuen gerra zikinak eta errepresio-estrategiek hildakoak eta lesio fisiko edo psikikoak eragin dituzte.

Biziki garrantzitsua da giza eskubideen urraketen biktima guztiei berdintasun-printzipioan oinarritutako tratamendua ematea. Nafarroan, orain arte, biktima batzuk baino ez dira aitortu. EH Bilduk bere esku dagoen guztia egiteko konpromisoa hartzen du, alde batetik, giza eskubideen urraketa guzti-guztiak diagnostikatzeko eta, bestetik, giza eskubideen urraketen biktima guztiei aitortza eta erreparazioa emateko eta birgaitzeko. EH Bilduk biktima guztien sufrimendua hartzen du aintzat, eta horien guztien egia argitzea, errekonozimendua eta birgaitzea eskatzen ditu.

Gernikako Akordioa, Aieteko jauregian izandako Bake Konferentzia, ETAK jarduera armatua bertan behera utziko zuela adierazteko egindako deklarazioa eta horren ondoko desagitea, eta Foro Sozial Iraunkorraren gomendio eta ekimenak aurrerapausotzat jotzen ditugu, aro berri baterako oinarri sendoak finkatzeko aurrerapausotzat.

Alabaina, Espainiako eta Frantziako gobernuek jarrera immobilistek eutsi diete presoen, erbesteratuen eta Estatuaren indarkeriaren biktimen egoerari dagokienez, eta jarrera horiek eragozpen izaten ari dira pertsona guztiek eskubide guztiak baliatu ahal izan ditzaten Nafarroan, baita Euskal Herri osoan ere. Azkenaldian, Espainiako estatuan benetako inboluzioa edo atzerabidea gertatzen ari dela ikusten ari gara, aurrerapen oro geldiarazi eta, aldi berean, etorkizunari begira oztopoak jarri nahian ari baitira. Foro Sozialaren gomendioei jarraikiz, EH Bildutik euskal preso politikoei eta iheslariei konponbide integrala ematearen alde egiten dugu. Funtsezko elementua da hori bakegintza finkatzeko eta bizikidetza egonkor eta iraunkorra eratzeko.

Gizarte libre bat, norbanakoen eta kolektiboen eskubideak errespetatuko dituen gizarte bat lortzeko bidean, gure iraganari buruzko egia jakiteko eskubidea ezinbesteko oinarritzat hartzen dugu. Trantsizioko justizia-prozesu bat abiarazi behar da, arrazoi politikoek eragindako kalteak –norbanakoei eta kolektiboei egindako kalteak– onartu eta erreparazioa emate aldera.

EH Bildu hausnarketa egiteko prest dago, indar politiko guztiekin batera iraganari buruzko hausnarketa egiteko prest. Hausnarketa egiteko, itzulgingururik gabe, pertsona guztien eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatuko diren etorkizun komuna guztion artean eratzeko oinarriak finkatzeko balio izanen duena. Proiektu politiko guztiak defendatu eta gauzatu ahal izanen diren etorkizuna, inolako oztopo eta injerentziarik gabe.

EH Bildurentzat, Memoria ezinbesteko elementua da orainaldia eta etorkizuna eraikitzeko; horregatik, gure ustez, memoriaren kontzeptuak kontzeptu dinamikoa izan behar du, Memoria Historikoa eta azkenaldikoa uztartuko dituen gure lurretan bizi izan diren gatazken ondorioak konpontzeko egungo premia izanik abiapuntu. Azken batean, Memoria Demokratiko eta bizia, erabateko bizikidetza eratzeko oinarri izanen dena. Eta, helburu berari jarraikiz, egia, justizia eta erreparazioa lortzeko premiak egituratutako Memoria. Eta, hain justu, horregatik, memoria horrek inklusiboa izan behar du nahitaez.

EH Bilduren ustez, tradizionalki Memoria Historikoan biltzen den aldia ezin da gauza estatikotzat hartu, ez da gaur egungo egoera politiko eta sozialarekiko eta azkenaldiko memoriarekiko deskonektatuta dagoen zerbait. Fase historiko hura honela ulertzen dugu guk: ez zuen 78ko erregimenarekiko lotura apurtu, eta estatuaren egiturei, politikoei, judizialei eta polizia-egiturei eutsi eta eguneratu baino ez zituen egin; eta elementu horiek iragan urrun hartako eta ez hain urrun hartako jarduketa eta errealitateak gaur egungoekin lotzen dituzte.

Justiziaren eta bizikidetzaren arloari dagokionez, gure iragan hurbilean, Madrilen kokatutako hainbat estamentu judizialek legezkotasunaren oinarritzko printzipioaren aurkako erabakiak hartu izan dituzte, interpretazio eta premia politikoen eraginpean. Horren azken adibidea dugu Altsasuko gazteen aurkako prozesu judiziala eta epaia.

Sistema hau ez da gai izan eta ez da gai Nafarroako gizartearen justizia-eskaerei erantzun inpartzial eta independentea emateko. Horregatik, Nafarroak erabateko legegintza-ahalmena izan behar duela uste dugu, arlo zibilean, penalean, administratiboan, auzibidean, lan-arloan..., eta geuk egindako lege horietan oinarrituta ebatzi beharko lukeela geure justizia-administrazio propioak, autoktonoak, betiere independentziaren eta inpartzialtasunaren oinarritzko printzipioak nagusi izanik eta ezinbestekoa den segurtasun juridikoaren arabera jardunda. Bertako epailearen printzipioa aldarrikatzen dugu, gertaerak gertatzen diren tokikoa bertakoa izan dadila, eta Botere Judizial propioa eskatzen dugu, Nafarroarako Botere Judiziala.

2019-2023 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

Memoria eta biktimak. Egia, errekonozimendua, justizia eta erreparazioa izateko eskubidea.

*Arrazoi praktikoak direla eta, Memoria Historikoari buruzko beste atal bat prestatu dugu, berezia eta zabalagoa, jardun-ildo eta neurri espezifikoak eskatzen dituela iruditzen baitzaigu.

- Biktima guztiei merezi duten aitortza ematea, ETaren biktima izan, eskuin-muturreko taldeen edo poliziaren indarkeriaren biktima izan. Guztiek dute egia, justizia, errekonozimendua, erreparazioa eta berriro ez gertatzeko bermea izateko eskubidea.

- Memoriaren Institutua sortzea, memoria kolektiboa, askotarikoa eta integratzailea sustatzeko. Baterako hausnarketa sustatzea iraganari buruz, politikaren eta gizartearen eremuetan. Horretarako, hausnarketa hori sustatzeko sortzen diren foroetan indar politiko guztiak inplika daitezela proposatzen dugu. Iraganak ezin du irakurketa bakarra izan, baina kontakizun guztiek oinarri komuna izan dezakete: autokritika sustatzea, erantzukizunak nor bere gain hartzea eta giza eskubideak errespetatzearen alde egitea.

- Memoriarekin lotutako azterketak egin daitezzen bultzatzea eta egiten laguntzea tokiko eremuan, giza eskubideen urraketa guztiak eta “sufirimenduaren mapak” dokumentatuta eta aintzat hartuta, betiere memoria inklusiboa, sufirimendu guztiekiko enpatia eta bizikidetzaren eremuko aurrerabidea ahalbidetzeko. Era berean, alde bateko zein besteko biktimekin birgaitzeko topaketak egitea, betiere hori egin nahi dutenekin.

Eskuin-muturreko indarkeriaren eta funtzionario publikoen biktimei aitortza eta erreparazioa emateko Foru Legea garatzea. Errekonozimendu eta Erreparazio Batzordea sortzea. Eragozpen juridiko eta judizialak gainditzen saiatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea, lege-tresna eta lan-organo egokiak izan ditzagun biktima guztiei egia argitzeko eta errekonozimendua eta erreparazioa emateko helburua betetzearren.

- Errekonozimenduari eta Erreparazioari buruzko Foru Legearen esparruaren barruan edo, hala badagokio, esparru

horretatik kanpo, Nafarroako herritarrek jasandako torturaren eta tratu txarren errealitatea dokumentatzeko eta dimentsionatzeko azterketa bat egin dadin sustatzea eta azterketa hori egitea, eta ahal diren neurri guztiak hartzea biktima horiei aitortza eta erreparazioa emateko.

Presoak eta errefuxiatuak

- Presoen salbuespen-neurriak eta giza eskubideen urraketak amaitu daitezzen aldarrikatzea. Espetxe-politika aldatu eta egun bizi dugun errealitate sozial eta historikoarekin bat datorren tresna bihur dadin bultzatzea, mendeku-nahia alde batera utzi eta bizikidetzaren normalizatua eta demokratikoa lortzea xede izate aldera, zuzenbidearen aplikazio arruntan oinarrituta eta, beraz, oraingo salbuespeneko egitura guztiak alde batera utzita.
- Presoak urruntzeko eta sakabanatzeko politikaren amaiera eskatzeko gure esku dauden neurri eta politika guztiak bultzatzea. Preso guztiak zigorra etxetik gertu betetzeko eskubidea dute, gizarte- eta familia-ingurunearekin harreman normalizatua izan dezaten ahalbidetzeko eta bultzatzeko.
- Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoek tratamendu egokia jasotzeko eskubidea dute, baita espetxetik ateratzeko eskubidea ere, gaixotasuna larriagotu egiten bada espetxean; beraz, eskubide horiek errespetatu daitezken eskatzea eta horretarako ekimenak egitea.
- Espetxe-arloko eskumenen transferentzia aldarrikatzea Nafarroarako.
- Presoak kaleratzeko eta iheslariak itzultzeko prozesua bultzatzea, Gernikako Akordioan erabakitako baldintzetan eta Foro Sozialaren gomendioei jarraikiz.

Bizikidetzaren demokratikoa

1. Eskumenak Foruzaingoari transferitzeko prozesua burutzea, erkidegoz kanpokoak ez diren eskumen guztiak modu eksklusiboan baliatu ahal izateko eta polizia-kidego hori Nafarroaren zerbitzura dagoen polizia integrala bihur dadin. Transferentzia-prozesu hori Foruzaingoaren Plan Zuzentzailearen garapenean txertatuko da, eksklusibotasun-ereduan.
2. Eginkizunak transferitzeko prozesu horren ondorioz, Estatuko segurtasun-indar eta segurtasun-kidegoek atzera egiteko prozesu mailakatua aldarrikatzea eta bultzatzea. Estatuko segurtasun-indar eta segurtasun-kidegoen kopurua eta eginkizuna berriz dimentsionatzea, Nafarroari transferitu ez zaizkion erkidegoz kanpoko eskumenetara egokitze aldera. Prozesu horrekin batera, Nafarroako erakundeek segurtasuneko indar eta kidegoak kontrolatzeko mekanismo errealak ere ezarri behar dira.
3. Polizia-ereduari buruzko eztabaida iraunkorra eta irekia sustatzea, zerbitzuaren kalitatea eta legezko erantzukizun zabalak etengabe aldatzen ari den gizarte baten premietara egokitzeko.
4. EH Bildun, Foruzaingoaren Plan Zuzentzailea eta Nafarroako Poliziei buruzko Legea garatzea nahi dugu, betiere honako printzipio hauen arabera:
 - Polizia demokratikoa, bere jardunen, kudeaketaren eta emaitzen kontuak emanen dizkiona bai Gobernuari, polizia zuzentzen duen aldetik, bai herritarrei, poliziaren zerbitzuen hartzailere aldetik.
 - Polizia integrala eginkizunetan, zerbitzuak emanen dituena, ez-errepresiboa, jarduteko irizpide politizaturik gabe, zibila eta ez-militarizatua.

- Giza eskubide guztiak errespetatuko dituen Polizia, funtzionamendua arautzeko Lege bat eta Poliziaren Jokabide eta Etika Kode Deontologikoa duena, NBEren Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Poliziarako Giza Eskubideen Araudia eta Jardunbidean eta Europako Kontseiluak gomendatzen duen Poliziaren Etikako Europako Kodean oinarrituta.
- Herritarrekiko gertuko Polizia, analisi-ahalmen handiaren bitartez bi inguruneen ezagutza sakonean oinarrituta jardunen duena.
- Herritarrekin, elkarteekin, erakunde publiko eta pribatuekin eta ongizateaz eta segurtasunaz arduratzen diren beste erakunde batzuekin elkarrengaitzen duen Polizia, plan taktikoak eta estrategikoak eginez Foruzaingoa arautzen duen Foru Legearen esparruan.
- Poliziaren jardunetan bere barneko eta Gobernuaren kontrol-mekanismoei ez ezik, Foru Legean biltzen den Kanpoko Batzorde Independente bati ere atxikitzen zaiena.
- Honako hauek etengabe eta modu jarraituan sustatzen duen Polizia: prestakuntza teknikoa eta humanistikoa, profesionaltasuna polizia-eginkizunetan eta kide guztien garapen pertsonala eta lanbide-garapena, betiere aukera eta baldintza berdinetan.
- Polizia elebiduna, Nafarroan ofizialak diren bi hizkuntzetan aritzeko gai dena.
- Hezkuntzaren eremuan, memoria inklusiboa eta bizikidetzaren demokratikoa lantzeko unitate didaktikoak eta programak indartzen jarraitzea eta horien eskaintza zabaltzea.
- Justizia-administrazioaren lege eta mekanismoak garai politiko berrietara eta bizikidetzaren sustapenera egokitu daitezen aldarrikatzea, eta epaiketa politikoak amaitu daitezen eskatzea.

Justizia

- Nafarroako Botere Judiziala eta geure Justizia Administrazio propioa izatea aldarrikatzen dugu, auzibidea antolatzeko eredu eta ezarpen judizial propioa izanik eta, azkenean, jurisdikzioaren ordena guztietan prozesuak agortuko dituen eta Kasazio Errekurtsoak ezagutzeko eskuduna izanen den Justizia Auzitegi Nagusiarekin bukatuko dena.
- Nafarroako Kontseilu Judiziala sortzea proposatzen dugu, Nafarroako justiziaren gobernu kudeatzeko, eskumen propioekin eta Nafarroako Eskola Judiziala mendeko izanen duena, diru-laguntza publiko eta guzti, karrera judizialean sartzeko aukera-berdintasuna bermatze aldera.
- Emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegiak

“La manada” kasuan emandako epaiak, esaterako, agerian utzi du Nafarroako epaileek ez dutela prestakuntzarik generoaren eta berdintasunaren arloan, eta horrek eragin oso larria du beren lanbide-jardunean, askotan, estereotipo eta aurreiritzi matxisten eraginpean jarduten baitute. Egoera larri hori gainditzeko, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza nahitaezkoa eta kalitatezkoa ezartzea prozedura judizialean parte hartzen duten operadore juridiko guztientzat: langileak, epaileak, fiskalak, Nafarroako Auzitegi Medikuntzako Institutua, interpreteak, polizia, abokatuak...

- Indarkeriaren Epaitegietan behar adina langile jartzea; horretarako, aldez aurretik lan-kargak aztertu behar dira eta ezkutuko guardiak arautu eta konpentsatu.
- Prozesu judizial osoan biktimaren eta arau-hausle/erasotzailearen arteko kontaktu bisualik eta ahozkorik egon ez dadin neurriak hartzea.
- Adingabeei arreta egokia bermatzeko gelak prestatzea.
- Biktimei arreta emateko bulegoan dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zerbitzu berezia ezartzea, behar besteko prestakuntza duena.
- Nafarroako Auzitegi Medikuntzako Institutuari indarkeria-prozedurak artatzeko beharrezkoak diren genero-arloko baliabideak eta prestakuntza ematea eta Balorazio Forentse Integraleko Unitatea (BFIU) indartzea, genero-indarkeriari erantzun globala emateko jarduera espezializatuko erakundea den aldetik.
- Barruti judizial bakoitzerako Emakumeei Arreta judiziala emateko Zerbitzuko abokatuen guardiako zerrendak sor daitezen bultzatzea, biktimari ematen zaion kalitatea hobetzeko.
- Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legean xedatzen diren segurtasun-neurriak biktima guztiei bermatzeko neurriak ezartzea.

MEMORIA HISTORIKOA, MEMORIA DEMOKRATIKOA, MEMORIA BIZIA.

(Bakea, Memoria eta Bizikidetzatza demokratikoa blokearen eranskina)

Memoria demokratikoaren politika publikoetan jauzi kualitatiboa egiteko unea iritsi dela uste dugu, Espainiako estatuan izuaren eta errepresioaren bitartez ezarri ziren eta egun oraindik ere bertan dirauten kolpista frankistek defendatzen zituztenekin bat ez zetozen balio, helburu eta gizarte-proiektuak defendatzeagatik erailak izan ziren edo errepresioa, jazarpena eta erbesteratzea jasan behar izan zituzten horien borrokaren zentzu historikoa berreskuratze aldera.

Sarri, memoria historikoaren kontzeptua 1936. urtetik Francisco Franco diktadorea hil zen arteko aldiarekin lotzen da. Gure ustez, ordea, denbora-tarte luzeagoa hartzen du: lehenago hasten da eta geroago amaitu.

Altxamendu faxista egun jakin batean gertatu zen, baina altxamendua ahalbidetu zuten mugimendu eta aurrekariak lehenagokoak dira. Bada lehenagotik zetorren korrante erreakzionario eta errepresibo bat, gertaera ilun eta oso gogorak eragin zituen (Primo de Riveraren diktadura, 1934ko urriko Asturiasko Iraultza, Estat Catalá-ren deklarazioa – gerra-egoera...), eta geroago etorri zen guztia gertatzeko lagungarri izan zena.

Horren antzera, memoria historikoan sartu beharrekoa ez dugu amaitutzat emanen Frankismoaren amaiera formalarekin. Diktaduraren inpaktu ideologikoa, politikoa, legezkoa... eta itzala ez zen 1975. urtean bukatu; indarrean jarraitu zuen.

Memoria historikoak justiziaren eta askatasunaren aldeko borroka eta idealak bildu behar ditu. Hortaz, eduki politikoa du. Izan ere, eduki hori gabe konpromiso humanitario batez ari gara, izen-abizenak dituzten pertsonen sufrimenduak, eta horrek guztiak alde humanitario sakona du, garrantzitsua da, eta ezin dugu alde batera utzi. Baina ezin dugu ahantzi, halaber, biktima gehienak beren konpromiso politikoagatik izan zirela biktima, eta hori horrela ulertzea funtsezkoa da, baldin eta ez badugu nahi gertatutakoa esanahiz eta zentzuz hustu.

Gehiago ere zehatz daiteke: errepresioaren eta esplotazioaren biktima horien konpromiso politikoa eta bultzada handiena askatasuna eta justizia soziala izan zen. Eta konpromiso hori izan zen errepresio biolentoaren xede bihurtu zituena: askatasunaren eta gizarte bidezkoago baten alde borrokatu zutenak, eta haien ingurukoak, errepresioaren uhinak erraz zabaldu baitziren gizarte osoan barrena.

Memoria historikoak ari garelarik, funtsezko hainbat kontzeptu ateratzen dira behin eta berriro: egia, justizia eta erreparazioa. Zeren oinarritzko eskubide sozial eta politikoen urraketaren deskribapena eta kontakizuna egiteaz gain, memoria historikoak aldarrikapena ere bai baitakar: egia eskatzen dugu, justizia eskatzen dugu eta erreparazioa eskatzen dugu, pertsona gisa eta herri gisa erabat garatzea eragotzi ziguten urraketa horiei guztiei dagokienez. Eta, noski, berriro ez errepikatzeko bermea. Izan ere, hori guztia ezagutu eta ezagutarazi nahi badugu, hain justu, etorkizunean berriro horrelakorik ez gertatzeko da.

Espainiako estatua gaur egun zer den ulertu nahi badu inork, eta zergatik den egun den bezalakoa, aurreko hamarkada guztiei erreparatu beharko die, eta arretaz behatu beharko dio diktaduraren eta “trantsizioa” esaten zaion aro historikoaren bilakaerari. Memoria historikoak biltzen dituen alderdi guztien artetik, bada alderdi bat ez dena behar beste argitu eta nabarmendu: genero-harremanei buruzko ikuspegia. Historia egiteko garaian, gertaera eta egoera asko ezkutatu dira, eta bereziki larria da emakumeen egoera nola ezkutatu den. Hasteko, ez da aitortzarik egin eta, hortaz, ezta erreparaziorik ere.

Espainiako estatuak aurka egiten dio Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren arloan aurrera egiteari. Eta gauzak egiteari uko egiteaz gain, beste erakunde batzuen zerbait egiteko eskubidea murriztu ere egiten du, auzitegi espainiarretan errekurtsio paralizatzaileak jarriz; esate baterako, Polizia-kidegoen indarkeriaren biktimei aitortza emateko Foru Legearen kasuan egin zuen moduan. Erabakiak hartzeko ahalmenean, burujabetzan eta autogobernu-ahalmenean aurrera egin ahala, Memoria Historikoaren arloan funtsezkoak diren alderdietan ere aurrera egin ahal izanen dugu.

2019-2023 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

Egiaren arloan:

-Bai diktaduran, bai “trantsizioan” izandako errepresioarekin lotutako artxibo publiko eta pribatuak ireki ahal izateko neurriak hartzea.

-Poliziaren, elizaren, espetxeetako, ospitaleko artxiboetan, artxibo diplomatikoetan, militarretan, judizialetan dauden dokumentu guztiak –errepresioarekin oro har edo bereziki lotura dutenak– desklasifikatu eta katalogatu ahal izateko neurriak hartzea, biktimen justizia eta erreparazioa lortzeko eskubidea bermatze aldera.

-Nafarroako Memoria Historikoaren Institutuan berariazko sekzio bat sortzea kolpe militarrean, diktaduran eta ondoko aldian emakumeen egoera zein zen dokumentatzeko eta lantzeko, mendeen hartutako herritarren zati garrantzitsu baten ezkutuko historiari buruzko egia argitara ateratzeko elementu erabakigarria den aldetik.

-Nafarroako Egiaren batzordea sortzea diktadurako krimenak eta “trantsizioan” egindako krimenak ikertzeko eta, hartara, auzibidea ahalbidetuko duen kontakizun bat eta irizpen lortu ahal izanen da.

Justiziaren arloan:

-1977ko Amnistia Legea indargabetzeko eskatzea, diktadurako eta “trantsizioko” krimenen zigorgabetasuna ahalbidetzen duten atalei dagokienez.

-Nafarroako erakundeek Nazio Batuen 1968ko azaroaren 26ko “Gerrako krimenen eta gizateriaren aurkako krimenen preskribaezintasunari buruzko Konbentzioa” berretsi ahal izateko neurriak hartzea, baita Giza Eskubideen arloko nazioarteko erakundeek onartutako gai berari buruzko gainerako adierazpenak ere.

-Polizia-indarkeriaren edo eskuin-muturreko taldeen biktimei erreparazioa emateko Foru Legea indartzea eta garatzea, beste biktima batzuen pareko errekonozimendua emanez.

-Kereila argentinarrari eta justizia unibertsalaren eta egindako “gizateriaren aurkako” krimenen preskribaezintasunaren printzipioetan oinarrituta jarritako beste kereila batzuen alde egitea.

-Udalek tokiko epaitegietan kereilak aurkez ditzaten bultzatzea herri, eskualde, merindade... bakoitzean, gertakari horiek ikertu eta epaitzera behartzeko.

-Hobi komun guztiak lokalizatu eta judizializatzea, hau da, gorpuzkiak hobi komunetatik ateratzeko nazioarteko protokoloak aplikatu daitezela eta, hartara, epaitegiak dagozkien aktak jasotzera behartuta egonen dira, baita sumario judizialak irekitzera ere.

-Erakundeek desagertutako eta identitatea lapurtutako haurrei buruzko ikerketetan laguntzea, eta gizateriaren aurkako krimentzat hartutako delitu hori auzitara eramaten laguntzea.

Erreparazioaren arloan:

-Diktadurako auzitegiek emandako epai, erresoluzio eta ekintza errepresibo guztiak baliogabetzat jo daitezela ahalbidetzeko neurriak hartzea, garrantzi berezia emanez bereziki baztertutako sektoreei, hala nola emakumeei, LGBT kolektiboek, gutxiengo etnikoek eta abar.

-1936ko kolpe militarra zela eta, edozein motatako arrazoi politiko, erlijioso edo ideologikoengatik espoliatutako ondasunei dagokienez, ondare-erantzuleek kalte-ordain ekonomiko eguneratua ordaintzeari aitortza eta bultzada politikoa ematea.

-Presoek egindako bortxazko lanetatik etekina atera zuten enpresa eta erakundeen erantzukizuna finkatu eta kuantifikatu ahal izateko ekimenak.

-Eroritakoen Monumentua dagoen tokian esku-hartze demokratikoko prozesuarekin jarraitzea eta berau bukatzea, sinbologia totalitariorik izan ez dezan, eta kripta kolpe militarra goraipatzeko erabil dadin eragozte.

GOBERNANTZA-EREDU BERRIA

Aurreko legegintzaldian, gardentasuna, parte-hartzea, ustelkeriaren aurkako borroka eta Nafarroako erakunde eta administrazio publikoen demokratizazioa izan ziren lehentasunezko helburu.

Gai horietan aurrerapauso handiak egin dira lege-aldetik, eta gobernantza publikoaren eredu berria lortzeko bidean aurrera egiteko oinarriak finkatu dira; eredu berri hori gobernu onean, etikan eta integritate publikoan oinarritzen da.

Administrazioa efiziente eta eraginkorragoa izatea bultzatu dugu, herritarren premiak bete ahal izateko; horretarako, kalitate handiagoko zerbitzuen garapena ahalbidetu dugu, kontrol-sistemak txertatu ditugu prozesu, plan eta emaitzei erabateko gardentasuna emanez, herritarren parte-hartzea ahalbidetu dugu eta ustelkeriari eta jardunbide desagokiei aurre egiteko neurriak bultzatu ditugu.

Helburu horiek betetzeko, kontrolatzeko eta gainbegiratzeko organo berria sortu dugu, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa; bulegoaren eginkizunak prebentzioa, ebaluazioa, ikuskapena eta salatzailea babestea dira.

Kontratu Publikoei buruzko Legearen sakoneko berrikuspena egin dugu Europako Zuzentarau berrien arabera: integritatearen arloan eragin dugu; kontratazio publikoan gardentasuna, publikotasuna eta aukera-berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu; eta praktika irregularrak berriro saihesteko mekanismoak sortu ditugu.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa Foru Lege berria eta Parte-hartze demokratikoari buruzko Foru Legea onartu dira. Eta kontrol juridikoko mekanismoak garrantzitsuak diren arren, ezin da ahaztu integritateari, interes-gatazkei edo ustelkeriari dagokienez, kontrol sozial edo politikoei ere eginkizun garrantzitsua bete behar dutela.

Kontrol sozialak Gardentasunaren bitartez eta herritarren parte-hartzearen bitartez, batik bat, bideratzen dira. Gardentasunari esker, herritarrek kargudun eta enplegatu publikoen jardueraren jarraipena egin dezakete eta, hartara, zailagoa da interes-gatazkak eta ustelkeria sortzea, opakutasunean eta isilkeriatan agertzen baitira. Gardentasunik eza, sekretua eta opakutasuna dira ustelkeria sortzeko baldintza nagusietako batzuk.

Baina, aldi berean, gardentasunarekin batera, gizarte zibilak informazioaren erabilera eraginkorra egiteko aukera izan behar du, ustelkeriaren aurkako borrokan. Administrazio publikoaren kontroleko eta kontuak emateko mekanismoak ahalbidetuta.

Arlo horretan aurrerapauso handiak egin diren arren, erabakiak hartzeko garaian eta erabaki horien kontrolean eragina izan den aldaketetan sakondu behar da. Prozeduren administrazio batetik erantzukizunaren administrazio batera aldatu behar dugu, honako faktore hauetan oinarrituko den administrazio batera: desburokratizazioan, langileen kudeaketa hobetzean, herritarren parte-hartzean, baliabide elektroniko eta telematikoak txertatzean eta integritate publikoan, hau da, kontrolaren ideian, legezketasunaz, gardentasunaz eta gobernu onaz haratago.

2019-2023 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

1. Jardunbide Egokien eta ustelkeriaren aurkako bulegoa abiaraztea, ustelkeria eta jardunbide desagokiak desagerrarazteko eta integritate publikoaren printzipioak bultzatu eta indartzeko kontrol- eta gainbegiratze-organismo espezializatu modura.

Bulegoa beharrezkoak diren baliabide materialez eta langilez hornitzea eta aurrekontu-zuzkidura nahikoa bermatzea erabateko independentziaz funtzionatuko duela ziurtatzeko.

2. Etika eta Jokabide Kodea onartzea Foru Lege bidez; kode horretan, Nafarroako Gobernuako kideek, goi-kargudunek, aldi baterako langileek, sektore publikoa osatzen duten erakundeetako zuzendariak eta hautetsiek bete behar dituzten arau etikoak eta jokabide-arauak ezarriko dira, eta horien guztien jarduna honako printzipio hauetan oinarritu behar da: objektibotasunaren, integritatearen, neutraltasunaren, erantzukizunaren, inpartzialtasunaren, eredugarritasunaren, zerbitzu publikoarekiko dedikazioaren, eraginkortasunaren, zintzotasunaren, soiltasunaren, genero-berdintasunarekiko errespetuaren eta kulturaren, hizkuntzaren eta ingurumenaren babes, sustapen eta errespetuaren printzipioetan.
3. Prestakuntza egokia eta jarraitua bermatzea langile publiko guztiei gardentasunaren eta parte-hartzearen arloetan.
4. Kargua utzi ondoko ordainsarien sistema eta bateraezintasunen araubidea berrikustea.
5. Parte-hartze demokratikoari buruzko Foru Legea ezartzea eta garatzea, eta herritarrek parte hartzeko bideetan sakontzeko neurriak ezartzea.
6. Legegintzako Herri Ekimena indartzea, parte-hartzean oinarritutako demokraziaren tresna den aldetik.
7. Parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak bultzatzea.
8. Parlamentuko Erregelamendua berrikus dadin sustatu eta bultzatzea, herritarrek parte hartzeko prozedura berriak ezarri eta arautzearen.
9. Administrazioa demokratizatzeke eta modernizatzeke prozesuan sakontzea, honako irizpide hauen arabera funtziona dezan: profesionaltasuna, gaitasuna, eraginkortasuna, herritarrekiko zabalik egotea eta funtzionarioek eginkizun publikoa betetzen parte hartzea.
10. Lan-mahaia eratzea administrazio publikoetako, sindikatuetako eta gizarte-eragileen ordezkariekin administrazioa arintzeko eta desburokratizatzeke neurriak ezartze aldera.

DEMOKRATIZAZIOA ETA AUTOGOBERNUA

Nafarroako eliteek, zenbait hamarkadatan zehar, Nafarroa bitan banatu zuen eta aldaketarako edozein bide zailduko zuen paradigma sortu zuten, artifizialki. 2015ean Nafarroako gizarteak erabaki zuen paradigma horri bukaera ematen hasteko garaia zela.

Hala ere, elite horiek, eta Nafarroako eskuinen berezko adierazpena diren horiek, Nafarroan gakoa nafar identitatearen eta identitate horri bukaera eman nahi dion nazionalismoaren arteko enfrontamendua dela esaten jarraitzen dute. Erregimenak ez du zalantzarik izan, hainbeste urtetan zehar, Nafarroako aniztasuna ukatzeko, eta bere neurrira egindako identitate baten inguruan diskurtso oso bat sortu du; horrek, ordea, ez du zerikusi handirik Nafarroako historiarekin, idiosinkrasiarekin eta, batez ere, Nafarroan dagoen identitate-sentimenduen aniztasunarekin.

2015ean aldaketa politikoa hasi bazen ere, Nafarroak egiteko dauka bere demokratizazio-prozesua, eta, horregatik, bultzada bat eman nahi diogu. Prozesu horren helburua herritarren bizi-baldintzak hobetzen jarraitzea da, Nafarroakon gizartearen ongizatea bermatzea eta justizia sozialaren eta berdintasunaren bidean aurrera egitea.

Sustatu nahi ditugun demokratizazioa eta prozesu eratzailerik ez dira subiranotasunaren eta independentziaren aldekoen agendako gai eksklusiboak, baizik eta baita beste indar eta sektore politiko batzuek partekatzen dituzten ortzi-muga politikoak ere. Aniztasun horri forma emateko garaia da, beraz, atxikimenduak sortzeko eta aniztasunetik gauzatzeko gai diren proposamenen bitartez, baina indarrak batu eta elkarrekin lan egiteko konpromiso irmoarekin.

Gure proposamena Nafarroako herritar guztientzat egina da. Konplizitate- eta adostasun-prozesu baterako gonbitea da, abiapuntutzat Nafarroako herritarren erabakitzeko gaitasuna eta eskubidea izanen dituen, eta azken helburutzat guztion onura ekarriko duen marko bat eta eredu bat. Betiere herritar horien borondatean oinarrituta egonen den prozesu bat. Eztabaida sozialean oinarritutako ariketa demokratiko iraunkorra izanen den prozesu bat nahi dugu, proiektuen arteko kontrasteen, adostasunen artikulazioan eta erabakiak hartzean oinarrituko dena.

Gure ustez, 2015ean irekitako garai politiko berria, aldaketa politiko eta sozialaren garai berria artikulatzeko gai izan garen indar politikooi egiteko aktibo bat dagokigu, ez, ordea, eksklusiboa, horrelako prozesu baten diseinuan eta gauzatzean.

Erregimeneko indarrek, UPNK eta PSNk, defendatu duten nafartasunaren diskurtso eksklusibistaren aurrean, Nafarroan proiektu politiko guztiak defendatuak eta gauzatuak izateko aukera izan dezaten nahi dugu, herritarrek hala erabakitzen baldin badute.

EH Bilduri dagokionez, prozesu propio honetan, nafar bide honetan, gure idiosinkrasia propioa dela-eta, gure planteamendua izanen litzateke Euskal Herriko beste errealitate administratibo eta soziologikoetako, hain zuzen ere EAEko eta Iparraldeko, beste prozesu sozialekin bat egitea. Beste ikuspegi eta proiektu batzuek zilegitasun berdina izanen dute eta, horien guztien artean, erabakia, jakina, herritarrena izanen da.

Gure ortzi-muga ez da sekula izanen barne aniztasuna desagertzea, ametsezkoa eta oso arriskutsua izanen litzatekeen homogeneizazio baten bila. Euskal Herria behetik gora eraiki nahi dugu eta premisa argi batzuen gainean: anexoari ez, barneko gizarte-hausturari ez, hierarkizazioari ez. Prozesu eratzailerik honetan aniztasuna ez da baztertu beharreko arazo bat, baizik eta ezaugarri berezko bat eta adimenez kudeatu beharreko balio bat.

Izan ere, demokratizazio-prozesuaz eta arkitektura juridiko-instituzionalaz ari garenean, politika demokratikoaren muinari aurre egiten ari gatzazkio: erabakitzeko eskubidea. Baina, zer erabaki, nork erabaki eta zergatik? Galdera horiek irakurketa ugari eragin dituzte eta, funtsean, Erregimenak gidatutako haustura bat eragin dute, Nafarroaren eta Euskal Herriaren burujabetza berreskuratzeko ahalegin oro gelditzeko helburuarekin. Erantzunak, gure kokapen politikotik, argiak dira: prozesu honetan

erabakitzeko subjektua Nafarroako herritar guztiak dira. Nafarroa subjektu politiko propioa da, eta erabaki behar dena bere buruari eman nahi dion bizikidetzaren eredu da, alegia, bere Estatus juridiko eta politikoa, bere erakundearen arkitektura, bere eredu ekonomiko eta soziala eta, baita ere, gainerako euskal lurraldeekiko duen harreman-markoa edo Espainiako Estatuarekin gaur egun duen harremana.

Etorkizunean izanen den eztabaida horretan EH Bilduren jarrera argia eta garbia izanen da. Nafarroak Euskal Herri konfederal eta errepublikano batean subiranotasun osoa izan dezan nahi dugu guk. Subiranotasun osoa interrelazioa eta are interdependentzia ere ezaugarri nabarmentzat dituen mundu batean, baina eredu sozial bidezkoa eraikitzearen tresna guztiak izanen dituen, barneratzailea, aniztasuna aberastasun gisa ulertuko duena, jendearen beharrei eta erabakiei erantzunen diena eta ez merkatua deritzoten horri otzan-otzan men eginen diona. Argi aski esaten dugu, hori da gure helburua, baina Nafarroako herritarren erabakien bitartez gauza dadin nahi dugu, inolako inposaketarik, oztoporik edo presiorik gabe. Erabateko askatasunean.

Beste hainbatetan esan dugun bezala, Foru Hobekuntza eta horren ondorioz sortutako egituratze instituzionala Nafarroako herritarrei egindako iruzurra izan dira. Hala ere, foraltasuna eta hortik datozen erakunde berezituak galdutako subiranotasun baten aztarnak ere badira, kultura politiko propio baten eta euskal herrialde guztien erakundetze-prozesu baten hondarrak. Horrela, bada, 1978ko Espainiako Konstituzioaren babesean jaiotako erregimen konstituzionaletik eratorritako mugetara eta aginduetara lotuta dauden erakunde horiek, aldi berean, herri honek bere etorkizunaren jabe izateko eta arkitektura instituzional propioaz jabetzeko duen grinaren isla dira, eta, guri dagokigunez, hartuko dituzten erabaki guztien defentsa eginen dugu.

Gure lehentasuna izanen da, une oro, Nafarroa subjektu politiko gisa onartua izan dadila. Konstituzioaren 2. artikulua bezalakoak –nazio bakarra besterik ez du aitortzen eta, gainera, aberri bakar eta banaezintzat jotzen du-, errotik aldatu beharrekoak izan daitezela, erabakitzeko eskubidea aitortuz eskaera hori egin dugun komunitate historikoei, eta komunitate ezberdinei, herritarrek hala erabakiz gero, erakunde komunak sortuz beren artean federatzeko aukera emanaz. Nafarroak, bere historia dela-eta, horretarako eskubide osoa dauka. Eskubide hori termino horietan aitortuta, Laugarren Xedapen Gehigarria mantentzea edo bertan behera uztea ez da gure indar politikoa erantzun behar duen lehentasunezko auzia, baina, nolana ere, xedapen hori existitzeak berak argi erakusten du Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeen arteko harremanaren gaia itxi gabeko auzia dela eta, gure ustez, ezin da bertan planteatutako moduan ebatzi, integrazio formulen bidez. Lurralde horien arteko konfederazioa defendatzen dugu eta hori izanen da gure lehentasuna gai honen inguruan konstituzioaren balizko aldaketa baten aurrean.

Nafarroako autogobernuaren defentsa prozesu demokratizatzaile horren beste adierazpen bat da. Bistakoa da azken urteotan, autogobernuaren alorrean, erakunde eta alderdi politiko espainiarretatik inboluzio-prozesu bat gertatu dela. Gorte Nagusietan onetsitako lege askok eskumen autonomikoetan murrizketa nabarmena ekarri dute, eta are eskumen horien zentralizazio-prozesu argia ere zenbaitetan. Bestalde, Nafarroako legeak Konstituzio Auzitegiaren aurrean inpugnatzeko bidea ere beste konstante bat izan da inboluzio-prozesu horretan.

Gainera, une honetan, alderdi politiko batzuek Nafarroaren eta beste foru lurralde batzuen autogobernua kritikatzeko ari dira, sistema fiskal propioa dutelako, edo sistema horrekin bildutakoa estatuari ekarpen bat eginez kudeatzen dutelako; baina, are gehiago, kritikatzeko gainera sistema hori ezabatzea ere proposatzen ari dira.

Kataluniaren aurka Konstituzioaren 155. artikulua ezartzea izan da Espainiako Estatuaren inboluzio demokratikoaren adierazgarriarik larriena. Zenbaitek zuzenean eta iraunkorki ezartzea planteatzen dute, baina beste batzuek modu ezkutuxegoan ezarri nahi dute, formalki legezko mekanismoak ezarri gabe, zeharka, hezkuntza eta osasungintza bezalako alorretan zentralizazioa bultzatuko duten neurrien bidez. Eta horrek guztiak Nafarroaren autogobernuaren egoeran ere eragiten du.

Zoritxarrez, Foru Hobekuntza onetsi zenetik ia 37 urte joan dira, eta oraindik ere 20 gai eta eskumenetik gora daude Nafarroara transferitu gabe. Gure ustez transferentzien prozesua agortu egin behar da eta, aldi berean, gure Komunitatearen estatus

politikoaren gaineko prozesu parte-hartzaile bat ireki, Nafarroako gizarteari hitza emanez, estatus berri horren inguruan bere iritzia eman dezan.

2019-2023 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK

- 1.- Autogobernua sustatu, Nafarroako herritarren borondatearekiko eta bere etorkizunerako komeni zaizkion eredia eta neurriak termino politikoetan, ekonomikoetan eta sozialetan erabakitzeko duen gaitasunarekiko aitortzatik eta errespetutik abiatuta
- 2.- Nafarroa subjektu politiko gisa defendatzea, bere autogobernua eta Nafarroaren nahiz bertako herritarren erabakitzeko eskubidea defendatzea, gizartearen benetako arazoak konpontzea bilatuko duten politika zehatzak diseinatzeko, garatzeko eta ezartzeko tresnarik onenak diren heinean.
- 3.- Nafarroako Gobernuak 2018ko abuztuan egindako “NFEHLOren eskuduntza-markoa eta erreforma”ri buruzko txostenean jasotzen diren transferitu gabeko eskuduntza guztien transferentzia bukatzea. Norabide horretan, lehenetsia emanen zaio trafikoko eskumenen betearazte eskusiboari, espetxeetako osasungintzari eta I+G-B-ari. Bete gabe dauden gainerako eskuduntzen inguruko egutegi bat egingen da, legegintzaldiaren erdia agortu baino lehen transferituak izateko prozesuan egon daitezen, arreta berezia jarriz Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoari, lan-ikuskatzeari, enplegu-politika aktiboari eta espetxe-erakundeei.
- 4.- Aurrekontu-politiketan, politika ekonomikoetan, lan edo hezkuntza arlokoetan eta gizarte-politiketan erabakiak hartzea galarazten diguten oinarritzko legedia eta estatuko araugintza indargabetu daitezzen exijitza: Aurrekontuen Egonkortasunerako Legea; LOMCE, Lan Erreforma, Mordaza legea...
- 5.- Hitzarmen ekonomikoa: hitzarmenaren eduki batzuk berridatzi behar direla defendatzen dugu, honakoak esate baterako: zuzeneko zergetan eremuak berreskuratzea; bost urtez behingo ekarpenak negoziatzeko garaian Estatuaren esku gelditzen den aldebakartasuna; 1,6an zehaztuta dagoen egozpen-indizea ezartzeko erabiltzen diren parametroak; Estatuak Nafarroari egozten dion zor publikoaren tratamendua; edo zenbait zergaren lotura-puntuei buruzko egiteko dagoen eztabaida, ekonomia digitalari dagokion guztia adibidez... Hori guztia, burujabetza fiskal osoaren aitortza alde batera utzi gabe.
- 6.- UPNk eragindako zor publikoaren gaineko eztabaida berriz ireki: zor horren zilegitasuna, zenbatekoaren zehaztapena, finantza-entitateei erreklamatzeko erabil litezkeen baliabideak eta legezko-egintzak; izan ere, zor horrek muga nabarmena ezarri die Nafarroako erakundeen ahalmen ekonomikoari bestelako politika batzuk ezartzeko garaian.
- 7.- Foru Hobekuntza aldatzeko prozesu parte-hartzaile bat irekitzea, eta bideak jartzea herritarrek Nafarroaren estatus politiko eta gainerako euskal lurraldeekiko edo Espainiako estatuarekiko harreman-markoa zein izan behar den erabaki ahal izan dezaten, erreforma hori Nafarroako herritarrek bere berretsita. Estatus berri horrek, herritarrek erabakitzeko duten eskubidea euskarri hartuta, bere marko instituzionala definitu beharko du, baita bere eredu ekonomikoaren eta sozialaren ardatzak ere. Estatus horrek, halaber, bide eman behar dio Espainiako Estatuarekiko berdintasunezko harreman bati.

Nafarroak zutik dirau 500 urtez hemendik kanpo hartzen diren erabakien menpe egon bada ere, 1512ko konkistan, hain desegoki “Ley Paccionada” deitzen den 1841eko legean eta 1982ko Foruaren Hobekuntzan sorburu duten legeek lotuta badago ere. Gure orainaren eta gure geroaren jabe egiteko garaia da. Azken batean, geure bizitzen jabe egiteaz ari gara.